

**EAE-KO FAMILIEI LAGUNTZEKO III.
ERAKUNDEARTEKO PLANAREN EBALUAZIO-
TXOSTENA
2011-2015**



2017ko urtarrila





AURKIBIDEA

1. SARRERA, HELBURUAK ETA METODOLOGIA	3
1.1. Sarrera	3
1.2. Helburuak	4
1.3. Metodologia	8
1.4. Txostenaren egitura	9
2. FAMILIA-POLITIKAK ETA FAMILIEN BEHARRIZANAK EAE-N	10
2.1. Sarrera	10
2.2. Familien bilakaera, ikuspegi demografiko eta sozialetik begiratuta	10
2.2.1. Egungo joera demografikoak eta familietan duten inpaktua	10
2.2.2. Gizarte-aldaketak familia-dinamiketan eta haien konposizioan	13
2.3. Euskadiko familien arazoak eta beharrizanak	25
2.3.1. Sarrera	25
2.3.2. Bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egitea	26
2.3.3. Euskadiko familien arazo nagusiak	31
2.3.4. Familia-politiken balorazioa, ezagutza eta inpaktua	39
2.4. Familia-politiken egitekoa eta garapena EAEn	43
2.4.1. Testuinguru berri bat familia-politiketarako: (err)eboluzio isila	43
2.4.2. Euskadiko familia-politikak Europako testuinguruan	47
3. FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDEARTEKO III. PLANAREN EXEKUZIOA	59
3.1. Sarrera	59
3.2. Egindako neurrien deskribapena eta emaitzen adierazleak, eremu estrategikoen arabera	60
3.2.1. 1. eremu estrategikoa: lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea	60
3.2.2. 2. eremu estrategikoa: gurasotasun positiboa	78
3.2.3. 3. eremu estrategikoa: belaunaldien arteko elkartasuna	84
3.2.4. 4. eremu estrategikoa: laguntza ekonomikoak	86
3.2.5. Planeko ekintzak errazago garatzeko zeharkako ekintzak	95
4. FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDEARTEKO III. PLANAREN EXEKUZIOAREN BALORAZIOA	96
4.1. Sarrera	96
4.2. Aplikazio-prozesuen eta egindako neurriek emandako emaitzen balorazioa eremu estrategikoen arabera	96
4.2.1. 1. eremu estrategikoa: lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea	96
4.2.2. 2. eremu estrategikoa: gurasotasun positiboa	101
4.2.3. 3. eremu estrategikoa: belaunaldien arteko elkartasuna	103
4.2.4. 4. eremu estrategikoa: laguntza ekonomikoak	104
4.3. Gizarte-eragileen ikuspegia III. planaren exekuzioarekin eta inpaktuarekin loturik	109
4.3.1. Sarrera	109
4.3.2. Planaren diagnostiko-, diseinu- eta berrorientatze-prozesua	110
4.3.3. Eremu estrategikoen garrantzia eta Planeko neurrien garapen-maila	116
4.3.4. Familia-politiken eta Familia Planaren lidergoa, egitura, koordinazioa eta segimendua	124
4.3.5. Planaren lorpen nagusiak eta IV. Familia Plana prestatzeko oinarrizko orientabideak	128
5. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK	132
5.1. Ondorio nagusiak	133
5.2. EAEn familia-politikak berriro artikulatzeari begira egindako hainbat gogoeta	143

1. SARRERA, HELBURUAK ETA METODOLOGIA

1.1. Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko III. Erakundearteko Plana 2011n ipini zen abian, eta bost urteko iraupen-aldia zeukan aurreikusita. Haren helburua familiak sustatzeko eta laguntzeko familia-politikak sustatzea zen eskubide subjektiboaren ikuspegitik, euren bizitza-ziklo osoan. Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Plana IX. Legealdian onartu zen, 2011ko abenduaren 27ko Gobernu Kontseiluan, eta aurreko planei jarraipena ematen zien. Edonola ere, bazituen nabarmentzeko moduko hainbat berritasun, hala nola gurasoen kompetentziak hobetzeko prebentzio- eta heziketa-jarduerak, lanean antolatzeko formula berriak sustatuta edota kargurako seme-alabengatik kasu jakin batzuetan ematen diren diru-laguntzak zabaldua.

Osaketari dagokionez, Familiei Laguntzeko III. Planak (2011-2015) guztira 169 ekintza biltzen zituen, 15 helburutan eta lau jarduera-ildo estrategikotan multzokatuta: familiei laguntzeko eta haien autonomia ahalbidetzeko zerbitzu, neurri eta politikak indartzea; familiek eta haien ahalduntzea, gizarte-sentsibilizazioa eta prebentzioa bultzatzeko politika eta gizarte-ekintzek duten gizarte-balioa sustatu eta zabaltzea; familiei laguntzeko eta gizartearen parte-hartzea garatzeko politiken sail arteko eta erakunde arteko koordinazioa; eta familiei laguntzeko politika eta neurrietako paradigma eta jardun-esparru berriak. Onartutako dokumentuan planeko neurrien exekuzioaren segimendua egiteko sistema bat ere jasotzen zen, eta hark ere lau ekintza osagarri antolatzen zituen, planaren segimendua eta ebaluazioa egiteko.

Hala, X. Legealdian, planaren indarraldiaren erdi parean edo, plana erabat birformulatu zen, eta Jaurilaritza berriak ikusi zuen jarduera-eremu batzuk eta ekintza estrategiko batzuk lehenetsi beharra zegoela, plana beharizan eta errealtate berrietara egokitzeko. Prozesu horren emaitza III. Planaren bertsio birformulatua onartzea izan zen 2013ko uztailaren 15eko Familiaren Euskal Kontseiluan. Orotara 33 neurrik osatutako plangintza-dokumentua izan zen. Planean lehentasunak ezartzeko prozesuan hainbat irizpide jarraitu ziren.

- Planeko jarduera-ildoei dagokienez, jatorrizko planean zehaztutako 4 ildo estrategikoen tokian honako gai hauek ipintzea:
 - lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea;
 - gurasotasun positiboa;
 - belaunaldien arteko elkartasuna;
 - Laguntza ekonomikoak
- Familiei Laguntzeko III. Planaren hasierako diseinuan jasotako 169 ekintzetatik, 16 ekintza estrategikoetatik eta 33 neurrietatik¹ lehentasunak ezartzea, Familia Politikarako Eta Gizarte Garapenerako Zuzendaritzari sustatzea zegoen neurriak oinarri hartuta eta/edo Enplegu eta Gizarte Politiketako sailaren ardura zirenak aztertuta.
- Planeko ekintzak errazago garatzeko behar diren zeharkako ekintzak jasotzea.

Prozesu horren emaitza gisa, hasieran Planak lau ildo nagusitan artikulatutako 169 neurri izatetik (helburutan egituratuta), bertsio laburbilduago bat izatera igaro zen, 16 ekintza estrategiko eta 33 neurri, lau eremu handitan bilduta.

Hurrengo bi koadroetan 2011n onartutako planean jasotako neurrietan eta 2013ko birformulazioan lehenetsitako ekintzen arteko korrespondentzia ikusiko dugu.

Hala, 1n ikusten dugun moduan, hasieran aurreikusitako 169 neurrietatik guztira 136 neurri erretiratu ziren aipatutako bigarren bertsio horretan. Bestalde, ikus dezakegu lehenetsitako 33 neurrietatik % 30 (13 neurri) 2. ildo estrategikokoak zirela (familiek eta haien ahalduntzea, gizarte-sentsibilizazioa eta prebentzioa bultzatzeko politika eta gizarte-ekintzek duten gizarte-balioa sustatu eta zabaltzea); % 20 (beste 13 neurri) 1. ildo estrategikokoak (familiei laguntzeko eta haien autonomia ahalbidetzeko zerbitzu, neurri eta politikak indartzea); % 12 (3 neurri) 3. ildo estrategikokoak (familiei laguntzeko eta gizartearen parte-hartzea garatzeko politiken sail arteko eta erakunde arteko koordinazioa); eta, azkenik, % 11 (4 neurri) 4. ildo estrategikokoak (familiei laguntzeko politika eta neurrietako paradigma eta jardun-esparru berriak).

Hala, 2n jasotako informazioak erakusten du, bestalde, 2013an lehenetsitako 33 neurrietatik gehienak (21 neurri, hau da, guztien % 64) kontziliazioaren eremu estrategikoan bildu zirela. Eremu hori, halaber, bost azpiero espezifikotan artikulatuta geratu zen, eta gainerako neurriak, berriz, modu berdintsuan banatu ziren gainerako hiru eremu estrategikoen artean (gurasotasun positiboa, belaunaldien arteko elkartasuna eta laguntza ekonomikoak), baita zeharkako ekintzei dagokienez ere.

¹ Nahiz eta dokumentuan 32 zehazten diren, lehenetsitako neurriak 33 izan ziren. Bi kopuruen arteko aldea, batetik, bi neurri bitan kontatu izana da, eta, bestetik, beste hiru ez zituztela aintzat hartu. Lehendabiziko kasuan, 89 eta 48 neurriak bitan kontatu zituzten; izan ere, bi neurriok ekintza estrategiko batean baino gehiagotan agertzen ziren. Bigarren kasuan, 55, 76 eta 150 neurriak ez zituzten azken kontaktetan sartu (kontziliazioaren eremuan jasoak, zehazki, ekintza esperimentalen barruan).

1. taula. Hasierako neurrien eta neurri lehenetsien kopurua, EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planaren jatorriko diseinuaren arabera

Ildo estrategikoa	Helburuak	2011 hasierako neurriak	Baztertutako neurriak 2013	Lehenetsitako neurriak (2013)
1. Familiei laguntzeko eta haien autonomia ahalbidetzeko zerbitzu, neurri eta politikak indartzea	1.1. Familia-proiektuak garatzeko zerbitzuak eta euskarriak sortzea, malgutzea eta dibertsifikatzea [1-32]	32	30	2 [% 6]
	1.2. Familietako kideak zaintzeak eta beren familia-proiektuak garatzeak sortutako kostu zuzenak edo zeharkakoak konpentsatzea [33-45]	13	12	1 [% 8]
	1.3. Familia-bizitza, bizitza pertsonala eta lan-bizitza erantzunkidetasunez uztartzeko aukerak bultzatzea [46-64]	19	9	10 [% 53]
	Guztira	64	51	13 [% 20]
2. Familien eta haien ahalduntzea, gizarte-sentsibilizazioa eta prebentzioa bultzatzeko politika eta gizarte-ekintzen gizarte-balioa sustatu eta zabaltzea	2.1. Familia-politiketan prebentzioa sustatzea, familien ongizaterako funtsezko elementu den aldetik [65-69]	5	5	0 [% 0]
	2.2. Familiei laguntzeko politiken jakintza eta hedapena areagotzea [70-74]	5	4	1 [% 20]
	2.3. Familiei laguntzeko politikak sortzen dituzten efektuak eta gizarte-ingurunea ikusaraztea eta hedatzea [75]	1	1	0 [% 0]
	2.4. Erantzunkidetasunari, familien barruko harreman arduratsuei eta familia izateko, bizitzeko eta sentitzeko esperientzien dibertsitatearen errespetuari buruzko herritar-kontzientzia bultzatzea [76-97]	22	12	10 [% 45]
	2.5. Familia-proiektuak garatzeko behar diren guraso-gaitasunen garapena sustatzea [98-108]	11	9	2 [% 18]
Guztira	44	31	13 [% 30]	
3. Familiei laguntzeko eta gizartearen parte-hartzea garatzeko politiken sail arteko eta erakunde arteko koordinazioa	3.1. Familia-politiken, lidergo partekatuen eta erantzunkidetasunaren erakunde-antolaketa indartzea [109-120]	12	9	3 [% 25]
	3.2. Familiei laguntzeko politikan ekimen sozialaren parte-hartzea sustatzea [121-123]	3	3	0 [% 0]
	3.3. Integratutako eta partekatutako informazio-sistema baten sorketa eta garapena bultzatzea [124-128]	5	5	0 [% 0]
	3.4. Familiei laguntzeko politiken irizpide ekonomikoaren eta fiskalen harmonizaziorantz hurbiltzea [129-134]	6	6	0 [% 0]
Guztira	26	23	3 [% 12]	
4. Familiei laguntzeko politika eta neurrietako paradigma eta jardun-esparru berriak	4.1. Familien kalteberatasun-faktoreen eta -errealitateen inguruko esparru teoriko-kontzeptualak garatzea [135-142]	8	7	1 [% 13]
	4.2. Familiei laguntzeko politiken eraginak eta ondorioak aztertzea [143-152]	10	8	2 [% 20]
	4.3. Familiei laguntzeko ekimen eta programa esperimentalak bultzatzea [153-169]	17	16	1 [% 6]
Guztira	35	31	4 [% 11]	
Guztira	Guztira	169	136	33 [% 20]

Oharra: helburuen zutabearen, kortxete artean ageri da Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planaren hasierako bertsioan jasotako ekintzen/neurrien zenbaketa.

2. taula. EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Plana 2013an birformatu ostean lehenetsitako eremuak, ekintza estrategikoak eta neurriak

Eremu estrategikoa	Azpieremua	Ekintza estrategikoak	Neurriak
1. Familiako eta laneko bizitza bateragarri egitea	1a. Enpleguarekin lotutako neurriak, sektore pribatua	1. Familiako eta laneko bizitza bateragarri egiteko talde sustatzailearen sorrera, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordeek, Berrikuntza eta Enplegurako Plangintzarako Zuzendaritzak eta Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak osatuta.	[58, 166, 59, 48*, 89**]
		2. Foru-aldundiekin batera aztertzea familiako eta laneko bizitza bateragarri egiteko politika fiskalak ezartzeko aukera.	[51]
		3. EAEko eta Estatuko administrazioarteko organoetan lan egitea, kontziliazioaren alorreko lan-eskubideak hobetzeko eta zabaltzeko, neurri horiek ekar ditzaketen enplegu-sorrerako aukerak planteatuta	[57]
		4. Kontziliazioaren Ataria zabaltzea (Concilia+). Ezagutzea, bertako helburuak eta erabilgarritasunak ezagutaraztea.	[52, 89**]
	1b. Enpleguarekin lotutako neurriak, sektore publikoa	5. Lan-mahai bat eratzea Funtzio Publikoarekin, EAEko Administrazio Publikoan lana eta familia bateragarri egiteko eta lan-malgutasuneko –ordutegiak eta lekuak– neurriak sustatzeko. Telelanaren esperientziaren emaitzak aztertzea eta emaitzak – ikaskuntzak jendarteratzea.	[48*]
		6. Lan-mahai bat eratzea Hezkuntza Sailarekin, eskola-adineko seme-alabak dituzten familietan kontziliazioa erraz dezaketen proposamenak mahaigaineratu eta lantzeko.	[16, 13, 60, 61, 146]
	1c. Kontziliazioa bideratzen duten ekintza esperimentalak	7. Kontziliazioaren arloko esperientzia berritzaileak sustatzen jarraitzea, eta haien jarraipena eta ebaluazioa egitea.	[55, 76, 150]
		8. Erantzunkidetasunez kontziliatzaileen inguruan gizartera sentsibilizatze eta informatzeko programak eta kanpainak.	[86, 79, 88, 87]
	1d. Informatzeko eta jendarteratzeko ekintzak	9. Lana eta familia bateragarri egiteko malgutasun-neurriak sustatzen dituzten enpresen aintzatespenerako moduak ezartzea.	[83]
			Guztira
2. Gurasotasun positiboa	--	10. Gurasotasun positiboaren garapena sustatuko duten programak eta zerbitzuak eskaintzea. (Profesionalentzako ikastaroak, gurasotasun positiboaren webgunea seme-alabak dituzten familien arretarako profesionalentzat, laguntza ekonomikoa intereseko programetarako...)	[101, 141]
		11. Gurasoentzako trebakuntza, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezagut ditzaten (motak, arriskuak eta abar), eten digitala saihesteko.	[103]
		Guztira	3
3. Belaunaldi arteko elkartasuna	--	12. aitona-amonek familiari, oro har, eta bilobei, bereziki, egiten diote ekarpenari balioa ematea. Alderdi hori diskurtso politikoetan txertatzea.	[84, 91, 92]
		Guztira	3
4. Laguntza ekonomikoak	--	13. Jaiotzagatik ematen diren laguntzak sendotzea eta iraunkortzea eta familiako eta laneko bizitza bateragarri egiteko laguntzak	[37, 56]
		14. Jardunbide egokien analisia, hirugarren sektoreko erakundeei diruz lagundutako proiektuen bitartez.	[73]
		Guztira	3
5. Zeharkako ekintzak	--	15. Erakundearteko lan-mahaia: Eusko Jaurlaritzako sailen, foru-aldundien eta udalen arteko mahai tekniko-politikoak.	[113, 119, 120]
		16. Lehenetsitako ekintzen garapenera eta Planari buruzko txostena.	--
		Guztira	3
Guztira		Guztira	33

* Neurri hori 1. eta 5. ekintza estrategikoetan jasota dago. ** Neurri hori 1. eta 4. ekintza estrategikoetan jasota dago.

1.2. Helburuak

Txosten hau Familia Politikarako eta Gizarte Garapenerako Zuzendaritzak eskatuta prestatuta dago, eta EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planaren indarraldia amaitu ondoren (2011-2015), planaren emaitzak ebaluatzea du helburu, planaren bertsio birformatua erreferentzia gisa hartuta. Esandako birformatutze hark 33 neurri jasotzen zituen, eta Familiaren Euskal Kontseiluak onartu zuen 2013ko uztailaren 15ean egindako bileran.

Familiak babesteko Legearen 27. artikulua (abenduaren 12ko 13/2008), Eusko Jaurlaritzari ematen dizkio familiei laguntzeko erakundearteko plana onartzeko, garatzeko eta ebaluatzeko egitekoak. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planak, 2011ko abenduaren 27ko Gobernu Kontseiluan onartuak, bi fasetan artikulatutako ebaluazio-prozedura bat aurreikusten zuen:

- ebaluazioaren lehen fasea Planaren garapenaren erdialdera iristean egingo da, azken emaitzen aurreikuspen bat egitea ahalbidetzen duten eraginkortasuneko adierazle goiztiarrak lortzeko moduan, eta, era berean, Planean proposaturiko neurrien egokitasuna zehazteko bertan eskuratu nahi diren helburuak lortzeko begira, eta oinarria ere izango da bigarren eta behin betiko faserako. Aurreikusten zen, era berean, hasierako fase horrek oinarri-lanak egitea bigarren eta behin betiko faserako.
- Bigarren fasea Planaren indarraldia amaitutakoan burutuko da Planaren beraren balantzea egiteko, jardun-esparru guztietan Planean bilduriko inpaktua kalkulatzeko eta jakintza sortzeko familia-politikaren esparruan jardun berriak formulatze aldera.

Planaren indarraldia amaitu ostean, txosten honen helburua ebaluazioaren bigarren fasea egitea da, Familiei Laguntzeko Erakundearteko IV. Plana prestatu aurretik, eta Familietan eta Haurtzaroen Inbertitzeko Euskal Estrategiarako proposamenen ezarritako helburuekin koordinaturik, aurreko legealdian aurkeztuta bezala.

Ebaluazio hau prestatuta, bestalde, Eusko Legebiltzarrak 2016ko martxoaren 18an onartutako akordioa beteko da; haren bitartez, Legebiltzarrak eskatu zion Jaurlaritzari egin zezala Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planaren (2011-2015) ebaluazioa, eta bidal zezala esandako txostena Legebiltzarrera.

Testuinguru horretan, Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planaren ebaluazioaren helburua planaren emaitza guztiak aztertuko dituen *ex - post* ebaluazio bat egitea da, dimentsio operatiboaren ikuspegitik, baina baita inpaktuei buruzkoa ere, dimentsio estrategikoaren ikuspegia aintzat hartuta. Alde horretatik, proposatutako ebaluazioaren helburu oinarritzkoak bi dira:

- batetik, planean aurreikusitako neurriak zenbateraino bete diren aztertzea, erabilitako bitartekoak eta egindako jarduera guztiak deskribatuta, planean bertan ezarritako betetze-adierazleetatik abiatuta;
- eta, bestetik, planaren inpaktua aztertzea ikuspegi kuantitatibo batetik, familien egoeraren bilakaeraren analisia eginda planak jorratu nahi dituen alderdi nagusiei dagokienez, baina baita alderdi kualitatibotik ere, esparru horretan esku hartzen duten gizarte-eragileek diotenarekin alderatuta.

Oro har, ebaluazio honen bidez hainbat galderaren erantzunak bilatu nahi dira.

- Zer neurritan garatu dira Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planean aurreikusitako jarduerak?
- Zein izan dira garatutako jarduera nagusiak, zertan etzan dira, zenbat familia artatu dituzte eta zer bitarteko bideratu dira?
- Zer aldaketa izan dituzte euskal familiek planaren aplikazio-aldian?
- Zer neurritan izan dute inpaktu positiboa planean aurreikusitako jarduerak euskal familien egoeran, eta, zehazkiago, planaren helburu gisa ezarritako alderdietan?

- Ebaluazioaren emaitzak ikusita, zer ardatz izan beharko lituzke Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Erakundearteko IV. Planak?

1.3. Metodologia

Literatura zientifikoan deskribatzen diren ebaluazio mota desberdinak oinarri hartuta, azterlan hau kanpo-ebaluaziotzat har daiteke, *ex-post* egina, sumatiboa eta emaitzei buruzkoa. Kanpo-ebaluazioa da, kanpoko talde tekniko batek egin baitu; *ex-post*, planaren indarraldia amaitu ostean egina baita, eta atzera begiratzen baitu; sumatiboa, proiektuen errekapitulazioa egiten baitu, azken balorazio orokor bat egiteko xedez, eta emaitzei buruzkoa, produktuen analisia hartzen baitu ardatz (jarduerak, materialak, laguntzak eta abar), baita ekintzen ondorioak ere. Era berean, eta emaitzez gain, azterlan honek Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planaren diseinuari eta ezarpenari buruzko alderdi batzuk ere jorratzen ditu.

Ikuspegi metodologikoari erreparatuta, ebaluazio hau honako hiru elementu hauen arabera dago artikulatuta:

- Planaren exekuzio-mailari dagokion ebaluazio erlatiboa, Familia Politikarako Eta Gizarte Garapenerako Zuzendaritzak bidalitako informaziotik abiatuta, EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Plana² birformulatzeko neurriei dagokienez, X. Legealdia hasi eta 2013an egindako birdefinizio-prozesuaren ostean.
- Ebaluazioak izaera kualitatiboa du planaren diseinuari, ezartzeari eta inpaktuari dagokionez, eta III. planaren indarraldian (2011-2015) familia-politiken esparruan esku hartu zuten eragileei galdetegiak bidali zaizkie (batez ere Familiaren Euskal Kontseiluko kideak); era berean, bi eztabaida-talde egin dira eragile horien presentziarekin.
- Inpaktuaren ebaluazioa, EAEko familien egoeraren bilakabidea kontuan hartuta, planaren indarraldian zehar, eskura ditugun estatistika-iturrietatik abiatuta.

1.4. Txostenaren egitura

Txosten honen edukia bost kapitulutan antolatuta dago; horien bitartez, aipatu berri ditugun hiru elementu metodologikoak garatzen dira.

Lehendabiziko kapituluak, sarrera moduan, Familiei Laguntzeko III. Planaren aurrekariak deskribatzen ditu, eta erabilitako helburuak eta metodologia aurkezten ditu, emaitzen ebaluazioaren esparruan.

Bigarren kapituluak III. planaren ebaluazioaren emaitzei testuingurua ipintzen die, eta, horretarako, ikuspegi orokorra ezartzen du, bai familien egoerari eta beharrezanez buruz, bai familia-politikei buruz, guztia ere EAEko esparruan zentratuta eta azken hamarkadan ikusitako oinarritzko joeren barruan. Kapitulu horretan, zehazki, lehenik eta behin gertatu berri diren aldaketak jorratzen dira: ikuspegi soziodemografikotik behatuta, modu nabarmenean eragiten baitiote familien sorkuntzari eta osarari. Bigarrenik, egungo testuinguru sozioekonomikoan familiekin izaten dituzten beharrezko sozial nagusiak aztertzen dira, eta, azkenik, familiei laguntzeko politiken egitekoa aztertzen da EAEko testuinguruan, bai ikuspegi kuantitatiboz (egindako gastuari buruzko hainbat analisi eginda), bai ikuspegi teorikoz, Europar Batasunaren esparruan familia-politikak sortzeko eta martxan jartzeko aldatzen ari diren oinarritzko elementuak oinarri hartuta.

Hirugarren kapituluak, bestalde, Familiei Laguntzeko III. Planaren exekuzioa deskribatuko du, eta bertan aurreikusitako ekintzei buruzko informaziorik garrantzitsuena jasotzen du, modu sistematikoan ekintza

² Hemen ez ebaluatzeaz ez du esan nahi beste ekintza batzuk egin ez direnik, edota, planean hasiera batean aurreikusita egonik, 2013an egindako leheneste-prozesu hartan erretiratu zirenik. Ebaluazioak, edonola ere, aurreko legealdiaren hasieran edukiaren ardatz gisa ezarritako ekintzak hartzen ditu oinarri gisa.

bakoitzari dagozkion oinarrizko eta beharrezko elementuak eskaintzeko, ondoren ebaluatu ahal izateko. Zehazki, kapitulu horretan aurreikusitako ekintza bakoitzerako edukia eta ezaugarri nagusiak zehaztuko dira, eta informazio horren arabera kasu bakoitzean zer egikaritze-maila duten zehaztuko da.

III. planeko neurrien exekuzio-maila deskribatu ostean, laugarren kapituluak balorazio kualitatiboa egingo du, hain zuzen ere, diseinuari, exekuzioari eta eskuratutako emaitzei dagokiena. Ebaluazio hau jorratzen duen ikuspegi metodologikoa oinarri hartuta, kapitulu bi zatitan banatuko da. Lehendabizikoan, balorazioa egiten duen analisi bat jasotzen da, aurreko kapituluaren emandako informazioetik abiatuta eta txosten hau idatzi duen taldearen ikuspegitik, planaren diseinuari eta exekuzioari erreparatuta; bigarrean, berriz, ebaluazio hau egiteko martxan ipini den parte hartzeko prozesuaren emaitzak deskribatzen dira; bertan, EAEn familia-politiken alorrean inplikaturako hoglei bat pertsonak eta erakundek parte hartu dute.

Azkenik, bosgarren kapituluak ebaluazio honetan jasotako elementu nagusiak biltzen ditu, bai euskal familiak definitzen dituzten beharrei eta arazoei dagokienez, bai EAEk familia-politikatara bideratu duenari buruz eskuratutako informazioari dagokienez, planean aurreikusitako neurriak martxan jartzeari dagokienez, eta jardura horien garapenean inplikaturako eragile nagusiek egiten duten balorazioari dagokienez. Azterlan honen emaitza nagusiak laburbiltzeaz gain, azken kapitulu horrek amaierako azken hausnarketa bat ere egiten du, EAEn etorkizuneko familia-politikak diseinatzeko garaian kontuan hartu beharko liratekeen elementu batzuen inguruan.

2. FAMILIA-POLITIKAK ETA FAMILIEN BEHARRIZANAK EAE-N

2.1. Sarrera

Kapitulu honetan hiru oinarritzko auzi aztertuko ditugu; hirurak ere EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planaren emaitzen ebaluazioari testuingurua ipintzeko baliatuko ditugu txosten honen esparruan. Hala, lehendabiziko jorratuko dugun gaiak gertatu berri diren aldaketak aztertuko ditu ikuspegi soziodemografikotik behatuta, eta aldaketa horiek zer-nola eragin dioten familien sorkuntza eta osaerari. Era berean, egungo testuinguru sozioekonomikoan familietan sortutako gizarte-beharrizanak aztertuko dira –fenomeno berrien larritasunak eraginda eta beste arazo batzuen sorrerarekin batera agertutakoak, alegia–. Amaitzeko, familiei laguntzeko politiken egitekoa aztertuko dugu kapitulu honetako azkeneko atalean, dela ikuspegi teorikotik (neurri handiagoan familiei eta haurtzaroari Europan zuzendutako politiketan eragina dutenak), baita EAEn familiei laguntzeko egun egiten diren politiken ezaugarriak ere, batez ere, Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan egiten direnekin alderatuta.

2.2. Familien bilakaera, ikuspegi demografiko eta sozialetik begiratuta

EAEko familien beharizanei buruz eta haietan eragin handiena duten egungo politiken gainean analisia egin aurretik, familia-egituretan gertatu berri diren aldaketa nagusiak aztertuko ditugu kapitulu honetan, ikuspegi demografikotik aztertu ere. Alde horretatik, ez dugu aldaketa demografiko gertatu berriei buruzko analisi sakona eta xehatua egingo; aitzitik, argi eta garbi identifikatuko ditugu EAEn familiak sortzeko eta osatzeko egungo joera nagusiak.

2.2.1. Egungo joera demografikoak eta familietan duten inpaktua


Azkeneko berrogei urteetan, EAEko populazioa oso gutxi aldatu da termino absolutuetan. Hala, 2015ean, EAEko biztanleria (2.189.257 pertsona) orain 15 urteko populazioa baino % 4 handiagoa zen bakarrik; nahiz eta azken lau hamarkadetan migrazio-fluxuak gertatu diren (alde baterantz zein besterantz); horrek inpaktu sozial nabarmena izan du, gaur egungo populazio-bolumena 1975ekoa baino % 6 handiagoa da bakarrik. Populazioaren nolabaiteko mantentze horrek (zifra absolutuak bakarrik ikusten ditugunean), edonola ere, aldaketa demografiko handiak ditu atzean, aipatutako aldiaren barruan.

Denbora-tarte horretan gertatutako aldaketa demografikoek, batez ere, jaiotze-tasaren eta emankortasunaren beherakada garrantzitsu batekin dute zerikusia (auzi bi horiek xehetasun handiagoz jorratuko dira hurrengo azpiatalean), baita adineko pertsonen gero eta bolumen handiagoarekin ere. Hori guztia, era berean, bizitza-itxaropena luzatzearekin eta hilkortasun-tasa adin aurreratuetan jaitsi izanarekin lotuta dago, baina, horrez gain, jaiotze-tasa handia izan zen garaietan jaiotako belaunaldiak adin helduetara iristen ari direla ere kontuan izan behar da. Jaiotze- eta hilkortasun-tasak murrizteaz gain, ukaezina da migrazio-fluxuek izan duten inpaktua euskal gizartearen egungo osieran, eta, bereziki, atzerritik etorritako migrazioak izan duenak; ondorioz, familien osieran ere nabari da inpaktu hori.

Hala, 2000. urtetik (urte horretan izan zen lehendabiziko aldiz migrazio-saldo negatiboa, 1990eko hamarkada osoan positiboa izan ondoren) EAera batez ere atzerritik eta Estatuko beste toki batzuetatik iritsi diren pertsonak ugaritzen joan dira orain gutxira arte. Nahiz eta 2011n immigrazioaren hazkunde progresiboa moteldu egin den (egoera ekonomikoa hondatu izanaren eraginez, beste hainbat faktorearen artean), fluxu horrek eutsi egiten dio eta urtean 35.000 pertsona inguru iristen dira. Halaber, nabarmendu behar da, prozesu horrekin paraleloan, joan den hamarkadaren amaieratik emigrazioak ugaritu egin direla apurtxo bat; hala, 233.000 pertsona irten dira EAetik 2009az geroztik. Gehienak (% 68) 40 urtetik beherakoak.

Seme-alabak dituzten familien osieran inpaktu zuzena izan duen fenomeno demografiko handienetako bat jaiotze-tasa jaitsi izana da. EAEko azken 40 urteetako jaiotze-tasaren bilakaeraren analisiak adierazten du jaiotzak nabarmen jaitsi direla 1970eko hamarkadaren erdialdetik 1990eko hamarkadaren erdira bitartean. Tasa horiek, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, leheneratzen joan ziren, eta 2008an 1985eko tasara iritsi ziren; edonola ere, 2015ean jaitsi egin dira 2002an erregistratutako mailaraino. Jaiotze-tasaren murrizketa hori Europar Batasunean ere ageri da, horren modu nabarmenean ez den arren. Izan ere, Europar Batasuneko 1980ko eta 1990eko hamarkadetakoa murrizketa askoz ere txikiagoa izan zen, baina 2000ko hamarkadako hazkunde-fasea ere halaxe izan zen.

1. grafikoa. Jaiotze-tasa gordinaren bilakaera (jaiotze kopurua 1.000 biztanleko). CAPV




Iturriak: INE. Jaiotzen estatistika eta Errolda jarraituaren estatistika (1998-2015); EUSTAT. Biztanleen Udal Estatistikatik eskuratutako populazio estimatua (1976-1997); Eurostat. Populazio-datuak eta jaiotze kopurua.

Aldaketa horiei testuinguru egokia ipintzeko, ezinbestekoa da kontuan izatea jaiotze-tasa gordinen eboluzioaren atzean badirela beste hondoko prozesu batzuk, baita koiunturalagoak diren beste batzuk ere. Lehendabizikoen artean, erabakigarrienetako bat (eta herrialde garatu gehienetan ageri dena) emankortasuna murriztu izana da; hau da, emakume baten bizitza erreproduktibo osoan emakume bakoitzak batez beste izandako seme-alaba kopurua.

Adierazle horrek azkeneko hamarkadetan izan duen bilakaera aztertuta, ikus dezakegu EAEn, bost urtean soilik, 1975 eta 1980 arteko aldia hartzen dutenetan emankortasuna 2,67 seme-alaba izatetik 1,81 izatera

igaro zela emakumeko; hau da, 0,85 murriztu zen seme-alaben kopurua emakumeko (% 32). Osteko zifrak ikusita, belaunaldi-aldaketa behin betiko bertan geratu zen. Jaitsieraren erritmoa apalagoa izan zen hurrengo bosturtekoetan, nahiz eta gradual jarraitu 1995era arte. Azkeneko urteetan, ordea, 1995ean 0,89 seme-alabako minimo historikora iritsi ostean, nolabait ere goranzko bidea hartu zuen kopuru horrek poliki-poliki, eta emakumeko seme-alaba batetik gora kokatu zen esandako indizea. Emankortasunaren maila lehengoratzeko horrek (ikusteko dago oraindik hurrengo bosturtekoan bide beretik jarraituko duen) nagusiki arrazoi hauek izan ditu: amatasuna berreskuratu dute 30 urtetik gorako emakumeetan atzeratuta geratu zen kohorteetan, eta 25 urtetik beherako emakumeetan emankortasuna apur bat handitu da (batez ere emankortasun-patroi gazteagoak dituzten emakume atzerritarrak EAera iritsi izanagatik).

2. grafikoa. Emankortasun-indize sintetikoaren eboluzioa. CAPV



Iturria: EUSTAT. Adierazle demografikoak.

Hori horrela izanagatik ere eta aztertutako datuek emankortasun-patroia berreskuratu dela erakutsi arren (berreskuratze horrek, bidenabar, Eustatek 2026rako egindako proiektzio demografikoak baieztatuko lituzke; hau da, emankortasun-indize sintetikoa 1,54 seme-alaba izango litzatekeela emakumeko), jaiotze-tasa oso ziurrenik txikitzen joango da etorkizunean, aurreikuspen horiek eurek erakusten duten moduan. Eustatek, horrekin loturik, jaiotze kopurua 2016 eta 2025 artean % 22 murriztuko dela aurreikusten du.

Hala, emankortasuna belaunaldi-aldaketaren atalasez azpitik erortzeaz gain (emakumeko batez beste 2,1 seme-alaba izatea eskatuko luke) aldaketa iraupen luzeko ageri da denboran, eta, populazioaren adinaren araberrako egiturari erreparatuta, jaiotzeetan eragin garbia izango duela esan genezake. Hain zuzen ere, populazioa poliki-poliki zahartzen joanda, potentzialki seme-alabak izan ditzaketen pertsonen bolumena (kasu honetan, emakumeena) nabarmen murriztu da. Emakumeak emankor bide diren adin-tartea kontuan hartzen badugu, baiezta dezakegu 1981 eta 2011 artean, populazioaren erroldak ematen dituen datuak hartuta, 15 eta 49 urte bitarteko emakumeen kopurua % 8 murriztu dela azken hogeai urteotan.

Aipatu ditugun faktore estrukturalak eta irismen handikoez gain (emankortasuna murriztea eta seme-alabak izan ditzaketen emakumeen adin-kohorteak murriztea), badira koiunturalagoak diren beste faktore batzuk ere jaiotzetan eragina dutenak, hala nola seme-alaben atzerapena edo aurrerapena gurasoen bizitzazikloetan, edota immigrazioaren ondorioz emankortasun-patroi desberdinak agertu izana. Determinante estrukturalak ez bezala, koiunturalak ziklo ekonomikoekin lotura izan ohi dute, eta migrazioen sarrerarirteeren fluxuak aldarazten dituzte eta emankortasun orokorraren egutegian atzeratzeak edo aurreratzeak eragiten; edonola ere, ez dute zertan erreproduktzio-zikloaren amaieran batez besteko intentsitatea aldatu. Faktore koiuntural horiek, hala, izan litezke arrazoi Europako hegoaldean jaiotze-tasaren murrizketa hori nabarmenagoa izateko, herrialde horiek bizi baitute krisi ekonomiko latzena. Alde horretatik, hainbat egilek jaiotze-tasaren murrizketa eta krisi ekonomikoa lotzen dituzte, baita langabezia-tasak handitu izana ere (Goldstein *et al.* 2013), edo, ikuspegi zabalago batetik erreparatuta, lan-harremanak eta lan-merkatua arautzen dituzten baldintzekin (Esping-Andersen *et al.* 2013), ulerturik langabezia-tasa iraunkorrenak eta

laneko segurtasunik ez orokorra liratekeela fenomeno horiek gehien astindutako herrialdeetan gertatzen den jaiotze-tasa baxuaren arrazoiaren artean.

Nolanahi ere den, eta jaiotzearen determinatzaile ekonomikoak gorabehera, beste faktore batzuk ere kontuan hartu beharra dago, soziologikoagoak, ulertu ahal izateko zer faktore dauden erakunde bereziki dinamiko baten sorreran eta osaeran eragiten duten aldaketa nagusien atzean zentzu zabalago batean, EAEko esparruan.

2.2.2. Gizarte-aldaketak familia-dinamiketan eta haien konposizioan


Atal honetan, familiek berriki bizi izan dituzten aldaketarik garrantzitsuenetako batzuk azalduko dira labur-labur, ikuspegi dinamiko batetik. Analisi horretan, alde batetik, familiak osatzeko eta hausteko dinamikei eragiten dieten eraldaketa nagusiak hartuko ditugu kontuan, eta, bestetik, familia-egituren aniztasun hazkorrean jasota geratu diren aldaketak.

2.2.2.1. Familiaren osaera atzeratzea

Familia-dinamiketan izandako aldaketekin loturik, nabarmendu behar den alderik garrantzitsuenetako bat familia osatzeko adina atzeratu izana da, haien egoerari eta konfigurazioari dagokionez. Azken hamarkadetan familia osatzeko adinean nabarmentzen ari den atzeratzeak hainbat adierazpen ditu, hala nola ezkontzak murriztu izana, ezkontzak adinez aurrerago gertatzea eta ezkontzatik kanpoko egoerako bizikidetzak-unitateak gero eta gehiago izatea.

EAEen bizi diren pertsonen ezkontza kopuruan berriki gertatutako bilakaerari buruz eskuratutako datuak aztertuz gero, ikusiko dugu ezkontzak nabarmen murriztu direla. Hala, ikus dezakegu 1975 eta 2015 artean, ezkontza kopurua berrogei urte horietan 17.336 izatetik 7.245 izatera igaro dela; hau da, % 42ko murrizketa izan duela. Ezkontza-tasari erreparatuta, berriz, 1.000 biztanleko 8,4 izatetik 3,3 izatera igaro da. Jaitsierarik nabarmenena seriearen lehen hamarkadan gertatu baldin bazen ere, ezkontzen murrizketa progresiboa izan da, eta, hala, 2015eko ezkontzen kopurua eta ezkontza-tasa azken berrogei urteetako apalenak izan dira. Ezkontzen murrizketa horrekin paraleloan, ezkontzeko adinean ere atzeratze nabarmena gertatu da. Ezkongabeen arteko ezkontzak kontuan hartzen baditugu, 1975 eta 2015 artean ezkontzen batez besteko adina, emakumeen kasuan, 24tik 34ra igaro zen, eta gizonezkoena, berriz, 26tik 36ra.

3. grafikoa. EAEko ezkontza kopuruaren bilakaera. 1975-2015



Iturria: INE. Ezkontzen estatistika.

Ezkontzen murrizketarekin eta ezkongabeak ezkontzeko adina handitzearekin batera, bigarren ezkontza gisa sortutako familia-elkartzeak ere nabarmendu behar dira joera azpimarragarri moduan. Bilakaeraren datuek erakusten dutenaren arabera, 1975ean ezkontzen ia % 100 ezkongabeen artean izaten ziren; gaur egun, ordea, proportzio hori modu esanguratsuan murriztu da. 2012rako datu eskuragarriek erakusten dutenaren arabera, gaur egun ezkontzen diren pertsonen % 90 inguru dira ezkongabeak.

Aipatu ditugun datuak albo batera utzita, ezkontzen bilakaeran ikusitako aldaketa deigarrietako bat elkarrekin bizitzeko errealitateen hazkunde paraleloa da. Hala erakusten dute azken bi populazio-erroldeko datuek. Hurrengo taulan ikus dezakegun bezala, ezkontutako bikoteek osatutako familia-nukleoak % 94 izatetik % 87 izatera igaro ziren. Denbora-tarte horretan bertan, izatezko bikoteak (hau da, ezkondu gabe daudenak) 2,3 aldiz gehiago izan ziren; ezkonduak, berriz, % 1 baino ez ziren ugartu. Elkarrekin bizitzearen inpaktua, edonola ere, handiagoa da seme-alabarik ez daukaten bikoteen kasuan, eta elkarrekin bizitzeak azken urteetan izan duen hazkunde handia seme-alabak dituzten bikoteak ugartu izanarekin lotzen da.

3. taula. Bikoteek osatutako familia-nukleoak, ezkontze-harreman motaren arabera. EAE 2001-2011


	2001		2011	
	Kop.	%	Kop.	%
Izatezko bikotea	460.186	% 94	465.645	% 87
Izatezko bikotea (biak ezkongabeak)	20.224	% 4	47.600	% 9
Bestelako izatezko bikoteak	10.935	% 2	24.840	% 5
Guztira	491.345	% 100	538.085	% 100

Iturria: INE. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren errolak.

Aipatu dugun moduan, ezkontza-tasen beherakadak elkarrekin bizitzearen gorakada izan du lagun, eta, nolabait ere, ezkontzen beheranzko joera konpentsatzeko balio izan du horrek. Edonola ere, datuok behar bezala kontuan izateko, ezinbestekoa da adieraztea elkarrekin bizitzea ez dela beti ezkontzaren ordeko; izan ere, asko eta askotan ezkontzaren lehen fase izaten da. Hori hala izanagatik ere, jaiotza-tasari dagokionez, behintzat, elkarrekin bizitzeko errealitateek ezkontzatik kanpo izandako jaiotzetan egiteko gero eta handiagoa izan dute.

Alde horretatik, eskura ditugun bilakaera-datuak erakusten dute ezkontzatik kanpoko amatasuna gero eta maizago agertzen den bidea dela familiak osatzeko garaian. Hurrengo grafikoan ikus dezakegunez, apenas zuten inpakturik 1975ean (urte hartan erregistratutako guztiaren % 1,4 eskas). 1995ean, berriz, % 10era iritsi zen, eta 2015ean ia % 42ra, ehuneko hori poliki-poliki eta etengabe hazten jarraitu ondoren. Azkeneko bost urteetan bakarrik, 2011 eta 2015 artean, ehuneko hori % 21 handitu da.

4. grafikoa. Ama ezkongabeen jaiotza-proportzioaren bilakaera EAEn. 1975-2015



Iturriak: INE. Jaiotzei buruzko Estatistika.

Nahiz eta ezkontzatik kanpoko jaiotza gehienak etxe berean bizi diren izatezko bikoteetan gertatzen diren, eta, horrenbestez, ezkontutako bikoteen testuinguru analogoan, nabarmendu behar da, era berean, gero eta handiagoa dela beste ehuneko bat ere: bikoterik ez duten edo harekin bizi ez diren amek izandako haurrak, eta, horrenbestez, guraso bakarreko familia-nukleoa osatzen dutenak. Estatu osorako jaiotzei buruzko estatistiketatik ateratako datuen arabera, errealitate horiek jaiotza guztien % 16 inguru dira.

Edozer dela ere euren agerpena, egia esan ezin da familia osatzeko atzerapenez hitz egin albo batera utzita gazteek emantzipatzeko eta bizitza-proiektu autonomoak sortzeko dituzten zailtasun ikaragarriak. Alde horretatik, Eusko Jaurjaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 2011n egindako txostenak ohartarazten zuen euskal populazioa adinez gero eta beranduago emantzipatzen dela. Hala, 1970eko hamarkadan Euskadiko gazteek 23 urte bete aurretik uzten zuten gurasoen etxea batez beste; 2011n, berriz, batez besteko adin hori 29,9 urtera iritsi zen. Halaber, 18 eta 34 urte arteko gazteen % 43 bakarrik bizi zen gurasoena ez zen beste etxebizitza batean. Txosten horretako emaitzak ikusita, argi dago emantzipatzeko zailtasun horien funtsezko zati batek zerikusia duela bizitza independente bat izan dezakeen biztanleriaren zati bat eraginpean hartzen duten pobrezia eta prekaritateko arazoekin.

Alde horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoko pobrezia eta gizarte-ezberdintasunei buruzko 2012ko Inkestak adierazten zuen urte hartan ia 112.000 pertsonak nahi zutela etxe-unitate berria sortu, eta ezin zutela egin arazo ekonomikoengatik. Hurrengo urtean horretarako behar beste baliabide izanez gero emantzipatzeko nahia adierazi duen kolektiboa erreferentzia gisa hartuta, pertsona horiek identifikatzen zituen alderdi soziodemografiko nagusia gaztetasuna zen. Alde horretatik, emantzipatzeko arazoak dituzten pertsonen % 81,4k 35 urte baino gutxiago zeuzkan. Nabarmenezko moduko bigarren ezaugarria pertsona horiek ikasketa-maila apala zen; izan ere, pertsona horietatik % 69,3k ez zeukan ikasketa kalifikaturik.


Bestalde, emantzipatzeko arazoan jatorrian dauden arrazoiak aztertuz gero, hurrengo urtean etxeko unitate independente berri bat osatzeko asmoa duten 76.727 pertsonen artean egiaztatu da enplegu egoki bat izateari edo lanaren ezeگونkortasunari loturiko arazoak izan zirela emantzipatzeko oztopo nagusiak. 2012ko azterlanean, adierazitako laneko arazo mota hori aipatu zuten aztertutako pertsonen % 51,9k, oinarrizko premiak estaltzeko zailtasunaz hitz egin zuten % 27aren gaineratik, eta etxebizitzarik ez izatea adierazi zuten % 8,1aren gaineratik. Horrek aldaketa nabarmena esan nahi du 2008arekin alderatuta; urte hartan, % 19,6k baino ez zituen erreferentziarako laneko arazoak aipatu; % 41,5ek oinarrizko premiak estaltzeko zailtasunaz hitz egin zuten, eta % 26,6k etxebizitzarik ez izateaz. Gainera, etxebizitzak bizitza independentea iristeko arazo moduan zuten pisuak behera egin du 2008 eta 2012 bitartean, baina azaldutako datuek erakusten dutena baino garrantzi handiagoa izaten jarraitzen du arazo horrek. Aztertutako pertsonen % 87,1ek adierazi zuten ez zutela etxebizitza propiorik, ezta hori lortzeko behar beste aurrezki ere; halaber, % 57,6k adierazi zuten ez zeukala batere aurrezkiarik.

Adierazitako arrazoiekin batera, inkesta horretako datuek kolektibo horren pobrezia prebalentzia estalia ipintzen zuten agerian, eta bizitza independentea errealtate bihurtzeak ongizaterik eza eta txirotasun-arriskuaren intzidentzia handia ekarriko lukeela. Hortaz, egun dituzten diru-sarrerekin, hurrengo urtean emantzipatzeko asmoa duten pertsonen % 50,6 mantenu-pobrezia arriskuan egongo liriteke, egun bizi diren etxeko unitatetik ateraz gero. Halaber, % 69,1 gure gizartean espero diren ongizate maila minimoak izateko modutik behera geratuko litzateke. Maila horiek biztanleria orokorraren adierazleak baino askoz handiagoak dira (% 7,3 eta % 19,9, hurrenez hurren).

2.2.2.2. Familiak seme-alaben bitartez zabaltzea

Kapitulu honetako lehen azpiatalean azaldu dugun moduan, 2000ko lehen hamarkadaren hasieran jaiotzetarako nolabaiteko errekupeazioa izan ostean eta nahiz eta emankortasun-indize sintetikoan ere hazkunde apal bat gertatu den, EAEko hazkundearen kopuruak behera egin du azkeneko urteetan. Ikuspegi demografikotik murrizketa hori azaltzeko arrazoiak artean leudeke, batetik, amatasuna atzeratu izana (berriki eskuratutako zifrak hurrengo grafikoan ikus litezke), eta, bestetik, emakumeek seme-alaba kopuru apalagoa edukitzea, lehen aipatu dugun moduan.

5. grafikoa. Amatasunaren batez besteko adinaren bilakaera. CAPV



Iturria: EUSTAT. Adierazle demografikoak.

Nolanahi ere den, ezinbestekoa da nabarmentzea emankortasunaren indize sintetikoak bi faktoreen arabera ulertu behar dela: alde batetik, emakumeek gaur egun aurreko belaunaldietan baino seme-alaba gutxiago izaten dituztela, eta, bestetik, oso litekeena dela gero eta pertsona proportzio handiago batek erabakitzea ez duela seme-alabarik izan nahi. Alde horretatik, zera hartu behar dugu kontuan, nahiz eta hainbat iturritatik eskura dezakegun informazioak adierazten duen benetan izandako seme-alaben kopurua nahi izandakoa baino apalagoa izan³, gero eta gehiago, seme-alabarik ez izatea gizartean aintzatespen handiagoko aukera ari dela bihurtzen. Euskal Soziometroko *Familia Euskal Autonomia Erkidegoan* serie historikoak emandako datuak aztertzen baditugu, argi eta garbi ikusiko dugu bai emakumeen kasuan, bai gizonezkoen, seme-alabak izateko beharrezana modu bizkor samarrean ari dela murrizten.

4. taula. Nork bere burua osatzeko amatasun eta aitatasunaren beharrezko bilakaera*. EAE 2001-2014

	2001	2012	2014
Emakumeak			
Seme-alabak izatea beharrezkoa da	38	29	13
Seme-alabak izatea ez da beharrezkoa	55	62	79
ED/EDE	7	9	7
Gizonak			
Seme-alabak izatea beharrezkoa da	34	24	12
Seme-alabak izatea ez da beharrezkoa	59	62	79
ED/EDE	6	13	8

*Taula honetan, EAEko 18 urtetik gorako populazioak honako galdera honi emandako erantzunak jasotzen dira: «Uste duzu emakume batek seme-alabak izan behar dituela bere burua osatzeko, edota uste duzu ez dela beharrezkoa? Eta gizon batek?»

Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. *Familia Euskal Autonomia Erkidegoan* seriea

Gaur egun familia osatzeko prozesu bati ekin behar dioten edo ekin dioten pertsonen belaunaldiak lortuko duen azken seme-alaba kopurua jakiteko, Eustatek egiten duen Inkesta Demografikoaren etorkizuneko edizioei itxaron beharko zaie; edonola ere, Euskal Soziometrotik eskuratutako iritzi-datuak erakusten dutenez, hamarkada bat pasatxo barru nabarmen handituko da argi eta garbi seme-alabarik nahi ez duten gazteen proportzioa.

5. taula. Etorkizuneko amatasun eta aitatasunaren eboluzioa* 18 eta 29 urte arteko populazioaren aldetik. EAE 2001-2014

	2001	2014
Bai, zalantzarik gabe	57	64
Ziurrenik beste seme-alaba bat izango dut	27	6
Ez nago oso ziur beste seme-alabarik izan nahi ote dudan	9	5
Ez, zalantzarik gabe	5	21
ED/EDE	3	4

*Taula honetan, EAEko 18 eta 29 urte bitarteko populazioak honako galdera honi emandako erantzunak jasotzen dira: «Seme-alabarik izan ala ez, pentsatu duzu beste seme-alabaren bat izatea etorkizunean?»

Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. *Familia Euskal Autonomia Erkidegoan* seriea

Seme-alabarik ez izatea euren borondatez planteatzen duten pertsona kopurua handitzearekin batera, azken urteetan (eta, neurri handi batean, amatasunaren adina atzeratu izanaren eraginez) nahi gabeko antzutasuna ugartu egin da; hau da, arrazoi biologikoak direla eta ugaltzeko arazoak dituzten bikoteak eta/edo emakumeak ugartu izana. Hala, 2015eko Euskadiko Familien eta Etxeen Inkestako datuak erakusten dutenaren arabera, EAEn arazo horiek gaur egun etxeen % 0,1 eragingo liokete; hau da, ia 3.000 pertsonari. Horietatik gehienak (% 59), seme-alabarik ez daukaten familia-nukleoak izango lirakeke.

³ Hala, 62. Euskal Soziometroak erakusten duenez (familiar buruzkoa, 2016an egina), 18 urtetik gorako pertsonen zentzuan seme-alaba izatea gustatuko litzaiekeen galdetu eta askatasun osoz aukeratu ahal izango balute, emaitza zera izan zen: % 45ek adierazi zuen bi seme-alaba izango lituzketela, eta % 32k hiru edo gehiago. Seme-alaba bakarra % 11k adierazi zuen, eta % 5ek esan zuen bat ere ezetz. Datuok tentu handiz interpretatu behar badira ere, adieraziko lukete tarte handia dagoela nahi dugun emankortasunaren eta benetako lortutako emankortasunaren artean, EAEko emankortasunaren indize sintetikoak erakusten duenaren arabera.

2.2.2.3. Ezkontza-hausturak

Aurretik aipatu ditugun faktoreez gain, familietan bada dinamismo handiagoa txertatu duen faktore bat ere: ezkontzak hautsi izana. Kasu honetan, dena den, ezkontzak hautsi izanaren intzidentziaren bilakaera-datuek⁴ erakusten dutenez, ezkontzen kasuan ikusi dugunaren bestelako joera ageri da, eta azkeneko hamarkadetan beherakada jarraitua izan dute. Hala, 1998 eta 2000 artean 4.100 ezkontza-haustura izan ziren; aurreko hamarkadaren lehen erdialdean, ordea, dibortzioen, banantzeen eta deuseztasunen kopuruak hazkunde oso deigarria izan du, eta 2006an 5.742 haustura izan ziren. Urte horretan izan zen, hain justu ere, serie osoko kopururik handiena. Urte horretan, dibortzioen, banantzeen eta deuseztasunen kopurua 2006an ezkontutako bikoteen % 62 izan zen. Edonola ere, urte horretatik aurrera ezkontza-eteteek joera aldatu dute eta murriztu egin dira; hala, 2013, 2014 eta 2015ean erregistratutako datuek serie osoko daturik apalenak ageri dituzte.

6. taula. Urtez urte EAEen etendako ezkontzen kopuruak izandako bilakaera. 1998-2015

	Ezkontza-hausturak				Ezkontza-hausturen gainera %	Haustura-tasa 1.000 biztanleko
	Dibortzioak	Banantzeak	Baliogabetzeak	Guztira		
1998	1.593	2.518	10	4.121	% 41	1,96
1999	1.605	2.518	3	4.126	% 42	1,96
2000	1.623	2.454	6	4.083	% 39	1,95
2001	1.649	2.758	4	4.411	% 45	2,10
2002	1.844	3.038	8	4.890	% 49	2,32
2003	1.944	3.085	4	5.033	% 50	2,38
2004	2.085	3.253	8	5.346	% 53	2,53
2005	3.161	2.529	7	5.697	% 59	2,68
2006	5.110	626	6	5.742	% 62	2,69
2007	4.952	377	4	5.333	% 59	2,49
2008	4.222	305	4	4.531	% 50	2,10
2009	3.894	260	2	4.156	% 49	1,91
2010	3.962	257	5	4.224	% 50	1,94
2011	4.113	233	2	4.348	% 54	1,99
2012	3.851	242	7	4.100	% 53	1,87
2013	3.572	183	3	3.757	% 52	1,71
2014	3.881	195	5	4.081	% 56	1,86
2015	3.870	157	4	4.032	% 56	1,84

Iturriak: INE. Deuseztasunen, banantzeen eta dibortzioen estatistikak, EUSTAT. EAEko ezkontzen estatistika, EIN. Errolda Jarraituaren Estatistika.

Dena dela, aurretik aipatu ditugun datuetatik ezin daiteke ondorioztatu ezkontzen gatazka-maila eta haustura murriztu direnik. Alde horretatik, murrizketa hori azaltzeko arrazoiak bat egungo krisialdi ekonomiko izan da, eta askotan familia-haustura batek izaten dituen gastuei aurre egiteko ezintasuna. Era berean, ezin dezakegu aldo batera utzi beste kontu bat ere: aipatu dugun moduan, izateko bikoteen kopurua gorantz doala ikusirik, ezkontzen hausturari buruzko datuek errealitatearen irudi oso partziala eskaintzen dute.

Izaera formalagoa eta inpaktu sozial apalagoa duten beste joera batzuekin batera (hala nola 2006tik aurrera dibortzioak banantzeak baino gehiago izatea, 2005ean izandako lege-aldaketarengatik, zeinaren arabera dibortzioa eskatzeko epeak murriztu baitziren eta alde aurretik bananduta egoteko beharra desagertu), ikusten da azken urteetan bi aldeek adostutako disoluzio-prozesuak direla kasurik gehienak, eta heren bat pasatxo baino ez direla auzibidez eskatutako banantze- edo dibortzio-eskaerak.

7. taula. Aurkeztutako banantze- eta dibortzio-eskaeren bilakaera motaren arabera. EAE 2007-2015

	Bi kideen artean adostuta egindako eskaera		Auzibidezko eskaera		Guztira	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
2007	3.551	% 66	1.845	% 34	5.396	% 100

⁴ Datuek sexu ezberdineko bikoteen arteko ezkontzen dibortzioak, banantzeak eta deuseztasunak biltzen dituzte.

2008	3.230	% 66	1.697	% 34	4.927	% 100
2009	3.062	% 65	1.660	% 35	4.722	% 100
2010	3.036	% 64	1.684	% 36	4.720	% 100
2011	3.057	% 65	1.628	% 35	4.685	% 100
2012	2.969	% 64	1.680	% 36	4.649	% 100
2013	2.967	% 63	1.756	% 37	4.723	% 100
2014	3.243	% 64	1.830	% 36	5.073	% 100
2015	3.187	% 64	1.756	% 36	4.943	% 100

Iturria: CGPJ. Ezkontza-deuseztasunen, banantzeen eta dibortzioen eskaerak.

Seme-alabak dituzten ezkontzen hausturei erreparatuz gero, azkenik, eskura dauzkagun estatistiketatik hainbat joera garbi atera ahal izango ditugu. Hartara, ikusten dugunez, nahiz eta seme-alaben ardura kasurik gehienetan amaren gain geratzen den, gero eta ohikoagoa da zaintza partekatua izatea bi gurasoek, banantzeen edota dibortzioen ondoren. Esate baterako, 2015ean, seme-alabak dituzten sexu desberdineko ezkontzen hausturen kasuan, hamarretik ia zazpitan amak hartu zuen zainketa bere gain; kasuen % 26tan bi gurasoen artean eta % 5ean bakarrik aitak. Datu horiek 2010ean eskuratutako datuekin alde nabariak dituzte (sei urte lehenago baino ez); izan ere, zaintza partekatua disoluzioen % 8an baino ez zen eskuratu.

8. taula. 18 urtez azpiko seme-alabak dituzten sexu ezberdineko pertsonen arteko ezkontzen disoluzioen bilakaera, zaintza noren esku geratu den aintzat hartuta. EAE 2009-2015

	Ama		Aita		Biak		Beste batzuk	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
2010	1.839	% 84	148	% 7	182	% 8	24	% 1
2011	1.814	% 81	152	% 7	263	% 12	18	% 1
2012	1.558	% 75	209	% 10	301	% 15	7	% 0
2013	1.522	% 77	98	% 5	343	% 17	6	% 0
2014	1.547	% 70	119	% 5	525	% 24	14	% 1
2015	1.486	% 69	99	% 5	555	% 26	5	% 0

Iturria: CGPJ. Ezkontza-deuseztasunen, banantzeen eta dibortzioen estatistika.

2.2.2.4. Dibertsitatea handitzea familien osakeran

Ezkontza-harremanen esparruan, osatzeari, zabaltzeari eta disolbatzeari buruz aurretik aztertu ditugun joeren emaitza gisa (era berean, bikoteak osatzeko aztertu gabeko beste formula batzuen ere bai, haiek ere garrantzitsuak izanik; azpiatal jakin batean emango dugu haien berri), etxeen osakerak, eta, bereziki, familienak azkeneko hamarkadetan nolabaiteko dinamismo- eta dibertsifikazio-prozesua izan du, eta familia-eredu berriak ari da sorrarazten. Ondoren, familien egungo egoeraren analisi zehatza eskaintzen da osakerari dagokionez, instituzio horretan azken urteetan izan diren aldaketa nagusiak eta, nahiz eta minoritarioak izan, gure gizartean gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren bestelako familia-ereduen sorrera.

Etxeak osatzeari buruz hitz egiteko garaian ezin dugu albo batera utzi datu jakin bat, begi bistakoa emanagatik ere: nahiz eta bizikidetzak motak izugarri dibertsifikatu diren, ahaidetasuna dela etxe-unitateak osatzeko oinarria. Gaur egun, EAEko etxeen % 88,⁵ euren artean familia-harreman bat duten pertsonen osatuta daude. Horrenbestez, gutxienez elkarren artean ahaidetasun-harremanak dituzten bi pertsonen osatutako pertsonak dira, dela senar-emazteak, filiazio-harremanak edota bestelakoak. Euskadiko etxe guztietatik % 73,2 tankera horretakoak dira. Familiakoak ez diren etxeen beste muturrean pertsona bakarrekoak leudeke (gehiengoak dira) eta bi pertsonak edo gehiagok osatutako bestelakoak. Etxe horiek laurdena baino gehixeago lirakeke (% 26,8), baina, neurri txikia ikusirik, populazio osoari dagokionez etxe mota horrek hamar pertsonatik bat hartzen duen apenas (% 11,9).

⁵ Familia-etxebizitzetan bizi diren pertsonak dira; hori dela eta, proportzio horretan ez dira biltzen hainbat motatako etxebizitza kolektiboetan bizi direnak (zaharren egoitzak, adingabeentzako harrera-zentroak, espetxeak eta abar), eta, horrenbestez, familia-harremanik gabeko bizikidetzak formak osatzen dituztenak. Estimazioen arabera, 2011n egindako azkeneko Populazioaren eta Etxebizitzaren Erroldak erakusten du Euskadin 21.800 pertsona ingurua bizi direla egoera horretan; hortaz, % 88 adierazi dugun ehuneko hori % 87ra jaitsiko litzateke.

9. taula. Familia-etxeak/Familiak eta populazioa familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE 2015

	Familia-etxeak		Pertsonak	
	Kop.	%	Kop.	%
Familia-harremanik gabeko etxeak	231.364	% 26,8	254.388	% 11,9
Pertsona bakarrekoak	215.636	% 25,0	215.636	% 10,1
Kide anitzekoak, ahaidetasunik gabe	15.728	% 1,8	38.752	% 1,8
Familia-harremana duten etxeak	632.192	% 73,2	1.890.601	% 88,1
Familia, nukleorik gabe	15.629	% 1,8	34.974	% 1,6
Nuklearrak, seme-alabarik gabe	198.650	% 23,0	414.369	% 19,3
- Guraso ez diren ezkontideak	45.190	% 5,2	95.084	% 4,4
- Guraso izandako ezkontideak	153.460	% 17,8	319.285	% 14,9
Nuklearrak, seme-alabekin	308.602	% 35,7	1.132.131	% 52,8
- Euren kargu seme-alabak dituzten gurasoak	245.705	% 28,5	923.563	% 43,1
- Seme-alabak euren kargura ez dituzten gurasoak	62.898	% 7,3	208.568	% 9,7
Guraso bakarrekoak	95.048	% 11,0	234.378	% 10,9
- Euren kargura seme-alabak dituzten ezkontide izandakoak	40.195	% 4,7	105.654	% 4,9
- Seme-alabak euren kargura ez dituzten ezkontide izandakoak	44.322	% 5,1	102.174	% 4,8
- Bere kargu seme-alabak dituen guraso bakarra	9.129	% 1,1	23.321	% 1,1
- Seme-alabarik bere kargu ez duen guraso bakarra	1.402	% 0,2	3.230	% 0,2
Nukleo anitzekoak	14.262	% 1,7	74.749	% 3,5
Guztira	863.556	% 100,0	2.144.989	% 100,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako Organo Berezia Familien eta familia-etxeen inkesta, 2015.

Familia-oinarriko etxeei dagokienez, ia kasu guztietan, familia-nukleo baten edo batzuen inguruan osatzen dira; hau da, familia-harremanak ahaidetasun-lotura estuagoetan oinarritzen dira, hala nola guraso eta seme-alaben artekoetan. Etxe horiek guztien % 71,4 dira, eta populazio osoaren % 86,5 osatzen dute.

Familia-nukleo bakar batean bildutako familia-etxeen barruan, seme-alabak dituzten gurasoek osatutakoak dira ugariak. Kopuru osoaren % 35,7 osatzen dute, baina familia-etxeetan bizi diren herritarren gehiena (% 52,8). Gurasoek osatutako familia-etxeen barruan, mendeko seme-alabak dituztenak nabarmendu behar dira. Etxe horiek guztien % 28,5 dira, eta populazio osoaren % 43,1 osatzen dute.


Senar-emazteen familia-etxeek, oinarrian bikote-nukleoa dutenak baina seme-alabarik gabe, familia-etxeen beste % 23 adierazten dute, eta populazio osoaren % 19,3 hartzen dute barnean familia-etxeetan. Horien barruan, guraso izan diren senar-emazteen familia-etxeak dira nagusi: familia-etxeen % 17,8 eta populazioaren % 14,9. Guraso izan ez diren senar-emazteez osatutako etxeak guztira % 5,2 dira, populazioaren % 4,4 aztertuta.

Oro har, senar-emazte edo guraso erako familia-egiturak dira etxeen % 58,7, eta horietan EAEko familia-etxebizitzetako populazioaren % 72,1 biltzen dute.

Guraso bakarreko familia-etxeek, oinarrian seme-alabak dituen aita edo ama dutenak, familia-etxe guztien % 11 osatzen dute, horiekin loturiko populazioaren % 10,9 aintzat hartuta. Horien barruan, ezkontide izandakoak dira nagusi, mendekoak ez diren seme-alabak dituztenak % 5,1 izanik eta mendeko seme-alabak dituztenak % 4,7 izanik (populazio osoaren partaidetza % 4,8 eta % 4,9). Hertsiki guraso bakarrez osatutako familiak % 1,2 dira, eta populazio osoarekin loturiko partaidetzaren proportzio berdina dute.

Azkenik, nukleo anitzeko familia-etxeak, bere baitan familia-nukleo bat baino gehiago dituztenak, guztira % 1,7 dira, populazio osoaren % 3,5 bilduta.

6. grafikoa. Etxeen banaketa, etxe edo familia motaren arabera. EAE 2015



Iturria: Euskadiko familien eta familia-etxeen inkesta, 2015. OEE. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.

2015ean egindako inkestaren emaitzak ikusita, etxe horien ezaugarri demografiko nagusien artean nabarmendu behar da, lehenik eta behin, batez besteko neurri txikia dutela. Hain justu, Euskadiko etxeen batez besteko neurria (gaur egun 2,48 pertsona da) azken mende laurdeneko Populazio Erroldak erakusten dutenetik oso urrun dago: 3,3 pertsona 1991n, 3 1996an, eta 2,8 2001ean.

10. taula. Oinarritzko adierazle demografikoak familia-etxe edo familia motaren arabera. EAE 2015

	Batez besteko neurria	Emakumeen % EPn	16-44 urte artekoen % EPn	45-64 urte artekoen % EPn	65 urtetik aurrerako en % EPn	16 urtetik beherako pertsonaren bat familia-etxean dutenen %	Jatorriz beste nazionalitate bat dutenen % EPn
Pertsona bakarrekoak	1	60,7	22,4	33,4	44,2	0,0	4,0
Kide anitzekoak, ahaidetasunik gabe	2,46	51,3	33,4	27,2	39,4	5,0	37,1
Familia, nukleorik gabe	2,24	46,8	9,5	45,3	45,2	2,5	11,7
Nuklearrak, seme-alabarik gabe	2,09	49,8	21,1	31,2	47,7	0,2	4,6
- Guraso ez diren ezkontideak	2,1	48,5	90,2	9,8	0,0	0,0	12,9
- Guraso izandako ezkontideak	2,08	50,2	0,7	37,5	61,8	0,3	2,2
Nuklearrak, seme-alabekin	3,67	50,0	37,0	53,7	9,3	55,1	8,4
- Euren kargu seme-alabak dituzten gurasoak	3,76	50,0	46,4	52,0	1,6	69,1	10,2
- Seme-alabak euren kargura ez dituzten gurasoak	3,32	50,0	0,4	60,1	39,5	0,4	1,5
Guraso bakarrekoak	2,47	87,2	22,3	43,6	34,1	29,1	11,4
- Seme-alabak euren kargu dituztenak	2,61	86,8	41,2	53,3	5,5	55,2	19,9
- Seme-alabak euren kargu ez dituztenak	2,31	87,7	1,8	33,1	65,1	0,9	2,3
Nukleo anitzekoa	5,24	54,2	30,7	25,0	44,3	56,2	23,7
Guztira	2,48	54,2	28,6	42,4	28,9	24,0	7,5

Iturriak: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako Organo Berezia Familien eta familia-etxeen inkesta, 2015.

Euskal Familien eta Familia-etxeetako 2015eko Inkestako (aurrerantzean, FFEI) emaitzek erakusten dutenez, emakumeek garrantzi nabarmena dute etxeke erreferente gisa⁶ pertsona bakarreko familia-etxeetan; hala, horietan % 60,7 da familia-etxe horietan erreferentzia pertsonen pisua, eta guraso bakarreko familien barruan, % 87,2k emakumeak dituzte buru.

Begien bistakoa dirudi, era berean, Euskadiko etxeen osaketan kapitulu honen hasieran aipatzen genuen zahartze-prozesuak duen inpaktua. FFEItik ateratako datuek erakusten dutenaren arabera, Euskadiko etxeetako erreferentziako pertsonen batez besteko adina 55,5 urte da, eta, aipatutako etxe motak hiru tartetan sailkatzen direnean, horien erreferentziako pertsonaren adinaren arabera, 65 urtetik gorako pertsonen proportzioa da nagusi argi eta garbi pertsona bakarreko etxeetan, baita familiakoak ez diren pertsona anitzekoetan, seme-alabak izan dituzten ezkontideen etxeetan, nukleo anitzekoetan eta seme-alaba independenteak dituzten guraso bakarrekoetan ere. Zahartzearen eragina alderdi honetan ere ikusten da: familietan adingabeek presentzia urria izatea. Etxe horietatik % 24tan besterik ez dago 16 urtetik beherako pertsonaren bat. Proportzio hori % 11ra jaisten da 6 urtetatik beherako biztanleak aintzat hartzean.

16 urtetik beherako biztanle adingabeek presentzia handiagoa dute seme-alabak euren kargura dituzten familietan (guztizkoaren % 69,1), nahiz eta proportzioa % 34,2ra murrizten den 6 urtetik beherako adingabeak bere baitan dituztenak aintzat hartuta. 16 urtetik beherako biztanleek % 55-56 inguru osatzen dute seme-alaba euren kargura dituzten guraso bakarreko familietan (% 55,2) eta nukleo anitzeko etxeetan (% 56,2).

Aipatutako zantzu demografikoekin batera, nabarmendu behar da, azkenik, atzeritarrek pertsona anitzeko etxe ez-familiarretan duten garrantzia, baita guraso bakarreko eta seme alaba independenteak dituzten familietan eta nukleo anitzekoetan dutena ere. FFEIren 2015eko datuek erakusten dutenez, Euskadiko etxeen % 7,5ek izan du jatorrian Espainiakoa ez den beste nazionalitatearen bat. Gizarte-errealitate horren etxe motaren arabera duen inpaktua, edonola ere, oso desberdina da, eta proportziorik handiena pertsona anitzeko etxe ez-familiarretan dute (% 37,1). Nukleo anitzeko familietan (% 23,7) eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien artean ere (% 19,9) altua da.

11. taula. Familien/etxeen bilakaera motaren arabera. EAE 2001-2015

	Kopurua			Banaketa bertikala (%)		
	2001	2015	Bilak.	2001	2015	Aldea
Pertsona bakarrekoak	151.855	215.636	+% 42	% 20	% 25	+% 5
Kide anitzekoak, ahaidetasunik gabe	7.651	15.728	+% 106	% 1	% 2	+% 1
Familia, nukleorik gabe	17.720	15.629	-% 12	% 2	% 2	-% 1
Nuklearrak, seme-alabarik gabe	138.491	198.650	+% 43	% 18	% 23	+% 5
- Guraso ez diren ezkontideak	47.741	45.190	-% 5	% 6	% 5	-% 1
- Guraso izandako ezkontideak	90.750	153.460	+% 69	% 12	% 18	+% 6
Nuklearrak, seme-alabekin	332.402	308.602	-% 7	% 44	% 36	-% 9
- Euren kargu seme-alabak dituzten gurasoak	239.318	245.705	+% 3	% 32	% 28	-% 4
- Seme-alabak euren kargura ez dituzten gurasoak	93.084	62.898	-% 32	% 12	% 7	-% 5
Guraso bakarrekoak	87.881	95.048	% 8	% 12	% 11	-% 1
- Euren kargura seme-alabak dituzten ezkontide izandakoak	34.879	40.195	% 15	% 5	% 5	% 0
- Seme-alabak euren kargura ez dituzten ezkontide izandakoak	47.180	44.322	-% 6	% 6	% 5	-% 1
- Bere kargu seme-alabak dituen guraso bakarra	4.932	9.129	+% 85	% 1	% 1	% 0
- Seme-alabarik bere kargu ez duen guraso bakarra	890	1.402	% 58	% 0	% 0	% 0
Nukleo anitzekoa	12.967	14.262	% 10	% 2	% 2	% 0
Guztira	748.967	863.556	% 15	% 100	% 100	--

Iturriak: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako Organo Berezia Familien eta familia-etxeen inkesta, 2015; Populazioaren eta Etxebizitzaren Errolda, 2001, 2004ko Etxeen Inkestako datuetatik aterata.

⁶ FFEIetan, halaber, etxeen erreferente diren pertsonak ikusten dira, baita haien ezkontide edo bikotekidea ere; hala, berdintasunez gertura gaitzke etxeetan ardurak dituzten pertsonen auzia jorratzera.

EAEEn gaur egun zer familia mota dauden panorama zehatza egitea oso garrantzitsua da, baina hori bezain garrantzitsua da aztertzea azken urteetan zer joera nagusi ageri diren familia-osaketari dagokionez. Alde horretatik, etxeen aurreko inkestak 2001eko datuen bidez joera batzuk argi eta garbi ipintzen ditu agerian.

Termino absolutuetan, joerarik garrantzitsuenen artean nabarmenduko genuke pertsona bakarreko etxeek hazkundea izan dutela; hain zuzen, denbora-tarte horretan 1,4 aldiz ugartu dira: 152.000 etxe izatetik 216.000 izatera igaro dira, bai eta guraso izandako ezkontide motako seme-alaba gabeko nuklearrak ere, 2001ean ia 91.000 izatetik 153.000 izatera igaro baitira 2015ean. Aurrez aipatu dugun moduan, bi kasuetan 65 urtetik gorako presentzia handia duten etxeak dira, eta adingabeen presentzia, berriz, minoritarioa. Horiekin batera, pisu erlatibo oso garrantzitsuak dituzten beste hazkunde batzuk ere azpimarratu beharko genituzke, hala nola pertsona anitzeko etxe ez-familiarrak eta, batez ere, guraso bakarreko familiak, dela seme-alaba independenteak dituztenak, dela seme-alabak euren kargu dituztenak. Azken kasu horretan, joandako ia 15 urteotan 4.900 etxe izatetik 9.100 pasatxo izatera igaro dira.

Kontrako kasuan, nabarmentzekoa da seme-alabak dituzten familia nuklearren pisu erlatiboa galdu izana; 2001ean etxe guztien % 44 izatetik % 36 izatera igaro dira 2015ean.

Aztertutako datu horietatik, zera ondoriozta dezakegu, familia motak aztertzen ditugunean ikusten diren aldaketarik garrantzitsuenak bi ezkontidek eta euren seme-alabek osatutako pisu erlatiboaren galera (edonola ere, gehiengoa izaten jarraitzen dute), eta pertsona bakarreko etxeen eta guraso bakarreko familien igoera.

Populazio-erroldek eta familia-egoerak zehazki aztertzen dituzten gainerako eragiketa estatistikoek ematen dituzten arabera (FFEIren kasua, esate baterako), beste hainbat informazio-iturrik (agian ez horren zehatzak, lagin ez horren zabalekin eginak eta gai demografikoetan ardatzuak ez direnak) panoramika zabalagoa eskaintzen dute aipatu ditugun iturriek baino, ilustrazio gisa baldin bada ere. Hori izan liteke, esate baterako, azkeneko HBSC 2014 azterlanaren kasua (Health Behaviour in School-aged Children), EAERI dagokiona.

12. taula. Euskadiko 11 eta 17 urte bitarteko nerabeen banaketa, familia-egoeraren arabera. EAE 2014

	Kopurua	Banaketa bertikala (%)
Aita-amekin bizi naiz	1062	83,3
Aitarekin eta amarekin erdibana bizi naiz (zaintza partekatua)	40	3,1
Amarekin eta haren bikotekidearekin bizi naiz, nire gurasoak bananduta edo dibortziatuta baitaude	39	3,0
Aitarekin eta haren bikotekidearekin bizi naiz, nire gurasoak bananduta edo dibortziatuta baitaude	6	0,4
Bi amekin bizi naiz	3	0,3
Bi aitekin bizi naiz	3	0,3
Amarekin bakarrik bizi naiz	69	5,4
Aitarekin bakarrik bizi naiz	12	0,9
Aitona-amonekin bizi naiz	1	0,1
Harrerako familiarekin bizi naiz	0	0,0
Adingabeentzako zentro baten bizi naiz	2	0,1
Aurreko bat bera ere ez	38	3,0
Guztira	1.275	100,0


Iturria: HBSC-2014 azterlanaren Euskadiri buruzko azpiatala.

Aurreko taulan bildutako informaziotik ondoriozta daitekeenez, nahiz eta bizikidetzat-formula nagusia (baita populazio nerabearen kasuan ere) seme-alabadun familia nuklearra izan, badira beste familia-eredu batzuk, maiz ez direnak azterlan tradizioaletan kontuan izaten, hala nola berriro osatutako familiak (kasu honetan, % 3,4), homoparentalak (% 0,6) edota ikerlan batzuetan guraso bakarreko bezala agertuko liratekeen beste kasu batzuk (esaterako, zaintza partekatuko araubidean bizi diren haurren kasua).

Egia da kasu batzuetan oso gutxitan agertzen diren familiak direla, baina egia da, era berean, egungo familia-panorametan gero eta presentzia nabarmenagoa duten fenomeno sortu berriak direla. Familia-eredu sortu berri horiei buruz EAERako dauzkagun datuek erakusten digutenez, onarpen-maila altu samarra ageri

da; salbuespena, agian seme-alabak dituzten familia homoparentalen kasua izango litzateke: Euskadiko populazioaren % 20 inguruk uste du ez direla oso egokiak.

7. grafikoa. EAEko 18 urtetik gorakoek bizikidetza-modu desberdinei buruz duten jarrera. 2014



Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Familia EAEn, 2014.

Nahiz eta aurreko urteetako daturik izan ez, elkarrizketatuko pertsonen, zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta onarpen-maila handiagoa izaten dute; hala, datu horiek iradokiko lukete epe ertainean aurretik aipatutako ez-onartze hori murrizten joango litzatekeela.

13. taula. Bizikidetza-forma desberdinak desegokitzat edo oso desegokitzat dituzten pertsonen proportzioa, adin-taldean arabera. EAE 2014

	18-29	30-45	46-64	>= 65	Guztira
Ama, aita eta seme-alaba biologikoak	0	0	0	1	0
Ama, aita eta seme-alaba adoptatuak	1	2	1	10	4
Ama, bikotekiderik eta seme-alabarik gabea	6	3	7	18	8
Gizon eta emakume banak osatutako bikotea, bananduak eta bakoitzaren seme-alabak	11	8	11	27	13
Bi emakumek eta seme-alabek osatutako bikotea	8	13	25	46	22
Bi gizonen eta seme-alabek osatutako bikotea	8	14	25	53	23

Iturria: Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. Familia EAEn, 2014.

2.3. Euskadiko familien arazoak eta beharrianak

2.3.1. Sarrera

Sarrerako kapituluaren adierazi dugun bezala eta Euskadiko familien errealitatea definitzen duen agertoki soziodemografikoa egin ondoren, atal honetan Euskadiko familiek zer beharrian dituzten laburbilduko dugu, hain zuzen ere, familia-politikek zuzenean jorratu dituzten (edo jorra ditzaketen) alorrei dagokienez. Epigrafe honek bi helburu ditu:

- alde batetik, jasotako datuek (aurreko epigrafean eskaini direnekin batera) EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Plana amaitu den garaian Euskadiko familiek zer egoera eta beharrian dituzten ezagutu ahal izan dugu, baita testuingurua ipini ere;
- bestetik, nahiz eta planaren inpaktuaren ebaluazioa ezin den egin, plana exekutatu aurretik eta ondoren den egoera alderatzeak nolabaiteko gerturatze bat eskainiko luke Euskadiko familien errealitatearen gainean egindako neurrien eraginetara.

Zehazkiago esanda, atal honetan alderdi hauei buruzko datuak aztertuko dira:

- Euskadiko herritarrek duten pertzepzioa familiako eta laneko bizitza bateragarri egiteari buruz, eta amatasuna edo aitatasunak eragiten dituen oztopoak lan-merkatuan parte hartzeari dagokionez, baita arazo horien eraginari buruzko datu eskuragarri nagusiak eta eragin handiena jaso duten pertsonen eta familien profilak ere.
- Euskadiko familiei agertzen zaizkien arazo eta beharrian nagusiak, batez ere seme-alaben zainketari eta arretari dagokienez.
- Pobrezia eta prekaritate ekonomikoko egoeren inpaktu diferentziala seme-alabak dituzten familien gainean.
- Haurren arretarako zerbitzuen erabilera eta hezkuntzarekin lotutako arazo jakin batzuen eragina.
- EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planean aurreikusitako neurri jakin batzuei buruzko balorazioa, ezagutza eta erabilera.

Analisi hau osatzeko honako datu-iturri hauek erabili ditugu, batez ere:

- Euskal Soziometroa, Eusko Jaurlaritzaren Prosperektzio Soziologikoko Kabineteak egina; 2012an, 2014an eta 2016an hainbat inkesta egin zituen herritarren pertzepzioaren berri izateko familien beharrianen eta familia-politiken inguruan.
- Familiako eta laneko bizitza bateragarri egiteari buruzko inkesta, Eustatek egina; 2010etik datu interesgarriak eskaintzen ditu euskal familiek etxeko lanetarako eta zainketarako eskaintzen duten denborari buruz, baita familia horiek etxeko lanak eta familia zein lana bateragarri egiteko izaten dituzten zailtasunei buruz ere.
- EAEko etxeei eta familiei buruzko inkesta, 2016an Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako Organo Bereziak egina. Hori da EAEn den inkestarik zabalena eta berriena, familien beharrianekin eta arazoekin loturik. Horrez gain, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako Organo Bereziak egindako beste inkesta batzuetako datuak ere erabili dira, hala nola Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta edota Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika / Gizarte Premiei buruzko Inkesta.

Ahal izan den neurrian, datuek 2011tik aurrera aztertutako adierazleen bilakaera jasotzen dute, aztertu ahal izateko zer-nola eboluzionatu duten aztertzen ari garen auziek plana hasi aurreko unetik aurrera. Horrez gain, datuak hainbat aldagai kontuan hartuta banatu dira (generoa, familia-unitatearen mota, okupazioa eta abar), egoera edo arazo jakin batzuek aldagai horien gainean izan dezaketen inpaktu diferentziala zehaztu ahal izateko.

2.3.2. Bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egitea

Aldez aurretik adierazi dugun moduan eta ondoren ikusiko dugunez, EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planean aurreikusitako neurri asko eta askoren helburua bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa bateragarri egiteko aukerak hobetzea zen, dela euren laneko arduraldia beste pertsona batzuk zaintzeko beharretarako egokitzeko laguntza ekonomikoen bidez, dela laneko ordutegiak beharrian horietara egokitzeko neurriak hartuta.

Familia, lana eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkestak (EUSTAT) emandako datuen arabera, amatasunaren edota aitatasunaren ondorioz sortzen diren kalteei buruzko gizarte-pertzepzioa nahiko positiboa da Euskadin. Hala, 0 eta 10 arteko eskala batean (0 bat ere ez izanik eta 10 maximoa), kontziliazioarekin lotutako alderdiek izaten duten kalteari buruzko pertzepzioa 3 puntukoa da. Zehazkiago esanda, inkestatuari galdetzean ea amatasunak edo aitatasunak kalte egin ote dion edo egingo ote liokeen enpresa edo erakunde barruko ibilbide profesionalean, galderari 2 punturekin erantzun diote. Bestalde, galdetzean aitatasunagatik lan-etetea eskatzean zazpigarren astetik aurrera kalte egingo ote liokeen enpresa edo erakunde barruko ibilbide profesionalean, batez beste 2,9 punturekin erantzun diote. Hirugarrenik, familia-arrazoiak direla eta lanaldi murrizketa edo eszedentzia eskatzeak erakunde edo enpresa barruko ibilbide profesionalean izango lukeen eraginari buruz 3,9 puntu eman dizkiote inkesta egindakoek.

Hurrengo taulan ikusten den moduan, lehendabiziko galderari ematen zaion puntuazioa (guraso izateak ekarriko lituzkeen kalteen inguruko pertzepzioa) handiagoa da emakumeen artean gizonen artean baino. Okupazioari dagokionez, badirudi kalifikazio-maila handiena eta txikiena dutenek (okupazio-eskalaren mutur banatan daudenek, alegia) adierazten dutela kalterik handiena, seme-alabak izatearekin lotuta.

14. taula. Euskal Autonomia Erkidegoko populazio okupatua kontziliazioarekin lotutako alderdiren baten kalteekin (amatasuna, aitatasuna eta eszedentzia), ezaugarri soziodemografikoen arabera (2015) (0-10 bitarteko eskala, 0 da gutxienekoa eta 10, berriz, maximoa.)

		Amatasuna/ aitatasuna	Aitatasun- baimena	Eszedentzia/ murrizketa familia- arrazoiengati k	Kaltea orotara (*)
Adina	16 eta 24 urte artean	2,9	3,4	4,7	3,8
	25 eta 34 urte artean	2,8	3,4	4,4	3,6
	35 eta 44 urte artean	2,0	3,0	4,1	3,1
	45 eta 54 urte artean	1,6	3,1	3,9	2,9
	55 urte eta gehiago	1,4	2,1	3,1	2,3
Sexua	Gizonak	1,5	2,9	3,9	2,8
	Emakumeak	2,5	-	3,9	3,2
Okupazioa	Zuzendariak eta kudeatzaileak	1,6	3,5	4,1	3,1
	Teknikari eta profesional zientifikoak eta intelektualak	2,3	3,0	3,9	3,1
	Laguntzarako teknikariak eta profesionalak	2,0	3,2	4,5	3,3
	Kontabilitateko langileak eta administrariak	2,3	2,6	3,9	3,1
	Jatetxeetako, zerbitzu pertsonaletako edota babes-zerbitzuetako langileak eta saltzaileak	2,3	2,7	3,6	3,0
	Nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako eta arrantzako langile kalifikatuak	2,1	3,1	4,8	3,5
	Artisauak eta manufaktura-industriako eta eraikuntzako langile kalifikatuak	1,6	2,9	3,9	2,8
	Instalazioen eta makinaren operadoreak eta muntatzaileak	1,3	2,7	3,9	2,7
	Oinarrizko lanpostuak	1,6	2,8	3,8	2,7
Guztira	2,0	2,9	3,9	3,0	

Iturria: Eustat. Familia, lana eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta. Honako hauek dira aztertutako hiru auzietarako planteatu diren galderak:

Uste duzu aitatasunak/amatasunak kalte egin diola edo egingo liokeela zure ibilbide profesionalari enpresaren edo erakundearen barruan?

Uste duzu, seme-alabaren bat izanez gero, zazpigarren astearen ondoren aitatasun-atsedenagatik lana eteteko baimena eskatzeak eragingo liokeela zure ibilbide profesionalari?

Uste duzu familia-arrazoiengatik eszedentzia bat edo lanaldi-murrizketa bat eskatzeak zure ibilbide profesionalari eragingo liokeela?

Inkesta horretako bertako datuak erabilia, aztertzen baldin badugu populazio okupatuaren zer ehunekok adierazten duen lana eta seme-alabaren zainketarako zailtasun-maila handia, hainbat datu interesgarri ikusiko ditugu: alde batetik, ehunekoa nabarmen murriztu zen 2010 eta 2012 artean, eta, ondoren, nabarmen handitu berriro ere, biztanleria okupatuaren % 31ra iritsi arte. Nabarmentzen da, era berean, 25 eta 34 urte bitarteko gazteek adierazten dutela kontziliaziorako zailtasun-maila handiena. Gizonezkoek emakumeek baino neurri handiagoan adierazten dituzte zailtasunak familiako, bizitza pertsonaleko eta laneko ardurak bateragarri egiteko.

15. taula. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria okupatuaren ehunekoaren bilakaera, adierazten duena zailtasun handiak dituela seme-alaba adingabeen zainketa eta lana bateragarri egiteko, ezaugarri soziodemografikoen arabera

	2010	2011	2012	2013	2015
25 eta 34 urte artean	29,9	24,4	24,1	34,2	39,2
35 eta 44 urte artean	31,5	29,5	27,8	27,4	29,6
45 eta 54 urte artean	25,8	22,6	20,1	23,6	31,6
55 urte eta gehiago	27	23,4	7,2	20,7	28,6
Gizonak	30,8	29,2	25,8	29,8	34,2
Emakumeak	28,3	23,9	23,8	23,9	28,0
Guztira	29,6	26,7	24,9	27,1	31,2

Iturria: Eustat. Familia, lana eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta.

Bestalde, nahiko egonkor jarraitu du, plana hasi zen unetik, seme-alaba adingabeak zaintzera bideratutako denborarekin satisfazio-maila apala duela adierazten duen Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria okupatuaren ehunekoak; 2011n igoera oso argia izan zuen, eta hortik aurrera murriztu egin da. Kasu horretan ere, gizonezkoek eta gazteek adierazten dute satisfazio-maila apalagoa kontsultatutako pertsonen multzo osotik.

16. taula. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria okupatuaren ehunekoaren bilakaera, adierazten duena satisfazio-maila apala duela seme-alaba adingabeak zaintzeko denborarekin, ezaugarri soziodemografikoen arabera (2010-2015)

	2010	2011	2012	2013	2015
25 eta 34 urte artean	12,1	16,5	16,5	14,6	15,3
35 eta 44 urte artean	10,5	15,4	13,9	15,8	12
45 eta 54 urte artean	7,5	14,6	11,5	9,4	10,2
55 urte eta gehiago	7	5,3	4,6	12,3	6,1
Gizonak	11,6	17,8	16,4	16,4	13,1
Emakumeak	8	12,2	10,1	10,7	10,1
Lanaldi osoa	10,8	16,4	14,5	15,5	12,3
Lanaldi partziala	3,2	6,6	4,2	4,6	8,4
Guztira	10,0	15,2	13,5	13,7	11,7

Iturria: Eustat. Familia, lana eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta.

Baimenak, eszendentziak edo absentzia puntualak eskatzeko zailtasunei dagokienez, emakumeek badirudi zailtasun handixeagoak dituztela gizonen baino: emakumeen % 16,5ek eta gizonen % 15ek adierazten dute zailtasun handiak dituztela tankera horretako murrizketak eskatzeko. Eboluzioaren ikuspegitik, 2010etik handitu egin da jardunaldiak edo lan-egutegia zainketen beharretara egokitze zailtasunak dituztela dioten ehunekoak; edonola ere, egia da hazkundera 2010 eta 2011 artean gertatu zela, eta hortik aurrera ehunekoak oso antzekoak direla.


17. taula. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria okupatuaren ehunekoaren bilakaera, adierazten duena zailtasun handiak dituela baimenak, eszendentziak edo absentzia puntualak eskatzeko, ezaugarri soziodemografikoen arabera

	2010	2011	2012	2013	2015
25 eta 34 urte artean	10,5	13,8	17,2	14,8	14,5
35 eta 44 urte artean	11,5	17,5	16,5	15,5	15,9
45 eta 54 urte artean	10,1	17	15,5	16,7	17,6
55 urte eta gehiago	10,6	18,1	16,3	15,1	12,7
Gizonak	10,2	16,9	15	15,9	15,0
Emakumeak	11,4	16,4	18,3	15,3	16,4
Lanaldi osoa	10,7	16,7	16,3	16,4	15,4
Lanaldi partziala	11,2	16,4	19,2	11,4	16,7
Guztira	10,8	16,7	16,5	15,6	15,7

Iturria: Eustat. Familia, lana eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta.

Azkenik, aztertzen baldin badugu kontziliazioarekin lotutako auzi jakin batzuei buruz biztanleria okupatuak oro har eta batez beste emandako puntuazioaren bilakaera, ikusiko dugu baimenak eta lan-murrizketak eskatzeko zailtasunak handitu egin direla, eta seme-alabak zaintzeko denborari buruzko satisfazioak eta haiei arreta emateko zailtasunak nolabait ere egonkor jarraitzen duela.


8. grafikoa. EAEko biztanleria okupatuak kontziliazioarekin lotutako alderdi jakin batzuei emandako puntuazioaren bilakaera



Iturria: Eustat. Familia, lana eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta.

Dena dela eta beste datu-iturri batetik aztertuko bagenu (2016ko 62. Euskal Soziometroa, familia-politikei buruzkoa oso-osorik) populazioaren pertzepzioa gizon-emakumeen ibilbide profesionala zenbateraino oztokatzen duen aitatasunak edo amatasunak, ikusiko dugu amatasunari kalte askoz ere handiagoa eragiten diola aitatasunari baino; eta, gainera, amatasunak emakumeen lan-ibilbidea asko edo nahikotxo oztokatzen duela uste dutenen ehunekoa hazi egin dela azkeneko hiru urte hauetan.

9. grafikoa. Aitatasunak eta amatasunak gizonen eta emakumeen ibilbide profesionala asko edo nahikotxo oztokatzen duela uste duen populazio-ehunekoen bilakaera



Iturria: Egileek osatua, 62. Euskal Soziometroan oinarrituta.

Soziometroak, era berean, erakusten du euskal biztanleriak zer pertzepzio duten kontziliazioarekin lotutako hainbat alderdiren inguruan, eta posible da hari esker ikustea zer neurritan eragiten dieten modu desberdinean biztanleria-talde desberdinei. Hala, taulan ageri diren datuen arabera, seme-alabak dituzten eta lan egiten edo egin duten pertsonetatik (biztanleriaren % 55) % 40 ez dago batere gustura edo oso gustura kontziliaziorako aukera pertsonalekin; ehuneko berberak uste du amatasunak edo aitatasunak asko edo zertxobait murriztu zuela lanean gora egiteko aukera, eta % 30ek uste du lana topatzeko aukerak murriztu zituela. Horrez gain, biztanleria horren % 24 ez dago oso gustura edo batere gustura bikotekideen artean seme-alabak zaintzeko banaketarekin. Emakumeak askoz ere deskontentuago ageri dira gizonetzkoak baino aztertutako alderdi guztietan, batez ere seme-alabak zaintzeko ardurak banatzearekin lotutako alderdietan.

18. taula. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren ehunekoa, ezaugarri negatiboren bat adierazten duena kontziliazioarekin eta zainketa-ardurak banatzearekin, ezaugarri soziodemografikoen arabera (2015)

	Satisfazio handirik ez edo batere satisfaziorik ez laneko bizitza edo bizitza profesionala bateragarri egiteko	Amatasunak edo aitatasunak asko edo apurtxo bat murriztu zituen lanean gora egiteko aukerak	Amatasunak edo aitatasunak asko edo apurtxo bat murriztu zituen lana topatzeko aukerak	Ez oso gustura edo batere gustura ez bikotekideen artean seme-alabak zaintzeko banaketarekin
Gizona	33	24	16	7
Emakumea	46	56	42	31
18-29	26	52	39	18
30-45	54	55	44	24
Seme-alaba adindunak	34	19	23	24
Seme-alaba adingabeak	47	48	38	23
Guztira	40	40	30	24

Iturria: Egileek osatua, 62. Euskal Soziometroan oinarrituta.

Ikuspegi subjektibotik baloratutako biztanleriaren satisfazio-mailari edota pertzepzioei buruzko datuetatik harago, EAEko Familiei eta familia-etxeei buruzko 2016ko Inkestak, era berean, euskal familiek kontziliaziorako dituzten zailtasunen eraginak aztertzeke aukera ere ematen du.

Taulak erakusten duenez, eragin handiena 16 eta 69 urte bitarteko pertsonen ehunekoari dagokio, zehazki, azken 3 urteetan lana eta familia bateratzearekin lotutako arazoengatik lan-jarduera eten egin behar izan dutenei familiaren barruko lanak ekarritako gehiegizko kargekin edo seme-alaba jaiotzearekin (amatasun/aitatasun baja amaitu ondoren) lotuta. Bertan ikusten denaren arabera, 30.000 pertsona inguruk eten dute lan-jarduna mendeko pertsonak zaintzearekin lotutako arazoak tarteko; horietatik 24.000 (hau da, % 83) emakumeak dira. Ehuneko hori populazioaren % 1,9 bakarrik bada ere, seme-alabak euren mende dituzten familia nuklearretako gurasoetan emakumeak % 6,9 dira (% 0,8 familia mota bereko gizonen artean).

19. taula. 16-69 urteko pertsonen ehunekoa, lan-jarduera eten dutenak azken 3 urteetan lan-bizitza eta familia-bizitza bateratzeari lotutako arazoengatik, familia-taldearen motaren arabera (2015)

	Guztira		Gizona		Emakumea	
	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
Gurasoak eta haien kontura bizi diren seme-alabak	3,7	24.336	0,8	2.531	6,9	21.806
Seme-alabak bere kontura dituen guraso bakarra	1,5	1.294	0,8	204	1,7	1.090
Guztira	1,9	28.737	0,7	4.837	3,2	23.900

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako Organo Berezia Familien eta familia-etxeen inkesta, 2015.

Azken 10 urteetan familiako lanaren gehiegizko kargen ondorioz edo seme-alaba jaiotzearen ondorioz lana utzi duten 16 eta 69 urte bitarteko pertsonen ehunekoa aztertuz gero, tankerako emaitzak ikusiko ditugu. Inkestako datuen arabera, ia 25.000 pertsona (horietatik 21.000 emakumeak) behartuta egon dira enplegua uztera zainketa-karga handiegia edukitzeagatik. Arazo honen eraginaren ikuspegitik, biztanleriaren talde oso murriz bati eragiten badio ere (% 2,5), eragin nahiko handia dauka emakumeen artean (% 3,5), bereziki guraso bakarreko familien kargura daudenean (% 4,4).

20. taula. 16 eta 69 urte arteko pertsonen ehunekoa, azken 10 urteetan lana utzi dutenak familian gehiegizko lan-karga izateagatik edo seme-alabaren baten jaiotzagatik, familia-taldearen motaren arabera (2015)

	Guztira		Gizona		Emakumea	
	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
Seme-alabarik gabeak	1,1	1.043	0,0	0	2,3	1.043
Seme-alabak euren kargura dituzten gurasoak	2,4	15.853	0,6	2.093	4,4	13.760
Seme-alabak bere kontura dituen guraso bakarra	2,5	2.188	0,0	0	3,5	2.188
Guztira	1,7	24.429	0,5	3.325	2,8	21.104

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako Organo Berezia Familien eta familia-etxeen inkesta, 2015.

Bestalde, euren gain hartzen dituzten zainketa-ardurek eraginda lana eten edo utzi behar izan duten zenbat pertsona izan diren jakiteaz harago, interesgarria da, era berean, jakitea talde bakoitzeko zer ehuneko egoten den behartuta ordu gehiegi bideratzera laneko orduak eta beste pertsona batzuk zaintzeko orduak batzen direnean. Hurrengo taulak etxeko esparruan eta kanpoan astean 60 ordu baino gehiago lan egiten duten pertsonen ehunekoa jasotzen du. Taulan ikusten dugunez, egoera horrek biztanleriaren % 8,9ri eragiten dio; emakumeen % 11,5i eta guraso bakarreko familien buru diren emakumeen % 16,2ri. Ia kasu guztietan (oraindik seme-alabarik ez duten familietan izan ezik), 60 ordu baino arduraldi handiagoa duten emakumeen ehunekoa gizonena baino bi aldiz handiagoa da; horrek erakusten du zer neurritan egon litekeen lotuta gailkarga hori seme-alabak artatzeko beharreakin.

21. taula. Etxean eta kanpoan astean 60 ordu baino gehiago lan egiten duten pertsonen proportzioa (%) (2015)

	Guztira	Gizona	Emakumea
Seme-alabarik gabeak	5,3	5,1	5,6
Seme-alabak euren kargura dituzten gurasoak	10,6	7,1	14,7
Seme-alabak bere kontura dituen guraso bakarra	14,6	7,0	16,2
Guztira	8,9	6,5	11,5

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako Organo Berezia Familien eta familia-etxeen inkesta, 2015.

2.3.3. Euskadiko familien arazo nagusiak

2.3.3.1. Hurbilketa orokorra

Zein dira Euskadiko familien arazo nagusiak? EAEko familien eta familia-etxeen inkestak modu sintetikoan jasotzen du eguneroko bizitzako esparruko hainbat arazok zer eragin duten EAEko familietan.

Taulan jasotako datuen arabera, biztanleriaren ia % 27 arazo horietako bat bera ere ez duen etxeetan bizi da (ehuneko hori % 24koa da seme-alabak gurasoen kargura dituzten familia nuklearretan eta % 6koa seme-alabak gurasoaren kontura dauden guraso bakarreko familietan). Datu hori albo batera utzita, ikusten da familia guztietarako langabezia eta lan prekarioa direla, alde handiz, arazo nagusia, eta, ondoren, osasunarekin lotutako alderdiak. Mendeko seme-alabak dituzten familia nuklearren kasuan, seme-alaben

etorkizuna da bigarren arazoa eta, ondoren, langabezia aipatzen da. Guraso bakarreko familien kasuan, arazo ekonomikoak aipatzen dira bigarren postuan eta seme-alaben enplegua, hirugarren postuan. Pertsonen zainketa da familien % 3,4ren arazo nagusia; ehuneko hori % 4,2 handiagoa da seme-alabak euren kontura dauzkaten gurasoen familia nuklearren kasuan.

22. taula. Arazo mota nagusia familia-taldearen motaren arabera (2015)

	Guztira	Guraso ez diren ezkontideak	Seme-alabak euren kargu dituzten gurasoak	Guraso bakarrekoak, seme-alabak gurasoaren kontura
Aurrekoetatik bat bera ere ez	26,9	29,5	24,2	9,0
Langabezia, lan prekarioa	18,8	29,1	20,4	26,2
Gaixotasuna/	14,8	12,6	7,3	11,6
Seme-alaben etorkizuna	13,8	-	20,5	14,7
Gabezia ekonomikoak	8,2	3,0	7,6	22,6
Lanaren kalitatea apala	6,2	13,8	8,7	6,1
Etxebizitzaren aldeak	3,8	3,9	4	2,6
Pertsonaren bat zaindu beharra	3,4	2,3	4,2	1,2
Bizimodu independentea finkatzea	2,0	1,7	1,5	0,3
Familia-egoera	1,4	2,2	1,2	4,5
Beste batzuk	0,8	1,9	0,4	1,3

Iturria: Egileek egina, EAEko familiei eta familia-etxeei buruzko inkesta oinarri hartuta.

2.3.3.2. Seme-alabekin loturiko arazoak

Txosten hau idazteko garaian, arreta berezia merezi dute Euskadiko familiek seme-alabekin lotutako arazoek⁷. Inkestako datuen arabera, Euskadiko biztanleriaren % 30 seme-alabekin lotutako arazoren bat duten etxeetan bizi da, eta % 21, berriz, alde horretatik arazo larriak dituzten etxeetan. Seme-alabekin lotutako arazoen inpakturik handiena, jakina, seme-alabak dituzten etxeetan ageri dira: euren kontura seme-alabak dituzten gurasoen etxe nuklearren % 31k adierazten dute arazo larriak dituzte seme-alabekin, eta guraso bakarrekoen kasuan, berriz, % 35ek.

23. taula. Seme-alabekin lotutako arazo larrien eragina familia-taldearen motaren arabera (%) (2015)

	Intzidentzia guztira	Intzidentzia larria
Seme-alabarik gabeak	5,2	2,8
Seme-alabak euren kargura dituzten gurasoak	43,8	31,1
Seme-alabak bere kontura dituen guraso bakarra	41,2	35,3
Guztira	30,2	21,9

Iturria: Egileek egina, EAEko familiei eta familia-etxeei buruzko inkesta oinarri hartuta.

Hurrengo taulak seme-alabekin lotutako arazo jakin batzuei garrantzi handia edo oso handia ematen dion biztanleriaren ehunekoia jasotzen du, familia mota nagusien arabera bereizita. Taulan ikusten dugun bezala, baliabide ekonomikorik ez izateagatik nahi dituzten seme-alabak ez izatea arazo nagusizat duten biztanleriaren ehunekoia oso murrizta da (% 0,8) eta seme-alabarik ez duten gurasoen artean bakarrik da ehuneko hori nabariagoa (% 1,9). Beste datu-iturri batzuek adierazten dutenaren aurka, badirudi beste arazo batzuek, hala nola uztartzeari edo seme-alaben zaintzari loturikoek, ere ez dutela garrantzi handirik. Seme-alabekin lotutako arazo nagusia, inkesta horretako datuen arabera, haien etorkizunarekin lotutakoa da; hain

⁷ FFEIk seme-alabekin loturiko arazo hauek aztertzen ditu EAEko familietan eta familia-etxeetan: (1) Seme-alabak izateko ezintasuna (arrazoi biologikoengatik). (2) Nahi adina seme-alaba ezin eduki, diru-arazoak direla eta (adopzioa barne). (3) Seme-alabak izateko ezintasuna lanarekin loturiko arazoengatik edo lan prekaritatearekin loturiko arazoengatik. (4) Seme-alabak izateko ezintasuna familia eta lana uztartzeko zailtasunengatik. (5) Seme-alaba adingabeak zaintzea. (6) Seme-alaba adingabeentzat haurtzaindegirako plazarik ez izatea. (7) Moldatu ezina edo eskolako porrota. (8) Ikasketak behar baino lehenago uztea. (9) Ziurgabetasuna seme-alaben etorkizunaren gainean. (10) Bizitza independentea izateko seme-alaben zailtasunak.

zuzen, seme-alabak kargura dituzten familien % 40ri eragiten dio. Nabarmentzekoak dira, halaber, seme-alabak emantzipatzearekin lotutako zailtasunak.

24. taula. Seme-alabekin lotutako hainbat arazoren eragina familia-taldearen motaren arabera (%) (2015)

	Guztira	Guraso ez diren ezkontideak	Seme-alabak euren kargura dituzten gurasoak	Seme-alabak bere kontura dituen guraso bakarra
Nahi beste seme-alaba ez dituzten familiak, baliabide ekonomikorik ez izategatik	0,8	1,9	1,4	1,4
Nahi beste seme-alaba ez dituzten familiak, laneko arazoak direla eta	0,6	0,9	1,2	1,3
Nahi beste seme-alaba ez dituzten familiak, familia eta lana bateragarri egiteko zailtasunengatik	0,8	3,3	1,6	0
Seme-alabak zaintzeko arazoak dituzten familiak	1,4	0	3,7	4,8
Seme-alaben etorkizunari buruz ziurgabetasuna sentitzen duten familiak	20,1	0	38,2	37,2
Seme-alabek bizimodu independentea izateko zailtasunak dituzten familiak	6,9	0	10,9	12,1

Iturria: Egileek egina, EAEko familiei eta familia-etxeei buruzko inkesta oinarri hartuta.

2.3.3.3. Harreman- eta bizikidetzaz- arazoak familietan

Orain artean aipatu ditugun arazoekin batera, familiei eta familia-etxeei buruzko inkestak EAEko etxeetan ageri diren harreman- eta bizikidetzaz- arazoak ere aztertzen ditu⁸. Inkestaren emaitzei buruzko txostenak diotenaren arabera, bizikidetzaz- arazoek inpaktu murriztua dute Euskadiko populazioan: biztanleriaren % 4,8 dago bizikidetzarekin lotutako arazoren bat duela adierazten duten etxeetan. Dimentsio horretan arazo larriak dituztela dioten biztanleria inplikatuaren ehunekoa, berriz, % 2 da. Edonola ere, nabarmentzekoa da arazo mota horiek adierazten dituzten ehuneko handi bat (baita arazo larriak ere) guraso bakarreko familiak direla.

25. taula. Harremanarekin eta bizikidetzarekin lotutako arazo larrien eragina familia-taldearen motaren arabera (%) (2015)

	Intzidentzia guztira	Intzidentzia larria
Seme-alabarik gabeak	2,8	2,0
Seme-alabak euren kargura dituzten gurasoak	3,8	1,6
Seme-alabak bere kontura dituen guraso bakarra	22,4	8,6
Guztira	4,8	2,0

Iturria: Egileek egina, EAEko familiei eta familia-etxeei buruzko inkesta oinarri hartuta.

Aurreko kasuan bezalaxe, harremanaren eta bizikidetzaren alorreko arazoak aztertzen baldin baditugu, ikusiko dugu haietako bakoitzaren eragina oso apala dela eta familiarren barruan lanak banatzeko desberdintasuna ere ez dela arazo nabarmentzat hartzen (arazo gisa kasuen % 1,5ean hartzen da).

⁸ FFEIk, azkenik, bizikidetzarekin loturiko arazo hauek hartu ditu kontuan EAEko familia-etxeetan eta familietan: (1) Bikoteen arazoak (ezkontideen arteko desadostasun larriak). (2)

Dibortzioa, banaketa, haustura gertatua. (3) Berehalako dibortzioa edo banaketa. (4) Etxeko kideen artean etxeko lanak ezberdin banatuta egotea.

(5) Agintearen banaketa ezberdina izatea (mendean hartzea, mendean egotea, gehiegikeriak). (6) Harreman txarrak seme-alabekin. (7) Seme-alabei tratu txarrak ematea. (8) Seme-alabek familiako beste kide bati tratu txarrak ematea. (9) Tratu txarrak bikotearen artean.

26. taula. Harremanarekin eta bizikidetzarekin lotutako arazoen eragina familia-taldearen motaren arabera (%) (2015)

	Guztira	Guraso ez diren ezkontideak	Seme-alabak euren kargura dituzten gurasoak	Seme-alabak bere kontura dituen guraso bakarra
Bikote-arazoak dituzten familiak	0,2	0,2	0,4	1,0
Dibortzio-, banantze-, edo haustura-arazo kontsumatuak dituzten familiak	2,8	0,3	0,2	17,8
Etxeko kideen artean etxeko lanak ezberdin banatuta dauzkaten familiak.	1,5	2,5	2,9	1,8
Seme-alabekin harreman txarrak dituzten familiak.	0,3	0	0,2	2,0

Iturria: Egileek egina, EAEko familiei eta familia-etxeei buruzko inkesta oinarri hartuta.

2.3.3.4. Pobreziaren eragina familia-talde desberdinetan eta desberdintasuna haurtzaroan

Aldez aurretik adierazi dugu gabezia ekonomikoek Euskadiko familien % 8ri eragiten diotela, ezkondu aurrekoen % 3ri, seme-alabak euren kontura dituzten guraso-nukleoan % 7,6ri eta guraso bakarreko familien % 22,6ri. Gabezia ekonomikoari egindako erreferentzia orokorretik harago, ezinbestekoa da pobreziaren auziari erreferentzia egitea, azterlan oso desberdinek erakutsi baitute haurren pobrezia handitu dela gure inguruko herrialde guztietan⁹. Hainbat eta hainbatetan adierazi den moduan, haurren pobrezia azken batean seme-alabak dituzten familien pobrezia da, eta agerian uzten du zer neurritan ari diren zabaltzen, hainbat arrazoi tarteko, pobrezia-arrisku nagusiak haurretara, gazteetara eta seme-alabak dituzten familietara azken urteotan¹⁰.

Euskadiko haur-pobreziaren errealitateari buruzko oinarritzko datuak aurkezteari begira, ondoren oinarritzko hiru datu jasoko ditugu:

- Euskadiko egiazko pobreziak familia-taldeetan izan duen eraginaren eboluzioa, krisiaren hasieratik, baita desberdintasun-egoerak ere haurren kolektiboaren barruan.
- Pobrezia erlatiboaren arriskua edo diru-sarrerara apalak dituzten 18 urtez azpiko adingabeen ehunekoa EAEn eta EBko gainerako herrialdeetan.
- EAEko 18 urtez azpikoen eta biztanleria osoaren pobrezia-arriskuaren tasen arteko ratioa, baita EBkoena ere.

Aztertutako lehendabiziko auzien inguruan, hurrengo taula honetan adierazten da zer taldetan handitu diren neurri handiagoan egiazko pobrezia-tasak¹¹ (seme-alabak dituzten bikoteak, hain zuzen); hala, 2008an egiazko pobrezia-tasa % 3,3 zuten, eta 2014an, berriz, % 5,5. Seme-alabarik ez daukaten bikoteen artean, aitzitik, pobrezia apenas handitu da eta tasa nabarmen apalagoetan jarraitzen du (% 2,1).

⁹ Haur-pobrezia da, gaur egun, oinarritzko lehentasunetako bat, Europar Batasuneko gizarte-politiken egituraketaren alorrean. Europar Batasuneko erakundeek, estatuetako gobernuak eta eskualde- eta toki-erakundeek lehentasuneko arreta ematen diote fenomeno horri, bai esku-hartzeko politikak garatzeari dagokionez, bai jarraipena eta analisia egiteari begira. Ildo horretan, bistakoa da Europan haur-pobreziaren fenomenoak «berraurkitu» dela; alde batetik, pobrezia-arrisku handiagoak bereganatu dituztelako haur eta gazteek, eta, bestetik, egoera horiek haurren bizi-baldintzetan, bizi-itxaropenetan eta garatzeko eta integartzeko aukeretan epe labur, ertain eta luzera duten inpaktua egiaztatu delako. Ikuspegi horretatik, haurren eskubideen urraketa izateaz gainera, Europako etorkizuneko gizarte-ekitateak, gizarte-kohesioa eta produktibitatea arrisku larrian jartzten dituen fenomenoak da haur-pobrezia. (SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. *Haur-pobrezia Euskadin, 2013*)

¹⁰ Hain zuzen ere, haur-pobrezia kontzeptuak berak nahasteak sor ditzake. Haur-pobrezia, jakina, pobrezia-egoeran bizi diren haurrei dagokie, haurtzarora amaitzeko jarritako adina alde batera utzita. Gure inguruan, ordea, bidaiderik gabeko etorri adingabeen kasuan izan ezkiz, ez dago haur pobrerik, familia pobreak baizik, eta, batez ere, diru-sarrerara nahikoak ez dituzten gurasoak daude, beraientzat eta beren seme-alabentzat gutxieneko bizi-mailari eusteko. Definizioz, haur pobreak pobre dira, haien familiak pobre direlako, eta, zehazki, haien gurasoak pobre direlako. Beraz –definizioaren eta kausen identifikazioaren ikuspegitik, behintzat– garrantzia duen gaia, haur-pobrezia ez ezik, seme-alabak dituzten familien pobrezia ere bada, eta, horrenbestez, gurasoen diru-sarrerara urriak. Ikuspegi horretatik, garbi dago haur-pobreziaren kontzeptuari enfasi handiegia emateak arazoaren ikuspegi murriztailea dakarrela. Hala eta guztiz, aitortu behar da haur-pobreziaren prebentzioan eta arazo horri aurre egitean berariaz ardatzutako politikak behar direla, bai seme-alabak dituzten familien artean pobreziaren eragina murrizteko (egoera horien azpian dauden berariazko arrisku-faktoreak aintzat hartuta), bai egoera horretan dauden haurren bizi-baldintzetan eta etorkizun-aukeretan pobrezia duen inpaktua murrizteko, konpentsazio-neurrien eta babes sozial eta sozioedukatibo egokien bidez. (SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. *Haur-pobrezia Euskadin, 2013*)

¹¹ EPDS metodoan, egiazko pobrezia- eta prekaritate-adierazleek mugatu nahi dituzte, gizartearen ikuspegi orokorraren arabera beharrezkoak behar beste beteta ez dauzkatela esan dezakegun egiazko egoerak. Kasu horietan, pobreziaren edo prekaritatearen bizipena errealitatea da, gizartearen nagusi diren kontzeptioen arabera (eragindako pertsonen ikuspegitik ez du zertan hala izan behar).


27. taula. Egiazko pobrezia-eraginaren eboluzioa familia-taldearen motaren arabera (%) (2008/2014)

	2008	2012	2014	Hazkundearen % 08/14
Bakarrik bizi diren pertsonak	6,4	6,9	8,0	25,0
Seme-alabarik gabeko bikotea	1,9	2,5	2,1	10,5
Seme-alabak dituen bikotea	3,3	3,7	5,5	66,7
Guraso bakarreko familiak	13,2	18,2	12,7	-3,8
Bestelako familia-taldea	6,1	10,1	9,9	62,3
Guztira	4,2	5,3	5,9	40,5

Iturria: Egileek egina, EAEko pobrezia-eraginaren eboluzioa buruzko inkesta oinarri hartuta.

Egiazko pobrezia-egoerak aztertu beharrez, pobrezia-termino ez horren murriztaile bat erabiliko bagenu (pobrezia-arriskuaren tasak edo diru-sarrera apalak, desberdintasuna neurtzeko ohikoena den metodologiaren arabera), ikusten da lehenik eta behin egoera horrek adingabeen % 22,8ri eragiten diola, eta populazio osoaren % 19,3ri. Halaber, ikusten da atzerriko nazionalitatea duen pertsona bat buru duten etxeetan, baita guraso bakarreko etxeetan edota familia ugarietan ere, adingabeek pobrezia-arriskuaren edo diru-sarrera apalen tasa handiagoak izaten dituztela; hain zuzen ere, batez besteko eraginaren bikoitzak (horrek esan nahi du, era berean, talde horien erdiei eragiten diela ia, batzuetan gainditu ere bai).

10. grafikoa. Haurtzaroko pobrezia erlatiboaren edo diru-sarrera apalen tasaren eragina, hainbat aldagairen arabera, EAEn (2015)



Iturria: Egileek egina, EINEn Bizi Baldintzei buruzko Inkesta oinarri hartuta. Pobrezia-atalaseak zehazteko, EAEn diren atalaseak hartu dira kontuan.

Aurretik aipatu dugun moduan, posible da, era berean, EAEko haurren pobrezia-tasak EBko gainerako herrialdeetakoekin alderatzea, eta, gainera, jakitea adingabeen pobrezia «prima» (hau da, haurren pobrezia eta EAEko pobrezia artean den tartea) handiagoa edo txikiagoa den EAEn EBko beste herrialde batzuekin alderatuta. Taulan ikusten denez, Euskadin haurren pobrezia-tasak apur bat handiagoak dira EB15en baino; pobrezia etena, berriz, EB15ekoaren antzekoa da (haurren pobrezia biztanleria osoaren pobrezia % 122 izango litzateke).

28. taula. Haurren pobrezia-tasak eta 18 urtez azpikoen eta gainerako arteko «pobrezia-tartea» EBn eta EAEn (2014)

	Guztira	18 urtetik beherakoak	Ratioa
Errumania	25,1	39,3	156,6
Bulgaria	21,8	31,7	145,4
Espainia	22,2	30,5	137,4
Serbia	25,4	29,7	116,9
Portugal	19,5	25,6	131,3
Grezia	22,1	25,5	115,4
Luxenburgo	16,4	25,4	154,9
Italia	19,4	25,1	129,4
Hungaria	15,0	25,0	166,7
Letonia	21,2	24,3	114,6
Malta	15,9	24,1	151,6
Lituania	19,1	23,5	123,0
CAPV	19,3	22,8	118,1
Polonia	17,0	22,3	131,2
Kroazia	19,4	21,1	108,8
EB27	17,2	21,0	122,1
EB15	17,0	20,0	117,6
Estonia	21,8	19,7	90,4
Erresuma Batua	16,8	19,7	117,3
Eslovakia	12,6	19,2	152,4
Belgika	15,5	18,8	121,3
Austria	14,1	18,2	129,1
Frantzia	13,3	17,7	133,1
Irlanda	15,6	17,0	109,0
Alemania	16,7	15,1	90,4
Suedia	15,1	15,1	100,0
Eslovenia	14,5	14,8	102,1
Suitza	13,8	14,8	107,2
Txekiar Errepublika	9,7	14,7	151,5
Herbehereak	11,6	13,7	118,1
Zipre	14,4	12,8	88,9
Finlandia	12,8	10,9	85,2
Norvegia	10,9	10,2	93,6
Islandia	7,9	10,0	126,6
Danimarka	12,1	9,2	76,0

Iturria: Egileek egina, EINen Bizi Baldintzei buruzko Inkesta eta EUROSTATen EU-SILC oinarri hartuta.

Garrantzitsua da nabarmentzea, era berean, pobrezia-egoerak ez ezik haurtzaroan barruko desberdintasunak ere ugartu egin direla krisi-urteotan. Eusko Jaurlaritzaren Pobrezia eta Gizarte Ezberdintasuneko buruzko Inkestako (PGEI) datuekin bat, 18 urtetik beherako biztanleen Gini indizea 25,6 izatetik 27,9 izatera pasa da 2008 eta 2014 bitartean. Nabarmengarriena, edonola ere, zera da, nahiz eta goi-mailako klaseko haurren distantzia handitu bada ere (10 pertzentila errentaren banaketan) eta erdi-mailako klasekoen artean (50 pertzentila), gehien-gehien handitu dena erdi- eta behe-mailako klaseko haurrak bereizten dituen izan da (10 pertzentila). Haur pobreen eta erdi-mailako klasekoen arteko tartea, krisiaren aurretik, handiagoa zen haur aberatsen eta erdi-mailako klasekoen artekoa baino, eta, gainera, krisian zehar neurri handiagoan handitu da. Azterketa ugari erakutsi duten moduan, pobrezia pobretzeko prozesu bat izan da¹², eta EAEko haurren artean ere gertatu da prozesu hori.

¹² Hain zuzen, 2008tik aurrera orain gutxira arte bizitako krisi ekonomikoak ez dira batera «demokratikoak» izan. Eraginik kaltegarrienak batez ere gizartearen sektorerik ahulenetan izan dira. Sektore horietan, hain justu, topatu ditu biktimarik egokienak, biztanleriaren segmentu batzuek Espainian gizarte-babesaren maila apalak izaten baitituzte. Haurren eta familien gizarte-babeserako sistemak garapen eskasa du, eta prestaziozko gehienak kotizaziopekoak dira (bereziki, langabeziatik babesteko prestazioak), hori dela eta, krisiari aurre egiteko koltxoirik gabe utzi ditu hainbat kolektibo, hain zuzen, euren ezaugarriak direla eta babes beharrezkoak diren (Mari-Klose, P. Empobrecimiento en tiempos de crisis: vulnerabilidad y (des)protección social en un contexto de adversidad. *Panorama Social*, 22. zenbakia, 2015).

29. taula. Haurren desberdintasunaren bilakaera Euskadin (2008/2014)

	2008	2012	2014
Gini <18	25,61	24,29	27,99
P90/p50	1,70	1,62	1,76
P59/P10	1,90	2,04	2,24

Iturria: EAEko Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta.

2.3.3.5. Haurrak artatzeko zerbitzuak eskuratzea, eskolan integratzeko arazoak eta hezkuntza-ekitatea

Hurrengo orrietan ikusiko dugun moduan eta bestela izan ezin zitekeen moduan, hezkuntzarekin lotutako alderdiek egiteko biziki garrantzitsua dute euskal familien beharrezanezi eta arazoei dagokienez, bereziki seme-alabak eskolatzeko edota trebakuntza jasotzeko adinean dauden familietan. Epigrafe honetan labur-labur azalduko ditugu EAEko hezkuntzarako eta haurren arretarako zerbitzuak eskuratzearekin lotutako hainbat alderdi, nahiz eta azpimarratu behar den hezkuntza ez dela txosten honen lehentasun. Zehazkiago esanda, epigrafe honetan honako alderdi hauei buruz eskuragarri ditugun datuen laburpena jasoko dugu:

- 2013 eta 2015 artean jaiotako adingabeen ehunekoa, haurren arretarako zentroetan artatua eta zerbitzu mota hori eskuratzeko modurik ez duten familien bolumena, FFEIko datuetatik abiatuta.
- Euskal familietako seme-alabek eskolara egokitzearekin izaten dituzten arazoak edo eskola-porrotarekin lotutakoak, FFEIko datuetatik abiatuta.
- Euskal hezkuntza-sistemak hezkuntza-ekitatearekin loturik dituen arazoei buruzko hainbat datu, Save The Children erakundeak Euskadirako PISA azterlanaren emaitzak aztertuta.

Hiru urtez azpiko haurrak haur hezkuntzako zentroetan sartzeari dagokionez, FFEIk adierazten du haurren % 45ek lortzen dutela, eta gaineratzen du haurren % 22k ez dutela lehendabiziko ikasturtea bete eta % 64k bi baino gehiago dituztela. Taulako datuek adierazten dute, era berean, ikastetxe horietara guraso bakarreko familietatik gutxiago sartzan direla guraso-familia nuklearretatik baino¹³.

30. taula. 2013 eta 2015 artean jaiotako adingabeko biztanleak, zentro edo haurtzaindegietako arretaren arabera, familia mota eta adina aintzat hartuta (%) (2015)

	0 urte	Urte 1	2 urte	Guztira
Seme-alabak euren kargura dituzten gurasoak	25,5	50,6	65,7	46,3
Seme-alabak bere kontura dituen guraso bakarra	0,0	62,2	52,9	34,8
Guztira	22,8	50,4	64,1	45,0

Iturria: Egileek egina, EAEko familiei eta familia-etxeei buruzko inkesta oinarri hartuta.

¹³ Aurretik egindako inkesta batek jasotzen duenaren arabera (EAEko gizarte-beharrizanezi buruzko inkesta, 2014ko informazioarekin egina), datu interesgarri bat ikusten dugu. Tankera honetako zentroetara sartzeari eta garbi familien errentarekin lotuta dago: lehendabiziko kintilean (hau da, errenta txikiagoa duten familien % 20), tankera honetako zentroetara sarrera % 33koa bada, gainerako lau kintiletan % 51, % 56, % 69 eta % 59 da. Era berean, aurreko faktorearekin lotutako beste batzuekin ere lotuta dago, hala nola gurasoen hezkuntza-mailarekin eta, bereziki, amenarekin.

FFEIko datuek erakusten dute, bestalde, haur-zentroetan plazarik ez egotea EAEko 1.100 familia inguruztat delako arazo, eta seme-alabak euren kargura dituzten guraso-familien % 0,5 ingururi eragiten diola.

31. taula. Haurtzaindegian adingabeko seme-alabentzat tokirik ez duten familiak, etxe edo familia motaren arabera (%) (2015)

	Abs	%
Seme-alabak euren kargura dituzten gurasoak	1.143	0,4
Seme-alabak bere kontura dituen guraso bakarra	-	-
Guztira	1.143	0,2

Iturria: Egileek egina, EAEko familiei eta familia-etxeei buruzko inkesta oinarri hartuta.

FFEIek, era berean, hainbat datu interesgarri eskaintzen ditu EAEko adingabeek eskolara egokitzeko dituzten zailtasunen edo eskola-porrotaren inguruan. Taulako datuen arabera, familien % 0,7k ditu tankera horretako arazoak eta familien % 0,5ean, gainera, arazo larriez hitz egin daiteke. Halaber, taulak erakusten du guraso bakarreko unitateetan eragin hori askoz ere handiagoa dela (% 4,6) bi guraso dituzten familietan baino (% 1,6).


32. taula. Harremanarekin eta bizikidetzarekin lotutako arazo larrien eragina familia-taldearen motaren arabera (%) (2015)

	Intzidentzia guztira	Intzidentzia larria
Seme-alabak euren kargura dituzten gurasoak	1,6	1,0
Seme-alabak bere kontura dituen guraso bakarra	4,6	3,7
Guztira	0,7	0,5

Iturria: Egileek egina, EAEko familiei eta familia-etxeei buruzko inkesta oinarri hartuta.

Azkenik, haurtzaroko hezkuntza-desberdintasunei buruzko hainbat alderdiri erreferentzia egin behar diogu, pobrezia eta desberdintasunaren belaunaldiarteko erreproduzioarekin lotutako dagoen heinean; aurrerago hitz egingo dugu horretaz. Save The Children erakundeak jasotako datuen arabera¹⁴, PISA txostenak errenta handieneko eta baxueneko ikasleen arteko puntuazio-aldea handiagoa da Euskadin (330 puntu) Espainiako gainerako tokietan baino (289), baita ELGEko batez bestekoa baino ere (287).

11. grafikoa. Batez besteko puntuazioa PISA probetan, errenta-pertzentilaren arabera (2012)



Iturria: Egileek egina, EINen Bizi Baldintzei buruzko Inkesta oinarri hartuta.

¹⁴ Save the Children. Necesita mejorar. Por un sistema educativo que no deje a nadie atrás. Euskadiri buruzko eranskina. Madril, 2016.

2.3.4. Familia-politiken balorazioa, ezagutza eta inpaktua

Baliatzen diren datuen iturriek, era berean, euskal biztanleriak familia-politikei buruz egiten duten balorazioari eta haien orientazioari buruzko informazioa ematen dute, baita politika horien inguruko ezagutza-mailari eta haien inpaktuari buruzkoa ere. Auzi horiekin loturik, epigrafe honetan familia-politikak garatzeko testuinguru ekonomiko eta soziala definitzeko hiru alderdi interesgarri aztertuko ditugu, eta, zehazkiago, herritarren itxaropenei eta beharrezanei erantzun egokia ematearekin lotutakoak:

- Euskadiko biztanleriak jaiotze-tasak sustatzeko eta kontziliaziorako erakundeen neurrien erabilerari buruz egiten balorazioa, gutzia ere 2016ko Soziometroan jasotako informazioa oinarri hartuta.
- EAEko familiek familiak babesteko neurriei buruz duten ezagutza, erabilera eta balorazioa, Familiei eta familia-etxeei buruzko Inkestan jasotako informazioa oinarri hartuta.
- Prestazio ekonomikoen sistemak orotara pobrezia murrizteko duen gaitasuna, adin-talde desberdinetarako.

Familia-politikei buruz Euskadiko biztanleriak duen pertzepzioari dagokionez, hurrengo taulan jasotako datuen arabera, Euskadiko herritarren % 60k uste du erakundeek jaiotzak sustatzeko ardura dutela, eta ehuneko hori handitu egiten da (% 64) seme-alaba adingabeak dituzten artean. Biztanleen % 38k eta gazteen % 42k, bestalde, uste dute nahitaezkoa izan beharko litzatekeela bai aitak bai amak gutxienez guraso-baimenaren zati bat hartzea. Azkenik, biztanleen % 83k eta seme-alabak hazteko adinean daudenen % 88k uste dute erakundeek lan handiagoa egin beharko luketela laneko bitzta eta familia bateragarri egiteko.

33. taula. Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren ehunekoa, familia-politika batzuen inguruan lehenetsunak adierazten dituenak, ezaugarri soziodemografikoen arabera (2015)

	Erakundeek jaiotzak sustatzeko duten ardurarekin loturik	Ezinbestekoa beharko luke aitak eta amak jaiotzaren ostean baimenaren zati bat hartzea	Erakundeek lan handiagoa egin beharko lukete laneko bitzta eta familia bateragarri egiteko
Gizona	60	38	81
Emakumea	60	39	85
18-29 urte	53	42	78
30-45 urte	64	42	88
Seme-alaba adingabeak dituztenak	64	42	87
Seme-alaba adindunak dituztenak	60	33	82
Seme-alabarik gabe	57	40	80
Guztira	60	38	83

Iturria: Egileek osatua, 62. Euskal Soziometroan oinarrituta.

Iritziak biltzen dituzten inkesta horietatik harago, EAEko FFEIk datu interesgarriak jasotzen ditu Euskadiko sendiek familiei laguntzeko neurriak zer-nola erabiltzen dituzten ikusteko, baita haiei buruz zer balorazio egiten duten ikusteko ere. Alde horretatik, hurrengo taulak aztertzen du zenbateraino ezagutzen dituzten laguntzak familia motaren arabera, eta prestazioen ezagutza-maila esan liteke apala dela: seme-alabak dituzten familientzako laguntzak, konparazio batera, seme-alabarik ez duten ezkontza-unitateen % 40k ezagutzen dituzte, seme-alabak euren kargura dituzten gurasoen % 55ek eta seme-alabak kargura dituzten guraso bakarreko unitateen % 46k. Laneko eszedentziarekin lotutako neurriak apur bat ezagunagoak dira (seme-alabak euren kargura dituzten guraso-familien % 62k dute haren berri), baita 12 urtez azpiko seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa konpentsatzeko laguntzak ere (azken horiek seme-alabak euren kargura dituzten guraso-familia nuklearren herenek ezagutzen dituzte).

34. taula. Familiei laguntzeko neurri jakin batzuen berri duten familien ehunekoa, familia motaren arabera (%) (2015)

	Guztira	Guraso ez diren ezkontideak	Seme-alabak euren kargura dituzten gurasoak	Seme-alabak bere kontura dituen guraso bakarra
Seme-alabak dituzten familiak	35,1	40,7	55,2	46,9
3 urteko seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzia	38,7	46,7	62,5	40,0
<3 urteko seme-alabak zaintzeko kontratazioa	18,2	21,8	25,3	18,9
<12 urteko seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa	39,9	53	64,2	43,2
Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko eszedentzia	31,8	40,2	44,2	34,5
Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko lanaldi-murrizketa	31,2	41,6	43,9	36,1

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako Organo Berezia Familien eta familia-etxeen inkesta, 2015.

Edonola ere, laguntza horiek ezagutzen dituztenen artean, onarpen-maila oso handia da: laguntza horiek ezagutzen dituzten pertsonen % 95 eta % 100 arteko portzentaje baten esanetan, neurri motaren eta familia-profilaren arabera, neurriok ezinbestekoak dira.

35. taula. Familiei laguntzeko neurri jakin batzuen berri duten eta ezinbestekotzat jotzen dituzten familien ehunekoa, familia motaren arabera (%) (2015)

	Guztira	Guraso ez diren ezkontideak	Seme-alabak euren kargura dituzten gurasoak	Seme-alabak bere kontura dituen guraso bakarra
Seme-alabak dituzten familiak	98,2	99,5	98,2	100
<3 urteko seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzia	97,7	97	97,4	98,7
<3 urteko seme-alabak zaintzeko kontratazioa	96,5	95,1	97,1	98,3
<12 urteko seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa	97,4	95,7	97,7	95,9
Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko eszedentzia	98,7	98,6	98,7	100
Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko lanaldi-murrizketa	98,4	98,7	98,3	100

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako Organo Berezia Familien eta familia-etxeen inkesta, 2015.

Erabilera-mailari dagokionez, ezin daiteke esan oso zabala denik. Hain zuzen, seme-alabak euren kargura dituzten familien % 25ek esaten du jaso dituela seme-alabengatik laguntzak; guraso bakarrekoen kasuan, % 16 dira. Laneko eszedentziako laguntzaren kasuan, % 8,9k eskatu dute, eta guraso bakarrekotan, berriz, % 4,1ek. Lan-murrizketako laguntzak seme-alabak euren kargura dituzten guraso-familia nuklearren % 15ek baliatu dituzte, eta guraso bakarrekoen kasuan, berriz, % 7,8k.

36. taula. Inoiz familiei laguntzeko neurri jakin bat eskuratu duten familien ehunekoa, familia motaren arabera (%) (2015)

	Guztira	Seme-alabak euren kargura dituzten gurasoak	Seme-alabak bere kontura dituen guraso bakarra
Seme-alabak dituzten familiak	8,4	25,4	16,3
3 urteko seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzia	2,9	8,9	4,1
<3 urteko seme-alabak zaintzeko kontratazioa	0,1	0,4	0
<12 urteko seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa	5	15,6	7,8

Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko eszedentzia	0,3	0,4	0,6
Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko lanaldi-murrizketa	0,7	1,3	3,2

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako Organo Berezia Familien eta familia-etxeen inkesta, 2015.

Azkenik, laguntza mota horiek erabili dituztenek egiten duten balorazioari dagokionez, bi egoera desberdin nabarmendu behar dira: kontsultatutako pertsonen %70ek baino gehiagok dio ez direla nahikoak edo mugatuak direla seme-alabengatik ematen diren laguntzak. Dena dela, eszedentziak, lanaldi-murrizketak eta zaintzaileen kontratazioak estaltzera bideratutako laguntzak eskasak direla uste dutenen ehunekoa %30 ingurura jaisten da, eta zaintzaileen kontratazioaren kasuan, %12 ingurura.


37. taula. Inoiz familiei laguntzeko neurriren bat eskuratu duten, eta nahikoak ez direla, mugatuak direla edota gutxi edo bat ere ez laguntzen dutela uste duten familien ehunekoa, familia motaren arabera (%) (2015)

	Guztira	Seme-alabak euren kargura dituzten gurasoak	Seme-alabak bere kontura dituen guraso bakarra
Seme-alabak dituzten familiak	72,4	71,7	74,3
3 urteko seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzia	30,4	29,8	27,5
<3 urteko seme-alabak zaintzeko kontratazioa	12,0	12,6	11,3
<12 urteko seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa	13,6	13,6	-
Mendetasuna duten pertsonak zaintzeko eszedentzia	11,2	11,7	7,6
Mendeko pertsonak zaintzera bideratutako lanaldi-murrizketa	8,8	0,0	0,0

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako Organo Berezia Familien eta familia-etxeen inkesta, 2015.

Azkenik, zer inpaktu dute prestazio ekonomikoek, oro har, seme-alabak dituzten familien pobrezia murrizteko? Murrizten al dute pobrezia gainerako adin-taldeetako proportzio berean? Hurrengo grafikoan jasotzen da zenbateraino murrizten dituen Euskadiko prestazio ekonomikoen sistema osoak (kotizaziopeko prestazioak eta kotizaziopekoak ez direnak) pobrezia erlatiboan edo diru-sarrera apalak, baldin eta familiek euren lanetik edota kapitaletik eskuratzen dituzten baliabideekin bizi beharko balute. Grafikoan ikusten denaren arabera, adineko pertsonetan pobrezia %93 murrizten da eta %86 euren kargura adingaberik ez duten etxeetan; 16 urtetik azpikoen kasuan, pobrezia %26 baino ez da murrizten, eta mendeko adingabeak dituzten etxeetan %34.

12. grafikoa. Gizarte-prestazioen bidez pobrezia erlatiboaren tasa edo diru-sarrera apalena murriztea, familia moten arabera. EAE (2015)



Iturria: Egileek egina, EInen Bizi Baldintzei buruzko Inkesta oinarri hartuta.

Pobrezia murrizteko gaitasun hori batez ere erretiroko kotizaziopeko prestazioekin lotzen da; nabarmendu behar da kasu honetan ere prestazio ekonomikoen sistemak oro har haurren aldeko izaera apala duela, eta neurri handiagoan babesten dituela adineko pertsonak eta/edo karrera profesional zabala eta egonkorra izan dutenak. Alde horretatik, hurrengo taulan ikus dezakegun moduan, EAEn ezarritako gizarte-babeseko sistemak (kotizaziopeko pentsioak eta kotizaziopekoak ez direnak biltzen ditu, Gizarte Segurantzaren eta langabeziaren gainerako prestazioekin batera) biztanleria osoan, oro har, EBko gainerako herrialdeetan baino gehiago murrizten du pobrezia Euskadin; hori hala izanda ere, adingabeen kasuan kontrakoa gertatzen da, eta pobrezia-murrizketa Italian edota Espainian gertatzen denarekin bakarrik aldera daiteke. Europarekin alderatuta, hortaz, EAEk asko murrizten du pobrezia biztanleria osoa aintzat hartuta, baina oso gutxi haurrak eta nerabeak kontuan hartzen baditugu.


38. taula. Pobrezia murrizteko tasak EBko hainbat herrialdeetan eta EAEn, adingabeen eta biztanleria osoaren artean

	Biztanleria osoa	18 urtez azpikoak
EB28	-61	-43
Belgika	-64	-45
Danimarka	-70	-61
Alemania	-62	-51
Frantzia	-70	-49
Erresuma Batua	-61	-54
Italia	-57	-28
EAE*	-71	-26

Iturria: Egileek egina, Eurostaten EU-SILC eta INEren ECV oinarri hartuta.

Politika publikoek familien eta haurtzaroaren ongizatean duten inpaktua aztertzeko garaian, ezin da alde batera utzi inola ere diru-sarrerak bermatzeko errentak haurren pobrezia aurre egiteko duen gaitasuna. Hurrengo grafikoak Euskadin 2008 eta 2014 artean haur-pobrezia larriaren bilakaera jasotzen du, eta DSBE sistema ez balego adierazle hori zer-nolako izango litzatekeen azaltzen du alboan, baita sistema horrek haur-pobrezia larriaren tasak murrizteko duen gaitasuna ere. Grafikoak argi eta garbi erakusten du, diru-sarrerak bermatzeko errentarik ezean, haur-pobrezia 2008tik 2014ra bitartean % 7tik % 15era igaroko zela. Edonola ere, egiazko bilakaera bestelakoa izan da (% 4,1etik % 8,8ra), eta aztertutako urte bakoitzean haur-pobrezia larriaren tasak % 40 inguru murriztu ditu.

13. grafikoak. Haur-pobrezia larriaren tasen bilakaera EAEn, DSBErekin eta gabe (2008/2015)



Iturria: Egileek egina, EInen Bizi Baldintzei buruzko Inkesta oinarri hartuta.

2.4. Familia-politiken egitekoa eta garapena EAEn

2.4.1. Testuinguru berri bat familia-politiketarako: (err)eboluzio isila

Gure inguruko herrialdeetan garatutako gizarte-politiken analisiak erakusten du azken hamarkadetan familiei laguntzeko politikek hazkunde nabarmena izan dutela, dela politika horietara bideratzen den gastuari erreparatuta, dela neurri horiei eskaintzen zaien protagonismo politiko eta sozialari begiratuta. Aldaketa horren neurria eta kausak aztertu dituzten ikerketek adierazten dutenez, nahiz eta gizarte-babeserako beste partida batzuetan gastua murrizteko joera nabarmendu behar den, familia-politiken alorrean nolabaiteko (err)eboluzio isil bat gertatu da, eta haren arabera Europako herrialde gehien-gehienek indartu eta sendotu egin dituzte seme-alabak dituzten familientzako babes-sistemak. Hain zuzen ere, etengabeko austeritate urteetan eta gizarte-politikak oro har atzera egin duten garaiotan, ELGEko herrialdeak ez dituzte familiak babesteko politikak murriztu; aitzitik, indartu egin dituzte neurri handi batean¹⁵. Aldaketa horren ondorio gisa, familia-politikek zentralitate handiagoa eskuratu dute gizarte-politika osoari dagokionez. Hori horrela izanik, EUROSTATEk neurtzen dituen moduan, 1993 eta 2014 artean EB15eko familiei laguntzeko politikak gastu sozial osoaren %7,6 izatetik %8,2 izatera igaro dira, eta Europako BPGdaren %2tik %2,4ra handitu.

Hurrengo epigrafean azaltzen diren datuei testuingurua ipintzeko helburuarekin eta diseinatutako markoari jarraikiz, EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Plana exekutatzen eta ebaluatzen da; epigrafe honetan labur-labur aztertuko dira EBko familia-politiken sorrera eta exekuzioa aldatzen ari diren oinarrizko elementuetako batzuk (guztiak ere elkarren artean loturik).

- Emakumeak lan-merkatuan sartu izana eta Ongizate Estatua errealtate berri horretara egokitu beharra.
- Emankortasunaren beherakadak eragindako kezka eta Europako gizarteak zahartzea
- *Oinarrizko urteen* paradigma eta haurtzaroen garaiz esku hartzearen aldeko apustua.
- Haurren pobrezia hazkundeak eta belaunaldiarteko erreproduzioaren pobrezia eta desberdintasunak sortzen dute kezka gero eta handiagoa.

2.4.1.1. Emakumeak lan-merkatuan sartu izana, genero-berdintasuna eta koerantzunkizuna

Nabarmendutako lehendabiziko elementuari dagokionez, gogorarazi behar da 2.2 epigrafean adierazitako aldaketa soziodemografiko gehien-gehienek oraindik ere garrantzi handiagoa duen aldaketa batekin zerikusia dutela: emakumeak gero eta gehiago lan-merkatuan sartzea. Horrek, beste elementu batzuekin batera, erabateko aldaketa ekarri du mendeko pertsonak zaintzeko eta artatzeko irizpideetan, eta, modu bereziagoan, haurren kasuan. Emakumeak lan-merkatuan sartu izanak eragindako aldaketa horrek haurrak zaintzeko gizarte-irizpideak aldatu beharra sorrarazi du eta nolabait ere uste ez zen ondorioa ekarri du: emakumeak lan-merkatuan sartzea neurri handiagoan bermatu duten herrialdeek, laneko bizitza eta pertsonala bateragarri egiteko neurri solidoak ipini dituztenek eta genero-berdintasunean eta gizonen zein emakumeen arteko koerantzunkizunean gehien aurrera egin dutenek (seme-alabak hezteari begira) bakarrik mantendu dituzte emankortasun-tasak handiak.

Alde horretatik, hainbat lanek erakusten dutenez, gizarte aurreratu askotan gertatzen diren emankortasun-maila oso apalak gizarte-erakundeetan diren genero-berdintasun-mailako desberdintasunen ondorio dira. Ikerketa horien arabera, emankortasuna handitzeko ezinbestekoa da genero-berdintasuna presente egotea dela familietan (horrek esan nahi du berdintasun handiagoa izatea etxeko lanak banatzen eta haurren

¹⁵ Ferragina, E., Seeleib-Kaiser, M., Determinants of a silent (r)evolution: understanding the expansion of family policy in rich OECD countries. *Social Politics*, 22. bol., 1. zk., 2014, 1-37 or.

zaintetan) eta bestelako gizarte-erakundeetan (besteak beste, lan-merkatua eta hezkuntza barnean hartuta). Hori hala egin ezean, emankortasun-tasek modu proportziogabean egiten dute behera. Horrenbestez, pentsatu behar da gizartea beste genero-harreman batzuetara egokitu beharra alde aurreko eskakizun dela familia-funtzioak bideratzeko seme-alabei dagokienez, eta, ondorioz, jaiotze-tasak handitzeari begira. Genero-berdintasuna da, finean, jaiotze-tasak indartzeko politikarik onena, adituek diotenaren arabera¹⁶.

2.4.1.2. Emankortasuna, zahartzea eta familiei laguntzeko politikak

Emankortasunaren beherakada, Europako gizartea zahartzearekin batera, garrantzitsua izan da familiei laguntzeko politiken protagonismo berri hori azaltzeko garaian. Ez dago harreman zuzenik politika publikoen eta jaiotzeen hazkundearen artean: egindako analisiek ez dute erakusten lotura garbirik egindako politika publikoen (prestazio ekonomikoak, kontziliazio-neurriak, haurren arreta...) eta jaiotze-tasaren artean, eta pentsatzekoa da badirela beste osagai sozial batzuk (ikuspegi ekonomikoak, lan-harremanen konfigurazioa, genero-berdintasunaren patroiak...) herrialde bakoitzeko jaiotze-tasei eragiten dietenak, baita irismen luzeko baldintzatzaile demografikoak eurak ere, edota bizitzaren iraupena luzatu izana eta horren ondorioz izandako emankortasunaren murrizketa historikoa. Nolanahi ere den, emankortasun-tasa handiagoak dituzten herrialdeek zer politika abiarazten dituzten aztertzen dugunean, ikusten dugu familiei laguntzeko zerbitzu eta prestazioen aukera zabalagoa duten herrialdeek lortu dutela emankortasun-tasa handienak izatea¹⁷.

2.4.1.3. Arreta goiztiarra haurtzaroan eta oinarritzko urteen paradigma

Familia- eta haurtzaro-politikek duten interes berritua azaltzeko hirugarren elementua kalitatezko haur-arretari eta haurtzaroko esku-hartze goiztiarrari gero eta arreta handiagoa ematea da, honako ideia hau oinarri hartuta: gaur egungo desberdintasun nagusiak giza kapitalaren metaketarekin lotuta daude, eta, neurri handi batean, bizitzaren lehen urteetan agertzen eta finkatzen dira. Alde horretatik, gero eta ugariagoak eta erabakigarriagoak dira bizitzaren lehen urteak eta esku-hartze goiztiarra, alde batetik, eta bizitza guztian garatuko den potentziala, bestetik, lotzen dituzten ikerlanak, paradigma komun baten babesean, «funtsezko urteak» (*foundation years*) kontzeptu orokorraren barnean, bizitzaren fase horretan ondorengo ibilbide guztiaren oinarriak jartzen direla aintzat hartuta.

Funtsezko urteei ematen zaien garrantziaren oinarrian daude, alde batetik, soziologian eta pedagogian egindako aurrerabidea; eta, bestetik –eta batez ere–, ikerketa neurologikoen emaitzak. Heckmanek (2006) argi eta garbi laburbildu du esku-hartze goiztiarrak haurren bizi-perspektibetan duen garrantzia¹⁸. Egile hori, era berean, kalitatezko esku-hartze goiztiar batetik eratorritako kostu-eraginkortasun harremana agerian ipini duen ikertzaileetako bat da, zorrotasun handiz ipini ere. Egile haren ustean, neurozientziak eta psikologia esperimentalak frogatu dute lehen urteak erabakigarriak direla ikaskuntzarako, bai ikuspegi kognitibotik, bai bestelako ikuspegitatik. Ikaskuntza, adierazten du Heckmanek, prozesu dinamikoa da, eta ikaskuntza goiztiarrek sendotzen dituzte geroagoko ikaskuntzak. Giza kapitalerako ikaskuntza goiztiararen inplikazioak argiak dira, Heckmanen aburuz: esku-hartze produktibo bat izateko unerik onena, inbertitzeko unerik onena, haurrak oso txikiak direnean da. Horrenbestez, egile horrek jasotako datuek azaltzen dute

¹⁶ Esping-Andersen, G. et al. El déficit de natalidad en Europa. Colección de Estudios Sociales. 33. zk, La Caixa, 2013.

¹⁷ Frantziaren kasuan, konparazio batera, ikusi da prestazio ekonomikoek inpaktu esanguratsua dutela emankortasunean, nahiz eta kostua handia izan; hala, hilean 150 euroko laguntza batek % 3,3 ugarituko luke emankortasuna, batez ere hirugarren seme-alaben kopurua handituta. Edonola ere, adituek erakusten dute ez dela erraza neurri bakar baten inpaktua isolatzea eta familia-politikek emankortasuna handitzeko egiten duten ekarpena batez ere neurri-konbinazio handi bat gertatzen denean nabaritzen dela, batez ere zainketa-zerbitzuak, emakumeek ama izateko kostua murriztera bideratzen direnak, alegia. Frantzia familia-politikek emankortasun-tasetan izan duten inpaktuaren arrakasta eredu dibertsifikatuari esker lortu da; eredu horri esker, familiek balibide osagarriak eskuratu ahal dituzte seme-alabak hezteko diru, denbora eta zerbitzu modura (Thevenon, O. The influence of family policies on fertility in France. In: Rinduss y Choë (Eds.) Low fertility, institutions and their policies. Springer, 2016.)

¹⁸ Egilearen esanetan, ekonomiaren, neurozientziaren eta garapen psikologikoaren eremuetan zenbait hamarkadatan ikerketa independenteak egin direnean, oinarritzko lau kontzeptu sortu dira, lehen haurtzaroa helburu duten gizarte-politika sendoak diseinatzeko garrantzitsuak direnak. Lehenik eta behin, garunaren arkitekturan eta gaitasunak eratzeko prozesuan eragina du genetikaren eta norberaren esperientziaren arteko interakzioak. Bigarrenik, arrakasta ekonomikoa lortzeko funtsezko gaitasunak menderatzeko eta azpian dauden bide neuronalak garatzeko prozesuek arau hierarkiko batzuk jarraitzen dituzte. Geroagoko lorpenak lehenago ezarritako oinarrietan euskarritzen dira. Hirugarrenik, gaitasun kognitibo, linguistikoa, sozial eta emozionalak interdependenteak dira: guztietan eragin handia dute haurraren esperientziek, eta guztiak lagungarriak dira, gizartearen, oro har, arrakasta izateko. Laugarrenik, egokitzapenak bizitza guztian jarraitzen badu ere, giza gaitasunak aurreikus daitekeen aldi sentikorren sekuentzia batean erlatzen dira. Aldi horietan berariazko neurona-zirkuituen garapena eta jokabideak plastikoak dira funtsean, eta, horrenbestez, oso harkorrak dira, inguruko eraginei dagokienez.

esku-hartzeak zenbat eta lehenago egin, orduan eta errentagarriagoak direla kostuari eta eraginkortasunari erreparatuta¹⁹.

Haurrak behar besteko kalitateko haur-hezkuntzako ikastetxeetara eramateko modua izateak aukeraberdintasunaren aldeko politika benetan eraginkorraren zati izan behar du, kontuan hartuz gero, bai ikaskuntzaren oinarriak, bai desberdintasunen jatorri nagusia eskola garaiari lotuta daudela. Gainera, haurren zaintza eskuratu ahal izateak amen lana ere baldintzatzen du –eragin ekonomiko positiboak ekar ditzakete horrela–, eta, beraz, haurren zaintza sustatzen duten neurriak bi aldetatik irabazten duen politika baten adibide garbia dira (Esping-Andersen eta Palier, 2010). Zentzu berean, Waldfogel (2005) egileak dio arreata goiztiarra ardatz duten politikek gizarte-mugikortasuna eta haurren ongizatea sustatzen dituztela, eta, aldi berean, beste hainbat helburu lortzea posible egiten dutela: gizarteratzea, pobrezia murriztea, gurasoen enplegua, gurasoen aukeratzeko gaitasuna edota genero-berdintasuna, beste hainbaten artean.

2.4.1.4. Haurren pobrezia eta pobrezia-aren belaunaldiarteko erreproduzioa: ekonomiarekin, hezkuntzarekin, kulturarekin eta harremanekin lotutako herentzia

Familiarekin eta haurtzaroarekin lotutako politiketara gero eta gehiago ematen zaien garrantziaren ildotik, esan dugun bezala, nabarmentzeko beste elementu bat pobrezia gazte eta haurretara eramateko arriskua da, eta, beste hitz batzuetan, seme-alabak dituzten familietara²⁰. Alde batetik koiunturala dirudien auzi horrekin batera, gizarte-mugikortasunerako gero eta zailtasun handiagoek sortzen duten kezka ere nabarmendu behar da, baita pobrezia eta desberdintasuna belaunaldien artean erreproduzitzeko kezka ere²¹. Hain zuzen ere, familia-politiken ikuspegitik eraginik garrantzitsuenetako bat pobrezia ugaritzea izan liteke, baita krisiaren ondorioz erregistratzen ari den desberdintasuna nabarmentzea ere; horrek gorantz gertatzen diren gizarte-mugimenduak gertatzeko aukerak murriztuko lituzke eta gizarte-herentziaren (bir)jarrialdia abiarazi, gizartearen gora egiteko aukerak hondatzen ari diren testuinguru batean guztia ere. Hala, jatorri soziala faktore erabakigarri da berriro ere pertsonen bizi-ibilbidean. Globalizazioaren galtzaile eta irabazle arteko egitura sozialaren dualizazioak ostera ere jomuga sozialak polarizatzen ditu, eta are estuagoak bilakatzen ditu gizarte-mugikortasunerako bideak²².

Azterlan guztiak bat datoz nabarmentzean, egungo testuinguru sozial eta ekonomikoan, gurasoen harreman, kultura eta hezkuntzarekin lotutako kapitalak aldiko pisu handiagoa izango duela eskulan ez-kalifikatua gero eta urriagoa eta okerrago ordaindua izango den gizarte batean. Alde horretatik, gero eta ebidentzia zientifiko gehiago dira adieraziz egun diru-sarreretan gertatzen diren desberdintasun handiagoen ondorioz familia-testuinguruak gero eta garrantzi handiagoa duela gazteen etorkizuneko bizi-maila zehazteko garaian; aldi, ahalegin pertsonalak etorkizuneko bizi-baldintzetan duen inpaktua ahultzen doa (Corak, 2013). Ezagutzaren gizartearen, pertsonen bizi-aukerak haurtzaroko lehen urteetatik metatutako kapital kultural, sozial eta kognitiboaren arabera dira, gero eta nabarmenago. Horrek guztiak erakusten du, hain zuzen, gaur egun desberdintasun nagusiak eta bazterkeriaren eragile nagusiak direla familiek eta

¹⁹ 2010eko abenduan, Erresuma Batuko gobernuak eragin handia izan duen txosten bat argitaratu zuen, funtsezko urte horien eta haur-pobrezia-aren arteko erlazioari buruzkoa. *The Foundation Years: preventing poor children becoming poor adults* izenburupean, Fieldek (2010) adierazten duenez, ebidentziek azaltzen dute bizi-aukerak definitzen direla, funtsean, haurrek lehenengo bost urteetako garapenaren arabera. Egile horren ikuspegitik, familia-inguruak, gurasoen hezkuntzak eta gaitasunak, eta funtsezko urte horietako ikaskuntza-aukerak eragin handiagoa dute, oro har, diruak baino, helduaroko aukerak definitzeari begira. Hortaz, Fielden iritziz, gehien eragiten duten faktoreak hauek dira: haurdunaldi osasuntsua, amaren osasun mental ona, haurraren lotura osasuntsua, gurasoen maitasuna eta ardura, eta, aldi berean, muga argiak, eta haurren garapen kognitibo, linguistiko, sozial eta eta emozional egokia bideratzeko aukerak. Horretarako, osasun-zerbitzu egokiak behar dira jaiotze aurretik eta haurtzaroen, eta haurrei arreata emateko kalitateko zerbitzuak ere bai. Emaitza okerrenak dituzten haurrekin geroago egindako esku-hartzeak eraginkorrak izan daitezke, aitortzen du Fieldek, «baina, eskuarki, familiei laguntzeko modu onena, kostua eta eraginkortasuna kontuan hartuta, seme-alaben bizitzaren lehen urteetan esku-hartzea da».

²⁰ Hainbat ikerlanek agerian utzi dute politika publikoen mota jakin batzuen eta amatasunarekin/aitatasunarekin lotutako pobrezia-arriskuaren arteko harremana. Alde horretatik, adierazten dute Europa hegoaldeko herrialdeetan amatasuna/aitatasunak pobrezia-arriskua nabarmen handitzen duela, batez ere lan-merkatuarekin lotura prekarioagoa daukaten etxeetan. Efektu hori ez da gertatzen Europa erdialdeko eta iparraldeko herrialdeetan (hau da, seme-alabak izateak ez du pobrezia-arriskua handitzea esan nahi), eta hori loturik dago Europa hegoaldeko herrialdeetan gizarte-politikak definitzeko moduarekin (Barbieri eta Bozzon. Welfare, labour market deregulation and households' poverty risks: an analysis of the risk of entering poverty at childbirth in different European welfare clusters. *Journal of European Social Policy*, 26. bol, 2. zk., 2016, 99-123).

²¹ FOESSA fundazioaren ustean, pobrezia-aren errealtatea oinordetzan jasotzeko modukoa da, eta jaso ere jasotzen dugu. Egindako azterlanek erakusten dute lotura estua dagoela gurasoen eta seme-alaben bizi-baldintzen artean. Ez da harrizkoa eremu horretan jarduten duten gizarte-zerbitzuak zentroetan eta GKEetan gaur egun orain 30 urte artatutako pertsonen bilobak artatzea, tartean gurasoak ere igarota (Flores Martos, R. *La transmisión intergeneracional de la pobreza. Factores, procesos y propuestas para la intervención*. FOESSA Fundazioa, 2016).

²² Peugny, C., *Le destitue au berceau. Inégalité et reproduction sociale*. Seriea: La République des Idées, Paris, Editions du Seuil, La République des Idées, 2013, 112. or.

hezkuntza-sistemek dituzten gaitasun desberdinak, eta neurri are handiagoan izango direla etorkizunean, bizitzaren lehen urteetan testuinguru berri horretan behar diren estimulu eta ikaskuntzak emateko²³.

Gizarte-justiziako terminoetan duen inpaktuaz gain, desberdintasunaren belaunaldiarteko erreproduzioaren iraupenak gaur egun arazo handiagoa planteatzen du iraganean baino, kontuan hartzen baldin baditugu ezagutzaren ekonomiaren alorrean etorkizun hurbilean bizi-baldintza arazoizkoak edukitzeko beharrezko izango diren ezagutza eta trebetasun motak. Desberdintasunek gora eginda, familiek seme-alaben etorkizunean inbertitzeko aukeretan ere gero eta desberdintasun gehiago izango dira (SIIS, 2012). Horren guztiaren ondorioz, haurtzaroko eta familiako politikak pobreziaren eta desberdintasunaren aurka borrokatzeko ikuspegitik ere planteatu behar dira, eta lehenetsuna eman beharko zaie aukera-berdintasuna bermatuko duten neurri guztiei, gizarte-mugikortasuna indartzekoei edota haurren zein gazteen bizi-ibilbidean familiaren herentziaren pisua neutralizatzeraz bideratutakoei.

2.4.1.5. *Gizarte-alderantzikatzearen paradigma, seme-alabak dituzten familien hauskortasun gero eta handiagoari erantzuteko*

Aipatutako elementuek aldaketa bat mamitzen lagundu dute gizarte-politiketan, gizarte-alderantzikatzearen paradigma edo ikuspegia deitu izan den garapenaren bidez. Beste lan batzuetan adierazi dugun moduan²⁴, 1990eko hamarkadaren erdialdetik aurrera eta, bereziki, XXI. mendeko lehenengo urteetatik aurrera, ikuspegi berri bat garatu da, batez ere Europan. Askoren ustez, ikuspegi horrek paradigma-aldaketa bat dakar gizarte-ongizatearen politiken definizioan, eta, aurrerago aipatuko dugun moduan, oinarritzko aldaketa bat eragingo du seme-alabak dituzten familiei laguntzeko politiketan, garrantzi berri edo handiagoa emango baitie gizarte-babeserako politiken barruan. Paradigma berri horrek, besteak beste, haurrei lotutako esku-hartze publikoa ulertzeko modu berri bat ekarriko du, haurren ongizatea eta garapen kognitibo eta emozional ahalik eta hobereana funtsezko faktoretzat hartzen dituen, epe luzera kohesioa lortze aldera. Ikuspegi horretatik, haurtzaroan inbertitzea, familiei laguntzeko politiken garapena, haurrentzako kalitatezko zainketa, eta, hedaduraz, haur-pobreziaren aurkako borroka dira gizarte-alderantzikatzeko deitutako eredu horren ardatz nagusiak.

Ikuspegi horren ezaugarri nagusia da, Morel, Palier eta Palme (2012) ikertzaileek adierazi bezala, arretagunea aldatzea konponketa helburu duten politiketatik prestaketa helburu duten politiketara (*preparing rather than repairing*). Egile horiek adierazitakoari jarraituz, inbertsio sozialaren ikuspegiaren oinarrian daude honako ardatz hauek: giza kapitalaren garapena helburu duten politikak (haurrentzako zainketa eta hezkuntza goiztiarra, bizitza osoko prestakuntza), kapital hori efizientziaz aprobetxatzea (malgutasuna eta segurtasuna uztartzea bideratzen duten politiken bidez), bai eta gizarteratze handiagoa lortzea ere, funtsean lan-merkatutik kanpo dauden taldeak gizarteratuz. Nolanahi ere, ikuspegi horren oinarritzko bereizgarria da gizarte-politikak produkzio-elementutzat jo behar direla, garapen ekonomikorako eta enpleguaren hazkunderako funtsezkoak diren aldetik. Ikuspegi horrek erabateko aldaketa dakar gizarte-politikak karga ekonomikotzat eta hazkunderako eragozpenetzat hartzen zituen ereduarekin.

Estatu sozial alderantzizkatzaileak dakarren ikuspegi-aldaketak eragin garbi eta erabakigarria du gizarte-politiken eremu zehatz batean: familiei laguntzeko politiken alorrean, hain zuzen. Izan ere, politika horiek hartzen dute orain arte herrialde gehienetan izan ez duten lehenetsuna. Haurtzaroaren ongizatean eta, ondorioz, familienean inbertitzea da Estatu sozial alderantzizkatzailearen ardatza, haurtzaroan oinarritutako gizarte-alderantzikatzeko estrategia bat defendatuta (Esping-Andersen, 2002). Estrategia horren oinarria aurretik ere aipatu dugu: desberdintasunari eta bazterkeriari eragiten dioten mekanismoek batez ere haurtzaroaren lehendabiziko aroan eragiten dute eta familiaren barruan pilatzen dira batez ere. Ikuspegi

²³ ELGEren arabera, helduaroko ongizatearen ia dimentsio guztiak (osasun-egoera, diru-sarrerak, hezkuntza, adimena, jarrera, pertsonalitatea edota okupazioa) nolabait ere gurasoetatik seme-alabetera igarotzen dira, eta gero eta kezka handiagoa sortzen da mendebaldeko herrialdeetan belaunaldien arteko desberdintasunak duen inpaktuarekin (ELGE, 2009). Erakunde horren iritzian, nahiz eta ez dagoen daturik argi eta garbi baieztatzeko belaunaldien arteko desberdintasuna handitzen ari dela azken urteetan, ikerketa berriek erakusten dute fenomeno horrek lortu duen maila orain urte batzuk pentsatzen zena baino handiagoa dela; halaber, adierazten du errenta-eskalan muturretan (txiroenak eta aberatsenak) nabari dela gehien familia-herentzia; hau da, gizarte-mugikortasuna apalagoa dela eta erraztasun handiagoz erreproduzitzen direla jatorri-familiaren hezkuntza-maila, gizarte-maila edota diru-sarrerak. Erdi-mailako errenta-estrategiekin, bestalde, gizarte-mugikortasunerako aukera handiagoak lituzkete, dela gorantz, dela beherantz. Esping-Andersen (2005) egileak aipatzen duen moduan, «gizarte-herentziaren arazo nagusia muturretan dago. Familia pobreetako seme-alabak sekulako oztipoak izaten dituzte gizarte-eskalan gora egin ahal izateko; aldez, familia aberatsetako seme-alabek babes izugarria dute gizartearen behera egiteko mehatxuari aurre egiteko».

²⁴ Zalakain, J., Políticas de apoyo a las familias en Europa: nuevos contextos y nuevas orientaciones. *Zerbitzuan*, 56 zk. (2014).

horren defendatzaileen ustean, birbanaketa, aukera-berdintasuna, eta bazterkeriaren aurkako borroka sustatzea helburu duen edozein politika eraginkorra izan dadin, garai horretan eta eremu horretan jarri behar du arreta-gunea eta lehentasuna.

2.4.2. Euskadiko familia-politikak Europako testuinguruan

Aurreko atalean aipatu dugun moduan, familiei laguntzeko prestazioetan egiten den gastu publikoa oinarritzea da haur-pobrezia murrizteko. Halaber, ikuspegi zabalago batetik begiratzen badugu, haurtzarora bideratutako gastu publikoa kontuan hartzea gizarte osoaren ongizatea hobetzeko baliagarritasun izugarria duen erreminta da, eta, adierazi dugun moduan, Europar Batasuneko paradigma kontzeptual nagusiekin bat dator, gizarte-babeseko politikak diseinatzeari dagokionez. Sarrerako kapituluaren esan dugun moduan, kapitulu honetan gerturatze bat egingo dugu familiei babesteko Euskadiko politika publikoei buruz, Europako testuinguruaren barruan betiere. Gerturatze hori bi ikuspegiren arabera egingo da: bata familia-politiken gastuan oinarritua –batez ere SEEPROS metodologiak ematen dituen datuen arabera–, eta bestea, berriz, familia mota desberdinei buruzko simulazio batetik abiatuta, onura fiskalen inpaktu ekonomikoak ezagutzeko eta haietako bakoitzeko prestazio ekonomikoak zein diren jakiteko.

2.4.2.1. EAEko familia-politikatako gastua alderatutako ikuspegiarekin

Familia-politiketan egindako gastuaren alderaketa hasi aurretik, ezinbestekoa da EAEko familiei laguntzeko politiken egungo egoeraren testuingurua azaltzea. Ildo horrekin lotuta, politika horien ezaugarri nagusietako bat azken urteetan izan duten hazkunde nabaria da. Hala erakusten dute Eutatek Gizarte Babeseko Kontuan jasotako datuek, Gizarte Babeseko Europako Estatistika Sistemaren (SEEPROS) metodologiari²⁵ jarraituz, Eurostatek diseinatuta bezala. Hurrengo taulako datuek erakusten duten bezala, metodologia horren bidez jasotako familia eta seme-alaben funtzioari buruzko gastua 1995ean BPGdaren % 0,22 izatetik 2015ean % 0,71 izatera igaro da, eta babes sozialari dagokion gastua, berriz, % 1,15 izatetik % 2,94 izatera urte-tarte berean. Guztira, administrazio publikoek 2015ean 488,7 milioi euro gastatu zituzten EAEn 2015ean, familiari eta haurtzarolari zuzendutako zerbitzuetan eta prestazio ekonomikoetan.

39. taula. Familietan eta seme-alabetan egindako gastuaren parametroen eboluzioa EAEn 1995-2015


	Gastua mila eurotan	Gastuaren urtearteko hazkundera	Gastua eurotan biztanleko	BPGdaren gaineko gastuaren %	Gastuaren % gizarte-babesean
1995	63.878	--	30,0	% 0,22	% 1,15
1997	83.578	% 31	39,8	% 0,25	% 1,35
1999	99.499	% 19	47,4	% 0,25	% 1,47
2000	110.179	% 11	52,5	% 0,26	% 1,50
2001	130.399	% 18	62,1	% 0,29	% 1,63
2002	137.501	% 5	65,2	% 0,29	% 1,60
2003	175.164	% 27	82,9	% 0,35	% 1,90
2004	186.144	% 6	88,0	% 0,34	% 1,88
2005	224.009	% 20	105,4	% 0,38	% 2,08
2006	278.069	% 24	130,3	% 0,44	% 2,43
2007	339.162	% 22	158,3	% 0,50	% 2,74
2008	401.754	% 18	186,2	% 0,58	% 2,98
2009	449.431	% 12	206,9	% 0,68	% 2,98
2010	475.034	% 6	218,1	% 0,70	% 3,03
2011	494.817	% 4	226,5	% 0,73	% 3,13
2012	486.585	-% 2	221,9	% 0,73	% 3,03
2013	445.771	-% 8	203,4	% 0,68	% 2,71
2014	483.440	% 8	220,9	% 0,72	% 2,94
2015	488.716	% 1	223,2	% 0,71	% 2,94

Iturriak: egileek egina EUSTATen datuetan oinarrituta. Gizarte Babesaren Kontua eta Kontu Ekonomikoak; INE. Errolda Jarraituaren Estatistika.

²⁵ Ezinbestekoa da ohartaraztea SEEPROS metodologiak familiaren eta haurtzararen esparruan zuzeneko arretako zerbitzuetan eta prestazio ekonomikoetan egindako gastuak jasotzen dituela, baina ez onura fisikaletan izan diren gastuak. Halaber, ez dira sartzen seme-alabak dituzten familiei laguntzeko prestazio jakin batzuk (diru-sarrerak bermatzeko errenta, konparazio batera), gizarte-bazterkeriari aurre egiteko funtzioari esleitzen baitizkio.

Nahiz eta aztertutako bi hamarkadetako balantze orokorrak erakusten duen familietan gastu handiagoa izan dela nabarmen, ezinbestekoa da aipatzea eboluzioa ez dela berdina izan denbora-tarte osoan. Alde horretatik, hasierako zabalkunde-etapa batean, 1997 eta 2009 artean, urtez urteko hazkunde oso garrantzitsuak izan ziren urte gehientsuenetan; osteko etapa batean, 2010etik 2015era bitartean, berriz, hazkundearen erritmoa nabarmen murriztu zen, eta 2012an eta 2013an are murrizketa jarraitua gertatu zen.


14. grafikoa. Familietan eta seme-alabetan izandako gastuaren eta urtez urteko aldakuntzaren eboluzioa (euro konstanteetan) EAEn. 2002-2015



Iturriak: egileek egina EUSTATen datuetan oinarrituta. Gizarte Babeserako Kontua, INE. Kontsumorako prezioen indizea.

EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Plana indarrean izan den urteetan (2011-2015) arreta ipintzen badugu, ikusiko dugu 2013tik aurrera gastua murriztu egiten dela familia eta seme-alaben funtzioan, eta, horrez gainera, gastu horren pisu erlatiboa EAEko BPGdan ere apaldu egiten dela; hartara, administrazio publikoen ahalegina murriztu egiten da. Era berean, osteko ekitaldietan, gastua nolabait berreskuratu baldin bada ere, 2012koak baino parametro apalagoak ageri dituzte, eta aurreko hamarkadako hasieran zen goerara eramaten dute EAE.

15. grafikoa. Familietan eta seme-alabetan egindako gastuaren parametroen eboluzioa EAEn 2011-2015



Iturriak: egileek egina EUSTATEN datuetan oinarrituta. Gizarte Babesaren Kontua eta Kontu Ekonomikoak; INE. Errolda Jarraituaren Estatistika.

2012tik aurrera ikusitako murrizketa familia eta seme-alaben funtzioaren gastuan ez dagokio horrenbeste dirutan emandako prestazioak murriztu izanari (oro har, 2013an izan ezik, 2011ko gastuen tankerako mailari eutsi dio), baizik eta prestazioei oro har emandakoan. Hurrengo taulan ikus dezakegun moduan, % 4,2 murriztu da 2011 eta 2014 artean²⁶.

40. taula. Familietan eta seme-alabetan egindako gastuaren bilakaera, motaren arabera. EAE 1995-2014

	Prestazioak oro har		Prestazioak dirutan		Guztira	
	Gastuak (mila €)	Urtez urteko hazkundea (%)	Gastuak (mila €)	Urtez urteko hazkundea (%)	Gastuak (mila €)	Urtez urteko hazkundea (%)
1995	45.936	--	17.942	--	63.878	--
1997	64.870	% 41,2	18.708	% 4	83.578	% 30,8
1999	78.805	% 21,5	20.694	% 11	99.499	% 19,0
2000	88.512	% 12,3	21.667	% 5	110.179	% 10,7
2001	104.992	% 18,6	25.407	% 17	130.399	% 18,4
2002	107.379	% 2,3	30.122	% 19	137.501	% 5,4
2003	141.425	% 31,7	33.739	% 12	175.164	% 27,4
2004	146.536	% 3,6	39.608	% 17	186.144	% 6,3
2005	159.993	% 9,2	64.016	% 62	224.009	% 20,3
2006	195.801	% 22,4	82.268	% 29	278.069	% 24,1
2007	222.325	% 13,5	116.836	% 42	339.161	% 22,0
2008	246.759	% 11,0	154.995	% 33	401.754	% 18,5
2009	245.785	-% 0,4	203.646	% 31	449.431	% 11,9
2010	280.372	% 14,1	194.662	-% 4	475.034	% 5,7
2011	290.959	% 3,8	203.858	% 5	494.817	% 4,2
2012	280.073	-% 3,7	206.512	% 1	486.585	-% 1,7
2013	254.632	-% 9,1	191.139	-% 7	445.771	-% 8,4
2014	278.620	% 9,4	204.820	% 7	483.440	% 8,5
% 1995-2014	--	% 506,5	--	% 1041,6	--	% 656,8
% 2011-2014	--	-% 4,2	--	% 0,5	--	-% 2,3

²⁶ Hemen nabarmendu behar da dirutan emandako prestazioak, batetik, Gizarte Segurantzaren eskumena direla (amatasun- eta aitasun-baimenak barne) eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzak plan honen esparruan egindakoak.

Iturriak: egileek egin EUSTATen datuetan oinarrituta. Gizarte Babesaren Kontua.

SEEPROS metodologiarekin bat eta aurkezten dituen mugak kontuan izanda (esan dugun moduan, ez ditu aintzat hartzen familiari egindako kenkari fiskala, ezta diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta tankerakoen prestazio ekonomikoak ere), alderatutako ikuspegi batetik nabarmendu liteke gaur egun euskal gastua txikiagoa dela EBko herrialdeetan egiten dena baino, bai eta BPGdarekin edo biztanleko gasturen alderatuta aztertzen denean edota Estatu osoan egiten denaren aldean ere. Hain zuzen ere, alderatutako ikuspegi batetik, EAEk gastu-maila apalagoa du familietan Estatu osoan baino, dela prestazioetan oro har emateari dagokionez (horietan aldea txikiagoa da), dela dirutan emandako prestazioetan (horietan, Estatuan biztanleko gastua ia % 33 handiagoa da EAEn egiten dena baino).

41. taula. Familia eta seme-alaba funtzioen gastua (mila euro). EAE eta Espainia 2014

	CAPV			Espainia		
	Guztira	BPGdaren %	biztanleko	Guztira	BPGdaren %	biztanleko
Prestazioak oro har	278.620	% 0,41	127,3	5.622.103	% 0,52	120,6
Prestazioak dirutan	204.820	% 0,30	93,6	8.029.315	% 0,75	172,2
Guztira	483.440	% 0,72	220,9	13.651.417	% 1,27	292,8

Iturriak: egileek egina EUSTATen datuetan oinarrituta. Gizarte Babesaren eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren kontua, Gizarte-babesteko estatistika integratuetatik abiatuta, SEEPROS metodologiaren arabera.

42. taula. Familia eta seme-alaba funtzioen gastua (mila euro) motaren arabera. EAE eta Espainia 2012

	CAPV			Espainia		
	Guztira	BPGdaren %	biztanleko	Guztira	BPGdaren %	biztanleko
Prestazioak oro har						
Ama izatean errentei eustea*	153.380	% 0,23	69,9	2.355.689	% 0,23	49,8
Familiei emandako laguntza, seme-alabak euren kargu izateagatik.	39.963	% 0,06	18,2	1.797.454	% 0,17	38,0
Jaiotza-subsidioak	5.672	% 0,01	2,6	31.347	% 0,00	0,7
Enplegatzailearen ordainketa osagarriak eta bestelako prestazioak	81.058	% 0,12	37,0	863.304	% 0,08	18,3
Guztira	280.073	% 0,42	127,7	5.047.793	% 0,49	106,8
Prestazioak dirutan						
Ostatua	83.155	% 0,12	37,9	--	--	--
Hezkuntza 0-3 urte	78.641	% 0,12	35,9	--	--	--
Beste prestazio batzuk	44.716	% 0,07	20,4	--	--	--
Guztira	206.512	% 0,31	94,2	8.861.057	% >0,85	187,5
Guztira	486.585	% 0,73	221,9	13.908.850	% 1,34	294,3


*Gurasoen baimena barne.

Iturriak: egileek egina EUSTATen datuetan oinarrituta. Gizarte Babesaren eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren kontua, Gizarte-babesteko estatistika integratuetatik abiatuta, SEEPROS metodologiaren arabera.

Datu eguneratu gehiago izan gabe, SEEPROSek 2012rako familia/seme-alaba funtzioan jasotzen duen gastuaren xehetasunak erakusten duenez, Estatu eta EAEko gastuaren arteko alderik garrantzitsuenak, neurri handi batean, euren kargu seme-alabak izateagatik ematen den prestazio ekonomikoaren gastu apalagoak eragina da, eta, batez ere, EAEn dirutan emandako prestazioak apalagoak izateagatik. Hain justu, bi lurraldeen arteko aldeak aztertzen direnean gastuaren banaketari dagokionez, alde nabarmenak ikusten dira; izan ere, EAEk gastuaren % 58 prestazio ekonomikoetara bideratzen du 2012, eta % 42 baino ez arreta zuzeneko zerbitzuetara; Espainiako kasuan, berriz, horiek gastu osoaren % 36 dira eta dirutan emandako prestazioak, berriz, % 64.

SEEPROS metodologia aplikatzen duten organoen artean desberdintasun metodologiko apal batzuk izan daitezkeela alde batera utzita, eta kontuan izanda aztertutako datuek nabardurak izan ditzaketela (esate baterako, baliabide gutxien dituzten kolektiboan, eta, ondorioz, eskualdeen aldeko diru-prestazioen orientazio diferentziala edota analisi honetatik konpentsazio gisa jarduten duten gutxieneko errenten familia-dimentsioa analitiko erretiratuta), egia esan EAEk gaur egun eta alor honekin loturik, familiak babesteko gastu-maila apalagoa du Estatu osokoa baino.


16. grafikoa. Familia eta seme-alabetarako gastuaren eboluzioa EB-28n, EB-15en, Espainian eta EAEn (BPGdaren gaineko %)



Iturriak: egileek egin EUSTATen datuetan oinarrituta. Gizarte Babesaren Kontua eta EUROSTAT. ESSPROS.

Nabarmendu behar da, gainera, alderaketa EBko gainerako herrialdeekin egiten denean (SEEPROS metodologia baliatuta) EAEn eta Europaren arteko aldeak oso handiak izaten jarraitzen dutela. 2014an EB28k barne-produktu gordinaren % 2,4 bideratu zuen prestazio horietarako, Espainiako estatuak % 1,3 eta EAEk % 0,72. Egia da EAEk 2000tik orain arte 2,7 bider handitu duela laguntza horietara bideratzen den barne-produktu gordinaren proportzioa, eta Europar Batasunean ia ez dutela aldaketarik egin. Hala eta guztiz, Europako herrialdeekiko aldea oso handia da oraindik ere, ikuspegi horretatik. Hori horrela izanik, EB28ko batez bestekora iristeko, 2014ko gastua hirukoiztu baino gehixeago egin beharko litzateke: ekitaldi horretan esleitutako 483 milioi euroren ordez 1.600 milioi euroko gastua egin beharko litzateke, eta, egungo egoera ekonomikoan, erronka hori ezinezkotzat jo daiteke. Gastua barne-produktu gordinaren arabera aztertu beharrean gizarte-babeserako baliatutako gastu guztiaren arabera aztertuz gero, egoera oso antzekoa ageri da. Kasu honetan, ikusten dugun EAEk gizarte-babeseko gastu osoaren % 2,94 bideratzen duela funtzio horretara; EB28k % 8,22 eta Espainiak, berriz, % 5,19.

17. grafikoa. Gizarte-babeseko gastu osotik familia eta seme-alabetarako gastuaren proportzioaren eboluzioa EB-28n, EB-15en, Espainian eta EAEn (BPGdaren gaineko %)



Iturriak: egileek egin EUSTATen datuetan oinarrituta. Gizarte Babesaren Kontua eta EUROSTAT. ESSPROS.

Beste ikuspegi batetik begiratuta, Euskadik Europar Batasunaren batezbestekoa baino gutxiago gastatzen du gizarte-babesean, eta, horrez gainera, garrantzitsua da Europar Batasunarekin duen alde hori handiago dela familiaren alorrean gainerako gizarte-politikan baino.

43. taula. Gizarte-babeserako prestazioetan egindako gastua, arloen arabera. EB-28 eta EAE 2014 (BPGdren %-an)

	CAPV	UE-28	CAPV EB28=100
Gaixotasuna	6,22	8,1	76,8
Baliaezintasuna	1,71	2,0	85,5
Zahartzaroa	10,21	11,1	92,0
Biziraupena	2,43	1,6	151,9
Familia/Seme-alabak	0,72	2,4	30,0
Langabezia	2,28	1,4	162,9
Etxebizitza	0,21	0,6	35,0
Gizarte-bazterkeria	0,73	0,5	146,0
Guztira	24,50	27,6	100,0

Iturriak: egileek egin EUSTATen datuetan oinarrituta. Gizarte Babesaren Kontua eta Kontu Ekonomikoak; INE. Errolda Jarraituaren Estatistika.

Hain zuzen ere, Euskadik gizarte-babeserako prestazio guztietan –langabezia, gizarte-bazterkeria eta biziraupenekoak salbuespen direla– barne-produktu gordinaren proportzio txikiagoa jartzen du EB-28k baino. Baina, familiaren arloan ageri dira, hain zuzen, bai eta etxebizitzaren arloan ere, diferentzia handienak. Esate baterako, zahartzaroaren alorrean Europar Batasuneko batez besteko gastuaren % 92 inguru gastatzen du EAEk, bazterkeriaren alorrean % 146, eta familiaren alorrean % 30 besterik ez, barne-produktu gordinaren arabera. Datu horrek erakusten du, adierazi ditugun beste askok bezala, seme-alabak dituzten familiak babesten dituen gizarte-babeseko sistema baten diseinua, eta, bereziki, haurtzaroa beste adin-talde batzuk baino guxtiago babesten duena, beste herrialde batzuetan gertatzen denaren kontra.

Horrez gain, SEEPROSek ematen dituen datuetatik abiatuta, familietara bideratzen den gastu publikoa aztertzeke beste modu bat zera da, gastu fiskala modu osagarrian kontuan hartzea, hau da, zerga-sistemak ezarritako kenkariak eta desgrabazioak aztertzea, familiak babesteko erreminta gisa. EAEn kasuan, garrantzitsua da onura fiskal horiek kontuan izatea; hain justu, aurrerago ikusiko dugun moduan, inpaktu nabaria baitute familiek eskura dituzten diru-sarreretan.

44. taula. Familientzako egindako gastu publikoa, herrialdeen eta gastu-moten arabera. 2013 (BPGdren %-an)

	Prestazioak oro har	Prestazioak dirutan	Zerga-arintzeak	Guztira
Danimarka	1,4	2,2	0,0	3,7
Frantzia	1,6	1,3	0,8	3,7
Hungaria	1,9	1,1	0,7	3,6
Islandia	1,2	2,4	0,0	3,6
Luxenburgo	2,7	0,9	0,0	3,6
Suedia	1,4	2,2	0,0	3,6
Belgika	1,8	1,0	0,5	3,4
Irlanda	2,4	0,9	0,1	3,4
Txekiar Errepublika	1,6	0,6	0,9	3,2
Finlandia	1,5	1,7	0,0	3,2
Norvegia	1,2	1,8	0,1	3,2
Alemania	1,1	1,1	0,9	3,1
Austria	1,9	0,7	0,0	2,6
Estonia	1,6	0,4	0,2	2,2
Eslovakia	1,5	0,5	0,0	2,1
Italia	0,8	0,7	0,5	2,0
Eslovenia	1,4	0,6	0,0	2,0
Holanda	0,7	0,7	0,5	1,8
Espainia	0,5	0,8	0,1	1,5
Portugal	0,7	0,5	0,2	1,4
CAPV	0,39	0,29	0,46	1,1

Iturriak: egileek egin EUSTATen datuetan oinarrituta. Gizarte Babesaren Kontua eta ELGE. Stat

Gastu horren kalkulua egiteko, lehen jasotako datuei erantsi zaie ELGEk adierazitakoaren arabera Europako herrialdeek egindako zerga-gastuak, familiei laguntzeko politikekin lotura zuzena duten salbuespen fiskalak eta zerga-arintzeak direla eta. EAeri dagokionez, SEEPROS metodologiaren arabera aurreko tauletan jasotako datuak erabili ditugu, eta, zerga-gastuak kontuan hartzeko, Euskal Ogasunaren Urteko Txosten Bateratuan 2013rako adierazitakoak. Dena den eta gastu hori kontuan hartuta ere, familiei laguntzeko politikan egindako gastu publikoari erreparatuz gero –barne-produktu gordinaren arabera– Europar Batasuneko herrialdeen zerrendan atze-atzean geratuko litzateke EAE. Gizarte-gastuak barne-produktu gordinaren % 3,7 dira Frantzia eta Danimarkan; EAEn kasuan, gastu guztia barne-produktuaren % 1,14 izango litzateke, eta aztertutako Europar Batasuneko herrialde horien guztien atzetik geratuko litzateke.

2.4.2.2. Zerga-arintzeen inpaktua eta prestazio ekonomikoak familia mota desberdinetan

EAE osorako gastu erantsiaren zifretatik abiatuta, aurreko analisiari esker administrazio publikoek zerbitzu eta prestazio mota hauetan egiten duten ahalegin globala baloratu baldin badezakegu ere, datu horietatik ezin daiteke atera politika horiek birbanaketarako daukaten gaitasuna, ezta familia mota desberdinek eskuragarri duten errentan duten eragina ere. Horrenbestez, analisi hori osatzeko, atal honetan Euskadiko prestazio ekonomikoen eta onura fiskalen inpaktu konbinatua aztertuko dugu, oinarritzko hainbat ezaugarri dituzten familietarako diru-sarrerari eta osaketari dagokienez, eta EAEko familien egoera Europako hainbat herrialdetako familien egoerarekin alderatuko dugu²⁷.

Ikuspegi metodologikoari erreparatzen badiogu, egindako analisiaren oinarria informazio adierazgarria jasotako 12 familia-motaren gainean egindako simulazioa da²⁸; familia horiei hainbat parametro aldagarri aplikatuko zaizkie. Garrantzitsua da adieraztea mikrosimulazio mota horietarako bi muga metodologiko, batez ere hainbat herrialdetako egoera konparatu nahi denean. Alde batetik, jakintzat ematen da familia guztiek erabiltzen dituztela eskura diren prestazio guztiak (hau da, ezagutzen dituztela, eskatzen dituztela eta, azkenik, administrazioak baldintzak betetzen dituzten familia guztiei ematen dizkiela); bestetik, ELGEren simulazio-erremintak ez ditu aurreikusten herrialde ugarian dituzten aringarri espezifiko asko eta asko (esate baterako, haurren arretarako gastuei dagozkienak), eta baliteke horiek inpaktu garrantzitsua izatea familiek Ogasunari ordaintzen dioten zenbatekoan. Gainerakoan, familien-osaketari dagokionez, 12 konfigurazio desberdin hartu dira kontuan, lau talde handitan banatuta:

- 1. mota. 1. motako familia guraso bakarrak osatutako familia bezala dago osatuta (guraso bakarreko familia-etxea), bi seme-alabarekin, txikiak sei urte ditu. Gurasoaren diru-sarrerari dagokienez, hiru aukera dira: (1a) etxeko diru-sarrerak herrialdeko/eskualdeko batez besteko

²⁷ Hala, lan honek beste lan batzuetan hasitakoaren ildo sakonduko du (SIIS, 2014) eta Bradshaw eta Finch egileek garatutako familia-paketeen metodoa du oinarri (2002).

²⁸ Simulazioaren emaitzetara igaro aurretik, hainbat ohar egin behar dira abiatzen garen informazioarekin loturik. (1) Aukeratutako herrialdeetako lagineko datuetarako, ELGEko online datu-basera jo dugu (OECD Family Database). Erreferentzia-urtea 2012 da, eta kalkulagailuak Estatu osoko datuak eskaintzen ditu; hori dela eta, posible da deszentralizazio maila handiagoa edo txikiagoa duten herrialdeek (Alemaniak, konparazio batera) nolabaiteko infraestimazioa izatea benetan ematen duten laguntza-mailan, herrialde horiek eskualdeko edo tokiko sistemak baituzte familia- eta gizarte-prestazioetarako. (2) Madrilgo, Nafarroako, Kataluniako eta EAEko datuak urte desberdinetakoak dira eta egileek egindako estimazioetatik eratorriak, bai batez besteko diru-sarrerari dagokienez, bai familia-prestaziei eta gutxieneko diru-sarreraren bermeari dagokienez, PFEZren kuota eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazioak. Sistema autonomikotik datozen diru-sarrerak edota ordainketak lurralde historikoetarako kalkulatu diren arren, Estatuko diru-sarreraren edota ordainketen inguruan (batez ere Gizarte Segurantzari) Espainia osorako erabilitako datu berberak baliatu dira. Euskadiko familia batek jaso ditzakeen gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoak ateratzeko, Lanbideren kalkulagailua baliatu dugu, diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa zehazteko enplegurako estimuluak aplikatuta. (3) Kenkariak kalkulatzeko, errenta-aitorpenetarako hiru simulagailu erabili dira (PFEZ) 2014rako: Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren errenta-simulatzaila Katalunia eta Madrilera²⁸, Nafarroako Foru Erkidegoko errenta-simulatzaila²⁸, eta Zergabidea (Gipuzkoako Foru Aldundiaren errenta-simulatzaila). (4) Analisisarako, PFEZetik eratorritako karga fiskala ez ezik Gizarte Segurantzako kotizazioak ere kontuan hartzen dira. (5) Aintzat hartu diren familia-laguntzak familiaren kargura den seme-alabarengatik ematen diren prestazioak izan dira bakarrik, eta ez erditze anizkoitzengatik ematen diren ezohiko ordainketak eta tankerakoak. Horrenbestez, honako hauek hartuko ditugu kontuan: (i) Gizarte Segurantzaren ordainketa ekonomikoa, ardurapean hartutako 18 urtez azpiko seme-alabagatik edota harreraren hartutakoagatik; (ii) Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoak, seme-alabak euren kargura dituzten familiei laguntzeko; eta (iii) jaiotza, adopzioa, tutoretza edo harrera izan duen familiari Kataluniako Gobernuak ematen diren laguntza ekonomikoa. (6) Kasu guztietan kontuan hartzen da ez dagoela eskubiderik langabezia-prestazioak jasotzeko, baina bai diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jasotzeko, baita Gizarte Segurantzaren kotizazioak eta PFEZen ekarpenak ere. Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoak dagokienez, berriz, Eusko Jaurlaritzaren diru-sarrerak bermatzeko errenta, Madrilgo Erkidegoko gizarteratzeko gutxieneko errenta eta Kataluniako Gobernuaren gizarteratzeko gutxieneko errenta hartuko dira aintzat. (7) Kontuan izanda prestazio guztiak lurralde historiko guztietan berdinak direla eta EAEko hiru lurralde historikoetako foru-ogasunek harmonizatze-maila handia dutenez, zerga-aringarrien eta prestazioen inpaktua Gipuzkoako Foru Aldundiarekin simulatu da, emaitzak Bizkaira eta Arabara zabaltzeko modukoak baitira.

soldataren % 50 izatea (diru-sarrera apalak); (1b) batez besteko errentaren % 100 izatea (diru-sarrera ertainak) eta (1c) % 150 izatea (diru-sarrera altuak).

- 2. mota. 2. motako familia bi gurasok osatutako familia bezala dago osatuta (bi gurasoko familia-etxea), bi seme-alabarekin, txikiak sei urte ditu. Gurasoen errentei dagokienez, hiru aukera dira: (2a) etxeko diru-sarrerak herrialdeko/eskualdeko batez besteko soldataren % 50 izatea (diru-sarrera apalak); (2b) batez besteko soldataren % 150 izatea (diru-sarrera ertainak) eta (2c) % 200 izatea (diru-sarrera altuak)²⁹.
- 3. mota. 3. mota bi gurasoko eta hiru seme-alabako familiak dira; txikiak sei urte ditu. Diru-sarrerari dagokienez, hiru aukera dira: (3a) etxeko diru-sarrerak herrialdeko/eskualdeko batez besteko soldataren % 50 izatea (errenta apala); (3b) % 150 izatea (errenta ertaina) eta (3c) % 200 izatea (errenta altua).
- 4. mota. 4. mota bi gurasoko eta lau seme-alabako familiak dira; txikiak sei urte ditu. Diru-sarrerari dagokienez, hiru aukera dira: (4a) familia-etxeak herrialde/eskualdeko batez besteko soldataren % 50eko diru-sarrerak izatea (errenta apala), (4b) diru-sarrerak % 150 izatea (diru-sarrera ertainak) eta (4c) diru-sarrerak % 200 izatea (diru-sarrera altuak).

Lortutako emaitzak honako taula honetan daude bilduta; hain zuzen, 1., 2., 3. eta 4. motetako familiek jasotako laguntzen urteko zenbatekoa jasotzen du, kontuan izandako herrialde eta eskualdeetan, euren diru-sarreraren arabera. Ipinitako datuetan, familia/seme-alabak funtziotik etorritako prestazioak ez ezik, diru-sarrerak bermatzeko prestazioak edota prestazio sozialak ere jasotzen dira, eta etxebizitzari laguntzekoak edota lan-aktibaziokoak ere bai. Horrenbestez, kontuan izandako familia motek urtean jasotako prestazio guztiak biltzen ditu taulak, herrialdeko/eskualdeko urteko batez besteko soldataren ehuneko bezala emanda, prestazio mota bakoitza desberdinduta dela.

²⁹ Ondasunak eta obligazioak nolabait ere komunean ipintzea eskatzen duen aldetik, tradizionalki pentsatu izan da ezkontzak mekanismo berdintzaile gisa funtzionatzen duela. Baina datuek erakusten dutenez, azken urteetan horek hala izateari utzi egin dio, maila sozioekonomiko bereko pertsonekin bikote selektiboak sortu izanagatik (*assortative mating*). Vid. Greenwood *et al.*, 2014.

45. taula. Prestazio sozialen eta familiako, etxebizitzako eta lan-aktibaziorako prestazioen urteko zenbatekoa, errenta aldagarriko familia mota jakinentzat (batez besteko soldataren gaineko %)

1. mota: Bi seme-alaba dituzten guraso bakarreko familia-etxeak												
	1a mota (errenta apala)				1b mota (errenta ertaina)				1c mota (errenta altua)			
	AF	AV	GMI	IWB	AF	AV	GMI	IWB	AF	AV	GMI	IWB
Frantzia	4,2	6,6	0	0	4,2	0	0	0	4,2	0	0	0
Suedia	14,8	8,3	0	3,5	14,8	0	0	5,6	14,8	0	0	5,6
Erresuma Batua	20	7,1	0	0,4	3	0	0	0	3	0	0	0
Alemania	16,2	2,1	0	0	9,9	0	0	0	9,9	0	0	0
Madril	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Katalunia	2,2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Nafarroa	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
CAPV	0	12,6	0	7,6	0	0	0	0	0	0	0	0
2. mota: Bi seme-alaba dituzten bi gurasoko familia-etxeak												
	2a mota (errenta apala)				2b mota (errenta ertaina)				2c mota (errenta altua)			
	AF	AV	GMI	IWB	AF	AV	GMI	IWB	AF	AV	GMI	IWB
Frantzia	4,2	3,3	0	0	4,2	0	0	1,6	4,2	0	0	0
Suedia	6,9	4,9	0	5,5	6,9	0	0	9,1	6,9	0	0	11,2
Erresuma Batua	20	9,5	0	0,4	3	0	0	0	3	0	0	0
Alemania	10,1	2,8	0	0	9,9	0	0	0	9,9	0	0	0
Madril	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Katalunia	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Nafarroa	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
CAPV	0	12,6	0	10,2	0	0	0	0	0	0	0	0
3. mota: Hiru seme-alaba dituzten bi gurasoko familia-etxeak												
	3a mota (errenta apala)				3b mota (errenta ertaina)				3c mota (errenta altua)			
	AF	AV	GMI	IWB	AF	AV	GMI	IWB	AF	AV	GMI	IWB
Frantzia	16,2	6,1	0	0	16,2	0	0	1,7	16,2	0	0	0
Suedia	11,6	7,4	0	5,5	11,6	0	0	9,1	11,6	0	0	11,2
Erresuma Batua	27,7	10,8	0	0,4	3	0	0	0	3	0	0	0
Alemania	22,9	6,3	0	0	15,1	0	0	0	15,1	0	0	0
Madril	2,8	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Katalunia	3,3	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Nafarroa	3,1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
CAPV	5,8	12,6	0	12,9	1,3	0	0	0	1,3	0	0	0
4. mota: Lau seme-alaba dituzten bi gurasoko familia-etxeak												
	4a mota (errenta apala)				4b mota (errenta ertaina)				4c mota (errenta altua)			
	AF	AV	GMI	IWB	AF	AV	GMI	IWB	AF	AV	GMI	IWB
Frantzia	23,7	10,6	0	0	23,7	0	0	1,8	23,7	0	0	0
Suedia	17,9	7,4	0	5,5	17,9	0	0	9,1	17,9	0	0	11,2
Erresuma Batua	38,4	12,1	0	0,4	5,9	0	0	0	5,9	0	0	0
Alemania	32,5	8,3	0	0	20,9	0	0	0	20,9	0	0	0
Madril	3,7	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Katalunia	4,4	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Nafarroa	4,1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
CAPV	6,7	12,6	0	15,5	1,3	0	0	0	1,3	0	0	0

Koadroko akronimoak: familia-laguntzak (*ayudas a la familia* [AF]), etxebizitza-laguntzak (*ayudas a la vivienda* [AV]), gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko prestazioak (*guaranteed minimum income* [GMI]), lan-aktibaziorako prestazioak (*in-work benefits* [IWB]).
Iturria: ELGE, Eustat eta INE.

Lortutako emaitzetatik abiatuta, EAerako atera dezakegun lehendabiziko ondorioa zera da (baita analisisan bildutako gainerako autonomia-erkidegoetarako ere), Euskadi oso urrun dagoela ELGEko herrialdeen laginetik kontuan hartutako familia konfigurazioetarako ematen diren familia-prestazioei dagokienez.

- Hala, 1. motako familien kasuan, Europako aukeratutako lau herrialdeetan herrialdeko batez besteko soldataren %10,3 inguru jasotzen dute; Espainiako eskualde bakarrean ere guraso bakarreko familiek ez lukete neurri horretako prestaziorik jasoko. Bi arrazoi daude horretarako. Alde batetik, Gizarte Segurantzak kargurako seme-alaba bakoitzarengatik familia ez-ugariei ematen dien prestazioak 11.547,96 euroko diru-sarrera muga ezartzen du, gehi %15 gehiago bigarren seme-alabatik aurrera izandako edo hartutakoengatik (13.280 euro bi seme-alaba familiaren kargu izateagatik). Muga hori bateragarria da Espainiako probintzia gehienetako batez besteko diru-sarreraren %50ekin, baina ez Madril, Nafarroa eta EAEn. Bigarren arrazoiak zera da, Eusko Jaurlaritzak bigarren seme-alabarengatik ematen duen prestazioak bi ordainketa dituela: bata seme-alaba jaiotzen den urtean eta bestea seme-alabak urtebete egiten duenean (30/2015

DEKRETUA, martxoaren 17koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena; 7.3.a artikulua).

- Bestalde, 2. motako familien kasuan, Europako aukeratutako lau herrialdeetan herrialdeko batez besteko soldataren % 7,8 inguru jasotzen dute; EAEn, berriz, bi gurasoko familia horiek ez lukete laguntzarik jasoko.
- Halaber, 3. motako familien kasuan, Europako aukeratutako lau herrialdeetan herrialdeko batez besteko soldataren % 14,2 inguru jasotzen dute; EAEn, berriz, zenbateko hori apenas iritsiko litzatekeen % 3ra.

EAEko familien egoera aldatu egiten da arreta etxebizitza eta diru-sarrerak osatzeko prestazioei erreparatzen baldin badiegu (AV, GMI eta IWB). Hemen, ezinbestekoa da, alde batetik, diru-sarrera apalak dituzten familiak eta, bestetik, diru-sarrera ertainak dituztenak bereiztea; diru-sarrera altuak dituztenek Suedian bakarrik jasotzen dituzten laneko diru-sarrerak osatzeko prestazioak.

- Europako aukeratutako herrialde guztietan gertatzen ez den bezala (eta Madrilen, Katalunian edota Nafarroan gertatzen den moduan), diru-sarrera ertainak dituzten Euskadiko familiek ez dute laneko diru-sarrerak osatzeko prestaziorik jasotzen, ezta alokairua ordaintzekorik ere. Horren arrazoia zera da, 1.300 euro ingurutik gorako diru-sarrera garbiak dituzten familiek (1 eta 2 motakoak) eta 1.350 jasotzen dituztenek (familia ugariak) ezin dituztela jaso laneko diru-sarrerak osatzeko errentak, eta, ondorioz, etxebizitzaren diru-sarrera osagarria ere ez.
- Egoera aldatu egiten da diru-sarrera apalak dituzten familien kasuan. Hemen, EAEko familiek aztertutako gainerako lau herrialdeen antzeko egoera dute, eta, aldi berean, modu esanguratsuan alderatzen da Kataluniako, Nafarroako eta Madrileko familietatik. Azken horren arrazoia zera da: (a) batez besteko soldataren % 50eko diru-sarrera baliokideak eskuratzea Katalunian (13.250 €), Nafarroan (13.908 €) eta Madrilen (15.400 €) bateraezina da diru-sarreraren edozer errenta osagarriekin –gehieneko muga Madrilen urteko 6.385,32 € da, 11.545 € Nafarroan eta 7.743 € Katalunian–; eta (b) gizarteratzeko gutxieneko errentaren Kataluniako, Madrileko eta Nafarroako progamez ez dute aurreikusten etxebizitzaren laguntza osagarririk.

Aurreko analisisia zuzeneko prestazioei begira bakarrik egina da, eta familiek euren osakeraren eta errentaren arabera bakarrik eska ditzakete. Hain zuzen ere, gastu soziala/BPGd ratioa normalean alderatutako analisisetan ongizate-sistemen eskuzabaltasuna ebaluatzeko baliatzen da. Dena dela, ezinbestekoa da ikuspegi partzial hori osatzea eta kontuan izatea, era berean, zerga-sistemak familia-politiketan duen eragina. Familia-politiketan gastu txikiagoa izatea konpentsatzeko (edota azaltzeko) hainbat arrazoi leudeke: (a) zerga-sisteman presio apalagoa izatea, edota (b) onura fiskal handiagoak izatea familien gizarte-babeserako zehazki³⁰.

Honako taula honetan, alde batetik, jasotako presio fiskala eta, bestetik, zerga- eta-transferentzia sistemek operatutako diru-sarreraren aldakuntza daude jasota, kontuan hartutako familietarako³¹.

46. taula. Zerga-presioaren inpaktua eta diru-sarreraren aldakuntza zergen ostean eta transferentziak errenta aldakorrek dituzten familia mota jakinetarako.

Zerga-presioa, zuzeneko zergak (hasierako diru-sarrera gordinen ehuneko gisa)												
	1a	1b	1c	2a	2b	2c	3a	3b	3c	4a	4b	4c

³⁰ Hori horrela izanik, Adema *et al.* (2011) lanean, honela daude definituta gizarte-babesa helburu duten zerga-aringarriak: «those reductions, exemptions, deductions or postponements of taxes, which: a) perform the same policy function as transfer payments which, if they existed, would be classified as social expenditures; or b) are aimed at stimulating private provision of benefits» (Adema *et al.*, 2011).

³¹ Kataluniarako eta Madrilerako egindako simulazioek 2014ko ekitaldia daukate erreferentzia gisa, eta ZAEAREN simulatzailea dago erabilita. Nafarroako simulazioak Nafarroako Gobernuaren simulatzailearekin daude eginda (<https://www3.navarra.es/Renta/Simulador/Edicion/EdicionModelosSimulador.aspx?Modelo=DECLARANTE&Tipo=F>). EAERako simulazioak, berriz, Gipuzkoaren kasua oinarri hartuta daude eginda, lehenago aipatu dugun moduan. Kalkulu hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren ZergaBidea programarekin dago eginda, eta 2014ko ekitaldia da erreferentzia. Simulazioak PFEZa eta Gizarte Segurantzaren kotizazioak jasotzen ditu (langilearen gertakari arruntak). Ez dira kontuan hartzen etxebizitzaren kenkariak edota familiek izan ditzaketen bestelako inbertsio-kenkariak. Familia mota guztietarako, aitorpen indibidualak egin dira, baterakoak egin beharrean.

Frantzia	21,6	22,9	25,2	21,6	24,4	31,0	21,7	23,1	29,2	21,9	22,2	27,4
Suedia	26,9	30,5	37,4	33,9	29,3	37,4	33,9	29,3	37,4	33,9	29,3	37,4
Erresuma Batua	17,4	24,7	29,0	17,4	22,3	29,0	17,4	22,3	29,0	17,4	22,3	29,0
Alemania	28,8	38,2	42,3	21,0	35,8	43,3	21,0	35,7	43,2	21,0	35,5	43,1
Madril	11,9	21,5	27,1	8,3	27,1	37,1	9,4	26,1	36,6	6,0	24,9	36,0
Katalunia	8,2	20,8	25,7	8,6	25,7	36,3	5,4	24,6	35,8	5,3	23,1	34,8
Nafarroa	7,0	15,5	21,1	9,7	24,8	35,0	7,7	23,7	34,3	5,0	22,2	33,4
CAPV	4,7	16,0	22,6	7,3	24,7	34,2	4,69	24,4	33,5	4,7	21,5	32,7
Diru-sarrerren aldakuntza zergen eta transferentzien ondoren (hasierako diru-sarrerren ehuneko gisa)												
	1a	1b	1c	2a	2b	2c	3a	3b	3c	4a	4b	4c
Frantzia	100	81	77	93	79	70	122	88	76	147	94	80
Suedia	126	89	76	101	81	68	115	84	70	128	88	72
Erresuma Batua	137	78	72	142	79	71	160	79	71	184	81	73
Alemania	107	71	64	105	70	59	137	74	61	160	78	63
Madril	90	78	72	93	72	62	98	74	63	101	75	63
Katalunia	91	79	74	91	74	63	94	75	64	103	76	65
Nafarroa	92	84	78	90	75	64	92	76	65	103	77	66
CAPV	105	83	77	108	75	65	121	76	66	126	79	67

Iturria: egileek egina.

Hala, 45 taulan jasotako emaitzek aztertutako Espainiako eskualde guztietan familia-prestaziorik ez zegoela erakusten zuten, diru-sarrera apalak dituzten EAEko familietan izan ezik (kasu horretan, laguntzak ez datoz diru-laguntzetatik, baizik eta diru-sarrerak bermatzeko errentatik). Hala, Europako herrialde batzuetan dituzten laguntza-sistemen tankerakoen gabezia hori nolabait ere berdinduta geratuko litzateke, partzialki behintzat (46 taulan ikus dezakegun bezala), EAEn duten zerga-presio apalarekin. Egoera bertsua litzateke Katalunian eta Madrilen ere.

Laburbilduz, simulazioen emaitza nagusiak honako hauek lirateke:

- Guraso bakarreko familiei dagokienez (1. motakoak), errenta apalekoek Euskadin zerga-presio askoz ere txikiagoa daukate gainerako guztiek baino, batez ere Europakoek baino; gauza bera gertatzen da errenta ertainen kasuan ere (dena dela, kasu horretan aldea txikiagoa da). Errenta altuko guraso bakarreko familien kasuan, zerga-presioa (hasierako errentaren % 22) EAEn, Frantzian, Katalunian eta Madrilen tankerakoa da, baina Madrilen, Alemanian, Erresuma Batuan eta Suedian baino apalagoa.
- Zerga-presioa eta zuzeneko presioa bat eginda zer inpaktu den aztertzen denean, ikusten da errenta apaleko guraso bakarreko familien ehuneko bost puntu hobetzen dutela errenta (Frantzian, Madrilen, Katalunian eta Nafarroan baino gehiago), Alemaniaren maila berean eta Suedian eta Erresuma Batuan baino gutxiago. Erdi- eta goi-mailako errenten egoera antzekoa da aztertutako lurralde guztietan; edonola ere, oro har, Euskadiko familiek urritzen dute errenta neurri txikiagoan ordaindutako zergen ondorioz eta jasotako prestazioengatik.
- Ugariak ez diren bi gurasoko familien kasuan (2. mota, konfiguraziorik ohikoena), EAEko zerga-presioa da guztietan apalena, eta aldea bereziki nabarmena da neurri eta errenta-maila horretako Europako familiekin alderatzen denean. Egoera antzekoagoa da errenta ertaineko familien egoerarekin alderatzen denean (Alemaniakoek eta Suediakoek bakarrik daukate zerga-presio dezente handiagoa). Errenta altuko familien kasuan, Gipuzkoako zerga-presioa da apalenetako bat; edonola ere, ezin liteke esan aldea oso handia denik, Alemaniaren kasua albo batera utzita. Zerga-presio maila desberdinek eta zuzeneko prestazioek duten inpaktu konbinatua aztertzen denean, errenta-maila apaleko familiek 8 puntu hobetzen dute errenta-maila; Erresuma Batuan 42 puntu, baina gainerako lurralde guztietan baino gehiago, Suedia, Alemania eta Frantzia barne. Errenta-maila ertaineko familien kasuan, egoera tankerakoa da lurralde guztietan (azken erreta eskuragarria hasierakoaren % 70 eta % 81 ingurukoa da). Errenta-maila altuko familietan gauza bera gertatzen da.
- Bestalde, 3. motan aurreikusitako familia ugarien kasuan (hiru seme-alaba dituzten bi gurasokoak) eta euren zerga-presioari dagokionez, errenta-maila apaleko familiek aztertutako beste herrialde

eta eskualde batzuetakoa baino zerga-presio askoz ere apalagoa daukate, eta errenta-maila ertainekoek, berriz, antzekoa (Alemaniakoek bakarrik daukate presio handiagoa). Errenta-maila handiei begiratzen badiegu, berriz, zerga-presioaren maila ertaina dela esan dezakegu. Egoera tankera bertsukoa da euren kargu lau adingabe dauzkaten familia ugarietan. Esan beharra dago, edonola ere, araubide erkidea duten gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta (Madril eta Katalunia), Euskadiko familiek zerga-presio apalagoa dutela apur bat (EAEn hasierako errenta eskuragarriaren % 29 errenta-maila altuko familietan; Madrilen, esate baterako, % 35 da).

- Azkenik, zerga-presioaren maila desberdinak eta prestazio zuzenak batera zer inpaktu duten aztertzen dugunean, ondoriozta dezakegu errenta-maila handiko familia ugariak (3 seme-alaba) egoera apur bat okerragoan amaitzen dutela osaera eta errenta-maila berdina duten Erresuma Batuko, Suediako eta Frantziako familiek baino, baina Alemanian, Katalunian, Nafarroan eta Madrilen baino hobean. Errenta-maila ertainen kasuan, hasierako errentaren % 24 ordaintzen dute; Frantzian % 12 eta Suedian % 16, baina tankera horretako familiek Nafarroan, Katalunian, Madrilen, Alemanian eta Erresuma Batuan ordaintzen dutenaren paretsuan. Azkenik, errenta-maila apalekoek diru-sarrerak % 21 handitzen dituzte, Frantziaren % 22aren eta Suediako % 15aren parean, baina Erresuma Batuko % 60aren eta Alemaniako % 37aren oso azpitik. Edonola ere, EAEn kasua araubide erkideko autonomia-erkidegoetan eta Nafarroan baino askoz ere handiagoa da; horietan, errenta-maila apaleko familiek errentaren zati bat galtzen dute zerga- eta prestazio-sistema oso atzerakoi baten ondorioz. Ez da gauza bera gertatzen lau edo bost seme-alaba dituzten familietan; horietan, Nafarroan, Madrilen eta Katalunian errenta-maila apaleko familiek handitu egiten dute errenta-maila, baina EAEn baino gutxiago.

3. FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDEARTEKO III. PLANAREN EXEKUZIOA

3.1. Sarrera

2013. urtean egindako lehenespen-prozesuaren ostean, plangintza-dokumentu baten bitartez zehaztu zen EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Plana. Askotariko izaera eta irismeneko hainbat programa eta jarduketaz osatua, lau ildotan (eta zeharkako bosgarren esparru bat ere gehitu liteke), 16 ekintza estrategikotan eta 33 neurritan multzokatu ziren. Kapitulu honetan sistematikoki deskribatzen dira Plana bere indarraldian (2011tik 2015era, biak barne) gauzatzeko egin ziren jarduketan edukia eta ezaugarri nagusiak. Hemen aurkeztutako azterketak, beraz, barnean hartzen ditu 2013n hautatutako 33 neurriak, bazter utzirik, hasiera batean Gobernu Kontseiluak 2011ko abenduaren 27ko bileran onartutako III. Planean aurreikusita bazeuden ere, 2013ko lehenespen-prozesuan bertatik kendutako beste ekintza batzuk.

Nagusiki, informazio-iturri hauek erabili dira Familiei laguntzeko III. Planean aurreikusitako neurrietako bakoitzaren garapena deskribatzeko: EAEko Administrazio Orokorrak programatutako helburuen betetze-mailari buruz Sailak egindako memoriak, eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta, bereziki, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak ebaluazio horren esparruan emandako dokumentazio gehigarria. Horiez gain, beste iturri batzuk ere erabili dira: adibidez, Planaren indarraldiko ekitaldietako EAEko Aurrekontu Orokorrak; Eusko Jaurlaritzaren mendeko zenbait web-atari, eta gehienbat Familiei laguntzeko III. Plan honen esparruan prestatutako txosten eta azterlan sorta zabala.

Eskura dagoen informazioak aukera eman du III. Plan honetan sartutako neurrien ezaugarritze nahikoa sistematiko eta objektiboa egiteko; nolahi ere, nabarmendu behar da, praktikan ebaluazio hau mugatzen duen elementuetako bat izaki, Planak ez duela izan kalitateko adierazle erabilgarrikerik bere gauzatze-aldian, berari jarraipena egiteko moduan. Ildo horretan, nahiz eta III. Planak, hasierako diseinuan, barnean hartu adierazle-sistema partekatua bat prestatzeko xedea, familiei laguntzeko politiken eragina eta egokitzapena neurtzeko, bai eta horien kalitatea eta hartzaileen satisfazio-maila ere, neurri hura ez zen garatu. Horregatik, baliteke ebaluazio hau egiteko dagoen informazioa osatugabea edo, zenbaitetan, hutsala izatea.

Aipatutako mugak kontuan hartuz gero, helburu bikoitza proposatzen da kapitulu honetan. Alde batetik, lehenetsitako 33 neurrien gauzatze-maila zehaztu nahi da; bestaldetik, benetan gauzatutako neurriei dagokienez, zehazki zer jarduketa egin diren deskribatu nahi da. Horiek horrela, eta neurrien gauzatze-maila zehazteari begira, lehenetsitako 33 neurriak deskribatuko dira kapitulu honetan, jarraian azaltzen diren hiru kategorietako bakoitza harturik oinarri.

- **Gauzatua:** ekintza zehatz bat denean, eta egiaztatu denean osorik gauzatu dela, edo bertan jasotako jarduketa gehienak gauzatu direla.
- **Zati batean gauzatua:** neurriaren fase bat besterik ez denean gauzatu, edo neurria modu bakartuan soilik gauzatu denean, nolabaiteko jarraitutasuna aurreikusten bazitzaion ere.
- **Gauzatu gabea:** Planaren indarraldiko lau urteetako datuak bildu ostean, Eusko Jaurlaritzako sailetak batek ere ez duenean eman aurreikusitako neurriei buruzko daturik.

Kapitulu honetan, taula sorta bat erabiliz jaso da Planean sartutako neurrien gauzatze-mailari buruzko informazioa. Informazio hau hartzen du barne: Lehen zutabeen neurriaren izena agertzen da, Planaren hasierako bertsioan formulatu bezala, eta alboan haren zenbakia adierazi da. 2011n onartutako Planaren ondorengo ondoko zenbakietari dagokio halaber. Bigarren eta hirugarren zutabeetan, eta neurri bakoitzaren alboan, hura gauzatzeko ardua duen erakundea eta, hala badagokio, erakunde kolaboratzailea(k) zehatu di(r)a. Zehazki, hasieran adierazi da ekintzak ezartzeko erantzukizun-maila handiena duen saila edo zuzendaritza, eta bigarren lekuan, aldiz, erakunde arduradunarekin aktiboki elkarlanean aritzeko ardua izan duten sail edo zuzendaritzak. Amaitzeko, azken zutabea neurri bakoitzaren gauzatze-maila jasotzeko gorde da, aurretik aipatutako irizpideetan oinarrituta.

3.2. Egindako neurrien deskribapena eta emaitzen adierazleak, ildo estrategikoen arabera

3.2.1. 1. ildo estrategikoa: familia, bizitza pertsonala eta lana bateratzea.

Familiei laguntzeko III. Planak, 2013ko lehenespren-prozesuaren ostean zehaztuta geratu zen moduan, familia, bizitza pertsonala eta lana bateratzeari buruzko alorrera bideratu zuen bere plangintzaren zati handi bat. Hain zuzen, ildo estrategiko horretakoak ziren Planean sartutako 33 neurrietatik 21; hau da, zehaztutako neurri guztien bi herenen baliokide ia-ia. Antolamenduaren ikuspuntutik, Planaren barruan alor hauetan egituratzen dira 21 neurri horiek:

- Sektore pribatuko enpleguarekin lotutako neurriak
- Sektore publikoko enpleguarekin lotutako neurriak
- Neurri esperimentalak
- Informazio- eta zabalkunde-neurriak

Jarraian, aipatutako alorretako bakoitzerako deskribatzen da zer gauzatze-maila izan zuten Familiei laguntzeko erakunde arteko III. Planaren esparruan 2011tik 2015era bitartean ezarritako neurriek.

3.2.1.1. Sektore pribatuko enplegurako ekintza estrategikoak

Bateratzeari buruzko ildo estrategikoaren barruan, zortzi ekintzaz osatzen da sektore pribatuko enpleguari buruzko neurriak ardatz dituen alorra; hala ere, horietatik guztietatik bat –48. neurria, EAEko enpresetan eta administrazio publikoetan telelaneko ekimenak sustatzeari buruzkoa– bi alorri dagokie: bai sektore pribatuko enplegura bideratutako neurrien alor honi, eta bai hurrengo alorrari ere, zeina ondoren aztertuko baita; hau da, sektore publikoko enplegurako neurriei buruzkoari.

Ezinbestean aipatu behar da alor honetan sartutako zortzi neurrietatik lautan Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza dela erakunde arduraduna –horietatik hirutan, bakarrik dihardu; bestean, aldiz, Lanbiderekin eta Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritzarekin elkarlanean aritzea aurreikusten da–, eta beste batean erakunde kolaboratzaile dela. Beste lau neurriei dagokienez, bitan Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza da erakunde arduraduna (Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzaren sail berekoa da), eta beste bietan Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaz besteko bi erakunde ageri dira: Ekonomia eta Ogasun Saila eta Justizia eta Herri Administrazio Saila.

Taula honetan erakusten da alor horretan sartutako neurrien enuntziatua, horien erakunde arduradun eta kolaboratzaileak, eta egindako jarduketetan oinarrituta neurri bakoitzari egotzi zaion gauzatze-maila. Taula honen ondoren, jarduketa zehatzen deskribapena ere sartu da.

47. taula. 1. ildo estrategikoan, familia, bizitza pertsonala eta lana bateratzeari buruzkoan, sartutako neurrien eta sektore pribatuko enplegurako ekintza estrategikoen gauzatze-maila

Neurriak	Arduraduna	Kolaboratzaileak	Gauzatze-maila
58. Ekimenen garapena familia- eta lan-bizitzaren uztartzea gizarte-elkarrizketako mahaira eta enpresa-ingurunea gaineratzeko.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	--	Gauzatua
166. Lan-esparruan ordutegiak malgutzeko zenbait esperientzia abian jartzea.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	--	Gauzatua
59. Ordutegi-malgutasuna bultzatzea Confebasken eta sindikatuen laguntzarekin eta hitzarmen kolektiboetan uztartze-neurriak sartzeko	Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendaria (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila)	--	Gauzatua
48. Euskal administrazio publikoetan eta EAEko enpresetan telelan-ekimenak sustatzeko orientazioa eskaintzea.	Justizia eta Herri Administrazio Saila	--	Gauzatu gabe
89. Uztartzeari loturiko gaietan, enpresei laguntza eta konpainia eskaintzeko sistemak sortzea.	Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendaria (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila)	--	Zati batean eginda
51. Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiei eta Foru Aldundiei zuzendutako ekimenen garapena familia eta lanaren bateratzea sustatzen duten erakunde pribatuentzat salbuespen fiskalen aplikazioa iker dezaten.	Zerga Koordinaziorako Organoa Zerga Administrazio Zuzendaritza (Ekonomia eta Ogasun Saila)	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Gauzatu gabe
57. Gizarte Gaietako arloko Biltzarraren bitartez Gobernu Zentralari zuzendutako ekintzak helaraztea: – Lan Autonomoaren Estatutuaren Legearen (uztailaren 11ko 20/1997 Legea) 4.3 artikulua garatzea, erreferentzia egiten baitio langile autonomoaren eskubideei, lana, norberaren bizitza eta familia bateratzeari dagokionez. – Bi seme-alaba edo gehiago dituzten guraso bakarreko familiak ugari gisa aitortzea. – Jaiotzagatiko bajak handitzea, eta bai amek bai aitek izan dezatela horiez gozatzeko aukera. – Nahitaezko aitatasun-baimenaren inplementazioa ikertzea. – Seme-alabek 12 urte dituzten arte lanaldia murrizteko aukera zabaltzea. – 12 urte baino gutxiagoko seme-alabak eskola-oporren sasoiari zaintzeko eszedentzia izateko aukera ikertzea. – Gizarte Segurantzaren % 100eko kotizazio-hobariak handitzea ikertzea, seme-alabak zaintzeko eszedentzietan eta lanaldiaren murrizketetan, eta batez ere mendekotasun-egoeran daudenak zaintzeko kasuetan. – Lanaldi partzialeko kontratuen sustapena ikertzea, horren kotizazioa Gizarte Segurantzari moldatzeko, lanaldi osoarekiko proportzionaltasunari eutsiz.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	--	Gauzatu gabe
52. Bateratzerako tresnak eta neurriak ahalbidetzeko bateratze-ataria (Bateratu+) sortzea eta mantentzea.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza eta LANBIDE (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Gauzatua

Oharra: 48. ekintzari dagokion gauzatze-mailak neurriak sektore pribatuan izan duen ezarpenari soilik egiten dio erreferentzia. Jarraian, eskura dagoen informazioan oinarrituta, aztertzen da zer gauzatze-maila izan duen bateratzeari buruzko ildo estrategikoaren barruan eta, zehazki, bateratzea sektore pribatuan sustatzeko neurrien alorrean, sartutako zortzi neurrietako bakoitzak.

- **Familiaren eta lanaren bateratzea Gizarte Elkarrizketako Mahaira eta enpresa ingurura barneratzeko ekimenak garatzea [58]**

Neurri honetan, Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak zenbait ekimen garatzea aurreikusten zen, familiaren eta lanaren bateratzea txertatzeko, bai Gizarte Elkarrizketako Mahaiaren –Eusko Jaurlaritzak sustatutako berariazko ekimena, haren eta sindikatu eta enpresa-erakundeen ordezkariz osatua–, bai «enpresa-ingurunean». Bi forootako lehenengoan –eta Planaren indarraldian urriak badira ere ekimen honen esparruan egindako bilerak– nabarmentzekoak dira eremu horretan lana eta familia bateratzearen auzia barne hartu duten bi ekimen hauek:

- Langabeziaren aurkako Plana 2012³². Gizarte Elkarrizketako Mahaiak lortutako akordioaren ondorioz (Eusko Jaurlaritzako, Confebask-eko, UGTko eta CCOOko ordezkariz dago osatua), Plan hau agertu zen IX. Legegintzaldian. Bertan, krisialdi ekonomikoaren testuinguruan, neurri sorta bat proposatzen zen 2012an langabeziari aurre egiteko. Planak 11 neurri biltzen zituen guztira, eta haietako batean –bederatzigarren neurria, enplegua sustatzeko neurriak bultzatzea kontratatze laguntzak emanez–, barne hartzen zuen enpresek langabeak kontratatzea, lana eta familia bateratzeko lanaldi-murrizketa edo eszedentzia hartu dutenek hutsik utzitako postuak betetzeko.
- 2014an lehenetsitako erronka gisa sartzea bateratzea. Gizarte Elkarrizketako Mahaiak X. Legegintzaldian egindako lehen bileretako batean, 2014ko abenduan, Eusko Jaurlaritzako, Confebask-eko UGTko eta CCOOko ordezkariek bertan zirela, erabaki zuen lanaren eta familiaren bateratzea izango zela gizarte-elkarrizketako foro horren hiru erronka lehenetsitako bat, enpleguarekin eta gizarte-babesarekin batera.

- **Lanaren eremuan ordutegi-malgutasuneko hainbat esperientzia abian jartzea [166]**

Lanaren eremuan ordutegi-malgutasuneko zenbait esperientzia abian jartzeko ekintza honi dagokio 2010eko uztailaren eta 2011ko ekainaren artean lau euskal enpresatan ezarritako programa pilotua, non, lana eta familia hobeto bateratzeari begira, laneko ordutegia aldatzearen inplikazioak eta balizko ondorioak aztertzea baitzen asmoa. Hainbat sektoretako eta tamainatako enpresa hauek aukeratu ziren: Empresa Bellota (industria-sektorea, 580 langile); Euskaltel (telefoniako, telefonia mugikorreko, Interneteko eta kable bidezko telebistako zerbitzuak, 550 langile); Lazpiur SL (industria-sektorea, 90 langile); eta Vadillo Asesores (legezko eta enpresako aholkularitza, 20 langile).

Proba pilotua lau enpresetan amaitu ostean, emaitza onekin amaitu ere Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritzak³³ adierazitakoaren arabera, 2011ko ekainean metodologia berezia prestatu zen esperientzia hori beste enpresa batzuetara eraman ahal izateko³⁴. Urte hartan bertan, 2011ko uztailan, 50 enpresa bildu zituen jendarteratze-jardunaldi bat egin zen («Zure enpresak irabazi, guztiok irabazi»), esperientzia pilotuan parte hartu zuten enpresek eurek azaldu zezaten zein izan ziren abiapuntua, prozesua eta emaitzak.

2011n egindako jarduketaz gain, 2012an eta 2013an hainbat jarduketa gauzatu ziren lan-ordutegi malguagoak ezartzeko.

- Ordutegi malguen ezarpenaren metodologia gaitzeko proiektua. Enpresetan lan-ordutegi berrien ezarpena errazteko asmoz, Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritzak hainbat prestakuntza- eta sentikortze-bilera eta -jardunaldi egin zituen EAEko erakunde adierazgarrietako pertsonekin (Adegi, Ceбек, hainbat sindikatu, merkataritza-ganberak, etab.), garatutako metodologiaren ezagutza-maila handitu zedin erakundeon artean. Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak programatutako helburuen betetze-mailari buruzko 2011ko

³² Hemen eskuratu daiteke: http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/1894/Plan_lucha_paro_eus.pdf?1329906898

³³ Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren 2011ko helburu programatuen betetze-mailari buruzko memoria.

³⁴ Bai aipatutako esperientzia pilotua baino lehen egindako azterlana («EAEko enpresa-sarean lan-ordutegia aldatzeak izan ditzakeen ondorioei buruzko azterlana, 2010») bai ordutegi-eredu berria txertatzeko metodologia –2011n zehaztua– jendearen eskura jarri ziren 2011n, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren webgunean eta Bateratu+ atarian.

memorian, jasota geratu zen gutxienez 45 profesionali bideratu zitzaizkiola gaikuntza-ekintza horiek.

- Herritarrengan, toki-erakundeekin laguntzaz, denboraren erabileraren kudeaketa berria eta efizientea sustatzeko proiektua. Proiektu hau 2012 eta 2013 artean gauzatu zen, Irun udalerrian, erakunde ugariaren parte-hartzearekin: besteak beste, udala, Bidasoa Bizirik Garapen Bulegoa eta Mugan-Irungo Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzuen Elkarte. Proiektuak tokiko erakunde eta organizazioen laguntza jaso zezaketen askotariko jarduketak identifikatu eta garatu nahi zituen, erantzunkidetasun handiagoa eta pertsonen denboraren kudeaketa hobea lortzen laguntzeko. Proiektuak nahi zena baino emaitza kaskarragoak izan zituen, eta, gauzatu ondoren, arazo hauek hauteman zitzaizkion³⁵: erakundeen lidergo eta konpromiso falta proiektuari heltzeko; parte-hartzen zuten eragileak tartean nahasteko zailtasunak, hasieratik eta baterako ikuspegia lortzeko asmoz; eta neurrietako zenbait ezartzeko finantzaketa-funtsik eza.

IX. Legegintzaldian egindako jarduketak alde batera utzita, ez da inon jasota geratu Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ildo horretan esperientziarik gauzatu zituenik hurrengo legegintzaldian. Halaber, garatutako metodologia eta 2011n programa pilotua amaitu ondoren egindako jendarteratze-lana gorabehera, ez zaio jarraipenik egin enpresek ekimenarekiko izandako atxikimenduari.

- **Confebaskekin eta sindikatuekin batera ordutegien malgutasuna bultzatzea hitzarmen kolektiboetan bateratze-neurriak barneratzeko [59]**

Familiei laguntzeko III. Planaren indarraldian, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak kontu hori aztertze hainbat elkarrizketa egin zituen sindikatu- eta enpresa-erakundeekin, eremu horretan ordutegien malgutasuna bultzatzeko asmoz. Zehazki, lan-ordutegi berrieke loturan garatutako metodologia jendarteratzeko prozesuan, Eusko Jaurlaritzak zazpi bilera egin zituen langileen eta enpresaburuen ordezkarietarako hainbat erakunderekin. Bilera horietatik abiatuta, pentsatzekoa da handitu egin zela enpresetan ordutegi malguagoak ezartzeko metodologia buruzko ezagutzamaile; hala ere, ez dago behar besteko informaziorik, jarduketa horiek Planaren indarraldian erregistratutako hitzarmen kolektiboetan eragina izan dutela ondorioztatzeko moduan³⁶.

³⁵ LKS (2013) Herritarrengan, toki-erakundeekin laguntzaz, denboraren erabileraren kudeaketa berria eta efizientea sustatzeko proiektua.

³⁶ Hitzarmen kolektiboaren erregistrotik (REGCON) ondorioztatutako datuetan oinarrituta, ezin daiteke esan aurrerabide handia egin denik EAEn sinatutako hitzarmen kolektiboetan ordutegi-malgutasuna sartzeari dagokionez. Horrenbestez, urtero urtarilaren 1etik indarrean dauden hitzarmenak hartzen badira kontuan, emaitzek agerian uzten dute oso gutxi hazi dela ordutegi-malgutasuneko neurriren bat aurreikusten duten hitzarmen kolektiboaren proportzioa: hain zuzen, 2011n % 11,2 izatetik, 2015eko urtariletik indarrean dauden hitzarmenen % 12,5 izatera.

Horrez gain, 2011n Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak, Bateratze+ web-atariaren bitartez, negoziazio kolektiborako zenbait aholku biltzen zituen atal bat jarri zuen sindikatuen eta enpresa-erakundeen eskura, bateratze-premietarako erantzun egokiagoa emateko asmoz, eta atal horietako epigrafeetako batek lan-orduetako malgutasun-neurriak zituen ardatz.

- **EAEko enpresetan eta administrazio publikoetan telelaneko ekimenak sustatzeko orientabidea [48]**

Familiei laguntzeko III. Planaren lehenespen-prozesuan, kontuan hartuta neurri honek bi alderdi zituela, bi alor desberdinetan sartzeko erabakia hartu zen: sektore pribatuko enplegurako ekintzen alorrean, zeina azpiatal honetan aztertzen baita, eta sektore publikoko ekintzen azpiatalean, zeina hurrengoan aztertzen baita.

Justizia eta Herri Administrazio Sailak telelana sustatzeko egindako jarduketei dagokienez, baieztatu daiteke batik bat sektore publikoa izan dutela ardatz; ez da ezagutzen formula hori sektore pribatuan sustatzeko xedea zuen jarduketarik.

- **Enpresei zuzendutako eta bateratzearekin erlazionatutako gaien inguruko laguntza-sistemen eraketa [89]**

Familiei laguntzeko III. Planaren indarraldian, Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak, funtsean, Bateratu+ web-orriaren bitartez bideratu du ekintza hau. 2011n sortu zen atari hori, Eusko Jaurlaritzaren hasiera-orriaren mendekoa, eta enpresentzat bada ere soili-soilik –sindikatu eta okupatuentzako edukiak ere eskaintzen ditu–, bateratze-neurriak aplikatzeko orduan baliagarriak diren zenbait orientabide-tresna jartzen ditu haien esku. Horren adibide dira, enpresa bakoitzaren bateratze-egoera eta -premiak kalibratzeko autodiagnostiko tresna edo bateratze-neurri bakoitzak eskatzen duen inbertsioa eta ekar ditzakeen onurak erlazionatzeko kostu-onuren kalkulatzekoa. Halaber, sortu zenetik, familia eta lana bateratzearekin lotutako kontsultak egiteko aukera ematen du webguneak, nahiz eta, kasu honetan, erabiltzaile edo gizarte-eragile ororentzat zabaldu zerbitzua, eta ez enpresentzat soilik.

2011tik 2015era bitartean, Familia eta Komunitate Politikako Saila ataria eguneratzen joan da, edukiak gehituz, eta programatutako helburuen betetze-mailari buruz egin diren segidako memorietan zenbait zifra jasoz webgunearen eta/edo haren zerbitzuetako batzuen erabilerari buruz. Memoretan neurri hauek eman dira:

- 2011: azaroan sortu zenetik urte amaiera arte, Bateratu+ webguneak 41 kontsulta jaso zituen.
- 2012: urte honetan, webguneak 20.000 bisitatik gora jaso zituen eta guztira 2.426 bisitarik egin zuten enpresaren egoera balioztatzeko online autodiagnostikoa, bateratze-neurrien aplikazioari dagokionez.
- 2013: webguneak 31.000 bisita baino gehiago izan zituen. Gainera, urtean zehar hamar albiste-buletin bidali ziren posta elektronikoko 16.000 helbide zituen direktorio batera.
- 2014: webguneak 32.607 bisita eta 315 kontsulta jaso zituen. Horrez gain, 4.479 autodiagnostiko egin ziren, jakiteko enpresa jakin batean zer-nolakoa zen egoera lana eta familia bateratzeari dagokionez.
- 2015: webguneak 69.678 bisita, 356 kontsulta pertsonalizatu eta 3.807 autodiagnostiko jaso zituen.

Aurrez adierazitako guztiak ondorioztatzera ematen du ezen, enpresei laguntzeko sistema baino gehiago, batik bat informatzeko tresna gisa taxutu dela Bateratu+ ataria, eta enpresaburuak bateratzearen onurei buruz sentikortzera eta kontzientziatzera bideratuta dagoela nolana ere. Era berean, agerikoa dirudi halako tresna bat izatea ez dela aski enpresei benetan laguntza emateko neurriak ezartzeko orduan.

- **Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiei eta Foru Aldundiei zuzendutako ekimenen garapena familia eta lanaren bateratzea sustatzen duten erakunde pribatuentzat salbuespen fiskalen aplikazioa iker dezaten [51]**

Planaren indarraldiko bost urteetan, ez da erregistratu inolako ekimen formalik auzi honi buruzko aldaketak sartzeko, ez Ekonomia eta Ogasun Sailaren aldetik, ez Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren aldetik, dela Batzar Nagusietan, dela dagozkion foru-gobernuetan. Era berean, ez da ezagutzen foru-ogasunen araudian halako aldaketarik egin denik, bateratze-arrazoientatik zergak salbuetsi edo arintzeari dagokionez, enpresen zerga-kargei buruz.

- **Gizarte Gaietako arloko Biltzarraren bitartez Gobernu Zentralari zuzendutako ekintzak helaraztea bateratzearen arloko hainbat neurri aztertu, sustatu edo abian jartzeko [57]**

Ekintza honek, proposatu zen moduan, barne hartzen zuen Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren ordezkariak enplegu eta/edo gizarte-gaiaren arloko biltzarrari bateratzearen mesederako hainbat neurri helaraztea, estatuko lan-araudiak horiek kontuan hartu eta arlo horretako lan-eskubideak zabaldu zitzaizkien.

Neurri honi dagokionez, ez da erregistratu ildo horretan inolako ekimenik aurkeztu duenik euskal autonomia-erkidegoko Administrazioari ezein ordezkari. Halaber, Ogasunaren eta Administrazio Publikoaren Ministerioak³⁷ arloko biltzarretako jarduerari buruz argitaratzen dituen urteko txostenetatik eskuratu daitezkeen informazioak ez du aditzera ematen, era berean, organo aldeaniztun horien barruan neurri honek proposatutakoaren moduko auziei heldu zaienik. Memoria horietatik abiatuta, jakin dezakegu enpleguaren eta laneko gaien arloko biltzarra guztira 15 alditan bildu dela 2011tik 2015era bitartean (3 bilera urteko), eta gizarte-gaietako³⁸ 8 alditan (bilera bana 2011n eta 2014, eta bina gainerako urteetan). Nolanahi ere, egindako bileretako gai-zerrendak aztertzean, horietako batean ere ez dira sartzen neurri honetan aipatzen diren bateratze-neurriak.

- **Bateratzerako tresnak eta neurriak ahalbidetzeko bateratze-ataria (Bateratu+) sortzea eta mantentzea [52]**

Saila honelako web-orri bat sortzera eraman zuten zergatietako bat da bateratze-neurriari buruzko uste oker asko zeudela ohartu zela: adibidez, langileren batek bateratze-neurriaren bati heltzen dionean enpresak ez duela onurarik jasotzen; bateratzea oso garestia dela enpresentzat; bateratze-kontuak enpresaburuarenak direla, ez ordea langilearenak; familian ezin dela indartu bateratzea, eta abar³⁹.

Horiek horrela, aurreiritzi ugari desegiteko eta informazio egokia jendarteratzeko, 2011ko azaroaren erdialdean Bateratu+ <www.euskadi.net/concilia> webgunea sortu zen; hau da, familia, bizitza pertsonala eta lana bateratzeari buruzko atari bat, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren web-orriaren barruan. Hasiera batean planteatu moduan, Bateratu+ web-ataria («Bateratu uztartzearen ALDE ONAK» ere deitua) enpresa, sindikatu, langile autonomo eta besteren konturako langileentzako tresna bat da, informazio- eta gogoeta-gune bat eduki dezaten, familia, lana eta norberaren bizitza bateragarri egiteari buruzkoa.

³⁷ Hemen eskuratu daitezke:

http://www.seat.mpr.gob.es/portal/areas/politica_autonomica/coop_autonomica/Conf_Sectoriales/Documentacion/Conf_Sect_anuales.html

³⁸ 2013tik aurrera, Gizarte Gaiaren arloko Biltzarrak bat egin zuen Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluarekin, uztailearen 30eko 20/2012 Dekretu Legearen 2.2 artikulua bidez.

³⁹ Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila (2012), *Bateratze erantzunkideari buruzko politikak 2009-2012*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Webgunearekin, helburu hauek lortu nahi ziren:

- Enpresei familia, lana eta bizitza pertsonalaren bateragarritasuna sustatzearen onurei buruzko kontzientzia harraraztea –laneko giroa hobetzen du, lanera ez agertzeak eta txandakateak murrizten ditu, etab.– eta enpresarentzat, azken batean, ekonomikoki errentagarria delakoa.
- Sindikatuei bateragarritasuna eta ordutegi-malgutasuna negoziazio kolektiboan sartu behar delako kontzientzia harraraztea.
- Langileei kontzientzia harraraztea, bateratze-neurriak erantzukizunez balia ditzaten, eta familiako kide guztien erantzunkidetasuna sustatzea langile autonomoen eta besteren konturako langileen artean (dokumentu-ereduetara eta lege-testuetara jotzeko esteka eta guzti).

Ikuspuntu operatibotik, webguneak hainbat tresna erabilgarri ditu:

- Autodiagnosia egiteko tresna, enpresa bakoitza zer egoeratan dagoen eta zer premia dituen jakiteko.
- Kostua-onura kalkulatzeko tresna, bateratze-neurri bakoitza ezartzeko inbertsioa eta neurri horrek emango dituen onurak lotzeko (lege-testuetara jotzeko esteka eta guzti).
- Baliagarri dagoen neurri bakoitzaren kasuan –laguntzak, diru-laguntzak, hobariak eta abar– enpresek, langile autonomoek eta besteren konturako langileek zer izapide egin behar duten azaltzeko atala (hainbat dokumentu-eredutara eta lege-testuetara jotzeko esteka eta guzti).
- «Nire plana» atala, enpresetan bateratze-plana prestatzeko tresna-gida. Planak hainbat mekanismo aurreikusten ditu dagoeneko martxan diren neurrien berri emateko, baita langileek zenbat erabili dituzten ebaluatzeko eta jarraipena egiteko prozeduren eta lortutako emaitzen berri emateko ere.

Horrez gain, Bateratu+ web-atariak kontsulta pertsonalizatuak egiteko eta doako aholkularitza jasotzeko aukera ematen du, posta elektronikoko helbide honen bitartez (<concilia@euskadi.eus>)

Nabarmenezkoa da, bestalde, web-orria mantentzeko ekintzen artean, edukiak eguneratzeaz gain, eta 2012tik aurrera, Facebookeko orri baterako esteka (<https://www.facebook.com/bateratu>) eta bateratze-kontuei buruzko blog baterako esteka (<http://concilia.blog.euskadi.net/>) sartu direla atarian

3.2.1.2. *Sektore publikoko enplegurako ekintza estrategikoak*

Alor espezifiko honek, bateratzeari buruzko ildo estrategikoaren barruan, sektore publikora bideratutako neurriak ditu ardatz. Hura osatzen duten sei neurriek, batetik, bateratzearen mesederako neurri esperimental bat sustatzea jorratzen dute, telelana⁴⁰, hain zuzen (48. neurria); bestetik, eskola-adineko haurrak dituzten familien bateratze-esparru zehatzean hainbat proposamen hartzea jorratzen dute (kasu honetan, 48., 16., 13., 60., 61. eta 146. neurriak sartu dira).

Taula honek erakusten duen bezala, hartu diren sei neurrietatik, Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza bitan soilik da erakunde arduraduna, eta bietan ala bietan aurreikusten da beste erakunde batzuk Zuzendaritza horrekin lankidetzan jardutea. Gainerako neurriak ezartzeko, Familiei laguntzeko III. Planak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari (13. eta 60. neurriak) eta Justizia eta Herri Administrazio Sailari (48. neurria) esleitzen die horien ardura.

48. taula. 1. ildo estrategikoan, familia, bizitza pertsonala eta lana bateratzeari buruzkoan, sartutako neurrien eta sektore publikoko enplegurako ekintza estrategikoen gauzatze-maila

Neurriak	Arduraduna	Kolaboratzaileak	Gauzatze-maila
48. Euskal administrazio publikoetan eta EAEko enpresetan telelan-ekimenak sustatzeko orientazioa eskaintzea.	Justizia eta Herri Administrazio Sailsa		Gauzatua
16. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari jakinaraztea beharrezkoa dela ikastetxeentzako zenbait neurri ezartzea familietan bateratzea hobetzeko.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailsa)	Udal-administrazioa	Gauzatu gabe
13. 0 eta 3 urte bitarteko ikasleentzako gelak sor daitezela sustatzea, eskaria legealdiaren azken-aldera bete ahal izateko.	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailsa		Zati batean eginda
60. Eskola orduen malgutasuna, familiaren, lanaren eta norberaren bizitzaren bateratzea eta balore positiboak sustatzen dituzten eskolaz kanpoko ekimenak laguntzea.	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailsa		Gauzatu gabe
61. Eskola-jantokien eskaintza familien eskarietara moldatzea.	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailsa		Gauzatu gabe
146. Haurreskolek egokitzapen-aldiak malgutzeari buruzko ikerketa	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailsa)	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailsa	Gauzatu gabe

Oharra: 48. ekintzari dagokion gauzatze-mailak neurriak sektore publikoan izan duen ezarpenari egiten dio erreferentzia soilik.

Atal honetan sartutako sei neurrietarako, jarraian deskribatu da zer jarduketa egin dituzten erakunde arduradunek horiek gauzatzeko.

⁴⁰ Aurreko azpiatalean aipatu moduan, eta Familiei laguntzeko III. Planeko neurriak lehenesteko prozesuaren emaitzak jasotzen dituen agiriarekin bat, bi alorretan sartu da neurri hau: sektore pribatuko enplegurako ekintza estrategikoei buruzkoan eta sektore publikoko enplegurako ekintza estrategikoei buruzkoan. Hala eta guztiz ere, haren emaitzak ebaluatzeko, behin bakarrik kontabilizatuko da neurria.

- **EAEko administrazio publikoetan telelaneko ekimenak sustatzeko orientabidea [48]**

Neurri hau, Justizia eta Herri Administrazio Sailak sustatua, 2011n langile kopuru murriztarekin esperientzia pilotu bat eginez gauzatu da. Ekimena abian jarri eta gero, eta ikusita emaitza onak lortu zirela, neurria euskal autonomia-erkidegoko Administrazio Orokorreko langileentzat hedatzea erabaki zen, dekretu bitartez hura araututa.

2011ko urtarrilaren eta maiatzaren artean, Eusko Jaurlaritzak Telelana Proiektua jarri zuen martxan; hau da, telelaneko esperientzia pilotu bat, Justizia eta Herri Administrazio Sailaren barruan, non 29 funtzionariok (15 gizon eta 14 emakume), borondatez, astero hiru egunez eta aurreikusitako bost hilabeteetan etxetik lan egiteko eskaini zuten beren burua. Esperientzia ebaluatuta, agerira ekarri zen haien produktibitateak gora egin zuela kasuen %70ean, eta kalitatea %42 handitu zela. Halaber, parte-hartzaileen gogo-aldarteak hobera egin zuen kasuen %77an, eta osasunak %57an. Esperientzia amaitutakoan, %84k adierazi zuen prest zegoela bere lana baldintza berberetan betetzen jarraitzeko.

Lortutako emaitzen ondoren, Eusko Jaurlaritzak neurri hori sail eta erakunde autonomo guztietara hedatzeko erabakia hartu zuen, eta asmo horrekin onartu zuen, 2012an, 92/2012 Dekretua, azaroaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomiadunetako enplegatu publikoek zerbitzua telelanaren bidez modalitate ez-presentzialean nola eman arautuko duen Akordioa onartzeko dena.

Aipatutako Dekretuan arautu ziren aplikazio-eremua, laneko araubidea, sartzeko baldintzak, modalitaterako egokiak diren lanpostuak eta haren jarraipena, eta langile talde zehatz baterako aurreikusten zuen formula hori (lanpostuan gutxienez bi urte emandako langile publiko, funtzionario nahiz lan-kontratudunak, aholkularitza emateko, txostenak prestatzeko, dokumentuak itzuli eta idazteko, informatika-sistemak kudeatzeko eta antzeko funtzioak betetzeko zereginak zituztenak). Era berean, Dekretuak gehienez urtebeteko iraunaldia ezarri zuen telelanerako. Aldi hori igarotakoan, langileak modalitate presentzialera itzuli behar zuen, sei hilabeterako gutxienez. Bestalde, ezartzen zen telelanean honela banatuko zela asteke lanaldia: astean hiru egunetan, langile publikoa lana etxetik egitekoa zen, eta astean bitan, bere lanpostura joanez, bileretara joateko eta proiektu komunetan parte hartzeko. Dekretuak, halaber, aurreikusten zuen telelangileak ordenagailu eramangarri bat izango zuela, langilearen saileko aplikazio informatikoetarako sarbidea izango zuena; IP telefono-zenbaki bat edo mugikor korporatibo bat; eta telefono bidezko arreta-zerbitzua, zerbitzuan gorabeheraren bat gertatzen zenerako. Azkenik, ezartzen zuen sail batean telelanean aritzeko eskabide bat baino gehiago jasotzen baziren eta, antolakuntza-arrazoiak tarteko, guztiak baimentzerik ez bazegoen, lehentasuna izango zutela ezintasun iraunkor edo iragankor bat zuten langile publikoek, genero-indarkeriaren biktima izandakoek, adingabeak edo mendetasuna duten senitartekoak zaindu behar dituztenek edo ikasten ari direnek. Zerranda horretan, kontuan hartzen ziren etxebizitzatik lanposturako distantzia eta joan-etorrietarako garraio publikoaz baliatzeko zailtasuna ere.

EAEko Administrazio Orokorrean hurrenez hurren egin diren telelan-edizioei buruzko datuek erakutsitakoaren arabera, 2013-2014an (2013ko azarotik 2014ko azarora arte) 83 langilek parte hartu zuen lan telematiko modalitatean, eta 2015ean, aldiz, 100 langilek; hau da, aurreko edizioan baino %21 gehiagok.

49. taula. Teleslangileen ezaugarriak. 2013-2015

	Lehen edizioa (2013-14)		Bigarren edizioa (2015)	
	Kop.	%	Kop.	%
Sexua				
Emakumeak	52	62,7	66	66
Gizonak	31	37,3	34	34
Adina				
31-40 urte	24	28,9	24	24
41-50 urte	37	44,6	45	45
51-60 urte	18	21,7	28	28
60 baino gehiago	4	4,8	3	3
Lanbide taldea				
A taldea (goi-mailako teknikariak eta lizentziadunak)	72	86,7	85	85
B taldea (erdi-mailako teknikariak eta diplomadunak)	8	9,6	7	7
C taldea (administrariak)	3	3,6	7	7
D taldea (laguntzaileak)	0	0,0	1	1
Saila/Erakunde				
Herri Administrazioa eta Justizia	10	12,0	10	10
Ekonomiaren Garapena	5	6,0	7	7
Enplegua	7	8,4	9	9
Hezkuntza	12	14,5	9	9
Ogasuna	2	2,4	1	1
Lehendakaritza	3	3,6	6	6
Ingurumena	7	8,4	9	9
Osasuna	12	14,5	16	16
Segurtasuna	1	1,2	1	1
Lehiaren Euskal Agintaritzak	1	1,2	1	1
EMAKUNDE	3	3,6	5	5
IVAP	18	21,7	23	23
HABE	1	1,2	2	2
LANBIDE	1	1,2	1	1
Guztira	83	100,0	100	100

Iturria: Irekia.

Neurri hau ebaluatzeko dauden datuek formula hori baliatu duten langileen kopurua eta ezaugarriak aipatzen dituzte soilik. Tamalez, ez dago informaziorik jasotako eskabideen kopuruari buruz, ez eta ezarritako bi edizioetan lortutako emaitzei buruz ere. Neurriaren emaitzak hobeto aztertzeko aukera emango zuketean.

- **Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari jakinaraztea beharrezkoa dela ikastetxeentzako zenbait neurri ezartzea familietan bateratzea hobetzeko [16]**

Ez dago idatzizko nahiz ahozko erregistrorik, egiaztatzeko Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren ordezkariak jakitera eman diotela, Hezkuntza Sailari, beharrezkoa dela ikastetxeek zenbait neurri hartzea familietan bateratzea hobetzeko. Era berean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak programatutako helburuen betetze-maila aztertzen duten 2011-2015 aldiko memorietan ere ez da jasotzen jarduketarik ildo horretan.

- **0 eta 3 urte bitarteko ikasleentzako gelak sor daitezela sustatzea, eskaria legegaldaren azken-aldera bete ahal izateko [13]**

2003an Haurreskolak Partzuergoa sortu zenetik –Eusko Jaurlaritzak eta udalek eratutako partzuergo publiko bat, Haur Hezkuntzako lehen zikloko haur-eskola publikoak kudeatzen dituena– Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak, zeinen mende baitago erakunde ikastetxe-sare hori, erakunde publiko horren bitartez bideratu du EAEko Haur Hezkuntzako lehen zikloaren sustapena. Hala, azken hamarraldian nabarmen handitu da otik 3 urtera bitarteko ikasleentzat eskainitako plazen kopurua: 2006an gutxi gorabehera 4.000 izatetik, 2010ean 7.200 izatera igaro dira⁴¹.

⁴¹ EAEko 2006ko eta 2010eko Aurrekontu Orokorretan sartutako Hezkuntza Sailaren memorietatik ateratako datuak.

Nolanahi ere, Familiei Laguntzeko III. Planaren indarraldian, hainbat arrazoi direla eta, geldirik egon da zabalkunde-ibilbide hori. Haurreskolak Partzuergoak 2011tik 2015era bitartean eskainitako plazak datuei erreparatu gero, ikus daiteke 2012ra arte nolabaiteko hazkundera izan zutela, eta 2013tik aurrera egonkortu egin zela eskaintza.

50. taula. Haurreskolak Partzuergoak eskainitako plazak kopuruaren bilakaera. 2010-2015

	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Eskainitako plaza kopurua	7.200	7.800	8.200	8.200	8.233	8.353

Iturria: EAEko Aurrekontu Orokorrak.

Hala eta guztiz ere, adierazi behar da ekintza honetan esplizituki aipatutako IX. Legegintzaldiaren amaiera 2012ko abenduari dagokiola, eta, beraz, 2010tik 2012ra bitartean 1.000 plaza berri sortu zirela neurri honen ondorioz.

- **Eskola-orduen malgutasuna, familiaren, lanaren eta norberaren bizitzaren bateratzea eta balore positiboak sustatzen dituzten eskolaz kanpoko ekimenak laguntzea [60]**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, 2010etik (IX. Legegintzaldia), guraso-elkarteentzako laguntza-lerro bat du elkarteok sustatutako jarduera osagarriek eta eskolaz kanpoko ekintzek eragindako gastuen zati bat ordaintzeko⁴². Ekintza zenbateraino gauzatu den aztertzeko, ezinbestean erreparatu behar zaie laguntzei; izan ere, Familiei Laguntzeko III. Planak neurri hau guraso-elkarteentzako laguntza-partiden bitartez gauzatzea aurreikusten zuen hasierako formulazioan.

51. taula. Guraso-elkarteentzako eta Helduen Hezkuntzako ikasle-elkarteentzako laguntzen aurrekontu-zuzkiduraren bilakaera 2010-2015

	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Aurrekontu-zuzkidura	650.000	780.000	702.000	500.000	500.000	500.000

Iturria: EAEko Aurrekontu Orokorrak.

Laguntzak deitu dituzten hurrenez hurrengo Aginduek agerian utzi dute, lehenik eta behin, diru-laguntzen lerroa gaur egun arte mantendu arren haren aurrekontu-zuzkidura nabarmen murriztu dela.

Bigarrenik, adierazi behar da hurrenez hurren argitaratutako aginduetan egindako aldaketa bakarrak ez duela aurreikusten, printzipio jakin batzuk sustatzen dituzten jarduerak bereziki kontuan hartzeari dagokionez, ez ordutegien malgutasuna, eta ez familia, bizitza pertsonala eta lana bateragarri egitea ere. Zehazki, 2014tik aurrera, testu honen amaieran agertzen den berezitasuna gehitu zen arau horretan: «Agindu honen bidez, laguntzetarako deia egiten da, hau izanik laguntza horien xede nagusia: (...) elkarteak egon daitezen sustatzea, bai eta (...) jarduera osagarriek eta eskolaz kanpoko ekintzek eragiten dituzten gastuen zati bat ordaintzea ere, eta bereziki hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko jarduerak».

⁴² Egiaz, bai guraso-elkarteentzako bai Helduen Hezkuntzako ikasle-elkarteentzako da laguntza-lerroa. Gainera, nagusiki, halako elkarteak egon daitezen sustatzea du xede, elkarteok sustatutako jarduera osagarriek eta eskolaz kanpoko ekintzek eragindako gastuen zati bat ordaintzeaz gain.

- **Eskola-jantokien eskaintza familien eskarierara moldatzea [61]**

Gaur egun, eskola-jantokiek unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza orokorreko ikasleen erdiei baino zertxobait gehiagori ematen diote zerbitzu. Planaren indarraldian, egonkor samar mantendu da zerbitzu hori erabiltzen duten ikasleen kopurua; hala ere, sare publikoan, apur bat beheratu da jantokiak erabiltzen dituen ikasle kopuruaren proportzioa.

52. taula. Eskola-jantokiak erabiltzen dituen ikasle kopuruaren bilakaera, sarearen titulartasunaren arabera. 2010-11/2014-15

	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15
Erabiltzaileak					
Publikoa	95.579	97.172	96.378	94.461	96.190
Pribatua	85.156	86.318	86.057	86.468	88.491
Guztira	180.735	183.490	182.435	180.929	184.681
%**					
Publikoa	% 56	% 55	% 53	% 52	% 52
Pribatua	% 50	% 50	% 49	% 49	% 50
Guztira	% 53	% 53	% 51	% 50	% 51

*Helduen Hezkuntzako eta HLKPKo datuak ez dira jaso.

**Ehunekoak kalkulatzeko, zerbitzua erabiltzen duten ikasleen kopurua eta ikasturteko ikasleen guztizkoa alderatzen dira.

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Unibertsitatez kanpoko EAEko hezkuntzari buruzko datuak.

Alde batera utzita eskola-jantokien erabiltzaileei buruz dauden datuak eta erraz eskuratu daitezkeen beste batzuk (adibidez, jantokirako diru-laguntza jasotzen duten ikasleen kopurua, aurrekontu-zuzkidurari buruzko datuak, edo gastuari buruzkoak –Hezkuntza Sailak ahalegin handia egin behar du halako diru-laguntzei aurre egiteko–), Familiei laguntzeko III. Planeko jarduketa gauzatu gabeen artean sartu da ekintza hau, neurriaren espezifikotasun ezaren ondorioz –familien eskari nolabait zehaztu gabea moldatu nahi baitu eskola-jantokien eskaintza–, eta Hezkuntza Sailak ildo horretan jarduketaren bat egin duela egiaztatzeko datuak eskuratzeko ezintasunaren ondorioz.

53. taula. Jantokirako diru-laguntzen kopuruaren bilakaera eta Eusko Jaurlaritzak finantzatutako zenbatekoa (mila eurotan) 2010-11/2014-15

	2010-11	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15
Diru-laguntzen kopurua	57.756	60.926	57.903	58.895	60.982
Zenbatekoa	33.092,5	34.817,6	33.550,3	37.494,9	38.698,3

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa Hezkuntzako estatistikak. Baliabide ekonomikoak. Bekak eta ikasketarako laguntzak.

- **Haurreskolefako egokitze-aldiak malgutzeko ikerketa [146]**

Haur Hezkuntzako egokitzapen-aldia da haurra ikastetxean lehenbizikoz sartzan denetik bertan normaltasunez moldatzen den arte igarotzen den aldia. Prozesuaren helburua, nagusiki, familiarengandik pixkanaka eta traumarik gabe bereiztea da. Horretarako, Haurreskolek metodologia oso zehatza dute ezarrita, ordutegi eta jarduera-plangintza bereziekin. Prozesuak, tartean nahasitako eragile guztiak ukitzen –bereziki haurrak, baina baita haien familia eta hezitzaileak ere–, eta gutxi gorabehera hiru aste irautean ditu. Aldi horretan, senide batek (ahal dela, guraso batek) ikastetxera lagundu behar du haurra, eta bertan harekin egon, harik eta, pixkanaka, han egoteari utzi ahal izan arte.

Prozesuak bateratze-zailtasun ugari eragiten dizkie aldi horretan egokitzapen-aldia beren enpleguekin bateratu behar duten gurasoei, eta familia-elkarte batzuek aldi horiek familien beharrezanetara egokitzeko eskaera egin zuten; horregatik erabaki zen neurri hau, non egokitzapen-aldia malgutzeari buruzko ikerketa bat egitea aurreikusten baita, Familiei laguntzeko III. Planeko neurrien artean sartzea. Hala eta guztiz ere, Planaren indarraldiko urteak ikerketa egin gabe igaro dira; beraz, neurri hau ez da gauzatu.

3.2.1.3. Kontziliazioa bideratzen duten ekintza esperimentalak

Bateratzearen ildo estrategikoan, Familiei laguntzeko III. Planak, 2013an berriro zehaztu zen moduan, ekintza esperimentalen ildoko hiru neurri aurreikusten zituen guztira. Lehenetsitako hiru neurrien artetik, bitan haur txikiak zituzten familiei laguntzeko ekimen esperimentalak bultzatzeko aukera aipatzen zen (55. eta 150. neurriak); hirugarrena, aldiz, familiaren alorreko zainketa informalean lanbide-heziketaren eta aitortzaren eremuan kokatzen zen.

54. taula. 1. ildo estrategikoan, familia, bizitza pertsonala eta lana bateratzeari buruzkoan, sartutako neurrien eta bateratzearen mesederako ekintza estrategikoen gauzatze-maila

Neurriak	Arduraduna	Kolaboratzaileak	Gauzatze-maila
55. Haur-zaintzaileen sare komunitarioak bultzatzea	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)		Gauzatua
76. Familia-esparruko zaintzaileei (adin txikikoei edo mendeko pertsonari arreta emateko kontratatutako pertsonak) zuzendutako profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko prozesuak ezagutaraztea, osasun- eta gizarte-erlako prestakuntza egiaztatzearen bidez eta gaitasuna ziurtatzeko deialdien bidez, lan-jarduera hori duintze aldera.	Enplegurako Prestakuntzako Zuzendaritza (Lanbide)		Gauzatua
150. Ikerketa bat egitea, hezkuntzaren eta gizartearen bitarteko eremuan kokatzen diren etorkizuneko bateratze-zerbitzuei buruz.	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)		Gauzatu gabe

Jarraian, aurreko taulan jasotako neurrietako bakoitzaren gauzatze-maila deskribatu da.

- **Haur-zaintzaileen sare komunitarioak bultzatzea [55]**

Ekintza honen esparruan, nabarmentzekoa da 2011tik 2013ra Haur-etxeak / Nidos familiares proiektu pilotua martxan jarri zela. Ekimena IX. Legegintzaldian agertu zen, eta haurrak zaintzeko uneko eskaintza zabaltzea eta osatzea zuen helburu, o urtetik 3 urtera bitarteko haurrei arreta emateko eta zaintzeko zerbitzu komunitario baten bitartez, lana eta familia bateragarri egiteko, zaintzailearen etxebizitzan. Hala, Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatibarekin sinatutako hitzarmen baten bidez, 2011n martxan jarri zen ekimen hau. Proiektuak bi urte iraun zituen ia, eta irismen mugatua izan zuen: 2011. urtearen amaiera aldean 5 haur-etxe zeuden zabalik, eta haietan 8 haur zaintzen ziren guztira; 2012an 15 haur-etxe zeuden, 31 haurrekin, eta 2013an haur-etxe kopuru bera, 38 haurrekin guztira. 2013. urtearen amaiera aldera, bertan behera utzi zen proiektua. Gobernu berriak hura bertan behera uzteko eman zituen arrazoen artean, nabarmentzekoak dira Hezkuntza Sailaren lankidetzak eskasa neurria diseinatzeko prozesuan, eta erregulazio-falta, bai zaintzaileei eska dakiekeen prestakuntzari buruz, bai Haur Etxeen instalazioetarako eska daitezkeen baldintzei buruz.

- **Familia ingurunekeo zaintzaileentzako lanbide-ziurtagiriak lortzeko prozesuak hedatzea [76]**

Lanbide-ziurtagiriak dira Lanbide kalifikazioen Katalogo Nazionalaren lanbide-kalifikazioak ofizialki egiaztatzeko tresnak lan-erlako administrazioaren eremuan. 34/2008 Errege Dekretuak⁴³ araututako ziurtagiri horiek egiaztatzen dute ekoizpen-sisteman identifika daitezkeen lan-jarduera bat gauzatzeko gaitzen duten lanbide-gaitasunen multzoa. Lanbide-ziurtagiriak lortzeko bi bide

⁴³ Urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretua, profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituen.

daude: prestakuntzaren bidea, lanbide-ziurtagiria osatzen duten modulu guztiak gainditu ondoren, edo lan-eskarmentua egiaztatuz, laneko esperientziaren bitartez edo prestakuntza bide ez-arautuen bitartez eskuratutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta ziurtatzeko ezarritako prozedurak gainditu ondoren. Ziurtagiriok ofizialak dira, Estatu osoan dira baliozkoak, eta EAEn kasuan, Lanbideak jaulkitzen ditu.

III. Planean sartutako ekintza espezifikoki dagokionez, Lanbidek ziurtagiri horiek lortzeko prozesuak hedatzeari egiten dio erreferentzia, eremu soziosanitarioari dagokionez eta, zehazkiago, zerbitzu soziokulturalen eta komunitateari zuzendutako zerbitzuaren lanbide-familiaren eta gizarte-laguntzaren⁴⁴ lanbide-arloaren barruan. Profesionaltasun Ziurtagiriaren Katalogo Nazionalean daude sartuta.

III. Planaren indarraldian, lanbidek jarduketa hauek egin ditu profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko prozesuen esparruan.

- Gaitasunak onesteko baliabidea abian jartzea eta beharrezko prestakuntza-ekintzak gauzatzea. 2013tik 2015era bitartean⁴⁵, ondoko hainbat ebazpen onartu ziren, urtero, lan-eskarmentuaren eta/edo formalak ez diren prestakuntza-bideen bitartez eskuratutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta ziurtatzeko prozedura deitzeko. Hiru urteotan, ziurtatze-prozesu horren barruan, betiere sartu ziren arreta soziosanitarioa etxean emateko eta erakunde sozialetan mendekoei arreta soziosanitarioa emateko lanbide-prestakuntzak. 2013an, Lanbide kalifikazioen Katalogo Nazionaleko zazpi lanbide-kalifikaziori zegozkien plazak eskaini ziren; guztira eskainitako 1.700 plazetatik, 600 aipatutako bi kalifikazioei zegozkien. 2014an, 2.101 plaza deitu ziren 15 kalifikaziotarako. Aipatutako bi kalifikazioen kasuan, 600 plaza deitu ziren. Azkenik, 2014an, deialdiak 14 kalifikazio hartu zituen barne, eta 2.090 plaza eskaini ziren guztira. Intereseko bi kalifikazioei 1.100 plaza zegozkien.

⁴⁴ Alor horren barruan sartzen dira erakunde sozialetan mendekoei arreta soziosanitarioa emateko profesionaltasun-ziurtagiria (1379/2008 ED, abuztuaren 1eko, maiatzaren 20ko 721/2011 EDk aldatua) eta arreta soziosanitarioa etxean ematekoa (1379/2008 ED, abuztuaren 1eko, maiatzaren 20ko 721/2011 EDk aldatua).

⁴⁵ Ebazpena, Lanbide Heziketako sailburuordearena eta Enplegu eta Laneko sailburuordearena, 2013ko abenduaren 12koa, gaitasun-unitate jakin batzuei dagokienez lan-eskarmentua edo/eta formalak ez diren prestakuntza-bideak direla medio lortutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedurara deitzeko; Ebazpena, Lanbide Heziketako sailburuordearena eta Enplegu eta Laneko sailburuordearena, 2014ko urriaren 27koa, gaitasun-unitate jakin batzuei dagokienez lan-eskarmentua edo/eta formalak ez diren prestakuntza-bideak direla medio lortutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedurara deitzeko; Ebazpena, Lanbide Heziketako sailburuordearena eta Enplegu eta Laneko sailburuordearena, 2015eko abenduaren 3koa, gaitasun-unitate jakin batzuei dagokienez lan-eskarmentua edo/eta formalak ez diren prestakuntza-bideak direla medio lortutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedurara deitzeko.

- Profesionaltasun-ziurtagirien erregistroa Abenduaren 17ko 463/2013 Dekretua onartu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Gaitasunen Erregistroa Profesionaltasun-ziurtagirien eta Egiaztapen Partzial Metagarrien Euskal Erregistroa sortzen, eta ziurtagiri eta egiaztapen horiek erregistratzeko eta emateko prozedura ezartzen duena. Nahiz eta ez izan informazio espezifikorik etxean arreta soziosanitarioa emateko eta erakunde sozialetan mendekoei arreta soziosanitarioa emateko kalifikazio espezifikoen kasuan jaulkitako profesionaltasun-ziurtagiriei buruz, Lanbideren memorian eskuragarri dagoen informazioak aditzera ematen duenez, 2013an 14.447 eskaera jaso ziren, eta horien artean 10.023 ebaluatu eta 8.246 titulu jaulki ziren; 2014an, aldiz, 3.015 profesionaltasun-ziurtagiri eta 1.753 egiaztapen partzial metagarri jaulki ziren. 2015ean 6.281 profesionaltasun-ziurtagiri eta 497 egiaztapen partzial metagarri jaulki ziren.

- **Ikerketa bat egitea, hezkuntzaren eta gizartearen bitarteko eremuan kokatzen diren etorkizuneko bateratze-zerbitzuei buruz [150]**

Familiei laguntzeko III. Planak barne hartzen zuen 2013 eta 2014 artean azterlan bat egitea bateratze-zerbitzu hibridoan –hau da, hezkuntzaren eta gizarte-alorraren erdibidean daudenak– bideragarritasunari buruz. Hala ere, horretarako berariazko zuzkidura ekonomikoa aurreikusi bazen ere, ikerketa ez zen egin.

3.2.1.4. Informatzeko eta jendarteratzeko ekintzak

1. ildo estrategikoaren barruan, familia, bizitza pertsonala eta lana bateratzeari buruzko arlokoan, Familiei laguntzeko III. Planak 4 ekintza aurreikusten zituen gizartearen bateratzearekin lotutako zenbait auziren inguruko informazio- eta zabalkunde jarduerak sustatzeko.

55. taula. 1. ildo estrategikoan, familia, bizitza pertsonala eta lana bateratzeari buruzkoan, sartutako neurrien eta informazio- eta zabalkunde-ekintzen gauzatze-maila

Neurriak	Arduraduna	Kolaboratzaileak	Gauzatze-maila
86. Uztartzeari eta erantzukidetasunari buruzko sensibilizazio- eta informazio-programak eta kanpainak garatzea gizartearentzat, gizarte-erakundeentzat eta -agenteentzat eta enpresentzat.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)		Gauzatua
79. Biztanleria gaztearen artean difusio-kanpainak egitea familia-eredu berriei, gurasotasun positiboari, erantzukidetasunari eta uztartzeari buruz, orobat familia barneko egoerei aurrea hartzeko kanpainak egitea, bereziki genero-indarkeria, adin txikikoen aurkako tratu txarrak eta seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria jorratzuz.	Gazteria Zerbitzua (Kultura Saila)	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila) eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza (Herrizaingo Saila)	Gauzatua
88. Familia- eta lan-bizitza uztartzearen onurak eta horien errentagarritasuna hedatzeko «Uztartzeak onurak besterik ez dakartza» kanpaina enpresentzat.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Batere ez	Gauzatua
87. Ordutegi-malgutasunari buruzko ekitaldiak, jardunaldiak, kanpainak, biltzarrak, esperientzia pilotuen azalpenak eta abar egitea.	Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Gauzatua

Azpialor honetan, Planak aurreikusitako lau neurrietatik hirutan Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila da arduradun –dela Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzaren bitartez, dela Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritzaren bitartez–, eta hirurek nolabaiteko lotura dute alde aurretik sektore pribatu eta publikoko enpleguari buruz agertu diren azpialorretan aurreikusitako ekintzekin (86., 87. eta 88.

neurriak). Aldiz, 79. ekintza berritzaileagoa da, berariaz gazteei bideratzen baitzaie, eta, aurreikusitako zabalkunde-ekintzen artean, bateratzearekin ez ezik, beste zenbait auzirekin ere lotutako gaiak aurreikusten baititu: adibidez, familia-aniztasunarekin eta gurasotasun positiboarekin lotutakoak, bai eta askotariko indarkeria-egoeren prebentzioarekin lotutakoak ere (generokoa, umeen tratu txarrak eta seme-alaba eta guraso artekoa). Kasu horretan, Kultura Saila da erakunde arduraduna eta, zehatzago, Gazteria Saila.

Jarraian, erakunde arduradunek Planean aurreikusitako neurriak gauzatzeko egin dituzten jarduketak guztiak zerrendatzen dira.

- **Bateratzeari eta erantzunkidetasunari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-programak eta kanpainak garatzea gizartearentzat, gizarte-erakundeentzat eta agenteentzat eta enpresentzat [86]**

Neurri hau betetzeko gauzatutako jarduketak 2011. eta 2012. urteetan egin ziren eta honako hauek dira:

- Erantzunkidetasunari buruz sentikortzeko kanpaina, «Norberaren bizitza eta lana bateratzea erantzukizuna partekatzea da», «Bizi-kalitatea eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko erantzunkidetasuna». Kanpaina hau 2011ko abenduaren eta 2012ko urtarrilaren artean gauzatu zen, gizartea bateratzeari eta erantzunkidetasunari buruz sentikortzeko helburuz. Kanpainaren mezuak hainbat euskarriren bidez zabaldu ziren: prentsa digitala, irratia, telebista eta paperezko kartelak.
- «Familia-politikak: gizarte-kohesioa lortzeko inbertsioa» gaiari buruzko kongresua⁴⁶. Gizalab Fundazioa Gizarte Politiken Berrikuntza Zentroak eta Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak batera antolatutako kongresu hori Gasteizen egin zen, 2012ko azaroaren 6an eta 7an. Kongresuaren xedea familia-politiketan eskumenak zituzten administrazio publikoko arduradunak eta beren jarduna eremu horretan gauzatzen duten aditu eta profesionalak ziren; helburu nagusia, aldiz, gogoeta-gune bat sortzea zen, Familia Politikek prebentziorako eta gizarte-kohesiorako elementu gisa eta etorkizuneko inbertsio gisa duten gaitasunaren inguruan hausnartzeko. Horien barruan, elementu estrategikotzat jo ziren bateratze erantzunkidea eta gurasotasun positiboa. Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak programatutako helburuen betetze-mailari buruzko 2012ko memorian jasotakoaren arabera, 200 lagunetik gora bertaratu ziren Kongresura.
- Alares Fundazioaren Sari Nazionala 2012, norberaren bizitza, lana eta familia bateratzeari eta gizarte-erantzukidetasunari dagokienez. Urte horretan Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak jaso zuen sari hori Erakundearen kategorian. Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak eta Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritzak batera prestatu zuten sarirako aurkezpena. Aurkeztutako hautagaitzak bateratze erantzunkidearen kontzeptua zuen ardatz, eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak garatutako neurri guztiak jasotzen zituen.

Familiei laguntzeko III. Planeko hasierako formulazioan, Planaren indarraldiko urte guztietarako aurreikusten ziren ekintza horren esparruko kanpainak; hala ere, IX. Legegintzaldian gauzatu ziren soilik.

⁴⁶ Programa hemen eskuratu daiteke: <http://irekia.eus/uploads/attachments/2639/triptico3010.pdf?1351680957>

- **Familia eredu berrien, gurasotasun positiboaren, erantzunkidetasunaren eta bateratzearen inguruko kanpainak gauzatzea gazteen artean, adibidez, familia barneko indarkeria-egoeren prebentzioari buruzkoak, bereziki, genero-indarkeriarekin, umeen tratu txarrekin eta seme-alaba eta guraso arteko indarkeriarekin lotutakoak [79]**

Administrazio autonomikoak sustatutako gazteria-politikaren barruan hainbat programa gauzatu dira, gazteriaren plangintza integrarean txertatuta, ekintza honen esparruko jarduketekin ere bat datozenak.

- Eskolako sentsibilizazio-programa, aniztasun sexualari buruzkoa, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat. 2014. eta 2015. urteetan gauzatua, Gehituk eta Guztiok Elkarteak egindako prestakuntza- eta sentsibilizazio-programa bat da, hezkuntza-ingurunean homo, lesbo eta transfobia prebenitzeko eta aniztasun afektibo-sexuala eta familia-aniztasunari buruz sentikortzeko, ikasgeletan tailerrak eginez. 2014an, 2.929 ikaslek parte hartu zuen programa horretan; funtsean, Bizkaiko eta Gipuzkoako Bigarren Hezkuntzakoak ziren. 2015ean, programaren irismena hedatu zen eta, guztira, 99 ikastetxek eta 5.117 ikaslek parte hartu zuten. Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza izan zen ekintza honen erakunde arduraduna. Programaren ebaluazioan, bereziki nabarmendu zen familia-aniztasunak ikasleei motibazioa ematen dien eta, gainera, gehienek positiboki baloratzen duten ideia. Ildo horretan, gehienek ondorioztatu zuten familia batean garrantzitsuena maitasuna dela; segurtasuna eta balioak transmititzea, eta hori era bateko nahiz besteko familiek egin dezaketela.
- Bizitarako balio eta trebetasunen hezkuntza. Familia Politika eta Komunitate Garapenerako Sailari dagokion 2014ko programazioaren barruan, familiekin eta nerabeekin lan egiten duten hainbat alorretako profesionalentzako topaketa/jardunaldia egin zen, Bilbon, 2014ko maiatzaren 16an, Familiaren Nazioarteko Eguneko (maiatzak 15) ekintzen esparruan. Jardunaldira, guztira, 570 profesional bertaratu ziren. Ekitaldiaren xedea ez zen zuzenean gazteria; hala ere, azpimarratu behar da xede taldeak zuzenean diharduela familia eta nerabeekin, eta tratu onen edo familian balioak helaraztearen garrantziari buruzko sentsibilizazioaren moduko gaiak landu zirela bertan.

III. Planak erakunde arduradunei eta parte-hartzaileei dagokienez aurreikusitakoaren arabera, Gazteria Zuzendaritzaren eta Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzaren arteko lankidetzari dagozkio neurri honen esparruan gauzatu diren jarduketa bakarrak. Hala eta guztiz ere, eta III. Planean aurreikusita egon arren, ez zen gauzatu sentsibilizazio- eta/edo prebentzio-kanpainarik Kultura Sailaren Gazteria Zuzendaritzaren eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren lankidetzaren pean, ezta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin lankidetzan ere.

Azkenik, nabarmendu behar da Familiei laguntzeko III. Planeko 33 neurri lehenetsiak jasotzen dituen dokumentuan, ekintza horren barruan, proposamen berri bat aipatzen dela martxoaren 19a «aita berdinezalearen» egun gisa ospatzeari buruz. Administrazio autonomikoaren eremuan, Emakundek Gizonduz ekimenaren esparruan abiarazi du kanpaina hori, Aitak+ izenpean, berdintasunezko aitatasuna eta aitatasun erantzunkidea sustatzeko. Zehazki, kanpainak hilabete iraun zuen (19an jarri zen martxan), eta herritar guztiak izan zituen xede (bereziki, aitak). Helburua hauxe izan zen: parte hartzeko eta hausnarketa egiteko espazio bat sortzea sare sozialetan eta, horren bidez, berdintasunezko aitatasunaren eta aitatasun erantzunkidearen aldeko ideiak eta ekintzak bultzatzea. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Irekia online ataria eta Gizonduz ekimenaren Twitter kontuak erabili ziren tresna nagusi gisa. Gizonduz ekimenaren 2015eko jarduketa-memorian adierazitakoaren arabera, irismen hau izan zuen kanpaina: Twitterren 61.879 erabiltzailek ikusi zuten kanpaina. Guztira 383.249 pertsonak ikusi zuten. Facebooken 8.910 erabiltzaile sartu ziren kanpainen berriaz jarritako 10 sarreretara. Halaber, 8 sarrera jarri ziren berriaz Gizonduz ekimenaren blogean.

- **Familia- eta lan-bizitza uztartzearen onurak eta horien errentagarritasuna hedatzeko «Uztartzeak onurak besterik ez dakartza» kanpaina enpresentzat [88]**

Zabalkunde-kanpaina bat baino gehiago, «Kontziliazioan dena da onuragarri» lelopean neurri hau jasotzen duen ekimena, praktikan, Bateratu+ webgunean (52. neurria) sartutako atal batean gauzatu da. Atalak berariaz enpresei zuzendutako informazioa hartzen du barne, eta guztira 12 puntuz dago osatuta. Horietan, bateratzea enpresentzat onuragarri bihurtu dezaketean hainbat alderdi jorratzen dira⁴⁷.

- **Ordutegi-malgutasunari buruzko ekitaldi publikoak egitea [87]**

Planaren indarraldian neurri honen esparruan egin diren jarduketa guztiak IX. Legegintzaldian egin dira, eta honako hauek izan dira:

- «Zure enpresak irabazi, guztiok irabazi» zabalkunde-jardunaldia⁴⁸. 2011ko uztailaren 20an, Campos Eliseos Antzokian, ordutegi-malgueri buruzko zabalkunde-kanpaina egin zen, bereziki, ordutegia aldatzeko prozesuan aurrendari izan nahi zuten enpresa txiki eta ertaineko zuzendari eta kudeatzaileentzat. Jardunaldi honetan, beren esperientziaren berri eman zuten ordutegi-eredu berria aplikatzeko programa pilotuan (166. neurria) parte hartutako enpresek. Halaber, Ignacio Buqueras y Bach-ek hizlari jardun zuen, aditu gisa eta Espainiako ordutegiak arrazionalizatzeko eta EBko gainerako lurraldeekiko normalizatzeko Batzorde Nazionalaren Presidentea eta ARHOE elkartearen presidente gisa. Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak programatutako helburuen betetze-mailari buruzko 2011ko memoriatik ondoriozta daiteke 50 enpresetako hainbat ordezkari parte hartu zuela jardunaldian.
- Espainiako Ordutegiak Arrazionalizatzeko VI. Biltzar Nazionala⁴⁹. 2011n, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak biltzar hau finantzatzeko diru-laguntza bat eman zion ARHOE elkarteari, eta Donostiako Kursaal Kongresu Jauregian egin zen, 2011ko azaroaren 15ean eta 16an. Ekitaldira 134 lagun bertaratu ziren, eta 21 hizlarik parte hartu zuten. Aipatutako saila antolatzaile-kide aritu zen biltzar horretan, zeinean hainbat diziplinatik hausnartu baitziren laneko ordutegiak. Lau mahai-inguru zirela ardatz, denboraren balioaren, gizarteko auziaren, produktibitatearen, eta hezkuntzaren eta osasunaren ikuspuntutik jorratu ziren ordutegiak. Biltzarrean Ordutegiak Arrazionalizatzeko VI. Saria banatu zen –Bilboko Guggenheim Museoari eman zitzaion– eta aukera huraxe baliatu zen, halaber, Eusko Jaurlaritzak bateratzeari emandako Bateratu+ atari berria aurkezteko (52 neurria). Biltzarra Internet bidez igorri zen, zuzenean, eta liburu bat argitaratu zen han egindako esku-hartze guztiekin⁵⁰.

3.2.1.5. Aintzatespen sozialerako ekintzak

Familia, bizitza pertsonala eta lana bateratzeari buruzko 1. ildo estrategikoaren eremuan sartutako azken azpialorrak neurri bakarra zuen oinarri. Familiei laguntzeko eremuko esperientzia nabarmenak publikoki onestera zuzendua, arduradun bakarra zuen; hain zuzen, Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza.

56. taula. 1. ildo estrategikoan, familia, bizitza pertsonala eta lana bateratzeari buruzkoan, sartutako neurrien eta aitorten sozialerako ekintzen gauzatze-maila

Neurriak	Arduraduna	Kolaboratzaileak	Gauzatze-maila
83. Bi urtean behingo sari eta onespren publikoak antolatzea esperientzia eta praktika ereduzko edo berritzaileentzat, betiere familiei laguntzeko modukotzat kalifikatzen badira.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	--	Gauzatu gabe

⁴⁷ Helbide honetan sar daiteke atalera:

http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-concemp/eu/contenidos/informacion/conc_empresas/eu_info/beneficio_oo.html

⁴⁸ Programa hemen eskuratu daiteke: http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/1392/ordutegi_malgua_programa.pdf?1311070969

⁴⁹ Programa hemen eskuratu daiteke: http://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/1632/kongresua_programa.pdf?1320414124

⁵⁰ Hemen eskuratu daiteke: http://www.horariosen espana.com/images/LIBRO_VI_CONGRESO_ARHOE.pdf

- **Bi urtean behingo sari eta onespren publikoak antolatzea esperientzia eta praktika ereduzko edo berritzaileentzat, betiere familiei laguntzeko modukotzat kalifikatzen badira [83]**

Familiei laguntzeko III. Planak barne hartzen zuen familiei laguntzeko eremuko jardunbide edo esperientzia berritzaileei balioa emateko neurri hau, sari edo onesprenen bitartez –eta hasiera batean diseinatu zenean, 60.000 euroko zuzkidura ere aurreikusten zuen, urteko, 2013ko eta 2015eko ekitaldietarako–; hala eta guztiz ere, X. Legegintzaldian ez da gauzatu.

3.2.2. 2. ildo estrategikoa: gurasotasun positiboa

Gurasotasun positiboa sustatzeko neurriek osatzen dute Familiei laguntzeko III. Planean, Familiaren Euskal Kontseiluak 2013ko uztailan hura birformulatu eta onartu ondoren, lehenetsitako lau ildo estrategikoetatik bigarrena. Aukeratutako hiru neurrietatik bi gurasotasun positiboa sustatzeko programa eta zerbitzuetara bideratu ziren (101. eta 104.1.); azkenekoak, berriz, informazioaren eta komunikazioaren teknologien (aurrerantzean, IKT) eremu espezifikoak zuen ardatz eta, zehazkiago, familiei halakoen arriskuei aurre egiteko eta arrail digitala saihesteko prestakuntza.

57. taula. 2. ildo estrategikoan, gurasotasun positiboari buruzkoan, sartutako neurrien gauzatze-maila

Neurriak	Arduraduna	Kolaboratzaileak	Gauzatze-maila
101. Gurasotasun positiboko programak gauzatzea, trebetasunak eta gaitasunak garatzeko. 1.. EAEn garatzen diren gurasotasun positiboko ekimenak identifikatzea eta ebaluatzea 2011n. 2.. Gurasotasun positiboko proposamen berriak egitea ebidentzia zientifikoa oinarritutako guraso-ahaleziak eta -gaitasunak garatzeko, 2012an. 3.. Gurasotasun positiboko baliabide-banku bat abiaraztea, agente zientifikoekin koordinatuta egingo da eta eremu horretan lan egiten duten profesionalen eskura jarriko da, 2013an. 4.. Programa egitea eta gurasotasun positiboko programak hedatzea 2013an eta 2014an.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	--	Gauzatu
141. Sail eta administrazio desberdinetatik garatzen diren jardueraz osatutako prebentzio- eta hezkuntza-baliabideen bankua sortzea, profesional eta familiei zuzenduta.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	--	Gauzatu
103. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien aurrean (IKT) sentsibilizatzea eta aurrea hartzeko familiei zuzendutako programak sustatzea, arrail digitalaren fenomenoak saihesteko eta sare sozialen eta Interneten arriskuei aurrea hartzeko.	Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila	Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Gauzatu

Aipatutako neurriak garatzeko eta gauzatzeko ardura zuten erakundeen ikuspuntutik, Planak Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzarentzat gordetzen du gurasotasun positiboa sustatzeko ekintzak betearazteko ardura, eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren⁵¹ esku uzten du, aldiz, IKTen inguruko sentsibilizazio- eta prebentzio-programen sustapena.

Jarraian deskribatzen dira gurasotasun positiboaren ildo estrategikoko ekintzak gauzatzeko asmoz Familiei Laguntzeko III. Planaren indarraldian egindako jarduketak.

⁵¹ X. Legegintzaldian (2012-2016), Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak bere gain hartu zituen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak IX. Legegintzaldian (2009-2012) zituen eginkizunetako asko.

- **Gurasotasun positiboko programak gauzatzea, trebetasunak eta gaitasunak garatzeko [101]**

Familiei laguntzeko III. Planak berariaz aurreikusten ditu lau jarduketa neurri horren gauzatze-esparruan, egutegi zehatz batekin (ikus 57); hala, bada, horietan oinarrituta antolatu da jarraian haien gauzatze-mailari buruz ematen den deskribapena.

1. EAEn 2011n gauzatzen diren gurasotasun positiboko ekimenak identifikatzea eta ebaluatzea

Ekintza hau «Euskal Autonomia Erkidegoko gurasotasun programen eta jardueren landa-lana⁵²» txostena eginez gauzatu zen. Etxadi-Familia Psikologiako Unibertsitate Zentroak prestatu zuen, Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzarentzat, Haezi/UPV-EHUn aholkularitza zientifiko eta teknikoaren pean. Azterketa 2011n zehar egin zen, eta 2012an eman zen argitara. Bertan, 46 erakunde (udal, mankomunitate, aldundi nahiz elkarteak) ezarritako gurasotasun positiboko 129 jarduera eta programa aztertzen dira.

2. Gurasotasun positiboko proposamen berriak egitea ebidentzia zientifikoan oinarritutako guraso-abileziak eta -gaitasunak garatzeko, 2012an

EAEn egiten diren gurasotasun positiboko programak identifikatzeaz eta ebaluatzeaz gain, arestian aipatutako azterlanak gurasotasun positiboko jarduera eta programak diseinatu eta ebaluatze gomendio sorta bat jaso zuen txostenean bertan. Gomendioak bi proposamen zehatzetan labur daitezke: gurasotasun programak ebaluatze eta ezartzeko adierazleen sistema eta Gurasotasunerako Curriculum Optimoa (GCO).

Azterlanaren emaitzak 2012an zabaldu ziren, ekainaren 8an Bilbon egindako mintegi baten bitartez. Gurasotasun positiboko programa goiburupean, Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak, UPV-EHUK eta Gizalabek antolatutako ekitaldi hartan aurkeztu ziren «Euskal Autonomia Erkidegoko gurasotasun programen eta jardueren landa-lana» txosteneko emaitzak.

⁵² Azterlana hemen eskuratu daiteke:

http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_observatorios/eu_publica/adjuntos/EUSKAL%20AUTONOMIA%20ERKIDEGOKO%20GURASOTASUN%20PROGRAMEN%20ETA%20JARDUEREN%20LANDA-LANA.pdf

3. Gurasotasun positiboko baliabide-banku bat abiaraztea, agente zientifikoekin koordinatuta egina eta eremu horretan lan egiten duten profesionalen eskura jarria, 2013an

Prestalanak 2012tik 2013ra bitartean luzatu arren, Gurasotasuna⁵³ webgunea ez zen 2014ko maiatzera arte argitaratu, gurasotasun positiboko profesionalak prestatzeko edukiak barne. Web-orriak ematen dituen askotariko baliabideen artean, Programak atala dago; bertan, gurasotasun positiboko printzipioetan oinarritutako esku-hartzeen proiektuak daude profesionalen eskura, hala nahi izanez gero erabili ahal izateko. Webgunean adierazten den moduan, programak ikerketaren ondoriozkoak dira, eta erabilgarriak direla eta emaitza onak dituztela erakutsi dute.

4. Programa egitea eta gurasotasun positiboko programak hedatzea 2013an eta 2014an

Atal honetan sar daitezke Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak Planaren indarraldi osoan gurasotasun positiboarekin lotutako hainbat programa. Ildo horretan, nabarmentzekoak dira jarduketak hauek:

- Aita-ama trebeentzako lehen mintegi-tailerra, AFAVIk antolatua (2011). 2011ko urriaren 26an Familia eta Komunitate Politikako Zuzendaritzak ekimen hau babestu zuen, Bilboko Alhóndigako Txikiland-en. Carmen Valdivia Deustuko Unibertsitateko Psicopedagogiako katedradunak zuzendu zuen.
- Gurasotasun positiboari buruzko online ikastaroak⁵⁴ (2012-). 2012an, Sailak gurasotasun positiboari buruzko online ikastaroak abiarazi zituen, seme-alaba txikiak dituzten familiekin lan egiten duten profesionalentzat. Ikastaroek 90 orduko iraupena zuten, eta horiek egiteko UPV-EHUren Oinarrizko Psikologia Prozesuak eta Garapena Sailaren laguntza eta lankidetzak jaso zen. Haezi/Etxadi Familia Psikologiako ikerketa-taldea sail horren barruan dago. Ezarri zirenetik, ikastaroek jarraitutasuna izan dute III. Planaren indarraldi osoan zehar. 2013an, 200 pertsonak parte hartu zuen onlineko «0-2 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei gurasotasun-gakoak komunikatzeko ikastaroan». 2014an beste ikastaro bat eskaini zen horrez gain, 2-6 urte bitarteko haurrekin lan egiten duten profesionalen zuzendua. Urte hartako edizioan 297 profesionalak parte hartu zuen guztira. 2015ean, ikastaroaren bi edizioak errepikatu ziren eta 286 profesionalak parte hartu zuen guztira. Jasotako ebaluazioen batez besteko nota 10etik 9 izan zen.
- Gatazkak dituzten familia seme-alabadunei laguntza emateko zerbitzua (2012-). 2012 urtetik gurasoen erantzunkidetasunera eta gurasotasun positibora bideratutako programa hau sustatzen da, Kidetza-Euskadiko Guraso Bananduen Federakuntzaren eskutik. Programaren helburua da bikotea dibortziatu edo banandu ostean sortutako familia berrien gatazka-mailak prebenitu eta murriztea, eta horietan esku hartzea; halaber, berdintasunean, elkarrizketan eta errespetuan oinarritutako harreman-molde berriak eskuratzeko bidea eman nahi du.

Horrez gain, X. Legegintzaldian erantzunkidetasunari buruzko zenbait ikerketa eta programa pilotu (4 guztira) sustatu ziren, berariaz, hainbat eremutan.

- Familien arrisku- eta babes-faktoreei buruzko azterlan (2014). Azterlan hau Lagungo Fundazio eta Familientzako Aholku-Zerbitzuak egin zuen, 2014an. Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak programatutako helburuen betetze-mailari buruzko 2014ko memorian jasotakoaren arabera, ikerketak aplikazio praktikoko hainbat proposamen ekarri zituen osasunaren, hezkuntzaren eta dibortzio-egoeren testuinguruan. Txostena argitaratu gabe dago.
- «Euskadiko aitek umeen zaintzan duten inplikazioa: horrek erantzunkidetasunean eta lan produktiboan duen eragina» (2015). Azterlan honen helburua da estrategia bat eta ekintza berriak zehaztea bikoteko bi kideen erantzunkidetasuna sustatzeko.

⁵³ Hona hemen webgunearen hasiera-orrirako sarbidea: <http://www.euskadi.eus/gurasotasuna>

⁵⁴ Informazio gehiago: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-concpfc/es/contenidos/informacion/parent_positiva/es_def/index.shtml

Hura prestatzeko, aita eta amen lantegiak eta 240 inkesta eta elkarrizketa sakon egin dira. Azterlana 2016an argitaratu zen, «Aitatasun positiboak: aldaketak eta erronkak aitek haurren hezkuntzan eta erantzunkidetasunean duten inplikazioan»⁵⁵.

- Proiektu pilotua, atxikimendu segurua eta guraso-sentikortasuna susta dadin, osasun-zentroetan ematen den erditze aurreko eta erditze ondorengo prestakuntzan (2015). Programa aita-amentzako eta osasun-langileentzako prestakuntza-tailerren bitartez gauzatu zen, Gasteizko hiru osasun-zentroetan (Lakuabizkarra, Salburua eta Zabalzana). Bertan 24 familiak hartu zuen parte. Emaitzak ez dira argitaratu.
- Lehen-Urratsak ikerketa eta programa pilotua (2014-15). Lagungo Fundazioak garatutako proiektu pilotu honen helburua da 2-6 urte arteko haurren eta haien zaintzaile nagusiaren arteko lotura kaltetuak sendotzea, arrisku psikosozial arin-neurritsuko familietan. Programatutako helburuen betetze-maila aztertzen duen memorian jasotakoaren arabera, ikerketa 2014an gauzatu eta finantzatu zen. 2015ean metodologia egokitu zen, Bizkaiko bi ikastetxetan ezar zedin. Emaitzak ez dira argitaratu.
- Koparentalitateko orientazio-programa pilotua familiako krisi egoeretan (2015). Koparentalitateko orientazio-proiektu bat da, banantze edo dibortzio-egoeretan dauden gurasoei laguntza emateko, ahalik eta modu osasungarrienean har ditzaten beren erantzukizunak. Programaren bitartez 693 pertsonari eman zitzaizkien laguntza, eta koparentalitateari buruzko 671 saio egin ziren. Emaitzak ez dira argitaratu.
- Familia-terapiako programa pilotua diru-sarrera gutxiko familientzat (2015). Familia-terapia hasteko bitartekaritza-akordioa duten eta horretarako baliabide ekonomikorik ez duten familientzako proiektu bat da. Programaren bitartez, aztertu nahi da egokia al den zerbitzu honekin Bitartekaritza Zerbitzu Publikoak emandako prestazioa osatzea.

Amaitzeko, aipatzekoak dira koparentalitate positiboaren eremuan gauzatutako programa eta jarduketak zabaltzearen esparruan egin diren hainbat jarduketa.

- Gurasotasuna web-orria (2014-). Aipatu den moduan, orria 2014ko maiatzean argitaratu zen, eta gurasotasun positiboko eduki eta baliabide sorta zabala dauka. 2014ko irailean, orriak blog bat gehitu zuen⁵⁶ halaber. 2015. urte osoan zehar, orriak 14.534 bisita jaso zituen.
 - «Tratu onean eta lotura afektibo sendoetan oinarritutako familia-harremanak»⁵⁷ jardunaldia (2014). Ekitaldi hau, hezkuntzaren, gizartearen nahiz osasunaren eremuan diharduten profesionalei zuzendua, Bilbon egin zen, Deustuko Unibertsitatearen entzunaretoan, 2014ko maiatzaren 16an, Familiaren Eguneko (maiatzak 15) ekintzen esparruan. Ekitaldiaren deialdiak 500 izen-emate baino gehiago jaso zituen.
- **Esku-hartze prebentiboaren eta hezigarriaren baliabideen bankua, sailek eta administrazioek gauzatutako jardueraz osatua eta profesionalei eta familiei zuzendua [141]**

Neurri honen garapena, hein batean, aurreko neurriaren hirugarren puntua egitearen ondoriozkoa da (101). Kasu honetan, EAEko eremuan garatutako esku-hartzeen baliabide-banku bat da, eta profesionalak nahiz familiak ditu xede. Baliabide-bankua Gurasotasuna web-atariaren «Programak» atalean eskaintzen da; zehazki, «Gaur egungo esku-hartze programak» azpiatalean. Atal horretan 10 ekimen sartu dira, eta gehienek seme-alabak dituzten familiak dituzte xede. Jarraian, bertan sartutako programak zerrendatu dira:

⁵⁵ Azterlana hemen eskuratu daiteke:

http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/gura_investigacion_paternidad/eu_def/adjuntos/Investigacion%20informe%20eus-ker%20000a.pdf

⁵⁶ Hona hemen: <http://gurasotasuna.blog.euskadi.eus/eu/category/orokorra/>

⁵⁷ Jardunaldiaren egitaraua hemen eskuratu daiteke: <https://www.irekia.euskadi.eus/assets/attachments/4611/Programa.pdf?1400053100>

58. taula. Gurasotasuna web-atariko «Gaur egungo esku-hartze programak» atalean sartutako baliabideen zerrenda

Izena	Administrazioa/erakundea	Oharrak
Familia Erantzunkidetasuneko Programa «COFAMI»	--	<i>Infancia y aprendizaje</i> (2004) aldizkarira erreferentzia ematen da soilik.
«Nahiko» berdintasunerako, errespeturako eta biolentzia-ezerako programa	Emakunde	Emakunderen webguneko atal baterako esteka ematen da, eta hor, lotutako hainbat material daude. < http://www.emakunde.euskadi.eus/nahikoeu/-/informazioa/nahiko >
«Sexumuxu» Bigarren Hezkuntzako Sexu-heziketarako programa	Osasun Saila. Eusko Jauriaritza	Gurasotasuna atarian, eduki oso-osoak dituen web espezifikoko baterako esteka ematen da < www.uhinbare.com >
Familia Hezkuntza eta Gurasotasun Positibo Programa	FAMPI-Haurrenganako Tratu Txarrak Saihesteko Elkarleen Federazioa	Programa eskuratzeko bidea ematen da, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasan Ministerioak argitaratutako pdf-dokumentu baten bidez. Andaluzia, Kantabria eta Murtziako autonomia-erkidegoek ezarri dute.
Introduction: Evidence-based parent education programmes to promote positive parenting	Hainbat unibertsitateko ikertzaileak	Esteka bat ematen du, zuzenean <i>Journal of Developmental Psychology</i> argitalpeneko edizioetako baten sarrera-artikulura sartzeko bidea ematen duena. Artikulua koparentalitate-programen garrantziari buruzkoa da.
«Educar en Positivo» Programa	La Lagunako Unibertsitateko FADE ikerketa-taldea	Gurasotasuna atarian, eduki oso-osoak dituen web espezifikoko baterako esteka ematen da < educarenpositivo.es >
«Gurasoak» programa	Harremanak. Pertsonen arteko harremanak eta horien arazoak aztertzen dituen UPV/EHUko taldea.	Programari buruzko 2010eko informazioa jasotzen duen webgune baterako sarbidea ematen da. < sites.google.com/site/gurasoakupv >
Familian Esku Hartzeko «Egokitzen» Programa	Deusto Family Psych	Programari buruzko webgune baterako sarbidea ematen da; bertan jasotako informazioak (2014) programan parte hartzeko moduaren berri ematen du. < sites.google.com/a/deusto.es/deusto-family-psych/difusion-y-transferencia/programas-de-intervencion/egokitzen >
Sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa. Gizonduz	Gizonduz - Emakunde	Ekimenaren prestakuntza-programa jasotzen duen dokumentua eskuratzeko esteka ematen du.
Emozio-, hezkuntza- eta gurasogaitasunak garatzeko gida-programa	Hezkuntza Zientzien Fakultatea eta Saila - Oviedoko Unibertsitatea	Esteka bat ematen du, Osasun eta Gizarte Politikako Ministerioak 2009an profesionalentzako argitaratutako dokumentu bat eskuratzeko.

Iturria: Gurasotasuna web-ataria (azken aldaketaren data: 2016/02/01)

- **Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) aurrean, familientzako prebentzio- eta sentsibilizazio-programak sustatzea, arrail digitalaren fenomenoak eta sare sozialek ekar dezaketen arriskua saihesteko [103]**

Ekintza honen esparruan egindako jarduketak, hein handi batean, Interneten erabilera okerrak dakartzan arriskuak gazteen artean prebenitzera bideratu dira. Familiei laguntzeko III. Planak Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari esleitu zion neurri hau gauzatzeko ardura; aipatu behar da, hala ere, 2013tik funtsean Familia Politika eta Komunitate Garapeneko Sailak sustatu dituela neurri honetan aurreikusitakoaren moduko ekimenak. 2015era arte jarduketa hauek egin dira:

- EgON LINE proiektua. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ekimenez 2013an abiarazitako proiektu pilotu bat da, eta Internetek ematen dituen aukerei eta nerabeek sare oker erabiliz gero sortzen diren arriskuei buruz sentsibilizatu nahi zituen gazteak. Esperientzia horretan euskal sare publikoko bost ikastetxetako DBHko 1., 2. eta 3. mailako 200 ikasle inguruk parte hartu zuten, eta bertan nerabeek Interneten nabigatzeko dituzten ohiturak eta moduak ikertu zituzten; orobat, aztertu zuten zer tresna erabiltzen dituzten gehien, eta horiek erabiltzean jokoan jarritako komunikazio-elementuen gaineko zer pertzepzio zuten. Bigarren fasean, teknologia berrien erabilera okerrak sor ditzakeen arriskuei buruz sentsibilizatu ziren ikasleak, eta sarean nabigatzeko esparru seguru bat eraiki zen. Prozesua webgune berri baten sorrerarekin amaitu zen: egON LINE atariarena, hain zuzen. Haren bitartez prebentzioa, sentsibilizazioa eta gaikuntza sakondu nahi dira, eta, nerabeek IKTak segurtasunez erabiltzeko gaikuntzan, familiak ere tartean sartu. Orria gaur egun aktibo dago, eta adingabe, guraso eta profesionalentzako atal bana hartzen ditu barne. Proiektuaren esparruan, 2015eko udaberrian, Sailak «Teknologia berrien arloko hezkuntza lantzeko gida pedagogikoa: erabilera arduratsua, prebentziozkoa eta hezigarria»⁵⁸ gidaliburua argitaratu zuen; Suspergintzak egina, ikastetxetako eta aisialdiko irakasle eta hezitzaileei zuzendu zitzaien.
- Internet Seguruaren Nazioarteko Eguna edo Safer Internet Day (SID). Mundu osoko ekimen horren bitartez, teknologia berrien erabilera seguruagoa eta arduratsuagoa sustatzen da; 2015eko otsailean, Bilbon eta Donostian jardunaldi bat egin zen haren esparruan. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak babestu zuen topaketa, eta Ementic-ek (Internet Seguru eta Hezkuntzako Euskal Zentroa), Suspergintza Elkarteak Interneten eta IKT tresnen erabilera sustatzeko sortutako zentroak, antolatu zuten.
- Adingabeak eta Internet. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egON LINE programa osatzeko sustatutako ekimen bat da, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailtako lan koordinatuaren bitartez, Interneten erabilera seguru eta arduratsuaren hezkuntza bultzatzeko. Ekimena SharePoint lankidetzeta-plataforma digitalaren ingurunean gauzatu da, gizarteak fenomeno jakin batzuen inguruan duen kezkarri aurre egiteko helburuz: esaterako, ziberjazarpena edo mendekotasun digitalak. Lan-sare baten bitartez, mezuak bateratu, sinergiak baliatu eta eraginkortasuna handitzea du helburu. 2015eko ekainean, eragile hauek parte hartzen zuten⁵⁹:

⁵⁸ Hemen eskuratu daiteke:

http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/egonline_unitatedidaktikoak/eu_def/adjuntos/egonline_eus.pdf

⁵⁹ Informazioa Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Batzorde Iraunkorraren 2015eko ekainaren 18ko Aktan eskuratu daiteke. Hemen eskuratu daiteke: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/actas_comisiones_sectoriales/es_actacom/adjuntos/ACTA%20CPSAIA%20SESION%2018%20JUNIO%202015.pdf

- o Lehendakaritza: Emakunde, Biktimen eta Giza Eskubideen Koordinazioa eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa.
- o Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura: Gazteria eta Kirolak, eta Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritza.
- o Segurtasuna: Ertzaintza.
- o Osasuna: Kontsumobide, eta Osasun publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- o Herri Administrazioa eta Justizia: Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza.
- o Enplegua eta Gizarte Politikak: Familia Politika eta Komunitate Garapeneko Zuzendaritza.

3.2.3. 3. ildo estrategikoa: belaunaldien arteko solidaritatea

2013ko birformulazio-prozesuan lehenetsitako lau ildo estrategikoetan hirugarrena belaunaldien arteko solidaritatearen gaiaren pean multzokatutako hiru neurrik osatzen dute.

Beste ildo estrategiko batzuetan ez bezala, non aukeratutako neurri batzuetarako Eusko Jaurlaritzaren beste Sailekin lankidetzara aurreratu baitzen, honetan, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila da ekintza guztien arduradun bakarra. Era berean, adierazi behar da, plangintza gorabehera ildo horretan sartutako neurri bakar bat ere ez dela erabat gauzatu Planaren indarraldian izandako bi Legegintzaldietako ezeinetan. Nolanahi ere, nabarmendu daitezke belaunaldien arteko solidaritatearen gaia, dela une-unean, dela zeharka, barne hartu duten zenbait jarduketara publiko.

59. taula. 3. ildo estrategikoan, belaunaldien arteko solidaritateari buruzkoan, sartutako neurrien gauzatze-maila

Neurriak	Arduraduna	Kolaboratzaileak	Gauzatze-maila
84. Familiek bizi duten belaunaldi arteko errealitatea sendotzea, haiei esker zaindu eta transmititzen baitira historia eta balioak.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	--	Gauzatu gabe
91. Familian eta gizartearen, nagusiak ongizatearen sortzaile gisa ikusarazten dituzten material didaktikoak sortzea eta zabaltzea	Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	--	Gauzatu gabe
92. Herritarrek parte-hartzeko foroak sortzea, zeinetan adinekoek ongizatearen gizarte eraikitze eta mantentzeko egiten duten ekarpena balioetsiko baita, eguneroko eta familiako bizitza errazteko egiten dituzten ekarpenak ikusaraziz.	Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	--	Gauzatu gabe

- **Familiek bizi duten belaunaldi arteko errealitatea sendotzea, haiei esker zaindu eta transmititzen baitira historia eta balioak [84]**

Neurriaren formulazioa orokorregia da, eta, beraz, zaila da ekintza zenbateraino gauzatu den ebaluatzea. Era berean, hala bateratzea nola gurasotasun positiboa –eta, aurrerago ikusiko den bezala, diru-laguntzak– unean-unean Plana ezartzeko ardura izan duten erakundeek argi samar onartutako ildo estrategikoak izan badira ere, ikusi da ekintza honen alorra zokoratuta geratu dela egiaz. Dena dela, nabarmendu daitezke funtsean programa-planoan geratu diren eta irismen mugatua izan duten zenbait jarduketara. Hala, ildo honetan sar daitezke jarduketara hauek:

- Eusko Jaurlaritzak bat egitea «Zahartze aktiboaren eta belaunaldi arteko elkartasunaren Europako urtea»-rekin⁶⁰ (2012)
- «Zahartzen ari direnen ongizatean eta tratu egokian aurrera egiteko ehun proposamen. Ekintza-plan baterako oinarriak⁶¹» dokumentua (2011). IX. Legegintzaldian aurkeztu zen dokumentu hau, zeinean administrazio publikoek eta euskal elkartegintzaren hainbat ordezkari parte hartu baitzuen. Agirian, Zahartze Aktiboaren paradigma teorikoa praktikara eramateko proposamen zehatzen multzo bat jaso zen. Proposamen horren barruan, hainbat neurri antolatzen dira «Belaunaldien arteko gizarte-itun bat sustatzea ongizate-gizarte bat garatzeko» izeneko gai multzoaren inguruan. Dokumentua Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuak aurkeztu zuen, 2011n, Adinekoen Nazioarteko Egunaren bezperan. Dokumentuaren ondorioetan oinarrituta, 2015ean (X. Legegintzaldian) «2015-2020 aldirako Zahartze Aktiborako Euskal Estrategia⁶²» prestatu zen. Bertan ere printzipio horietan oinarritutako zenbait jarduketa proposatzen dira.

Bestalde, belaunaldien arteko errealitatea sustatzeko berariaz diseinatu ez bada ere, nabarmendu behar da, halaber, IX. eta X. Legegintzaldian «Euskadi Lagunkoia/Euskadi Amigable Programa⁶³» sustatu duela Sailak. Ekimena 2012an abiarazi zen, adinekoek eta herritarrek, oro har, Euskadiko auzo eta inguru hobekuntzan parte har zezatela sustatzeko asmoz. Gaur egun ere jarraitzen du, Matia Fundazioaren eskutik.

- **Familian eta gizartean, nagusiak ongizatearen sortzaile gisa ikusarazten dituzten material didaktikoak sortzea eta zabaltzea [91]**

Ez da erregistratu gai honi buruzko material didaktikorik prestatu edo jendarteratu dituztenik, ez IX. Legegintzaldiko Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, ez X. Legegintzaldiko Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak. Nolanahi ere den, aipatzekoa da argitara eman zela «Adinekoak Euskadiko Ekonomia⁶⁴», M^a Ángeles Duránek (CSIC) Eusko Jaurlaritzarako egindako ikerlan bat, adinekoek euskal ekonomian gauzatzen duten jardura jorratzen duena.

- **Herritarrek parte-hartzeko foroak sortzea, zeinetan adinekoek ongizatearen gizartea eraikitzeko eta mantentzeko egiten duten ekarpena balioetsiko baita, eguneroko eta familiako bizitza errazteko egiten dituzten ekarpenak ikusaraziz [92]**

Familiei laguntzeko III. Planaren indarraldian (2011-2015) ez da egin berariaz belaunaldien arteko solidaritatea ardatz zuen ekitaldi edo parte-hartze fororik. Hala ere, egiaztatu da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 2014an sustatutako jardunaldi batzuetan –ebaluazio honetan, gurasotasun positiboko arloko jarduketan barruan jaso da (101. Neurria)– gai espezifiko honi heldu zitzaioa. Zehazki, 2014ko maiatzean «Tratu onean eta lotura afektibo sendoetan oinarritutako familia-harremanak» izenburupean egindako jardunaldiaz ari gara; abagune hartako hiru hitzaldi markoetako batek gai horixe jorratu zuen. Hitzaldiaren izenburua «Gure adinekoak ongi tratatzea: betebeharrak etikoak eta erantzukizuna izaten hezteko aukera» izan zen; hizlaria, aldiz, Deustuko Unibertsitateko Bioetikako irakasle Marije Goikoetxea.

3.2.4. 4. ildo estrategikoa: diru-laguntzak

⁶⁰ Iturria: <gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-

content/es/contenidos/noticia/envejecimiento_activo_anoeurop/es_activo/envejecimiento_activo_anoeurop.html>

⁶¹ Dokumentua hemen eskuratu daiteke:

<[http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_ss/eu_planes/adjuntos/100%20proposamen%20\(azkena%202012\).pdf](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_ss/eu_planes/adjuntos/100%20proposamen%20(azkena%202012).pdf)>

⁶² Hemen eskuratu daiteke: <www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/r51-catpub/es/k75aWebPublicacionesWar/k75aObtenerPublicacionDigitalServlet?Ro1HNoPortal=true&N_LIBR=051715&N_EDIC=0001&C_IDIOM=es&FORMATO=.pdf>

⁶³ Programari buruzko informazioa, hemen: <<http://www.euskadilagunkoia.net/eu/>>

⁶⁴ Argitalpena hemen eskuratu daiteke:

<http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/elkargune_2014/eu_def/adjuntos/ADINEKOAKEUSKADIKOEKONOMIAN.pdf>

Bateratzearen, gurasotasun positiboaren eta belaunaldien arteko solidaritatearen ondoren, diru-laguntzak dira EAEko Familiei laguntzeko III. Plana eratzten duten ildo estrategikoetan laugarrena. Beste ildoetan ez bezala, kasu honetan, 2013an X. Legegintzaldiaren hasieran Plana birformulatu zenean, neurriak aukeratu eta lehenesteaz gain –zehazki, 37., 56. eta 73. neurriak–, neurritan jasotako helburuen zati bat ere birformulatu zen. Taula honetako lehen bi zutabeetan laburbildu dira egindako aldaketa nabarmenenak.

6o. taula. 4. ildo estrategikoan, diru-laguntzei buruzkoan, sartutako neurrien gauzatze-maila

Neurriak, III. Planaren hasierako formulazioaren arabera	Neurriak, III. Planaren 2013ko birformulazioaren arabera	Arduraduna	Kolaboratzaileak	Gauzatze-maila
37. Seme-alaben jaiotza eta mantenuagatiko laguntzen zabaltze progresiboa (baldin eta aurrekontu-baliabideak badaude), honako kasu hauen eta dagokion egutegiaren arabera: – seme-alaben jaiotza, adopzio eta mantenuagatiko laguntzak: * <i>Lehen edo bigarren seme-alabak</i> : 2 urtera arte 2013an; 3 urtera arte 2014an; 4 urtera arte 2015ean. * <i>Hirugarren seme-alabak edo hurrengoak</i> : 10 urtera arte 2013an eta 2014an; eta 11 urtera arte 2015ean. * <i>Laguntzen zenbatekoa</i> : 0 urtetik 2 urtera: 900 € 3 urtetik 5 urtera: 720 € 6 urtetik 11 urtera: 540 €. – Erditze edo adopzio anizkoitzengatiko, eta adopzioagatiko laguntza espezifikoak mantentzea.	37. Beren kargura seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak finkatzea eta horien jasangarritasuna	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	--	Gauzatua
56. Familia- eta lan-bizitza bateratzeko laguntzak mantentzea (baldin eta aurrekontu-baliabideak badaude), familia- eta lan-bizitza bateratzeko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren arabera, gurasoen kopuru gero eta handiagoa laguntza horietara biltzea sustatuta.	56. Familia eta lana bateratzeko diru-laguntzak finkatzea eta horien jasangarritasuna	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	--	Gauzatua
73. Familia-ikuspegia kontuan hartzen duten programen garapena lantzen duen ekimen soziala laguntzea eta sustatzea, lehendik ere badauden diru-laguntzen aginduen bitartez.	73. Jardunbide egokiak aztertzea, hirugarren sektoreko erakundeek diruz lagundutako proiektuen bitartez.	Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Gauzatu gabe

Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzen kasuan (37. neurria), eta, zehazki, ardurapeko seme-alaba bakoitzeko ematen diren laguntza hauen lerroan, Familiei laguntzeko III. Planak, hasieran diseinatu zen moduan, 2013-2015eko aldirian gauzatu beharreko ekintza gisa aurreikusten zuen progresiboki zabaltzea, baldin eta horretarako aurrekontu-baliabideak bazeuden, seme-alaben jaiotza, adopzio eta mantenuagatiko laguntzak, balizko kasu, egutegi eta zenbateko sorta baten arabera. Planak, aldiriz, ez zuen aurreikusten aldakuntzarik erditze edo adopzio nazional anizkoitzengatiko laguntzetan, ezta nazioarteko adopzioengatikoetan ere, indarraldi osoan. Nolanahi ere, 2013an ekintza hau birformulatu zen, X. Legegintzaldian Planari egindako leheneste-prozesuaren ondoren. Horrenbestez, laguntzen «finkapen eta jasangarritasuna» soilik aurreikusten zituen formula batekin ordezkatu zen «zabaltze progresiboa (baldin eta aurrekontu-baliabideak badaude)».

Antzeko zerbait gertatu zen hurrengo neurriarekin, bateratze-laguntzak ukitzen dituenarekin (56. neurria); izan ere, III. Planeko hasierako diseinuan horiek mantentzea aurreikusten zen arren (baldin eta aurrekontu-baliabideak badaude, halaber), bai eta horiek sustatzea ere, gero eta guraso gehiagok baliatu ahal izateko, Planaren leheneste-prozesuak «finkapen eta jasangarritasun»-era murriztu zuen neurri hau ere.

Azkenik, hirugarren sektoreko erakundeek familiara bideratutako programak sustatzearen eremuko diru-laguntzei dagokienez (73. neurria), termino hauetan birformulatu ziren: 2011n «Familia-ikuspegia lantzen

duen ekimen soziala laguntzea eta sustatzea, lehendik ere badauden diru-laguntzen aginduen bitartez» gisa aurreikusitakoa, 2013an berridatzi, eta «aztertzea, hirugarren sektoreko erakundeei diruz lagundutako proiektuen bitartez» formularen pean eman zen.

Zehaztapen horiek eginda, jarraian, Familiei Laguntzeko III. Planaren indarraldian zer-nolako betearazpena izan duten xehatuko da, ildo estrategiko hauetako bakoitzean sartutako hiru neurrietarako.

- **Beren kargura seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak finkatzea eta horien jasangarritasuna [37]**

Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzek ibilbide luzea izan dute EAEn. Seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erakunde arteko I. Planaren esparruan agertu (2001-2005), eta uztailaren 16ko 176/2002 Dekretuan⁶⁵ arautu ziren lehenbiziko aldiz. Dekretu haren xedea familiei laguntza ematea zen, seme-alaben jaiotza edo adopzioak eragindako aparteko zailtasun ekonomikoak kontuan hartu nahian. Ordutik 2011ra arte (urte hartan hasi zen Familiei laguntzeko III. Planaren indarraldia), hurrenez hurrengo hainbat araudiren bitartez hedatzen joan dira laguntza horiek.

- Lehen aldaketa 2005ean egin zen, abenduaren 20ko 416/2005 Dekretua⁶⁶ onartuta. Haren bidez jarraipena eman zitzaien laguntzei, aurreko Dekretuaren indarraldia luzatuz, 2005eko abenduaren 31n amaitzea aurreikusita baitzegoen.
- Bigarren aldaketa urtebete eskasera gertatu zen, zertarako eta Familiei laguntza emateko II. Planaren onarpena zela-eta laguntza-programan sartu nahi ziren hobekuntzetako zenbait jadanik 2006an aplikatzeko. Horretarako, maiatzaren 30eko 109/2006 Dekretua⁶⁷ onartu zen, diru-laguntza horien estaldura zabaltzen zituena, barne har zezaten lehen seme-alabaren jaiotza edo adopzioa ere⁶⁸. Era berean, eta aurreko bi dekretuetan aurreikusitako diru-laguntzen lerroez bestela, lehenbizikoz, gurasoen urteko errenta kontuan hartuz ezartzen ziren aurrez finkoak ziren zenbatekoak.
- Laguntzen hirugarren aldaketa ez zen gertatu harik eta Gobernu Kontseiluak, 2006ko irailaren 26an hartutako erabaki bidez, Familiei laguntzeko erakunde arteko II. Plana onartu zuen arte. Esparru horretan onetsi zen abenduaren 19ko 255/2006 Dekretua (seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena). Aurreko dekretuei dagokienez, eta familia eta familia-egoera mota guztiei tratu bidezkoagoa eman nahian, Dekretu horrek kontuan hartzen zituen lehenago aurreikusi gabeko zenbait egoera. Dekretuak, halaber, hiru diru-laguntza mota bereizten zituen, eta horietatik hiru gaur egun indarrean jarraitzen duten jarduketatipoak: ardurapeko seme edo alaba bakoitzarengatiko laguntzak; erditze edo adopzio anizkoitzarengatiko laguntzak; eta nazioarteko adopzioarengatiko laguntzak, direla bakunak, direla anizkoitzak.

Gobernu Kontseiluak 2011ko abenduaren 27ko bilkuran EAEn Familiei laguntzeko III. Plana (2011-2015) onetsi zuenean eta, 1. ildo estrategikoaren barruan, gauzatu beharreko ekintza gisa proposatu zuenean seme-alaben jaiotza, adopzio eta mantenuarengatiko diru-laguntzen zabaltze progresiboa, artean indarrean jarraitzen zuen abenduaren 19ko 255/2006 Dekretuak. Ordutik aurrera, III. Planaren indarraldian arau-aldaketa hauek egin dira seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzen lerroan, eta eragin hauek izan dituzte:

- Lehen aldaketa 2012an egin zen, III. Plana onartu eta hurrengo urtean, indarreko Dekretua abenduaren 12ko 13/2008 Legera (Familiei Laguntzekoa) egokitzeko beharra zela eta. Lege hura, nagusiki, autonomiaren eremuan indarrean zeuden askotariko neurriak antolatzeko onartu zen, multzo koherentea eratu zezaten, eta laguntzei zuzenbide-maila subjektiboa emateaz gain –baldin eta horiek eskuratzeko baldintzak biltzen baziren–, 6. artikuluan honako

⁶⁵ 176/2002 Dekretua, uztailaren 16koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena.

⁶⁶ 416/2005 Dekretua, abenduaren 20koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituen uztailaren 16ko 176/2002 Dekretuaren indarraldia luzatzen duena.

⁶⁷ 109/2006 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, lehen seme edo alaba jaio edo adoptatzearengatiko diru-laguntza arautzen duena.

⁶⁸ Ordura arte ez zen aurreikusten diru-laguntzarik lehen seme-alaba jaio edo adoptatzearengatik.

hau ezartzen zuen: «Hainbat familia mota dagoenez, eta egoerak era askotarikoak direnez, eta guztiak ekitatez hartu behar direnez», errentaren mende badago laguntza edo zerbitzu jakin bat jasotzea, prestazioaren zenbatekoa edo zerbitzuaren ordainketa, orduan, familiaren taimainaren edo osaeraren arabera estandarizatuko da, familia mota eta -egoera guztiak ekitatez tratatzeko. Ildo horretan, eta, Lege horren azken xedapenetatik bigarrenean xedatutakoaren arabera, 6. artikuluan aipatutako estandarizazio-sistema Legea onartu eta hamabi hilabeteren buruan gauzatu behar bazen ere, 2012ra arte ez zen onartu uztailaren 24ko 145/2012 Dekretua (familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeo sistemari buruzkoa).

Dekretuak 3. artikuluan ezartzen du errenta estandarizatu kalkulatzeko modua. Adierazitakoaren arabera, familia-unitatearen osaera, familiaren errenta-maila eta baliokidetasun-koefizientea hartu behar dira kontuan; izan ere, familiaren errenta zati koefiziente hori egitearen emaitza da errenta estandarizatu. Nahiz eta 13/2008 Legeak ekitatez hartu nahi familia-errealitate guztiak, 154/2012 Dekretuak eta bertan jasotako ordezkapenak (famiaren errenta errenta estandarizatuarekin ordezkatzeari buruzkoa) eragin hutsala izan zuen aurreko Dekretuan –hau da, 255/2006 Dekretuan–, seme-alabak dituzten familientzat araututako diru-laguntzei dagokienez; izan ere, finkatutako mugak aurrekoen berdina ziren, baina familia-unitatearen baliokidetasun-koefizientearekin zatituak, eta horrek eragina neutralizatu zuen. Hala, egiaz, 154/2012 Dekretua indarrean jartzeak ez zuen aldaketarik ekarri zenbatekoetan, horiek banan-banan hartuz gero, eta ez zen bete sistemaren xedea, Familiei Laguntzeko Legearen 6. artikuluan aurreikusi bezala; hau da, familia mota eta -egoera guztiak ekitatez tratatzea.

- o Ondorengo aldaketak bi dekretu hauetan islatu ziren: 32/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, familia-politiken esparruan familia-errenta estandarizatzeo sistemari buruzko dekretua aldatzen duena, eta 30/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzen dituena.

Lehen kasuan, 32/2015 Dekretuak 154/2012 Dekretua aldatzen du, funtsean, bi aldaketa sartzeko. Horietako lehenak familia-unitatearen baliokidetasun-koefizientea zehazteko berriazko irizpide batzuk aplikatzea dakar, bereziki zaurgarriak diren familien kasuan⁶⁹. Bigarren aldaketarekin, elkarbizitza-presuntzioa ezartzen da, errenta estandarizatu kalkulatzeko, etxebizitza ezberdinetan errolatuta dauden aiten eta amen kasurako.

Bigarren kasuan, Gobernu Kontseiluak 2015eko martxoaren 17an ere onartutako 30/2015 Dekretuak 255/2006 Dekretua indargabetu zuen. Dekretu horren funtsezko arrazoiak errenta estandarizatuaren irizpidea hedatzea zen, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak kontzeptu horregatik emandako laguntza guztiak hartzeko barne. Dekretuak, halaber, diru-laguntzen lerroan aldaketarik ezarri ez arren, zenbait aldaketa proposatzen zituen egoera diruz lagungarrietan, zenbatekoetan eta mugetan, eta horiek eragin ekonomikoa zuten. Hona hemen aldaketa horiek:

- Tutoretza gehitu zen lehendik ere egoera diruz lagungarri zirenetan (jaiotza, adopzioa eta adopzioaren aurretiazko harrera).
- Errenta estandarizatuaren irizpidea hedatu zen, aurreikusitako laguntza guztiak hartzeko barne.
- Lehenagoko araudian ez bezala, zenbatekoak berdina ziren laguntzen xede ziren seme-alaba guztien kasuan, kontuan hartu gabe zer ordena zuten familia-unitatean eta zer urte-sari ziren jasotzekoak. Ardurapeko seme-alaba bakoitzeko diru-laguntzen zenbatekoa 900 eta 400 euro bitartekoa zen, eta hiru tarte ezarri ziren, familia-errenta estandarizatuaren arabera.

⁶⁹ 32/2015 Dekretuak funtsezko bi berritasun sartu zituen puntu horretan: bata, genero-indarkeriaren biktima izandako emakume eskatzaileek guraso bakarreko familia-unitateen tratamendu bera jasoko dutela arauaren ondorioetarako; bestea, eskatzailea eta/edo haren ezkonlagun edo izatezko bikotea % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-egoeran badago, aurretiaz seme-alaba bizikideentzat aurreikusten zen neurri berean zenbatuko direla.

- Erditze edo adopzio nazional anizkoitzengatik edo nazioarteko adopzioengatik jaso beharreko aparteko diru-laguntzak sinplifikatu, eta bost tarte izatetik hiru tarte izatera igaro ziren, familia-errenta estandarizatuaren arabera.
- Desagertu egin zen sei hilabetetik beherako epean nazioarteko adopzio bat eta erditze, adopzio nazional edo adoptatu aurretiko harrera bat aldi berean gertatzeagatik ematen zen aparteko laguntza, 255/2006 Dekretuan aurreikusia.

Alde batera utzita aipatutako aldaketak, nolahi ere, 30/2015 Dekretuak ez zuen txertatu laguntzen zabaltzea gauzatzeko aldaketarik, betiere aurrekontu-baliabideak egonez gero, Familiei laguntzeko III. Planak aurreikusi moduan. Orduko krisialdi ekonomikoari zor zaio hori; izan ere, programara baliabide gehiago bideratu ahal izatea galarazi zuen.

Taula honetan laburbildu dira ekintza hau gauzatzearen ondoriozko muntak, bai onuradunen kopuruari (diru-laguntza eragin duen haur kopuru gisa adierazi da) bai egindako gastuari dagokienez.

61. taula. Seme-alaben jaiotza eta mantenuagatiko laguntzen gastuaren eta onuradun kopuruaren bilakaera. 2011-2015

	2011	2012	2013	2014	2015
Onuradunen kop.					
Lehenengoa	9.237	12.303	5.007	9.916	9.321
Bigarrena	13.716	15.512	9.826	13.934	13.368
Hirugarrena	6.942	9.092	7.758	9.449	9.580
Anizkoitzak	593	724	297	566	551
Guztira	30.488	37.631	22.888	33.911	32.820
Egindako gastua					
Lehenengoa	6.099.500	7.998.300	3.244.500	6.432.100	6.297.800
Bigarrena	10.106.100	11.457.000	6.548.700	10.370.200	8.996.000
Hirugarrena	7.745.700	9.424.700	7.698.100	9.249.400	9.196.100
Anizkoitzak	2.580.700	3.089.600	1.434.500	2.681.400	2.666.100
Guztira	26.532.000	31.969.600	18.925.800	28.733.100	27.156.000

Iturria: Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

Halaber, hurrengo taulan jaso dira programari esleitutako hasierako kredituen zenbatekoak, baita baimendutakoak ere (hasierakoa eta amaierakoa), eta 2008-2015 aldiaren agindutakoak. Azkenik, gauzate-ehunekoak adierazi da (hasieran agindutakoa/baimendutakoa eta amaieran agindutakoa/baimendutakoa). Bertatik ondorioztatzen da aldi horretan aurrekontuko betearazpenak betiere izan zirela hasiera batean baimendutako zenbatekoaren % 95 baino gehiago; hala, 2012an eta 2013an finantzaketa gehigarria behar izan zen.

62. taula. Seme-alaben jaiotza eta mantenuagatiko laguntza-programari esleitutako kredituen zenbatekoen bilakaera. 2011-2015

	Hasierako kreditua	Hasieran baimendutakoa (HB)	Amaieran baimendutakoa (AB)	Agindutakoa (A)	Betearazitakoa (A/HB)	Betearazitakoa (A/AB)
2011	27.640.802	27.650.300	26.571.718	26.532.000	% 96,0	% 99,9
2012	24.098.317	24.571.317	32.497.746	31.969.600	% 130,1	% 98,4
2013	32.024.746	18.046.678	18.946.678	18.925.800	% 104,9	% 99,9
2014	28.737.728	28.748.528	28.748.528	28.733.100	% 100,0	% 100,0
2015	27.100.000	27.193.900	27.193.900	27.156.000	% 99,9	% 99,9

Iturria: Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

Azkenik, hurrengo taulan, aldi horretan aurkeztutako hasierako eskaerak, emandakoak eta EAEn jaiotako haurrak (jaiotzaren ordenaren arabera) konparatzen dira, programaren estaldura-tasa ezagutze aldera, gutxi gorabehera bada ere.

63. taula. Seme-alaben jaiotza eta mantenuagatiko laguntza-programaren estaldura-tasaren bilakaera. 2011-2015

Urtea	Hasierako espedienteen mota	Eskaerak	Onartutako espedienteak	EAEn jaiotako haurrak	Jaiotakoei buruzko eskaeren %a	Jaiotakoei buruz onartutako espedienteen %a
2011	Lehenengoa	10.235	8.910	11.582	% 88,4	% 76,9
	Bigarrena	7.307	6.711	7.841	% 93,2	% 85,6
	Hirugarrena	1.512	1.329	1.757	% 86,1	% 75,6
	Anizkoitzak	513	450	Daturik gabe	-	-
	Guztira	19.567	17.400	21.180	% 92,4	% 82,2
2012	Lehenengoa	9.984	11.882	11.252	% 88,7	% 105,6
	Bigarrena	7.110	7.666	7.520	% 94,6	% 101,9
	Hirugarrena	1.511	1.635	1.761	% 85,8	% 92,8
	Anizkoitzak	497	589	Daturik gabe	-	-
	Guztira	19.102	21.772	20.533	% 93,0	% 106,0
2013	Lehenengoa	9.137	4.825	10.255	% 89,1	% 47,1
	Bigarrena	6.740	3.846	7.221	% 93,3	% 53,3
	Hirugarrena	1.417	783	1.642	% 86,3	% 47,7
	Anizkoitzak	464	258	Daturik gabe	-	-
	Guztira	17.758	9.712	19.118	% 92,9	% 50,8
2014	Lehenengoa	9.066	9.552	10.334	% 87,7	% 92,4
	Bigarrena	6.806	7.046	7.258	% 93,8	% 97,1
	Hirugarrena	1.538	1.503	1.786	% 86,1	% 84,2
	Anizkoitzak	511	512	Daturik gabe	-	-
	Guztira	17.921	18.613	19.378	% 92,5	% 96,1

Iturria: Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

Aurreko taularen emaitzek agerian uzten dute bigarren seme-alaben multzoari dagozkiela eskaera eta jaiotzen arteko estaldura-tasa handienak; izan ere, aztertutako urteetan % 93tik gorako zifrak agertzen dituzte. Ikus daiteke, halaber, hirugarren seme-alaben eta hurrengo kasuan, tasa % 86koa dela gutxi gorabehera, eta lehenengo kasuan, aldiz, % goetik beherakoa betiere.

- **Familia eta lana bateratzeko laguntzen finkapena eta jasangarritasuna [56]**

Familia eta lana bateratzeko diru-laguntzak seme-alabak dituzten familiei laguntzeko erakunde arteko I. Planaren (2001-2005) esparruan agertu ziren, urteetan zehar aldatu egin diren hainbat Dekreturen⁷⁰ onarpen bidez. 2011n, Familiei Laguntzeko III. Planaren indarraldia hasi zeneko urtean, ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuak (familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa) arautu zituen diru-laguntza horiek. Haren bitartez, aurreko Dekretuan⁷¹ hautemandako gabeziak gainditu nahi ziren, bai laguntzen baldintzei eta estalduraren xede zen premia sortari zegokienez, bai kudeaketa-sistemari berari zegokionez. 177/2010 Dekretuak jarduketako-ildo hauek ezartzen zituen:

- Seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu edo lanaldia murriztu duten langileentzako laguntza.
- Inoren laguntza behar duten edo osasun-egoera oso larrian dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzen duten langileentzako laguntza.
- Hiru urtetik beherako seme-alabak etxean bertan zaintzeko langileak kontratatuzeko laguntza.

Dekretu horrekin batera, 2010eko ekainaren 30eko Agindua⁷² onartu zen, diru-laguntza horien zenbatekoa arautzen dituen. Arau horretan, zenbait aldaketa garrantzitsu sartu ziren aurreko erregulazioarekin alderatuz gero. Langileentzako laguntzei dagokienez, zenbatekoak handitu ziren eta ezabatu egin zen jaso beharreko zenbatekoetan eskatzailearen sexuaren arabera egiten zen bereizkuntza, ulerturik, gizonen erantzunkidetasuna handitzeko eta emakumeen lan-ibilbidearen integrazioa eta sustapena bultzatzeko asmoz ezarritako bereizkuntza horrek, lortu nahi zen helburua bete ez, eta gainera emakumeak diskriminatzen zituela, gizonen aldean. Bestalde, zaintzaileak kontratatuzeko diru-laguntzen lerroan, tarteak sinplifikatu ziren (hiru izatetik bi izatera igaro ziren) eta erreferentzia gisa hartutako errenta estandarizatu igo zen.

2011n Familiei laguntzeko erakunde arteko III. Plana onartu zenean, 1. ildoan –familiei laguntzen dieten eta haien autonomia ahalbidetzen duten zerbitzu, neurri eta politikak indartzekoa–, neurri gisa sartu zen familia eta lana bateratzeko laguntzak mantentzea, 177/2010 Dekretuak araututako terminoetan. Hala, lan egiten duten aiten eta amen kopuru gero eta handiagoak horiek baliatzea sustatu zen.

2011-2015 aldian zehar, hainbat aldaketa egin zitzaizen familia eta lana bateratzeko laguntzei, araudi erregulatuarekin izandako aldaketan eta horien aurrekontu-zuzkiduran eta finantzaketan izandako aldaketan ondorioz.

- 177/2010 Dekretuak barne hartutako laguntzen finantzaketari lotutako aurrekontu-baliabideen murrizketa. 2012tik 2014ra bitartean, nabarmen murriztu ziren EAEko Aurrekontu Orokorretan laguntza horietarako esleitutako diru-zenbatekoak. EAEko Aurrekontu Orokorretatik ondorioztatu daitekeen moduan, 2012an ia %12 murriztu ziren 2011koen⁷³ aldean; 2013. eta 2014. urteei dagokienez, aldiz, %48. Laguntzak ematen jarraitu denez, aurrekontuko zenbatekoaren murrizketak aldaketa ugari ekarri ditu horien finantzaketan⁷⁴, eta atzerapen nabarmenak eragin ditu laguntzen ordaintzetan.

⁷⁰ Zehazki, uztailaren 16ko 177/2002 Dekretuak (lana eta familia bateragarri egiteko neurriak arautzeko) ari gara, eta, gero, abenduaren 23ko 329/2003 Dekretuak (enplegua sustatzeko laguntzak arautzeko); haren VI. kapituluaren, berriro antolatutako lana eta familia bateragarri egiteko neurriak.

⁷¹ 118/2007 Dekretua, uztailaren 17koa, lana eta familia bateragarri egiteko neurriak arautzen dituena.

⁷² Agindua, 2010eko ekainaren 30ekoa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, familia eta lana bateragarri egiteari buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren aurreikusitako laguntzen zenbatekoak eta eskaerak egiteko eskabide normalizatuak onartzen dituena.

⁷³ Berez murrizketa hori argitzen ez badu ere, aipatzekoa da EAEko 2012. urteko Aurrekontu Orokorren Legean, zortzigarren xedapen gehigarriaren bitartez, %7ko murrizketa sartu zela 177/2010 Dekretuak barne hartutako prestazio ekonomikoen zenbatekoan. EAEko 2013. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian ere sartu zen aurreikuspen hori, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2014. eta 2015. urteetako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeen seigarren xedapen gehigarrietan ere.

⁷⁴ 2012an, aurrekontuan 8 milioi gehitu behar izan ziren 2012ko eskaera guztiak ordaindu ahal izateko. 2013an, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eskatutako zenbatekoaren erdia sartu zenez aurrekontuan, lehenengo sei hilabeteetako eskaerak soilik ordaindu ahal izan ziren, eta 2014an ordaintzeko geratu ziren gainerako eskaerak. 2014an, 2014ko aurrekontuarekin ordaindu ziren ordaintzeke zeuden 2013ko azken sei hilabeteetako eskaerak, bai eta 2014ko otsailaren zora arte egindako urte horretako eskaerak ere. Urte horretan ezin izan ziren ordaindu martxotik abendura bitartean egindako gainerako eskaerak, agortu egin baitzen 2014. urteko ekitaldian familia eta lana bateratzeko laguntzak emateko esleitutako aurrekontu-kreditua. 2015ean, aurrekontu-zuzkidura nabarmen handitu bazen ere (2014an 17,3 milioi izatetik, ia 31,4 milioi izatera igaro zen), 2014tik ordaintzeke zeuden eskaerei eta 2015eko eskaeren %60ri –hau da, 2015eko lehen zazpi hilabeteetan egindakoak gutxi gorabehera– aurre egiteko baliatu ahal izan zen soilik.

64. taula. Lana eta familia bateragarri egiteko laguntza-programaren aurrekontu-zuzkiduraren bilakaera.
2011-2015

	2011	2012	2013	2014	2015
Adingabeen zaintza	33.177.409	29.163.737	16.811.910	16.811.910	30.915.190
Mendekoen zaintza	500.000	439.840	255.438	255.438	281.990
Zaintzaileen kontratazioa	500.000	439.840	255.438	255.438	179.920
Guztira	34.179.420	30.045.429	17.324.799	17.322.786	31.377.100

Iturriak: Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak.

- Aldaketak familia-errenta estandarizatzeko sisteman eta haren aplikazioaren irismenean. Planaren indarraldian zehar, familiei familia eta lana bateragarri egiteko emandako laguntzen araubidea aldatu zen, diru-laguntzetan familia-errenta estandarizatuaren irizpidea txertatuz. Arau hauen bitartez txertatu zen:
 - o 154/2012 Dekretua⁷⁵ eta 32/2015 Dekretua⁷⁶, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoak. 2012an 154/2012 Dekretua (familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa) onartu zen, eta arau horren bidez garatu ziren Familiei Laguntzeko Legean (abenduaren 12ko 13/2008 Legea) jasotako zenbait xedapen; hain zuzen, familia-egoera eta -mota guztiak ekitatez tratatu ahal izateko, familia-errenta estandarizatzeko sistemak ezartzeko premiarekin lotura zutenak. Sistema horiek familientzako laguntza ekonomikoetan edo familiei laguntzeko laguntza edo zerbitzu horietara iristeko baldintza bada, edo prestazio horren zenbatekoa edo zerbitzuagatik ordainduko den zatia zehazteko irizpidea bada. 154/2012 Dekretuak 3. artikuluan ezartzen du errenta estandarizatu kalkulatzeko modua, hiru faktore harturik kontuan: familia-unitatearen osaera, familiaren errenta-maila eta baliokidetasun-koefizientea; hain zuzen, familiaren errenta zati koefiziente hori egitearen emaitza da errenta estandarizatu. Bateratzeko laguntzei dagokienez, arauak zaintzaileak kontratatzekeo laguntzetan soilik izan zuen eragina; ordura arte, lerro horretan bakarrik ezartzen zen laguntzaren zenbatekoa errentaren arabera. Hiru urteren ondoren 32/2015 Dekretua onartu zen (154/2012 Dekretua aldatzekoa), eta zenbait berritasun sartu ziren familia-unitatearen baliokidetasun-koefizientea kalkulatzeko; hala, zenbatespen horretan kontuan hartu ziren zaugarritasun bereziko zenbait familia: adibidez, emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren familiak edo kideren bat mendekotasun-egoeran duten familiak.
 - o 31/2015 Dekretua⁷⁷, familiako bizitza eta lanbidea bateratzeko laguntzei buruzko dekretua aldatzen duena (177/2010 Dekretua). Kasu horretan, familia-errenta estandarizatu zabaltea zen xede, zehaztu ahal izateko, horrenbestez, zer zenbateko eman behar ziren familia eta lana bateratzeko laguntzen programaren barruan hura aurreikusten ez zuten bi lerroetan; hau da, dela seme-alaba adingabeak zaintzeko, dela inoren laguntza behar duten edo osasun-egoera larrian dauden senitartekoak zaintzeko, eszedentzia bat hartu edo lanaldia murriztu behar duten langileentzako laguntza-lerroetan. Arauaren aldaketa hura egokitzeko baliatu zen, bat etor zedin zenbait lege-aldaketarekin: adibidez, lanaldiaren murrizketari eta seme-alaben legezko zaintzari zegokienez egindakoekin, eta laneko eta Gizarte Segurantzaren araudian egindakoekin (etxeko langileei zegokienez). Gainera, zenbait berritasun eta azalpen txertatzeko ere baliatu zen. Hona hemen aldaketa horietako batzuk: diru-laguntza jasotzeko aukera ematen duen lanaldi-murrizketan, 8tik 12ra zabaldu zen seme-alabaren adina; eta erditze, adopzio, harrera edo tutoretza anizkoitzetan ere zabaldu egin ziren diru-laguntza jasotzeko gehieneko denbora-mugak.

Taula honetan jaso dira neurri hau aplikatzearen ondoriozko kopuru nagusiak, bai egindako gastuari dagokienez, bai laguntzen onuradun kopuruari dagokienez.

⁷⁵ 154/2012 Dekretua, uztailaren 24koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzkoa.

⁷⁶ 32/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, familia-politiken esparruan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko dekretua aldatzen duena.

⁷⁷ 31/2015 Dekretua, martxoaren 17koa, lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua aldatzekoa.

65. taula. Familia eta lana bateratzeko laguntzen gastuaren eta onuradun kopuruaren bilakaera. 2011-2015

	2011	2012	2013	2014	2015
Onuradunen kop.					
Adingabeen zaintza	21.908	20.763	18.751	15.353	16.722
Mendekoen zaintza	304	347	353	340	379
Zaintzaileen kontratazioa	316	357	403	365	425
Guztira	22.528	21.467	19.507	16.058	17.526
Egindako gastua					
Adingabeen zaintza	32.273.831	36.918.775	16.390.263	16.784.200	29.063.742
Mendekoen zaintza	461.342	580.550	324.416	349.013	313.159
Zaintzaileen kontratazioa	237.329	294.991	150.473	169.754	278.129
Guztira	32.972.502	37.794.316	16.865.152	17.302.967	31.362.487

Iturriak: Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

Taula honetan jaso da, halaber, Planaren indarraldi osoan diru-laguntza jaso duten espedienteen⁷⁸ kopuruari buruzko informazioa, espedientea abiarazitako pertsonaren sexuaren arabera.

66. taula. Diru-laguntza jaso duten espedienteen kopurua, jarduketa-ildoaren eta espedientea abiarazi duen pertsonaren generoaren arabera. 2011-2015

	2011	2012	2013	2014	2015
Adingabeen zaintza					
Emakumeak	33.671	30.269	26.553	22.490	20.519
Gizonak	2.294	2.151	2.021	1.735	1.658
Guztira	35.965	32.420	28.574	24.225	22.177
Emakumezkoen %	% 93,6	% 93,4	% 92,9	% 92,8	% 92,5
Mendekoen zaintza					
Emakumeak	441	476	476	449	440
Gizonak	82	91	115	112	102
Guztira	523	567	591	561	542
Emakumezkoen %	% 84,3	% 84,0	% 80,5	% 80,0	% 81,2

Iturriak: Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

⁷⁸ Ohartarazi behar da diru-laguntza jaso duen espediente kopurua ez dela onuradun kopuruaren baliokide; izan ere, pertsona berak espediente bat eta hiru artean izan ditzake urtean.

Ikus daitekeen bezala, emandako datuek agerira ekartzen dute lana eta familia bateratzeko diru-laguntzek generoen arteko alde nabarmena dutela ezaugarri. Hala seme-alabak zaintzeko laguntzen kasuan nola, hein txikiagoan, mendekotasun-egoeran dauden senideak zaintzeko diru-laguntzen kasuan, askoz ere handiagoa da emakumeen presentzia. Azpimarratu behar da, halaber, bilakaeraren ikuspuntutik, dirudienez bere horretan mantenduko dela berebiziko alde hori, 2011-2015 aldian ikusitako joerak aditzera emandakoaren arabera: adingabeen zaintzaren kasuan, ozta-ozta murriztu zen 1,1 portzentaje-puntuari; mendekotasun-egoeran dauden senideen zaintzaren kasuan, aldiz, 3,1 puntuari.

- **Familia-ikuspegia kontuan hartzen duten programen garapena lantzen duen ekimen soziala laguntzea eta sustatzea, lehendik ere badauden diru-laguntzen aginduen bitartez [73]**

Neurri honen helburua, Familiei laguntzeko III. Planean hasiera batean formulatu zen gisan, familia-ikuspegia kontuan hartzen zuten programen garapena sustatzea zen, ekimen sozialeko erakundeentzat lehendik ere bazeuden diru-laguntzen lerroen bitartez. Zehazki, Planean ekintza hau gauzatzeko aurreikusten zen diru-zuzkidurak barne hartzen zituen Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak eta Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak erabilgarri zituzten aurrekontu-partida ekonomikoak: lehengoaren kasuan, hirugarren sektoreak gizarteko esku-hartzearen eremuan jarduerak sustatzeko zeudenak; bigarrenean, aldiz, gizarteko esku-hartzearen ekintza boluntarioa eta elkarten parte-hartzea indartzeko zeudenak.

Programa horiek III. Planaren indarraldian zehar (2011-2015) izandako aurrekontu-zuzkiduraren jarraipena eginez gero, agerian geratzen da aurreikusitako diru-laguntzen lerroek pisua galdu zutela pixkanaka. Hala, 2011tik 2015era bitartean % 46 murriztu ziren ia, kontuan hartzen badira EAEko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako zenbatekoak.

67. taula. Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako diru-laguntzen aurrekontu-zuzkiduraren bilakaera, programa motaren arabera 2011-2015

	2011	2012*	2013*	2014*	2015*
EAEko Aurrekontu Orokorrak					
Gizarteko esku-hartzearen eremuan jarduerak sustatzeko laguntzak	2011	61	4.756.587	4.357.847	4.123.789
Gizarteko esku-hartzearen ekintza boluntarioa eta elkarten parte-hartzea indartzeko jardueretarako laguntzak	1.000.000	843.949	725.302	643.998	612.489
Guztira	1.002.011	844.010	5.481.889	5.001.845	4.736.278
III. Planeko aurrekontu-zenbatespena					
Gizarteko esku-hartzearen eremuan jarduerak sustatzeko laguntzak	6192.000	6.455.189	7.010.270	7.010.270	7.010.270
Gizarteko esku-hartzearen ekintza boluntarioa eta elkarten parte-hartzea indartzeko jardueretarako laguntzak	800.000	840.500	915.000	915.000	915.000
Guztira	6.992.000	7.295.689	7.925.270	7.925.270	7.925.270

*2012tik aurrera jasotako zifrek barne hartzen dituzte aurreko urteetan agindutako kredituei dagozkien zenbateko batzuk
Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak.

Aipatu diren –eta Familiei laguntzeko III. Planaren aurretik ere bazeuden– laguntza-lerroen zuzkidura ekonomikoaren murrizketaz gain, ekintza hau gauzatzeko ardura duten erakundeek ez diete inolako babes espezifikorik eman familia-ikuspegia lantzen duten erakundeek, III. Planak hasierako diseinuan aurreikusten zuen moduan, eta ez da egin, ezta ere, jardunbide egokien azterketarik diruz lagundutako proiektuetatik abiatuta, Planaren 2013ko birformulazioan adierazten zen moduan.

3.2.5. Planeko ekintzak errazago gauzatzeko zeharkako ekintzak

EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planak (2011-2015), hasierako bertsioan, koordinazio-ekintzak gauzatzera bideratzen zuen hura osatzen zuten lau ildo estrategikoetako bat. Zehazki, 3. ildo estrategikoak «Familiei laguntzeko politiken eta parte-hartze sozialaren sail arteko eta erakunde arteko koordinazioa» zuen xede, eta barne hartzen zituen 12 neurri zehatz, «Familia politiken, lidergo partekatuen eta erantzunkidetasunaren erakunde-antolaketa indartzea» lortzeko. X. Legegintzaldia hasi ondoren, 2013an, Planari egindako leheneste-prozesuan, hasiera batean aurreikusitako 12 neurrietatik 3 hautatu ziren. Neurri horiek jarraian azalduko hauek dira:

68. taula. 4. ildo estrategikoan, zeharkako koordinazio-ekintzei buruzkoan, sartutako neurrien gauzatze-maila

Neurriak	Arduraduna	Kolaboratzaileak	Gauzatze-maila
113. Haurrak zaintzeko sistemaren, Gizarte Zerbitzuen sistemaren eta Familia Politikaren arteko koordinazioa	Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Gauzatu gabe
119. Familia-politika koordinatzeko dinamikak bultzatzea administrazio publikoaren aldetik.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Foru Aldundiak eta Udal-administrazioa	Gauzatu gabe
120. Koordinazio-sistema eta -dinamikak sustatzea, bai administrazio publikoaren maila guztien artean, bai familia-politikarekin zerikusia daukaten maila bakoitzaren barnean.	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak eta Udal-administrazioa	Gauzatu gabe

Taulan jasotako neurrien gauzatze-maila aztertu aurretik, ordea, komeni da hizpidera ekartzea, garrantzitsua izan baitzen erakundearteko lankidetzaren eremuan, Planean hasiera batean sartutako neurrietako bat 2012an gauzatu zela eta, beraz, ez zela sartu Planaren ondorengo bertsioan (2013an onartutakoa). Hain zuzen, Familien Euskal Kontseilua sortzeko eta arautzeko dekretua prestatu eta onartzea aipatzen zuen neurri horrek (112. neurria).

Familiaren Euskal Kontseilua 2012an sortu zen, eta 53/2012 Dekretuaren⁷⁹ bidez arautu zen. Hortxe aurreikusi zen zer funtzio, osaera eta jarduteko oinarriko arau izango zituen. Familiei Laguntzeko Legean (Abenduaren 12ko 13/2008 Legea) aurreikusten zen organo horren sorrera eta, Lege horretan xedatutakoaren arabera, haren bitartez antolatuko zen, alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen arteko koordinazioa eta lankidetzaren familiaren arloan, eta bestaldek, administrazio publikoaz besteko erakunde eta pertsonen parte-hartzea. Aipatutako Dekretuak aurreikusitakoaren arabera, Familiaren Euskal Kontseiluaren ohiko osoko bilkurak urtean bitan egitekoak ziren; hala ere, egiaz, mugatua izan da haren jarduna.

68. taulan jasotako neurriek III. Planaren indarraldian izandako betearazpenari dagokionez, bi ohar egin daitezke. Horietako lehenak 113. neurriarekin eta Sail bereko bi zuzendaritza hauei esleitutako sistemen artean koordinatzeko ekimenak garatzearekin du zerikusia: Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari eta Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzari. Aldiz, beste bi neurriei dagokionez –elkarren antzekoak dira oso, bi-biek sustatzen baitituzte autonomia-, foru- eta udal-mailen artean familia-politika koordinatzeko dinamikak–, adieraz daiteke Planaren indarraldiko prozesu osoan ez dela izan erakundearteko solasgune egonkorrik EAEko familia-politikak koordinatzeko.

⁷⁹ 53/2012 Dekretua, apirilaren 17koa, Familien Euskal Kontseiluarena.

4. FAMILIEI LAGUNTZEKO ERAKUNDE ARTEKO III. PLANAREN BETEARAZPENA BALIOESTEA

4.1. Sarrera

Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planaren behin betiko bertsioko neurrien exekuzio-maila deskribatu ostean, kapitulu honetan Planaren diseinuaren, gauzatze-mailaren eta lortutako emaitzen balorazioa aurkeztuko dugu, izaera kualitatiboz. Kapitulu hau bi zatitan banatzen da.

- Lehenean, hain zuzen aplikatutako neurrien analisia jasotzen da, bai Planaren diseinuaren eta bai gauzatzearen ikuspegitik. Analisisian, gauzatu diren neurrietan nabarmentzen diren mugak eta elementu positiboak jasotzen dira, txostena idazten duen taldearen ikuspegitik.
- Bigarreanean, Plana egiteko abian jarri zen partaidetza-prozesuko emaitzak jasotzen dira; dagokion atalean adierazten den moduan, hogeit hamar pertsona inguruk eta EAEko familia-politiken esparruan diharduten erakundeek parte hartu dute.

4.2. Aplikazio-prozesuaren eta gauzatutako neurrien emaitzen balorazioa, ildo estrategikoa

4.2.1. 1. ildo estrategikoa: lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea

Planeko neurriak lehenesteko prozesua eta azken batez gauzatu diren neurrien edukia deskribatzen dituen atalean adierazi den moduan, 1. ildo estrategikoan (lana, bizitza pertsonala eta familia uztartzeari buruzkoa) kontzentratu dira azkenik Planean txertatu diren neurri gehienak. Era berean, arlo horri dagozkio azken batean gauzatu diren neurri gehienak.

Planak EAEko familien bizi-baldintzetan duen inaktuaren ikuspegitik, ezin da esan, 2.3.2. kapituluan ikusi dugun bezala, uztartze-aukerak nabarmen hobetu direnik azken urteotan. Atal horretan azaltzen denarekin bat:

- Arinki egin du gora lana eta adin txikiko seme-alabak zaintzea bateragarri egitea oso zaila dela adierazten duen biztanleria okupatuaren ehunekoak, nahiz eta nahiko egonkor mantendu den Plana abian jarri zen uneaz geroztik adin txikiko seme-alabak zaintzen emandako denborarekiko satisfazio-maila baxua dutela dioten biztanleria okupatuaren ehunekoak.
- 2010az geroztik, gora egin du laneguna edo -egutegia zaintza-beharretara egokitzeko zailtasunak dituztela adierazten dutenen ehunekoak, nahiz eta egia den gorakada 2010 eta 2011 bitartean gertatu zela, eta harrezkero ehunekoak nahiko antzeko mantendu dela.
- 2012az geroztik, gora egin du amatasunak emakumeek lan-ibilbidea asko edo dezente oztopatzen duela uste dutenen ehunekoak.
- Seme-alabak izan dituzten eta lan egiten duten (edo lan egin duten) pertsonen (biztanleriaren % 55) % 40ak satisfazio-maila baxua edo oso baxua du kontziliazio-aukera pertsonalekin; ehuneko berak jotzen du amatasunak edo aitatasunak asko edo pixka bat murriztu zituela igoera profesionalerako aukerak; eta % 30ak uste du lana aurkitzeko aukerak murriztu zituela.

- Azken hiru urteetan, 30.000 pertsona inguruk eten dute beren lan-jarduera mendeko pertsonak zaintzeari loturiko arazoengatik. Horietatik, ia 24.000 (hau da, % 83) emakumeak dira. Ehuneko hori biztanleriaren % 1,9ri bakarrik dagokion arren, mendeko seme-alabak dituzten guraso-familia nuklearretako emakumeen kasuan, % 6,9ra heltzen da (% 0,8 da familia mota bereko gizonen kasuan).

Gauzatutako neurriei dagokienean, laburbilduz, ildo estrategiko hori honela geratu zen banatuta: bost arlo edo azpialor, bederatzi ekintza estrategiko eta 21 neurri, zeinetatik guztira 11 gauzatu baitziren modu batean edo bestean. Nabarmentzekoa da atal honetan ez direla jasotzen adin txikiko seme-alabak zaintzeko ezarritako laguntza ekonomikoak, gai hori kapitulu honetako 4.2.4. puntuan jorratzen baita; laguntza horiek gakoa dira arreta-kargak dituzten pertsonen kontziliazio-eskubidea bete dadin laguntzeko. Ildo horretan, azken urteotan EAEn lana eta familia-bizitza bateragarri egiten laguntzeko politiken balorazio orokorrean, kontuan hartu behar da atal honetan nahiz 4.2.4. atalean adierazitakoa, uztartze-aukerak, zati batean, eskubide hori posible egiteko ezartzen diren laguntza ekonomikoekin erlazioan baitaude.

Aurreko kapituluaren adierazitakoarekin bat, lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egiteko gauzatu diren neurriak honako hauek dira:

69. taula. 1. ildo estrategikoan gauzatutako neurriak. Lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea

	Neurriak	Arduraduna	Gauzatze-maila
Enplegurako ekintza estrategikoak sektore pribatuan eta publikoan	58. Ekimenen garapena familia- eta lan-bizitzaren uztartzea gizarte-elkarrizketako mahaira eta enpresa-ingurunea gaineratzeko.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Gauzatua
	166. Lan-esparruan ordutegiak malgutzeko zenbait esperientzia abian jartzea.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Gauzatua
	59. Ordutegi-malgutasuna bultzatzea Confebasken eta sindikatuen laguntzarekin eta hitzarmen kolektiboetan uztartze-neurriak sartzeko	Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendaria (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila)	Gauzatua
	89. Uztartzeari loturiko gaietan, enpresei laguntza eta konpainia eskaintzeko sistemak sortzea.	Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako zuzendaria (Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila)	Zati batean eginda
	52. Bateratzerako tresnak eta neurriak ahalbidetzeko bateratze-ataria (Bateratu+) sortzea eta mantentzea.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Gauzatua
	48. Euskal administrazio publikoetan eta EAEko enpresetan telelan-ekimenak sustatzeko orientazioa eskaintzea.	Justizia eta Herri Administrazio Saila	Gauzatua
Uztartzearen alde egindako ekintza esperimentalak	55. Haur-zaintzaileen sare komunitarioak bultzatzea	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Gauzatua
	76. Familia-esparruko zaintzaileei (adin txikikoei edo mendeko pertsonari arreta emateko kontratatutako pertsonak) zuzendutako profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko prozesuak ezagutaraztea, osasun- eta gizarte-arloko prestakuntza egiaztagarriaren bidez eta gaitasuna ziurtatzeko deialdien bidez, lan-jarduera hori duintze aldera.	Enplegurako Prestakuntzako Zuzendaritza (Lanbide)	Gauzatua
Informazio- eta zabalkunde-ekintzak	86. Uztartzeari eta erantzukidetasunari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-programak eta kanpainak garatzea gizartearentzat, gizarte-erakundeentzat eta -agenteentzat eta enpresentzat.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Gauzatua
	79. Biztanleria gaztearen artean difusio-kanpainak egitea familia-eredu berriei, gurasotasun positiboari, erantzukidetasunari eta uztartzeari buruz, orobat familia barneko egoerei aurrea hartzeko kanpainak egitea, bereziki genero-indarkeria, adin txikikoen	Gazteria Zerbitzua (Kultura Saila)	Gauzatua

69. taula. 1. ildo estrategikoan gauzatutako neurriak. Lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea

	Neurriak	Arduraduna	Gauzatze-maila
	aurkako tratu txarrak eta seme-alaben eta gurasoen arteko indarkeria jorratuz. 88. Familia- eta lan-bizitza uztartzearen onurak eta horien errentagarritasuna hedatzeko «Uztartzeak onurak besterik ez dakartza» kanpaina enpresentzat.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Gauzatua
	87. Ordutegi-malgutasunari buruzko ekitaldiak, jardunaldiak, kanpainak, biltzarrak, esperientzia pilotuen azalpenak eta abar egitea.	Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Gauzatua

Neurrietan adierazitakoaz haratago, eta jarduketa horiek egin diren ala ez zein heinetaraino esan daitekeen alde batera utzita, zer balorazio egin daiteke azkenik gauzatu diren neurriei (eta gauzatu ez diren neurriei) buruz jarduera-esparru honetan?

- Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da Planean (bai hasierako bertsioan, bai bertsio «laburbilduan» eta bai azkenik gauzatu diren jardueretan) administrazio nagusiari eta, zehazkiago, Gizarte-segurantzari dagozkion jarduketak jasotzen direla. Ildo horretan, aitatasun- eta amatasun-baimen eta -eszedentzien erregulazioa eta, zati batean behintzat, estaldura ekonomikoa administrazio zentralaren eskumenekoak izaki, Planean erregulazio horietan eragiten duten oso neurri gutxi daude. Hain zuzen ere, erregulazio horietan aipatzen zen neurri bakarra –57. neurria– ez zen gauzatu, eta ezin da esan euskal administrazioak edo gizarte-eragileek jarduera esanguratsurik egin dutenik, bizitza pertsonala, lana eta familia uztartzeko Estatuko arautegiak aldatzeko.⁸⁰
- Gainera, nabarmentzekoa da ez dela aurrera eraman EAEko Foru Aldundien aurrean planteatutako neurri bat, enpresek abian jarritako uztartze-neurriak zerga-politikan kontuan hartzeko alegia, familia eta lana uztartzea sustatzen duten erakunde pribatuei zerga-salbuespenak aplikatzeko aukera aztertuz. Neurri horren garrantzia alde batera utzita, Plana ebaluatzen egin den partaidetza-prozesuak agerian utzi duen moduan (ikus hurrengo puntua), neurri hori ez gauzatzeak argi utzi du Planaren kudeaketak zein heinetaraino ez duen kontuan hartu beste administrazio publiko batzuekiko koordinazio-lana edo presioa egitea, Planaren helburu orokorrak lortzeko.
- Lan-denborak antolatzeko jarraibideetan esku-hartzea, batez ere enpresa pribatuen esparruan, mugatua dela esan daiteke. Ildo horretan, pentsa daiteke 58. neurriak⁸¹ –nahiz eta egin den– inpaktu erreal mugatua izan duela langileen lan-baldintzetan: lehen adierazi dugun moduan, aldi horretarako, lan-uztartzea aipatzen zuten eta EAEn indarrean zeuden hitzarmenen ehunekoa ez da ia aldatu azken urteotan (% 11,2 zen 2011n eta % 12,5 zen 2015ean). Ematen du planak denbora antolatzeko ekarri dituen neurri bakarrak administrazioan lan egiten duten pertsonen telelanari buruzkoak direla, orobat izaera esperimentaleko eta / edo toki-esparruko zenbait neurri, IX. Legealdian garatu zirenak (Plana legealdi horretan diseinatu eta onartu zen) eta ez zirenak X. legealdian luzatu.
- Planaren beste arlo batzuetan gertatzen den moduan (nahiz eta arlo honetan are agerikoagoa den), esan daiteke nolabaiteko desoreka dagoela denboraren ikuspegitik, neurri asko IX. legealdian gauzatutako neurriei baitagozkie, hain zuzen ere. Izan ere, arlo honetan gauzatutako 11 neurrietatik gutxienez 8 legealdi hartan hasi ziren eta, horietatik, askok⁸² ez zuten aurrera jarraitu hurrengo

⁸⁰ Familia Plan berria egiteko, beharbada gomendagarria izango litzateke administrazio zentralak duen rola hein handiagoan kontuan hartzea. Hainbat arrazoi daude horretarako: batetik, eragile sozial eta politikoen gero eta interes handiagoa pizten dute gai horiek eta berriki neurri interesgarriak hartu dira horren harira (adibidez, nabarmentzekoa da nahitaezko aitatasun-baimena bi astetik lau astera luzatzea, 2007ko Berdintasunaren Legea betez). Bestalde, alderdi politikoen arteko indar-korrelazioetan aldaketak egon direnez, bideragarriagoak izan daitezke autonomia-erkidegoetatik planteatutako eskakizunak harmonizazioaren arloan edo politika sozialetan aurrera egiteko orduan. Azkenik, Estatuak esparru honetan eskumen garrantzitsuak ditu eta administrazio zentraletik hartu behar dira autonomia-erkidegoek beren kabuz sustatu ezin dituzten neurriak.

⁸¹ Ekimenen garapena familia- eta lan-bizitzaren uztartzea gizarte-elkarrizketako mahaira eta enpresa-ingurunea gaineratzeko.

⁸² Ildo horretan, adibide argiena 55. neurria da, haur-zaintzaileen komunitate-sareak sustatzera orientatutakoa. Neurri horrek Jaurilaritzaren barnean ere tirabirak sortu zituen bere garaian, IX. legealdian abian jarri zenean, eta bertan behera utzi zen 2013an. Gobernu berriak neurri hori

legealdian, edo jarraipen eskasa izan zuten. Denbora-desoreka hori gertatzeko arrazoia X. legealdian izandako aurrekontu-egoera izan daiteke, aurreko legealdiko baino murriztaileagoa izan baitzen, edota –eztabaida-taldeetan adierazitakoaren harira–, beharbada, ondorengo legealdian familia-politikan konpromiso politiko edo lidergo-gaitasun txikiagoa egon zelako.

- Atal honetan, aipatzekoa da, praktikan, oso pisu txikia izan dutela 0 eta 3 urte bitarteko haur-arretarekin erlazionatutako neurri guztiek eta, oro har, hezkuntza-sistemarekin erlazionatutako gaiak⁸³. Haurren arretari eta hezkuntzari loturiko gaiak hezkuntzaren esparru espezifikoan txertatzea egokia den ala ez alde batera utzita, harrizkera da azkenik lehenetsi ziren neurrietan zeinen protagonismo txikia duten gai hauek, orobat arlo honetan hainbeste jardura geratzea egin gabe (hain zuzen ere, modu batean edo bestean hezkuntzarekin harremana duten Planeko sei neurrietatik, bost ez ziren egin eta bat –familia-habiei buruzkoa– hasi eta hilabete gutxira utzi zen bertan behera). Zehazkiago:
 - o Ikastegietan ez da aldaketa esanguratsurik aplikatu antolamenduaren esparruan (eskola-egunaren iraupena, eskola-oporren banaketa eta abar), familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzea errazteko -zenbait esperientzia esperientzial isolatu izan ezik-. Nahiz eta agerikoa dirudien eskola-egunaren antolamendua ez dela gurasoen uztartze-beharren arabera zehaztu behar, premiazkoa da hori egitea, orobat gurasoen ordutegiak arrazionalizatzea, eskola-egunaren antolamenduari eta EAEko ikasleen oporraldiei buruzko eztabaidarekin batera⁸⁴.
 - o Haurreskolak Partzuergoak eskainitako plaza kopurua ez da ia handitu Plana indarrean dagoenetik. Bestalde, lehen adierazi dugun moduan, Haurreskolak Partzuergoko ikastegietako sarbidean joera argiak daude familien klase sozialaren ikuspegitik. Gainera, halako ikastegietan ez sartzea arazo larritzat hartzen duten familien ehuneko oso txikia den arren, Familiei eta Etxeei buruzko Inkestak identifikatu du 1.100 familia ingururentzat arazoa dela zerbitzu hori eskuratu ezin izatea. Bi elementu horiek kontuan hartu behar dira etorkizunean zerbitzu hauek antolatzeko orduan, batez ere gizarte-inbertsioaren eta *funtsezko urteen* filosofian oinarritutako politiken aldeko apustua eginez gero.
 - o Guraso-elkarteen bidez eskolaz kanpoko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak nabarmen murriztu dira Planaren indarraldian eta ez da abian jarri (toki mailako zenbait esperientziaz haratago) tokiko instituzioetatik gizarte- eta hezkuntza-izaerako zerbitzuak eskaintzeko ekimenik.
 - o Ez da eskola-jantokien zerbitzua familien eskakizunetara egokitzeko jardura espezifikorik egin, nahiz eta nabarmentzekoa den 2011z geroztik handitu egin dela beka horietara bideratutako aurrekontua.
 - o Ez da aztertu haur-eskoletako egokitzapena malgutzeko aukera.
 - o Lehen adierazi dugun moduan, Familia Habien edo Haur Etxeen esperientzia bertan behera utzi zen 2013an.

Familia Plan berria egiteko, nabarmena da ez direla nahasi behar familia-plana eta hezkuntza-plana. Dena den, nabarmentzekoa da hezkuntza-esparrua eta gizarte- eta hezkuntza-esparrua

bertan behera uzteko adierazi zituen arrazoiaren artean zeuden Hezkuntza Sailarekin lankidetzarik ez zela egon neurria diseinatzeko prozesuan, orobat ez dagoela erregulaziorik pertsona zaintzaileei eskatu beharreko prestakuntzari dagokionez edota Haur Etxeetako instalazioetako beharrezko betekizunei dagokienez.

⁸³ Lehen adierazi dugu (2.4.1. puntua) haurrengan inbertitzeko politikek zein heinetan azpimarratzen duten haurrekiko esku-hartze goiztiarra, haurren arretarako kalitatezko zentron bidez, orobat zein heinetan irauten duten (edo larritu diren) haurren hezkuntza-desberdinkeriarri loturiko arazoak EAEn (2.1. puntua).

⁸⁴ nahitaezko irakaskuntza-orduen kopurua gai eztabaidagarria da hezkuntza-arloan. Desberdintasun handiak daude Europako herrialdeen artean. Hala, Finlandian 626 ordu dituzte eta Herbehereetan, berriz, 940. 7 eta 15 urteko EAEko ikasleen irakaskuntza-orduen kopurua altuagoa da ELGEko eta EB21eko ikasleen batez bestekoa baino (2011 urteko datuak): 875 ordu EAEn, eta 791 eta 768 ordu ELGEN eta EB21n, hurrenez hurren («Autonomia-erkidegoetako 2014-2015 ikasturteko eskola-egutegiaren konparazio-azterketa», FETE UGT Kabinete Teknikoa, 2015). Nolanahi ere, urteko ordu kopurua alde batera utzita, eztabaida oporraldietan eta eskola-egunen iraupenean ere zentratu behar da.

kontuan hartzeko beharra (batez ere 0 eta 3 urte bitarteko zikloan⁸⁵) familia-politika integrala antolatzeko orduan, besteak beste, hezkuntza-berdintasuna eta aukera-berdintasuna bermatzeko haurtzaro guztian zehar.

- Bestalde, agerikoa da ez dagoela neurri espezifikorik haurren zaintzako genero-berdintasunari eta gizon-emakumeen erantzukidetasunari buruz; halaber, arreta gutxi jasotzen du aitatasun-baimena transferitu ezin izateak⁸⁶. Hain zuzen ere, jatorrizko Planean ez bezala, 2013an egindako definizio-eta hobekuntza-prozesuan, ez zen txertatu gai horiei loturiko neurririk. Edozelan ere, modu lehenetsian jaso dira halakoak EAEko emakume eta gizonen berdintasun-planetan⁸⁷. Kasu honetan ere nabarmentzekoa da, Familia Plana Berdintasun Planarekin nahasi behar ez den arren, familia-politiketan bereziki hartu behar dela kontuan genero-berdintasunean eta gizon-emakumeen haurren zaintzako erantzukidetasunean aurrera egiteko beharra.
- Plana indarrean egon den bost urteetan, kudeaketako alderdi positiboen artean nabarmentzen da Concilia+ ataria sortzea eta mantentzea, urte hauetan 150.000 bisitatik gora izan baititu. Edozelan ere, deskribapen-atalean adierazi den moduan, Concilia+ ataria langileei uztartzearen onurei buruzko informazioa eskaintzeko eta enpresariak sentsibilizatzeko tresna da, eta ez uztartzeari loturiko gaietan enpresei laguntzeko sistema.
- Laburbilduz, esan daiteke (4.2.4. puntuan aztertzen diren uztartzeko laguntza ekonomikoez haratago) Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planak aurrerapen gutxi ekarri dituela lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egitearen arloan. Horretarako bi arrazoi daude: lehenik, 2013an lehenetsi ziren neurriak asmo gutxikoak eta helmen txikikoak ziren, eta eztabaidagarria da lortu nahi zen helburua lortzeko balio zutenik. Bigarrenik, aurreikusitako neurri gehienak ez ziren gauzatu; ondorioz, jadanik asmo txikikoa zen planteamendua edukiz hustu zen, alderdi honi dagokionean behintzat. Hori guztia argi geratzen da, 2.3.2. atalean ikusi den moduan, EAEko familietan bizitza profesionala eta familia-bizitza uztartzeko aukeretan ez delako ia aurrerapenik egin.

4.2.2. 2. ildo estrategikoa: gurasotasun positiboa

Gurasotasun positiboa izan da, deskribapen-atalean adierazi den moduan (eta ebaluazio-fase kualitatiboaren emaitzek agerian utzi duten moduan), Planeko oinarritzako alderdietako bat. Gurasotasun positiboko politikak garatzea justifikatuta dago, familia-inguruneak garapen psikologikoan inpaktu garrantzitsua duela adierazten duen ebidentzia enpirikoa baitago, zati batean EAEn garatutako programetan bertan. Halaber, zenbait familia-aldagai pertsonen bizitzan egokitzapen-arazoak eta patologiak izatearekin loturik daudela adierazten duten datuak daude, eta eraginkortasunaren eta kostuaren arteko erlazioaren ebidentzia dago (guraso-gaitasunak hobetzera bideratutako programen eraginkortasunari dagokionez)⁸⁸. Gainera,

⁸⁵ R. Sanserrich-ek (2014) azaltzen duen bezala, «badakigu, eta literatura-kantitate itzelak adierazten du, haur baten bizitzako lehen mila egunak erabakigarriak direla bere garapen kognitiborako. Garunak zero eta hiru urte bitartean garatzen du ikasteko ahalmena. Klase ertainen familia-bizitzan badago familia pobreek ez duten zerbait, haurren garapen kognitibo horri laguntzen diona. Egonkortasuna, estres-falta, gurasoen arreta, jolasak eta gizarte- eta hezkuntza-ingurunea direla medio, errenta altuagoak dituzten familietako haurrek askoz estimulu kognitibo aberatsagoak dituzte hasiera-hasieratik, eta prestatuago hasten dira eskolan. Hezkuntza-politikaren harira, horrek ondorio argiak ditu: aukera-berdintasunak kezkatzen bagaitu (eta kezkatu beharko gintuzke), lehen haurtzaroko hezkuntza-gastuarekin arduratu beharko genuke. Ikerketek baieztapen hori aldeztzen dute: haur-hezkuntzako programek hobekuntza argi eta jarrituak eragiten dituzte haurren hezkuntza-garapenean, eta itzulera handiak sortzen dituzte epe luzean, sarrera gehigarri eta gizarte-mugikortasun gisa. Haur baten bizitzan zenbat eta goizago inbertitu dirua, are eraginkorragoa izango da inbertsioa.

⁸⁶ Nahiz eta gai hori batez ere Gobernu zentralari dagokion, hura arduratzen baita seme-alaben jaiotzengatik baimenak arautzeaz, baimenek presentzia handiagoa izan beharko zuketan III. Familia Plan honetako neurrietan, batez ere kontuan hartzen badugu guraso-baimen transferiezinak eta ordainsari egokiek inpaktu positiboa dutela aitek halako baimenak hartzen (Castro García, C. eta Pazos Morán, M. 'Parental leave policy and gender equality in Europe'. *Feminists Economics*, 22. liburukia, 5. zk., 2016.

⁸⁷ Seme-alaben zaintzan dauden genero-desberdintasunen gaia eta emakume eta gizonen erantzukidetasunaren gaia funtsezkoak dira edozein familia-politikatan, estu-estu lotuta dauden bi ikuspuntutatik: alde batetik, bistakoa da genero-harremanean dauden desberdintasunek zerikusia dutela Europa ekialdeko herrialdeetan daukagun jaiotza-tasaren urretasunarekin; izan ere, gero eta nabarmenagoa baita genero-berdintasunean dauden aldean emaitza dela hainbat gizarte aurreratuak duten ugalkortasun-maila txikia. Berdintasuna da jaiotza-tasak hobetzeko politika onena, aditu guztien hitzetan. Bestalde, azterketa guztiek agerian uzten dute hainbat ikuspuntutatik eragin onuragarria duela seme-alaben zaintzan bi gurasoen inplikazioa izateak.

⁸⁸ Arranz, E.B., eta beste, Assessment of positive parenting programmes in the Autonomous Region of the Basque Country (Spain). *Psychosocial intervention*, vol. 25, n. 2, 2016.

nabarmentzekoa da politika horiek lehen aipatu dugun gizarte-inbertsioaren paradigman daudela oinarrituta⁸⁹.

Deskribapen-atalean adierazi dugun moduan, 2013an egin zen leheneste-prozesuaren ostean gurasotasun positiboa sustatzeko hiru neurri mantendu ziren: horietako bi gurasotasun positiboa sustatzeko programak eta zerbitzuak eskaintzera bideratzen dira (101 eta 141 neurriak) eta azken neurria informazioaren eta komunikazioaren teknologien esparru espezifikoan zentratzen da, zehazki familien prestakuntzan, halako teknologien arriskuei aurre egiteko eta arrail digitala saihesteko. Uztartzearen esparruan gertatu ez bezala (ikus dugun moduan, azken planean jasotako neurrien zati bat baino ez da egikaritu), kasu honetan hiru neurriak egikaritu dira.

70. taula. 2. ildo estrategikoan gauzatutako neurriak. Gurasotasun positiboa

Neurriak	Arduraduna	Gauzatze-maila
101. Gurasotasun positiboko programak gauzatzea, trebetasunak eta gaitasunak garatzeko. <ol style="list-style-type: none"> 1.. EAEn garatzen diren gurasotasun positiboko ekimenak identifikatzea eta ebaluatzea 2011n. 2.. Gurasotasun positiboko proposamen berriak egitea ebidentzia zientifikoan oinarritutako guraso-abileziak eta -gaitasunak garatzeko, 2012an. 3.. Gurasotasun positiboko baliabide-banku bat abiaraztea, agente zientifikoekin koordinatuta egingo da eta eremu horretan lan egiten duten profesionalen eskura jarriko da, 2013an. 4.. Programa egitea eta gurasotasun positiboko programak hedatzea 2013an eta 2014an. 	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Gauzatua
141. Sail eta administrazio desberdinetatik garatzen diren jardueraz osatutako prebentzio- eta hezkuntza-baliabideen bankua sortzea, profesional eta familiei zuzenduta.	Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza (Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila)	Gauzatua
103. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien aurrean (IKT) sentsibilizatzeko eta aurrea hartzeko familiei zuzendutako programak sustatzea, arrail digitalaren fenomenoak saihesteko eta sare sozialen eta Interneten arriskuei aurrea hartzeko.	Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila	Gauzatua

Neurrietan adierazitakoaz harago, eta jarduera horiek zein heinetaraino egikaritu diren alde batera utzita, honako gai hauek planteatu behar dira Planak arlo honetan egiten dituen aurreikuspenetan eta azkenik egikaritzen diren ekintzen edukian:

- Planean jasotzen diren gurasotasun positiboko programei dagokienez, nabarmendu beharreko lehen elementua Eusko Jaurlaritzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak bere gain hartu duen rol proaktibo eta lidergoa da. Ildo horretan, Zuzendaritzak esparru horretan dituen eskumenekin bat, halako programak garatzen laguntzearen eta sustatzearen aldeko apustua egin da, mota honetako programa eta orientazioak gauzatzeko beharrezkoa den ezagutza-oinarria sortzea ahalbidetu duten prestakuntza, ikerketa, sentsibilizazio eta jardunbide onen identifikazioaren bidez.
- Arlo honetan egindako lanean azpimarratu beharreko beste alderdi positibo bat da, lehen ere adierazi dugun moduan, gurasotasun positiboko programak bat datozela lehen aipatu dugun gizarte-inbertsioaren paradigmarekin. Neurrietako batzuk espezifikoak daude pentsatuta ikuspegi horren arazo edo muga nagusietako bat saihesteko (alegia, familia aberatsagoetako haurrek onura

⁸⁹ Ildo horretan, gurasotasunari laguntzea testuinguru zabalagoan txertatzen da: egungo literatura zientifikoan gizarte-kapital gisa kontzeptualizatzen denari dagokio, alegia, familia barneko eta familien arteko erlazio eta baliabideen kalitatea (gizarte- eta familia-kapitala), eta familia eta komunitatearen arteko erlazio eta baliabideen kalitatea (gizarte- eta komunitate-kapitala). Ikuspegi horretatik, gero eta gehiago onartzen da prebentzio-ekintzak egitea egokiagoa dela erreakzio-ekintzak egitea baino, ikerketa zientifikoek argi utzi baitute gizarte-kapital positiboak –babes-faktoreek osatzen dutenak– inpaktu esanguratsua duela helduen osasun fisikoko eta buru-osasuneko adierazle onaldagarritasunean. Análisi honetan defenditu beharreko oinarritzko ideia da gizarte-kapitala funtsezko ekologia dela guraso-gaitasun egokiak garatzeko; atxikimendu segurua zertu eta frustrazio optimoa eragin ahal izateko, familiek denbora eta baliabideak izan behar dituzte eskura.

handiagoak jasotzea), zehazki ingurune apalagoetako hurrei zuzendutako ekintzak jasotzen baitira⁹⁰.

- Neurriek denboran duten antolamenduari dagokionez, lana eta familia uztartzea sustatzeko neurrien harira adierazi denaren aurka, gurasotasun positiboa sustatzeko neurriak Plana indarrean egon den urte guztietan garatu dira. Ildo horretan, arlo honetan onartutako lehen neurriak IX. legealdikoak diren arren, hurrengo legealdian mantendu egin ziren hasitako ekimenak, eta proiektu eta jarduketak berriak garatu ziren.
- Adierazitako alderdiez gainera, aipatzekoak dira Unibertsitateak eta EAEn haurtzaroren eta familiaren esparruan lanean diharduten zenbait elkartetan Planaren barruan garatu dituzten gurasotasun positiboko proiektuak.
- Ikuspegi horretatik, onartutako neurrien zeharkakotasuna da Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzaren ikuspegiaren abantaila bat, gurasotasun positiboa sustatzeko jarduerak garatzeari dagokionean. Baina urritasuntzat jo daiteke Planak Eusko Jaurlaritzaren bi saili bakarrik (batetik, Enplegu eta Gizarte Politiken Saila eta, bestetik, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila) egozteak neurri horiek egikaritzeko ardua. Ildo horretan, eta plan berria diseinatzeko, interesgarria litzateke gurasotasun positiboko neurriak eta programak sustatzeari ardua Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuei ere egozteak (zehazki Hezkuntza eta Osasun Sailei), baita Udalei eta Foru Aldundiei ere, haurtzaro, gazteria eta gizarte-zerbitzuak garatzeko eskumena baitute⁹¹.
- Ebaluatutako Planak gurasotasun positiboko politikak sustatzeko orduan agertzen duen beste muga bat da planteatutako neurriak nahiko modu asistematikoa hautatzen direla. Hain zuzen ere, lehen bi neurriak esparru honen helburu orokorrek ere erabat bat datozen arren, hirugarren neurriak helmen espezifiko edo sektorialagoa du, eta ez dago argi zergatik dagoen Planean jasota, ez baita aipatzen bestelako jokabide arriskutsuei, ohitura ez-osasungarriei eta abarri aurrea hartzeari loturiko alderdirik.

4.2.3. 3. ildo estrategikoa: belaunaldien arteko elkartasuna

3.2.2. puntuan egindako analisi deskribatzaileak lehen ere utzi du agerian zein heinetan ez diren garatu azkenik Planeko 3. ildo estrategikoari loturiko hiru neurriak, belaunaldi arteko elkartasunari buruzkoak. Atal honetan adierazi den moduan, Plan honen esparruan ez da neurri espezifikorik hartu gai horren inguruan, nahiz eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren beste Zuzendaritza batzuk jarduketak zehatzak egin dituzten zahartze aktiboaren, adindunen tratua onen eta belaunaldi arteko elkartasunaren arloan. Pertsona adindunek familia- eta gizarte-esparruan ongizatea sortzen duten rola ere ikertu da zenbait azterketatan eta, modu puntualean, familia-harremanen gaia jorratu da zenbait topagune eta eztabaida-forotan.

Neurri horien egikaritze-maila eskasa izan dela egiaztatzeaz gainera, honako ohar hauek erantsi beharko liriteke Plana baloratzeko orduan:

- Belaunaldien arteko elkartasunaren gaia gakoak da familiei laguntzeko edozein plan integral formulatzeko orduan, gutxienez bi ikuspuntutatik: batetik, pertsona adindunek familien sostenguari egiten dioten ekarpenaren ikuspegitik, bai ekonomikoki eta bai beste pertsona batzuk (zehazki, bilobak) zaintzen⁹²; bestalde, gizarte-babeseko sistemak berriro kalibratzeari

⁹⁰ Nolanahi ere, programa hauen erronka nagusietako bat da programen erabiltzaileak guraso mota guztietara zabaltzea, eta ez soilik seme-alaben hazkuntzarekin sentsibilizatuago dauden eta / edo baliabide ekonomiko, kultural eta hezkuntza-baliabide gehien dituzten gurasoetara.

⁹¹ Hurrengo epigrafean adierazten den moduan, familia-politiken esparruan esku hartzen duten eragile guztiek ez dute uste gurasotasun positiboko programak toki-mailatik egin behar direnik. Pertsona horien ustez, tokiko gizarte-zerbitzu edo gizarte- eta hezkuntza-zerbitzuetatik jorratu ordez, programa horiek eskolaren eta osasunaren esparrutik garatu beharko liriteke.

⁹² Zenbait ikerketak argi utzi dute adindunek gainerako belaunaldien ongizatean egiten duten ekarpena magnifikatu eta neurritz gaindi dimentsionatu dela gure ingurunean. Mari-Klose eta Escapa-ren ustez, adibidez, distantzia itzela dago krisian eraiki den belaunaldi arteko elkartasunari buruzko kontakizunaren eta laguntza ekonomikoaren magnitudeari eta zaugarritasunaren aurrean duten garrantziari buruzko ebidentziaren artean (Mari-Klose, M. eta Escapa, S. «Solidaridad intergeneracional en época de crisis: ¿mito o realidad?». *Panorama Social*, 22. zk.-

ikuspegitik, lehen adierazi bezala, gizarte-inbertsioaren paradigmara egokitze aldera, ahaleginak kolektibo jakin batzuetan (haurtzaroa eta gazteria) eta jarduera jakin batzutan (prestakuntza- eta prebentzio-izaerakoak) zentratu behar baitira, tradizionalki gizarte-babesa jaso duten kolektiboen beharren estaldura ahaztu gabe (hala nola, adindunak).

- Familia Planaren hasierako diseinuan ez zen jasotzen belaunaldi arteko elkartasunera orientatutako esparru espezifikorik, baizik eta adindunekin eta / edo aitona-amonekin lan egitera orientatutako neurri gutxi batzuk, esparru zabalago batean («Herritarrek erantzukidetasunaren gainean duten kontzientzia nahiz familien barruan harreman arduratsuak sustatzea, eta izatearen, bizitzearen eta familia sentitzearen aniztasunaren aurrean errespetua sustatzea»). Hortaz, gai hau plan berriaren barruan interes-esparru lehenetsi gisa sustatzea apustu tekniko edo politiko espezifikoa izan zen, jarduera-ildo «berri» honi lehentasuna emateko. Beraz, harrigarria da praktikan lan-esparru honek jaso duen atentzio eskasa, deskribapen-atalean ere adierazi den moduan, alde batera utzi baita Planeko jardueren artean.

4.2.4. 4. ildo estrategikoa: laguntza ekonomikoak

Orain arte aztertutako neurrietako batzuk oso izaera esanguratsua ez izan arren, argi dago esparru honetan jasotzen diren neurrietako batzuk (lehen biak behintzat) Planaren funtsezko ardatzetako bat osatzen dutela, bai aurrekontuen ikuspegitik (Planaren hasierako diseinuan, bi neurrietarako 500 milioi eurotik gorako kostua aurreikusten zen Planaren indarraldi osorako) eta bai neurriek seme-alabak dituzten familien bizitzan duten inpaktuaren ikuspegitik (batez ere egoera zailagoetan dauden familien kasuan). Lehen ikusi dugun moduan, seme-alabak dituzten familiek gero eta zailtasun handiagoak dituzte funtsezko beharrei erantzuteko eta pobrezia-arriskua halako familietara desplazatzen ari da. Ingurune honetan, familiei zuzendutako diru-laguntzek rol garrantzitsua dute haurren pobrezia geldiarazteko eta murrizteko. Halaber, neurri hauek seme-alabak hazteak dakarren ahalegin itzela aintzatesteko eta konpentsatzeko ere balio dute, eta, nahiz eta ezin den esan kausa-erlazio zuzena dagoenik, pentsa daiteke halako laguntzak eskuragarri izateak nolabaiteko eragina izango duela jaiotzak sustatzeko orduan.

Edozelan ere, diru-laguntzek berebiziko garrantzia dute familia-politiken esparruan, hiru ikuspegitatik:

- batetik, Gizarte Segurantzak ematen dituen aitatasun- eta amatasun-baimenak oso laburrak direnez, ezinbestekoa da diru-laguntza gehigarriak egotea, behar adinako zenbateko eta estaldurarekin, jarduera profesionala haurrak zaintzeko eteteak dakarren kalte ekonomikoa murrizten laguntzeko.
- Familiei zuzendutako diru-laguntzek funtsezko rola dute haurren pobrezia murrizteko orduan. Ildo horretan, Espainian agerikoa da oso gastu txikia bideratzen dela familia-prestazioetara, eta egiten den gastuak pobrezia murrizteko oso gaitasun murrizta duela. Hain zuzen ere, familiei zuzendutako prestazioak garatzeko baliabide publiko gehien erabiltzen dituzten herrialdeak dira, oro har, haur-pobrezia tasa baxuagoak dituztenak. Harremana erabat lineala ez den arren, datuek arrazoi objektibo bat ematen dute, prestazio horiek hobetzea esku hartze publikoen helburu lehenetsitatzeko⁹³. Ebidentzia eztabaida ezina ez den arren, familia-prestazioei (ardurapeko seme-alabengatik, uztartzeko eta haurrei arreta emateko) zuzendutako gastu publikoari buruz egindako ikerketek agerian uzten dute inpaktu positiboa dutela ugalkortasun-tasetan, batez ere uztartzeko laguntza ekonomikoen kasuan, aita/ama izateko aukeraren kostua murrizten baitute⁹⁴. Lehen adierazi dugu, Frantziaren kasua aipatu dugunean, kostu altua izan arren, diru-laguntzek inpaktu

a, 2015). Hala eta guztiz ere, adindunek beste belaunaldi batzuei eskaintzen dieten laguntza ekonomiko eta emozionalaren edo zaintzaren gaia berebizikoa da familia-politika osoa definitu ahal izateko. Ildo horretan, Euskal Soziometroaren datuek (ez daude 2.3.2. atalean jasota) adierazten dute hamar aitona-amonatik lauk gutxienez astean behin zaintzen dituztela bilobak. Bestalde, EAEn, seme-alabak dituzten pertsonen % 41ek adierazten du beren gurasoek ez dutela inolaz ere parte hartu bilobak zaintzen; % 24k uste du pixka bat lagundu dutela eta % 34k, berriz, asko lagundu dutela. Gainera, aitona-amonak horretara behartuta sentitzeari dagokionean, pertsonen % 80k uste du ez dela hala izan edo oso hein txikian sentitu direla behartuta.

⁹³ Cantó, O. eta Ayala, L. *Políticas públicas para reducir la pobreza infantil en España: análisis de impacto*. Bartzelona, Unicef Comité Español, 118. orr., 2014.

⁹⁴ Kalwij, A. The Impact of Family Policy Expenditure on Fertility in Western Europe. *Demography*, 10. liburukia, 2. zk.a, 2010.

nabarmena dutela ugalkortasunean (hala, hilean 150 euroko laguntzak % 3,3 areagotzen du ugalkortasuna, batez ere hirugarren seme-alaben kopurua handitzen delako)⁹⁵.

3.2.4. atalean adierazitakoarekin bat, 2013an Plana berriro formulatu zenean, enuntziatu zehaztugabeagoak eta lausoagoak zeuden esparru honetan egin beharreko ekintzei buruz, eta jarduketak seme-alabak dituzten familientzako laguntzak «finkatzera eta jasangarri egitera» mugatzen ziren (nahiz eta hasierako planean konpromiso zehatzagoak zeuden). Edozelan ere, neurri horiek egikaritzeari dagokionez, horietako bi (jaiotzengatiko eta seme-alabak mantentzeko laguntzei, eta uztartzeko laguntzei buruzkoak) gauzatu dira, baina hirugarrena ez (izaera mugatuagokoa: jardunbide onen analisia, Hirugarren Sektoreko erakundeen diruz lagundutako proiektuen bidez).

Aurreko kasuetan bezala, jarraian zenbait alderdi ebaluatzen dira, neurriak egikaritu diren ala ez alde batera utzita, seme-alabak dituzten familiei diruz laguntzeko sistema irmoa garatzen zein heinetaraino aurrera egin balorantzea ahalbidetzen dutenak:

- Atentzioa ematen duen elementuetako bat da (bai hasierako Planean eta bai 2013an berriro formulatutako Planean) ez dela ia aipatzen Foru Aldundiek Pertsona Fisikoen Gaineko Zergaren esparruan ezartzen dituzten kenkariak. Horiek dira, lehen esan dugun moduan, EAEko hiru lurraldeetan seme-alabak izateak dakarren gastu itzela konpentsatzeko dagoen oinarritzko mekanismoetako bat. Nahiz eta hasierako planean jarduketaren bat bazegoen arlo honetan⁹⁶, gaitetik baino ez zuen jorratzen, eta Planaren bertsio berrian desagertu egin ziren laguntza hauen aipamenak. Halako laguntzak ez agertzeak eragotzi egiten du Planean familiei laguntzeko politiken esparruan ezinbestekoa den gai bat jorratzea, honako elementu hauek kontuan hartzen badira behintzat:
 - o Kenkari horiek dakarten zerga-gastuaren zenbatekoak –hau da, diru-bilketan gertatuko den galera⁹⁷– hein handian gaintzen du zuzenean familia-politiken esparruan Eusko Jaurilaritziatik kudeatzen diren zuzeneko laguntzen zenbatekoa.
 - o Kenkari horiek duten izaera atzeragarria dute, errenta baxuak dituzten eta / edo PFEZ aitortpena egiten ez duten familiek ez baitute onurarik ateratzen (edo ez, behintzat, erabateko onurarik)⁹⁸.
 - o Gure ingurune herrialdeetan, gero eta gehiago erabiltzen dira haien kargura seme-alabak dituzten familiei laguntza ekonomikoak eskaintzeko zerga-tresnak, batez ere zerga-kenkari ez-ordaingarri deritzenen bidez⁹⁹.
- EAEn seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak antolatzeke orduan, nabarmentzekoa da Plana birformulatzean ez dela kontuan hartu hiru laguntza ekonomiko zehatz ezartzeko beharra,

⁹⁵ Thevenon, O. The influence of family policies on fertility in France. In: Rinduss y Choe (Eds.) Low fertility, institutions and their policies. Springer, 2016.

⁹⁶ Familia-ikuspegia garatzea sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko zerga-sistema aldatzeko aukera jorratzen den ulean (130. neurria) edota zuzenean PFEZetik kudeatzen diren familientzako diru-laguntzen bideragarritasuna aztertzea (143. neurria).

⁹⁷ Euskal Ogasunaren azken txostenarekin bat, ondorengoengatiko kenkariak 313 milioi euroko zerga-gastu teorikoa eragin zuten 2013an. Zerga-gastu erreala pixka bat txikiagoa da, izan ere, aurrerago adieraziko dugun moduan, errenta baxuagoak dituzten familiek ezin dituzte dagozkien kenkariak erabili, kenkari horiek handiagoak direlako familia horien zerga-zorra baino. Txosten horrekin berarekin bat, «zerga-gastua sortzen da errentaren osagaien batek ez duenean zergarik ordaintzen, edo errentaren osagai edo zati batek ez dituzte zergak erabat ordaintzen, egitura-tarifaren arabera. Banakako zerga-erregimena egiturazkotzat jotzen da. Horrenbestez, baterako tribulazio horrek zerga-gastua sortzen du, eta gastu fiskaltzat joko dira, halaber, familia-unitateen zerga-karga murrizteko tratamendu espezifikoak.»

⁹⁸ Efektu atzeragarri hori egiaztatzeke, modu orientagarrian Gipuzkoako 2013 ekitaldiko PFEZ likidazioari buruzko zenbait datu erabili daitezke: ekitaldi hartan, ondorengoengatiko kenkariak, batuta, 109 milioi euroko beherapen-eskubidea ekarri zuten 145.000 zergadunari baino zertxobait gehiagori. Baina 92,2 milioi euroko kenkariak bakarrik izan ziren, beraz ez zen kenkaririk aplikatu, 17 milioi euroko balioarekin. Dena den, galera horrek ez die berdin eragiten zergadun guztiei. 10.000 eurorainoko oinarri likidagarria duten zergadunen kasuan (aitorpenen % 8), % 40k bakarrik aprobetxatu ahal izan zuten kenkaria: teorian 18,6 milioi euroko kenkari batua egokitzen zitzaizkien arren, haien zerga lau milioitan bakarrik murriztu zen (alegia, teorian zegokien kenkariaren % 21 baino ez zuten jaso). 10.000 eta 19.999 euro bitarteko oinarri likidagarriak zituzten zergadunek kenkariaren % 91 jaso zuten, eta 20.000 euroko oinarri likidagarrietatik gora, kenkariaren aprobetxamendua % 100ekoa izan zen.

⁹⁹ Azken urteetan, gure ingurune herrialdeetan zerga- eta gizarte-politikak gero eta gehiago ari dira integratzen; testuinguru horretan, zerga-kenkari ez-ordaingarriak (*tax credit*) deritzenak, zenbait herrialdetan arrakastaz garatu direnak, tresna interesgarria izan daitezke EAEn; izan ere, familia guztiek onura ateratzen dutenez (haien errenta edozein izanik ere), zerga-sistema progresiboago bihurtzen da eta modu simple eta normalizatuagoan eskuratzen dira laguntzak. Oro har, kenkari ordaingarrien eta gainerako zerga-kenkariaren arteko diferentzia da kenkari ordaingarriak ez direla zergadunaren zerga-zorrera mugatzen: kenkari ordaingarriek Ogasunarekiko zorra murrizten dute, zeroraino, hala dagokionean, gainerako kenkariarekin gertatzen den moduan. Baina kenkaria kuota baino handiagoa izanez gero, diferentzia hori zergadunari ordaintzen zaion transferentzia garbi bihurtzen da, zerga negatibo gisa. EAEn esparruan halako zerga-prestazioak aplikatzeak potentzial handia izan dezake, besteak beste, kontuan hartzen badugu beste herrialde batzuetan garrantzi handia izan dutela haur-pobrezia murrizten.

haurren ongizatean eta, batez ere, egoera ekonomiko zailetan dauden haurren ongizatean inpaktu garrantzitsua dutenak:

- o Ez hasierako Planean, eta ez 2013an berriro formulatutakoan, ez zen inon aipatzen diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema edota, zehazkiago, EAEko Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta. Zerga-sistemaren kasuan gertatzen den bezala, ez-aipatzen garrantzitsua da, izan ere: a) seme-alabak dituzten familia askok eskuratzen duen prestazioa da, eta nabarmen murrizten du familia horien pobrezia helmena eta intentsitatea¹⁰⁰; b) guraso bakarreko familien kasu zehatzean izan ezik, EAEn Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren diseinuak ez ditu behar bezala jasotzen seme-alabak dituzten familia-unitateen behar espezifikoak, batez ere familia handiagoen kasuan¹⁰¹.
 - o Hasierako Planean ez bezala¹⁰², 2013an berriro diseinatu zen Planean ez da aipatzen gai gako bat –elikagai-pentsioak aurreratzeko funtsa–, bermatzen duena banantze eta dibortzio kasuetan ere seme-alabek baliabide ekonomiko minimoak izango dituztela eskura, haurren zaintza edozein gurasok eskuratuta ere.
 - o Halaber, Planaren bi bertsioetan ez da aipatzen Gizarte Segurantzaren baliabide gutxiko familiei zuzendutako seme-alabengatik prestazioetan aldaketak egin daitezen sustatzea. Ez-aipatze hori ere garrantzitsua da, kontuan hartzen baditugu: a) prestazio honek, egungo bertsioan ere, duen inpaktu ekonomikoa¹⁰³; b) prestazio hori gehiago garatzeak egoera zailenean dauden haurren egoera hobetzen izango lukeen inpaktua, Gizarte Segurantzaren bidez finantzatzuz gero eta ez euskal instituzioen bidez, orain arte aipatu ditugun familientzako diru-laguntzen edo diru-sarrerak bermatzeko laguntzen kasuan ez bezala.
- Planean aipatzen ez diren gaiak alde batera utzita (seme-alabak dituzten familientzako laguntza-sistema koherentea egituratu ahal izateko gai garrantzitsuak jorratzen dituztelako aipatu ditugu hemen), laguntza-programa bera egikaritzeari dagokionez, nabarmentzekoak dira Planaren indarraldian egon diren aurrekontu-zailtasunak. Izan ere, batetik, kalte handiak eragin zaizkie laguntza horiek eskuratu litzaketen pertsonen eta, bestetik, oztopoa izan dira EAEn familia-politikak herritar guztientzako eskubide efektibotzat finkatzeko orduan.
 - Halaber, bi neurri horien egikaritze-maila baloratzeko orduan, kontuan hartu behar dira errenta estandarizatu aplikatzeari buruz hartutako erabakiak. Hain zuzen ere, lehen adierazi dugun moduan, 13/2008 Legearen asmoa familia-errealitate desberdinei tratu bidezkoagoa ematea zen arren, 154/2012 Dekretuak (familia-errentaren ordezkari errenta estandarizatu ezartzen zuena) ez zuen inolako inpakturik izan, horren efektua neutralizatu egin baitzuten ezarritako atalaseek, alegia, aurreko atalaseen berdina zirenak, familia-unitatearen baliokidetasun-koefizientearekin zatituta. Hartara, 154/2012 Dekretua indarrean sartzeak ez zuen inolako aldaketarik eragin banakako zenbatekoetan, eta Familiei Laguntzeko Legearen 6. artikuluan xedatzen den helburua ez zen bete, alegia, familia mota eta egoera desberdinei tratu bidezkoagoa eskaintzea.
 - Bestalde, Planaren bi bertsioetan ez da ezarri (eta ez da neurri espezifikorik onartu) uztartzeko laguntzek duten genero-joera edota laguntza jasotzen duten pertsonen egoera sozioekonomikoko joera saihesteko edo arintzeko neurririk¹⁰⁴.

¹⁰⁰ Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak argitaratzen duen gizarteratzeko errenta minimoei buruzko txostenarekin bat, 2014an 18 urtetik beherako 37.378 pertsonak jaso zuten Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta, alegia, EAEko haur eta nerabeen % 10 inguruk. EAEn haurren pobrezia buruz egindako azterketek agerian uzten dute, 2012an, DSBek % 30 murriztu zuela seme-alabak zituzten familien pobrezia, eta % 69 murriztu zuela pobrezia helmena. Seme-alabarik gabeko familien artean, pobrezia % 45ean murriztu zen.

¹⁰¹ DSBEn zenbatekoak pixkanaka egiten du gora, familia-unitatearen hirugarren kidera arte. Hirugarren kideetik aurrera, zenbatekoak ez dira aldatzen, eta horrek bereziki egiten die kalte seme-alaba bat baino gehiago duten bi gurasoko familiei.

¹⁰² 36. neurriaren helburua zen EAerako berme-funts bakarra eratze arau-garapena egitea, familia-hausturako kasuetan elikagai-ordainketa eta ordainketa-betebeharra betetzen ez duten pertsonen auzi-mekanismo bat sortuko dela ziurtatuko duena.

¹⁰³ 2015ean, 39.000 adin txikikok baino gehiagok jaso zuten prestazio hori EAEn, eta 58,5 milioi euroko guztizko gastua egin zen (hori Eusko Jaurlaritzak seme-alaben jaiotze eta mantentzeagatik ematen dituen laguntzen gastua baino askoz handiagoa da).

¹⁰⁴ Lehen adierazi dugun moduan, adin txikikoak zaintzeko laguntzak eskatzen dituzten pertsonen % 92 inguru emakumeak dira. Ikuspegi sozioekonomikotik ere badaude zenbait joera: Eusko Jaurlaritzaren datuekin bat, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa eskatzen dituzten pertsonen % 10,5ek lehen mailako ikasketak dituzte (emakume landunen % 18 eta biztanleria okupatuaren % 20 dagokio sektore horri, Lan Merkatuaren

- Laguntzen diseinuari dagokionean, laguntza-sistemaren bi muga nagusiak aipatzea komeni da:
 - o Uztartzeko laguntzen kasuan, laguntzen zenbatekoa oso txikia da, emakumeen batez besteko ordainsarien % 15 baitira¹⁰⁵.
 - o Jaiotza edo adopzioengatiko laguntzen kasuan, nabarmentzekoa da EAEn ezarrita dagoen laguntza-sistemaren izaera puntuala. Eskema horren aurrean, beste herrialde batzuetako laguntza-sistemak ia haur guztiak estaltzen ditu (familiaren tamaina edozein izanik ere), eta askoz ere denbora luzeagoz gainera (oro har, adin-nagusitasunera arte)¹⁰⁶.

- Bestalde, bi laguntza horien estalduran hauteman diren zenbait urritasun aipatzea komeni da:
 - o Seme-alaben jaiotza eta mantentzeagatiko laguntzen kasuan, jaiotza guztien % 90 inguruan egin dira eskaerak (ehuneko urtearen arabera pixka bat aldatzen den arren), eta estaldura zertxobait baxuagoa da lehen jaiotzen kasuan. Jasotako informazioarekin bat, familiek laguntzak ez eskatzeko zenbait kausa egon daitezke: eskuratzeko baldintzaren bat ez betetzea, nagusiki, errolda-denbora minimoa ez izatea; egoera ekonomiko ona duten pertsonen interes- edo behar-falta; edo programa ez ezagutzea.
 - o Lehen adierazi dugun moduan, EAEko Familiei eta Familia-etxeei buruzko Inkestaren datuek agerian uzten dute mendeko ondorengoak dituzten bi gurasoko familien % 8,9k erabili dituela, uneren batean, lan-eszedentziengatiko laguntzak, eta mendeko ondorengoak dituzten familien % 4,1ek.

- Azkenik, egikaritutako bi neurriei dagokienez, aipatzekoa da distantzia handia dagoela hasiera batean, Plana onartu zenean, ezarri ziren aurrekontu-aurreikuspenen eta azkenik egin den gastuaren artean. Hain zuzen ere, hasierako Planean aurreikusten zen 2011-2015 aldian 307,5 milioi bideratuko zirela, guztira, seme-alaben jaiotza eta mantentzeagatiko laguntzetara. Baina bost urte hauetan egindako gastua 130 milioikoa izan da (hasiera batean aurreikusitakoa baino % 50etik behera). Familia- eta lan-bizitza uztartzeko laguntzei dagokienez, aldi osorako 205,8 milioi euroko gastua aurreikusten zen eta, guztira, 136 milioiko gastua egin da. Planak irauten zuen urteetan aurkako agertoki ekonomikoa eta aurrekontu-zailtasunak izan direnez, pentsa daiteke aurreikuspenak egokitu egin behar zirela aurrekontu-aukera errealelara moldatzeko, baina, hori hala izanda ere, egiazki azpimarragarria da aurreikusitako gastuaren eta azkenik egindako gastuaren artean izan den murrizketa handia.

- Hala eta guztiz ere, EAEn seme-alabak dituzten familiei zuzendutako laguntza-sistemak dituen elementu positiboak ere nabarmentzea komeni da. Horren harira, honako alderdi hauek azpimarra daitezke:
 - o Batetik, laguntzen izaera unibertsala, familia guztiei zuzentzen baitzaizkie, horien errenta edozein izanik ere. Gainera, unibertsaltasun zuzendua da, prestazioak familia guztiei

2013ko Erroldarekin bat). Era berean, pertsona erabiltzaileen % 30ek 25 langile baino gutxiago dituzten enpresetan lan egiten dute, eta enpresa mota horrek kontzentratzen du EAEko enpleguaren % 40 eta % 45 bitartean.

¹⁰⁵ Baimen eta eszedentziengatiko laguntzen zenbatekoa funtsezko gaia da, batez ere aitek halako baimenak erabiltzea sustatu nahi izanez gero. Lapuertak (2013) Espainiako zenbait autonomia-erkidegotan seme-alabak zaintzeko eszedentziengatik eskaintzen diren prestazioei buruz bildutako datuek ideia hori aldeztzen dute. Ikerketak agerian uzten duen arren EAEn aplikatzen den eszedentziengatiko prestazio-eredua positibotzat har daitekeela zenbait parametroren arabera (prestazioa errenta-mailarekiko loturarik ez duen eskubide unibertsal gisa konfiguratuta egotea, eskubidea lehen seme edo alabatik aplikatzea, eskubidearen banako titulartasuna, prestazioaren hilerokotasuna, laguntzaren malgutasuna eta abar), argi uzten du, orobat, diseinu hori ez dela egokia estaldura ekonomikoaren aldetik, Nafarroan edota Gaztela eta Leonen dutena baino askoz ere baxuagoa baita eta batez besteko soldataren % 20ra ez baita heltzen. Badirudi estaldura ekonomiko txiki hori izan daitekeela EAEn halako laguntzak gutxiago erabiltzearen arrazoia, eta emakumeek pizgarri ekonomikoen aurrean duten jokabide iragazkorrari egozten zaio hori, laguntzen diseinuko beste ezaugarri positibo batzuen aurrean dutenarekin konparatuta (hala nola konfigurazio unibertsala, banako titulartasuna, laguntzak kobratzeko aldi eta baldintzak edota laguntzen malgutasuna).» (Lapuerta, I. ¿Influyen las políticas autonómicas en la utilización de la excedencia por cuidado de hijos? *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 141. zk.-a, 2013.

¹⁰⁶ SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa (2013). *Familiei laguntzeko politikak Europar Batasunean eta EAEn*. Gasteiz, Ikuspegi@k. Gizarte Gaietarako Behatokiak, 2012, 71.

- bermatuta ere, behar handienak dituzten unitateei zuzendutako laguntzen zenbatekoa indartzen baitu.
- o Bestalde, laguntzek zuzenbide subjektiboko izaera dute, eta onuradun izan litezkeen familien eskubide gisa planteatzen dira, nahiz eta atzerapen eta zailtasunak egon diren aurrekontu-murrizketen ondorioz.
 - o Familiei laguntzeko euskal sistemaren elementu positibotzat aipatu behar da, halaber, erresistentzia-gaitasun handia duela, agertoki politikoa eta aurrekontu-egoera aurkakoa izanik ere, Estatuko autonomia-erkidego gehienetan gertatu denaren aurka, haietan desagertu edo nabarmen murriztu baitira laguntzak.
- Azkenik, gai-esparru honetan jasota dagoen eta gauzatu ez den neurri bakarri dagokionez (haurtzaroaren esparruan lan egiten duten hirugarren sektoreko entitateentzako diru-laguntzei buruzkoa), aipatzekoak dira lehen ere adierazi ditugun bi elementu: laguntza horietara bideratutako aurrekontu-saila murriztu egin dela, 2011z geroztik ia %45 murriztu baita. Eta zenbatekoak murriztea alde batera utzita ere, nabarmentzekoa da ez dela egin gizarte-, hezkuntza- eta familia-jarduerak sustatzeko politikarik, hirugarren sektoreko jardueren lana norabide zehatz baterantz orientatzeko eta sustatzeko, diru-laguntzak esleitzeko deialdietan irizpide zehatzak ezarri.

4.3. Gizarte-eragileen ikuspegia, III. Planaren gauzatze-mailari eta inpaktuari dagokionez

4.3.1. Sarrera

Kapitulu honetan, familia-politiken esparruan lan egiten duten pertsona eta erakundeek duten ikuspegia islatu nahi da, Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Plan honen egikaritzari eta inpaktuari dagokionean, eta ikuspegi zabalago batetik, EAEko egungo familia-politikek dituzten erronka nagusiei dagokienean. Gizarte-eragileen ikuspegia funtsezko bi tresnaren bidez jaso nahi izan da:

- Batetik, 2016ko irailean 10 galderako galdetegi labur bat bidali zitzaizen 40 pertsona eta erakunde ingururi, Planaren garapenari buruz eta Plan berria egituratzeko erabili beharreko ardatzei buruz duten balorazioa jasotzeko. Galdetegia bidali zitzaizen pertsona eta erakundeak Familiaren Euskal Kontseiluko zati izateagatik edota esparru honetan lan tekniko edo profesional garrantzitsua egiteagatik aukeratu ziren. Galdetegia bidali zitzaizen 39 pertsona eta erakundetik, 19k erantzun zuten.
- Bigarrenik, 2016ko urrian, bi eztabaida-talde antolatu ziren, eta alde zuzenetik galdetegia jaso zuten hogeit hamar pertsona inguruk parte hartu zuten.

Prozesu honetan honako pertsona eta erakunde hauek hartu dute parte, galdetegia betez eta / edo eztabaida-taldeetan parte hartuz:

- Amaia López Iriondo (CONFEBASK)
- Ana Alberdi Zubia (Emakunde)
- Arantza González Barquin (Euskadiko Gizarte Hezitzaileen Elkargoa)
- Arantza Remiro (Agintzari)
- Arabako Guraso Bananduen Elkarte
- Arabako Foru Aldundia
- Dorleta Goiburu (EUDEL)
- Eduardo Portilla Nájera (EzBerdin Zentroa)
- Elena Echeberria (Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza. Eusko Jaurjaritza)
- Elsa Fuente (UNICEF)
- Enrique Arranz (UPV-EHU. Garapenaren Psikologia Saila)
- Conchita García Jalón (Ikastegi Hitzartuetako ikasleen Guraso Elkarte Arabako Federazioa)
- Maite Bilbao (EAEko Emakume Alargunen Elkarte Federazioa)
- Igor Nabarro Brea (Elkartean)
- Jaime García (EDE Fundazioa)
- Jon Elordui (Lagungo Fundazioa)
- Juan Antonio Viña Varela (Bizkaiko Gizarte Langileen Elkargoa)
- Loli García (Gasteizko Udala)
- Natalia Diez (Hirukide)
- Oscar Seco (Bizkaiko Foru Aldundia)
- Pablo Jesús Larrabide (KONFEKOOP)
- Enrique Arranz (UPV-EHU. Opik Ikerketa Taldea)

Hurrengo puntuetan, partaidetza-prozesuan zehar kontsultatutako pertsonak adierazi dituzten ideia, argudio eta oharren laburpena jasotzen da, galdetegietan eta eztabaida-taldeetan jorratu ziren gaien arabera antolatuta. Kapitulu honen edukia interpretatzeko orduan, kontuan hartu behar dira honako alderdi hauek:

- Galdetegietako erantzunek eta eztabaida-taldean esparruan egindako balorazioek izaera anonimoa dute eta txostenean ez da identifikatzen jasotako iritziak adierazi dituzten pertsonen izena.
- Nolanahi ere, txostenean jasotzen diren balorazioak interpretatzeko orduan, gogoan izan behar da elkarrizketatutako pertsonak ez dituztela ordezkatzeko familia-politiken esparruan esku hartzen duten pertsona edo erakunde guztiak (kolektibo hori zehaztea, bestalde, oso zaila da). Alegia, elkarrizketatutako pertsonak aukeratu dira eragile esanguratsuak eta informatzaile kalifikatuak direlako.
- Beste alde batetik, aipatzekoa da prozesuan parte hartu duten pertsonen ikuspegi-aniztasuna (eta jorratutako gaien inguruan duten hausnarketa- eta informazio-maila biziki desberdina). Gainera, gogoan izan behar da ebaluazio-prozesu honetan parte hartzera gonbidatutako pertsona batzuk desadostasuna agertu dutela, «ez delako bidali planaren garapenaren segimendu-txostena, adierazitako iritziak orientatzeko eta arrazoitzeko (egindako ekintzak; egikaritzea-maila; aurrekontu-egikaritzaren konparazioa, hasierarekiko; hasierako gastu-aurreikuspena eta egindako gastua)¹⁰⁷».
- Eztabaidak eta galderak, funtsean, Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Planaren kudeaketan eta inpaktuan zentratu diren arren, kasu batzuetan zailagoa da eztabaida EAEko familia-politiken garapenari buruzko hausnarketa orokorrago batetik bereiztea, zehazkiago, Eusko Jaurlaritzaren Familia eta Komunitate Politikako Zuzendaritzak 2011 eta 2015 urte bitartean gauzatutako politikari buruzko hausnarketatik.
- Dena den, arretaz jardun behar da bildutako informaziotik ondorioak ateratzeko orduan. Izan ere, kapitulu honetan jasotzen dena zera da: txostenaren egileek pertsona horiek guztiek adierazitako iritziei buruz egiten duten interpretazioa (albeit berritze eta antolamendu objektiboenarekin). Beraz, kontuan hartu behar da alderdi batzuen inguruan nolabaiteko adostasun edo akordioa egon arren, adostasun hori ez dagokiela partaide guztiei eta, jakina, ezin dela hartu EAEn familia-politikei loturiko pertsona eta erakunde guztien iritzi nagusi edo orokor gisa. Alderantziz, txostenaren egileek hautatutako banako iritziak dira, nolahi ere, eragile horiek planteatutako gaien inguruan dituzten pertzepzio eta iritziak ulertzen laguntzen dutenak.
- Azkenik, atal honetan argudioen hautaketa bat jasotzea bera nolabaiteko iragazkia den arren (izan ere, planteatutako gaien buruz esanguratsuen edo adierazgarrientzat jo diren argudioak jaso dira), argi dago kapitulu honetan iritzi edo balorazio jakin batzuk jasotzeak ez duela esan nahi txostenaren egileak nahitaez horiekin ados daudunik.

4.3.2. Planaren diagnostiko-, diseinu- eta orientazio-prozesua

Erabili den galdetegiak, lehenik, Planaren diagnostiko-, diseinu- eta ezarpen-fasean zenbait irizpide metodologiko eta kontzeptual zein heinetaraino errespetatu diren planteatzen zuen. Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, 0 eta 5 bitarteko balorazioan, planaren diagnostiko eta diseinuari loturiko alderdiek jasotzen dute puntuazio altuena; ezarpenak, berriz, jasotzen du puntuazio baxuena. Baloratutako irizpideei dagokienez, jotzen da genero-ikuspegia txertatzea da hartu dela kontuan gehien. Eta (hiru faseetan eta, batez ere, ezarpen-fasean), gutxien kontuan hartu diren alderdiak dira familia-politiken inguruko begirada osoa sustatzea eta familia-politiken instituzio arteko izaera sustatzea.

71. taula. Familiei Laguntzeko III. Planaren diagnostiko-, diseinu- eta ezarpen-faseen balorazioa

	Batez besteko balorazioa		
	Diagnostikoa	Diseinua	Ezarpena
Familia-politikaren esparruko eragile esanguratsu guztien partaidetza	3,6	3,5	3,3
Familia-aniztasunaren ikuspegia txertatzea	3,5	3,8	3,3

¹⁰⁷ Ildo horretan, akats hori konpontze aldera, eztabaida-taldeak hasi aurretik Planeko neurrien egikaritze-mailaren aurkezpena egin zen.

71. taula. Familiei Laguntzeko III. Planaren diagnostiko-, diseinu- eta ezarpen-faseen balorazioa

	Batez besteko balorazioa		
	Genero-ikuspegiaren integrazioa	3,7	3,9
Familia-politiken inguruan begirada integrala sustatzea	3,4	3,3	3,0
Familia-politiken instituzio arteko izaera sustatzea	3,5	3,4	2,8

Halaber, galdetegiko galdera irekietan eta eztabaida-taldeetan zenbait gai planteatu dira (batzuetan interes-gai lehenetsi gisa) Planaren hasierako diseinuari loturik, 2013an garatutako berrorientazio-prozesuari buruz eta, ikuspegi zabalagoarekin, erakunde arteko plan batek izan behar duen izaerari buruz, EAEn eskumen-esparruan familia-politikak antolatu eta egituratu ahal izateko.

4.3.2.1. III. Planaren hasierako diseinuari eta erakunde arteko planen izaerari buruzko oharrak

Planaren hasierako diseinuari dagokionez, kontsultatutako pertsonen elementu positibotzat jo dute prestaketa-prozesuaren zeharkako eta partaidetzazko izaera, eragile ugariaren ikuspegia barne hartzea ahalbidetu duelako. Era berean, positibotzat jo da Planak erakunde arteko izaera argia izatea. Ildo horretan, diseinatutako planak zeharkako izaera izateak (nahiz eta beharbada jo zitekeen asmo handiegikoa zela, neurri asko aurreikusteagatik) esan nahi du begirada oso eta dimentsio anitzekoa egon dela, eta hori aurrerapen gisa baloratzen da, planteamendu sektorial edo mugatuagoen aurrean. Ikuspegi horretatik, premia kotzat jo dira familia-politiken erakunde arteko izaera eta familiei laguntzeko neurriak Enplegu eta Gizarte Politika Sailaz eta Familia eta Komunitate Politikako Zuzendaritzaz haratago zabaltzeko beharra, familia-politiken esparruan berrikuntza eta hobekuntza lortuko bada.

«Plan hau (hasierako bertsioan) Familiei Laguntzeko 13/2008 Legea onartu zenean jaio zen. Lege horrek familia-politika zeharkako politika gisa planteatzen du. Plana diseinatzeko gai garrantzitsuenetako bat izan zen hori, alegia, Eusko Jaurlaritzaren gainerako sailak eta beste erakunde batzuk ere inplikatzeko. Familia-politika zeharkako gai gisa bistaratzeko ahalegina egin zen. Egia da ikaragarri kosta zitzaigula beste sailek zer eskatzen genien ulertzea, alegia, neurriak marka edo diseina zitzaketela, eta horiek ezarri eta egikaritu zitzaketela.»

Baina beste pertsona batzuk, Planak hasiera batean zuzen zeharkako izaera alde batera utzita, adierazi dute, beren iritziz, dokumentuak zehaztasun eta sakontasun handiegia zituela, oso garrantzi-maila desberdineko 169 neurritik gora jasotzen baitzituen. Neurri horietako batzuk EAEn familia-politikak egituratzeko gaketat har zitezkeen arren, beste batzuk helmen murriztagoa edo sektoriala zuten, eta ikuspegi horretatik, Planari konplexutasuna eta dispertsioa ekartzen zizkieten. Ildo horretan, planteatzen da neurri gehiegi jasotzea ez dela egokia, eta arlo bati loturiko arazo guztiei aldi berean erantzuten saiatzeak ez diola laguntzen neurriak betetzeari edo Planaren eraginkortasunari, baizik eta, alderantziz, dispertsio kontzeptual eta operatiboa eragiten duela.

«Ikusten dudana emaitza [III. Planaren diseinuan] asmo handiegikoa eta luzeegia da. Izan ere, azken batez, 169 neurriak askotan lausotuta amaitzen dute, eta ez dira ahaleginak kontzentratzen ondo gauzatu eta ezarritako neurri gutxiagotan. Izan ere, hainbeste neurriekin, gainezka eginda amaitzen duzu eta ezer gutxi ezartzen da.»

«Beharbada politika gehiegi gauzatu nahi ditugu planean. (...) Izan ere, agian bi neurri ezartzea aski da, ezta? Baina neurri horiek egiazki transmitituz eta, ez dakit bada... Planen diseinuari dagokionez, esango nuke asmo gehiegi jartzen ditugula, eta ez naiz soilik aurrekontuei buruz ari.»

«Planek beti nahi dute gai askoz arduratu, eta ez gara konturatzen aldiak ziztu bizian pasatzen direla... eta gauza asko egin nahi ditugu eta gero haserretu egiten gara ikusten dugunean ez ditugula lortu nahi genituen emaitzak. Neurri kopurua askoz gehiago murriztu behar dugu eta, gainera, dagokien denbora-espaziora mugatu behar dira. Beste gauza bat da ondoren epe luzeagoko estrategiak ere izatea.»

«Nire ustez, plan honek bi arazo nagusi ditu: batetik, gauza gehiegi barne hartzea eta, bestetik, gobernantza. Plana kudeatzeari dagokion diseinu-arloa. Orduan, hortik abiatuta, planari erritmoa, bultzada eta sinesgarritasuna falta zaizkio, baita planeko zati garenon aldetik ere.»

«Diseinatu zen planak epe luzeko ikuspegia zuen. Eta uste dut familia-politikak etorkizuneko eta epe luzeko ikuspegia eskatzen dituela. Baina, jakina, hori goikoek sinetsi behar dute, bestela ezer gutxi egin baitezakegu hemen guk. Baina egia da legealdiak oso laburrak direla, eta lau urteko epea oso gutxi dela ekintza eta neurriak garatzeko. Orduan, beharbada, lehenetsi ziren 32 neurrien ordeztan, beharbada lautan kontzentratu beharko dugu. Baina epe luzeko ikuspegia ere beharrezkoa da, egiten duguna adabakiak jartzea izan ez dadin.»

Ohar horiek kontuan hartuta, zenbait pertsonak adierazi dute plan fokalizatuagoak egitea komeni dela, neurri espezifikoko batzuetara orientatuta, egiazki adostutako premiak lehenetsiz eta familia-politikak zer izan behar duen, eta zer izan behar ez duen, definizio komuna erabiliz. Ildo horretan, planteatzen da familia-politikek, osotasunean jorratzea eskatzen duen zeharkako politikak izaki, adostasun zabala eskatzen dutela, eta direla Plan batera edo Lege batera mugatu behar. Hain zuzen ere, akordio sozial eta politiko zabal, erreal eta irmoetan oinarritu behar dute (batez ere esparru politikoan, baina baita gizarte-eragileen artean eta, batez ere, lanaren eta enpresaren munduko eragileen artean ere).

«Nik zera pentsatzen nuen: EAEn, inoiz egin al dugu familia-politikarik? Izan ere, orain galdetzen badidazu familia-politikaren inguruan zerbait argirik ba al dugun, esango nizuke planak baditugula, baina familia-politika bera, ez dakit...».

«Nik uste dut herrialde honetan definitu egin behar dugula nolakoa nahi dugun izatea familia, edo pentsatu behar dugu nola antolatu nahi dugun. Horrek akordio sendoa izan behar du, legealdi batetik bestera alda ez dezaten. Izan ere, jakina, nik esan dezaket nire instituziotik lau ekintza hauek gauzatuko ditudala, gaitasun ekonomikoa dudalako. Baina guztiok horizonte berari begiratu behar diogu. Izan ere, bestela, batzen ez duten edota kontraesanean dauden ekintzak egiten egon daitezke. Hortxe dago zailtasuna; herrialde honetan zer familia-politika mota egin nahi dugun definitzean.»

Eztabaida honetan planak eta estrategiak bereizteko beharra planteatzen da, orobat helmen handiko estrategiak ezartzeko beharra, herrialde-hitzarmenen bidez adostuta, ondoren egoeraren araberako plan zehatzagoen bitartez gauzatu ahal izateko.

«Nik uste dut familiaren ildo estrategikoa, edo familia-testuinguru desberdinetako pertsonen esparrua, oso garrantzitsua dela eta iraupen luzeko ibilbidea eman behar zaiola. Adibidez, prebentzioaren harira, laneko segurtasun- eta osasun-plana gobernua hurrengo sei, zazpi edo zortzi urteetarako diseinatzen duen estrategia da. Baina ondoren, urtero egiten dira plan operatiboak edo kudeaketa-planak. (...) Beraz, nik uste dut zilegi dela esparru orokorragoa ezartzea eta, ondoren, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzarako plan operatiboak diseinatzea. Baina garrantzitsua iruditzen zait errealista izatea, posibilista; ikusi behar dugu nola diseina ditzakegun ondoren egiazki fruituak emango dituzten ekimenak. Izan ere, bestela, frustrazio eta gogo falta handia sortzen dira.»

«Nolabait, uste dut bi planorekin jardun behar dugula aldi berean (...). Batetik, horizonte estrategiko bat zehazten duen dokumentu bat izan behar dugu, familia-politiken liburu zuria izango dena, ezta? Eta ondoren denborak egokitu behar dira. Gero ikusiko dugu eragile bakoitzak, bere eskumen-, denbora- eta lurralde-esparruan, zer jarduketa egin ditzakeen. Hori eztabaida sendoarekin konbinatzen badugu, eragile bakoitzak zertan dabilen adierazteko moduan, informazioa banatzen laguntzen duen euskarri teknikoa izango dugu; eta horrela egiten dira eraikuntza kolektiboak.»

4.3.2.2. III. Plana berriro formulatzeko prozesua

2013an Plana berriro formulatzeko gauzatu zen prozesuari dagokionez, zenbait pertsonak jotzen dute hobekuntza nabarmena ekarri zuela, ahaleginak eta jarduera-ardatzak zehaztea ahalbidetu zuelako. Gainera, urte haietan aurrekontuetan egon ziren murrizketek eragin zuten lehenesteko beharra. Beste zenbait pertsonaren ustez, ordez, leheneste-jarduera horrek Plana edukiz hustu zuen eta desnaturalizatu egin zuen, lehenesten ziren neurriak hein handiagoan garatzea lortu gabe.

«Uste dut plana egoera ekonomikoarengatik birformulatu zela, batez ere (...) eta lau ardatz estrategiko horiek iruditzen zitzaizkigun lehenesteko egokienak. Baina, jakina, neurri horiek ere gauzatu ez direla ikusi dugunean... Ulertzen dut legegaldi zaila izan dela eta, egoera ekonomikoa dela medio, ekintza asko ezin izan direla gauzatu aurrekontu-arazoengatik; baina uste dut aurrekontu-sailik eskatzen ez zuten zenbait neurri zeudela, borondate politiko eta gizarte-elkarrizketakoak, eta uste dut ez dugula egin behar zen ahalegina egin.»

«Niri iruditzen zait birformulatzeko-prozesuaren planteamendua zera izan zela: zer egiteko gai gara une honetan? Eta birformulatzetik kanpo geratu ziren egiazki aurrera ateratzeko zitezen nahi genuen ekintza asko (...). Orduan, planaren diseinuaren ikuspegitik, uste dut une hartan izandako ilusioa oso positiboa dela, baina errealistak ere izan behar dugula. Planaren diseinuarekin batera, aurrekontu egonkorak izan behar ditugu, ondoren ekintzak bertan behera uztera behartzen ez dutenak.»

Bestalde, birformulatzeko-prozesuaren eragozpenak planteatzen dituzten pertsonak, hiru gai aipatzen dituzte. Batetik, aldaketa horrek zeharkako izaera galtzea ekarri zuen, eta alferrik galdu zen beste gizarte-eragile eta eragile instituzional batzuk diseinu-prozesuan zehar egindako ahalegina, eragile horiek jotzen baitzuten zeharkakotasuna zela, hain zuzen ere, jatorrizko Planaren aurrerapen edo bereizgarri nagusietako bat. Pertsona horientzako, onartutako irizpideak (Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ardurapeko neurriak bakarrik mantentzearena) jatorrizko Plana bereizten zuen dimentsio-aniztasuna eta zeharkakotasuna bertan behera uzten zuen.

«Iruditzen zait legealdi honetan galdu egin dugula zeharkakotasunean eta konpromiso horretan aurrera egiteko aukera. (...) Birformulatze-prozesuan, bazeuden martxan jartzen errazak ziren neurriak, eta bazeuden beste sail batzuen konpromiso txikiak, mantentzen errazak zirenak. Eta, hala ere, birformulatze-prozesuan esaten da helburuetako bat Zuzendaritzaren ardura zuzenekoak ziren neurriak aukeratzea zela. Halaxe zapuzten da planaren zeharkakotasuna, neurri horiek aukeratzu gero.»

Halaber, zenbait pertsonak uste dute aldaketa horiek Plana edukiz hustu eta ahuldu zutela, Familia Zuzendaritzaren ekintza-gaitasunaren arabera aukeraturako oso neurri multzo murriztu, asistematikoa eta inkoherentera mugatuta geratu zelako.

«Niri iruditzen zait birformulatze horretan ez zela III. Plana birformulatu. Alegia, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak bere rola zein zen formulatu zuela iruditzen zait. (...) Orduan, uste dut hausnarketa honako hau izan zela: zer egin dezake Familia Zuzendaritzak eta zein izango dira ildo estrategikoak legealdi berrian, une jakin batean, sartzen den taldearentzako? eta planaren edukia pixka bat mugatu nahi izan zuen, plana bera asko handiegikoa eta luzeegia baitzen. Bi irakurketa daude, beraz. Lehenak dio birformulatzea ez dagokiola planari, baizik eta Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza Planaren esparruan egiteko prest zegoenari. Bigarrenik, birformulatzeak ez zukeela eragin behar zenbait jarduketara garatzeko konpromisoa hartu zuten gainerako eragileek ekintzetan.»

Planaren birformulatzeari dagokionez, aipatzen da lehentasun berriak zehazteko nahiko prozedura nahiko opakua izan zela, hasierako plana ezaugarritu zuen partaidetza-izaerarekin kontraesanean.

Zenbait pertsonak, halaber, adierazten dute Plana berriro formulatzeak eta sinplifikatzeak ez zuela esan nahi Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaz kanpoko instituzio askok bertan behera utzi behar zituztenik hasiera batean onartu zuten Planean jasotzen ziren neurriak¹⁰⁸. Ildo horretan, paradoxikoa da instituzio askok zenbait neurri eta jarduketara mantendu egin dituztela, une batean Familia Planean zati zirenak, baina une batetik aurrera Planean jasota egoteari utzi ziotenak (hala ere, «familia-politika» izaera galdu gabe).

«Nik uste dut planaren ebaluazioan jasota ez dauden zenbait gauza egin direla, ez dituelako Familia Zuzendaritzak egin eta ez zirelako 2013ko birformulatzean jaso. (...) Orduan, jakina, ikuspegia ere oso murriztailea da planaren hasierako diseinuan planteatu zenarekiko eta beste instituzio asko familia-politiken esparruan egiten ari denarekiko.»

4.3.2.3. Familia-politiken mugak

Azkenik, galdetegietan eta eztabaida-taldeetan ere zenbait gai planteatu dira, horrelako Plan batek jorratu beharreko esparru espezifikoak zehaztearen zailtasunari buruz. Ildo horretan, zenbait pertsonak jotzen dute halako planak (eta familia-politikak) seme-alabak dituzten familiei eta, hortaz, haurrei orientatu behar zaizkiela. Beste pertsona batzuk, berriz, familia-politiken ideia zabalagoa dute, nahitaez ugaltzeari edo hazkuntzari loturik ez dauden familia-beharrak ere jorratu ahal izateko, eta (13/2008 Legeak berak egiten duen moduan) pertsona adindunak edo mendeak zaintzeari loturiko beharretara ere zabaltzeko. Halaber, familia-politikak familia guztiei edo zailtasun handiak dituzten familiei soilik zuzendu behar zaizkien eztabaida planteatzen da.

¹⁰⁸ Lehen adierazi dugun moduan, neurri horiek ez dira ebaluatu.

«Askotan, familia-arloa haurren arretarekin eta haurtzaro-politikekin erlazionatzen da. Ez dakit erredukzionismo hori egokia den, baina horixe da duguna. Ez dakit familia-politkarik dagoen edo, edozelan ere, haurtzaro-politkarik dagoen. Ez dakit gauza bera diren. Kontua da zenbait instituzioren kasuan, administrazio-unitate batek berak ez duela "familia" izena jasotzen. Batek berak ere ez. Horrek zaildu egiten du EAEn planak eta familia-politika aurrera ateratzeko aukera.»

«Halaber, jakin behar da familia-politika aipatzen dugunean familia guztiei buruz ari garen, orokorrean, edota zaurgarritasun- edo pobrezia-egoera handiagoan dauden familiei buruz ari garen bakarrik.» Nik uste dut bi gai horiek beti elkarrekin amaitzen dutela eta argitu behar direla. Horren harira, familiaren esparruan estrategia bat izateak ahalbidetu egingo duela Jaurlaritzaren kultura-politikatik, hezkuntza-politikatik eta abarretik inplementatutako ekintzak koherenteagoak izan daitezzen. (...) Nik uste dut familia-politika ezin dugula soilik mugatu Gizarte Zerbitzuen Zorro Dekretuko zerbitzuetan sar litezkeen familietara. Nik uste dut, familiaren esparruan beste gai asko izan daitezkeela familia-politiken xede, bereziki, jaiotzak sustatzea planteatzen badugu.

Planaren instituzio arteko izaerari edo dimentsio-aniztasunari buruzko hasierako eztabaidari dagokionez, fokalizazioaren gaiak barne hartzen du, halaber, horrelako Plan batek izan behar duen irekitasun-maila eta, batez ere, zein heinetan jaso behar dituen politika publikoetako beste sistema edo sektore batzuei dagozkien ekintzak (hala nola hezkuntza, osasuna, etxebizitza, diru-sarrerak bermatzea edo gizarte-zerbitzuak)¹⁰⁹. Ildo horretan, nahiko aurkakoak diren bi planteamendu planteatzen dira: batetik, familia-politikak gainerako gizarte-politiketarik bereiztea, neurri eta ekintzen «pakete» espezifikoko bat sortuz. Eta, bestetik, familia-politika politika sektorial jakin batzuetan (hala nola osasunean, etxebizitzan edo gizarte-zerbitzuetan) neurriak edo aldaketak sustatuz baino ezin direla gauzatu¹¹⁰.

«Batzuetan, entzun izan dut familia-politika handia DSBEren bidez egiten dugula jadanik. Horrek asko kezkatzen nau, DSBE oso biztanleria zehatzari zuzentzen baitzaio, eta aktibo bihurtu behar dugun eta ahaldundu behar dugun biztanleria ez da hori soilik, baizik eta gainerako guztia. (...) Badaude lan egiten duten eta seme-alabak dituzten pertsonak, eta ez dute seme-alabak zainduko dituen norbait; pertsona horiei ere arreta eman behar diegu. Ildo horretan, DSBEren bidez familia-politika egitea porrota iruditzen zait.»

«Nik uste dut zehaztu egin behar dela familia-politikari edo familiei laguntzeko politikari jorratzea dagokion arloa. Eta saihestu egin behar da berehala txertatzea jadanik garapena duten zenbait elementu, sistematizatzen eta antolatzen ari direnak, hala nola gizarte-zerbitzuen sistema. Ez dugu saiatu behar herrialde honetan dugun familia-politika eskasa eta apustu txikia zenbait sistemak duten garapenarekin ordezkatzeko (kasu honetan, gizarte-zerbitzuena), plangintza antolatu baten barruan, ongi pentsatutako berezko xedearen barruan eta, batez ere lehen mailako arretaren esparruan, oraindik hazten eta garatzen ari den beharraren barruan. Orduan, kontuz ibili behar dugu batzuetan, urritasun-egoeran egon daitezkeen zenbait politika jadanik gauzatzen ari diren beste politika batzuetan kokatzearekin. Hau da, familia-politiken jarduera-xede edo -esparru espezifikoak pixka bat mugatzea komeni da. Eragile askori eragiten dien zeharkako politika dela ulertuta ere, definitu behar da zein diren halako politiken lehentasun berezkoenak eta ahaztuenak, begirada sektorialagoa jaso beharko luketenak. Hau da, zergatik ez da egiten familiei laguntzeko politika sektorialik?»

¹⁰⁹ Gizarte-politiken sailkapenean, Fernando Fantovak zeharkako politikatzat hartzen ditu familia-politikak. Bere iritziz, halako politiken ezaugarri nagusia da ez dituztela sortzen zuzenean hartzaileei heltzen zaizkien egitura eta jarduera operatibo berezko edo espezifikoak, baizik eta politika sektorialen egitura operatibo eta jardueren bidez funtzionatzen dutela (osasuna, etxebizitza, diru bermatzea eta abar). Fantovaren hitzetan, «familia-politika zeharkako politika gisa ulertzen badugu, politika sektorialeak familia-ikuspegia barne hartzea, familiekiko lagunkoia izatea eta familiengan inpaktu positiboa izatea bilatzen dugu» (Fantova, F. *Diseño de políticas sociales*, Editorial CCS, 2014).

¹¹⁰ Zailtasunik gabe, azken hori da 3/2008 Legearen esparruan egindako aukera. Izan ere, zenbait neurri eta jarduketak espezifikoki ezartzeaz gainera (familientzako prestazioak eta abar), zenbait xedapen ezartzen dira (nahiz eta oso orokorrak) etxebizitzaren, hezkuntzaren, kulturaren, kirolaren, aisialdi eta denbora librearen eta abarren esparruetan.

«Nik hiru gai aipatuko ditut: uztartzea, etxebizitza eta hezkuntza. Eta etxebizitza-esparruak parte hartu behar du. Jaiotza-tasen ikuspegitik begiratuta. Izan ere, seme-alabak izan nahi dituzten gazteak baditugu, etxebizitzaren arazoa saihestu behar dugu.»

«Nik uste dut hezkuntzak eta osasun-arloak ere egon behar dutela. (...) Familiak sistema publikoak estaltzen ez dituen arazo ugari izaten ari direlako. Eta koordinaziorik ez dagoenez, azken batean, familiak inorena ez den lurrean geratzen dira.»

4.3.3. Planeko ildo estrategikoen eta neurrien garapen-mailaren garrantzia

4.3.3.1. Balorazio orokorra

Ebaluazio honetarako erabili den galdetegiko galdera batek planteatzen zuen zein garrantzi zuten azkenik planean txertatu ziren zenbait ildo estrategikok Plana diseinatu zen unean eta gaur egun. Bi kasuetan, elementu garrantzitsuena familia, lana eta bizitza pertsonala uztartzea izan zen, eta gurasotasun positiboa zen bigarren garrantzitsuena. Kasu honetan, garrantzi gutxiago ematen zitzaien diru-laguntzei eta belaunaldi arteko elkartasunaren gaiari.

72. taula. Planean jasotzen diren ildo estrategikoen garrantzi-mailaren balorazioa

		Puntuazioa
Garrantzia, Plana diseinatu zen unean	Lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea	4,1
	Gurasotasun positiboa	3,9
	Belaunaldi arteko elkartasuna	3,6
	Laguntza ekonomikoak	3,4
Gaur egungo garrantzia	Lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea	4,1
	Gurasotasun positiboa	4,1
	Belaunaldi arteko elkartasuna	3,6
	Laguntza ekonomikoak	3,7

Halaber, galdetutako pertsonen eskatu zitzaizen beren iritzia eman zezaten 2013an lehenetsitako jarduketek harrez gero izan duten garapen-mailari buruz. Galdetegiko erantzunen artean, nabarmendu beharreko lehen gaia da, neurriak baloratzeko orduan, ez-erantzuteen tasa altua egon zela (% 50eko erantzun-tasa izan duen galdetegi baten esparruan). Horrek agerian uzten du nolabaiteko ezagutza-falta dagoela, familia-politiken esparruan zuzenean esku hartzen duten eragileen artean ere, Planaren barruan gauzatu diren ekintzen helmenaren inguruan. Halaber, pentsa liteke horrek harremana duela Planaren segimendu-, difusio- eta informazio-faltarekin eta arlo honen egituratzeko eskasarekin; izan ere, hezkuntza-, osasun- edo gizarte-zerbitzuen kasuan ez bezala, ez dago zuzenean inplikaturako sektore profesional edo sozialik¹¹¹.

Nolanahi ere, balorazio altuena lortzen duten bi neurriak (hurrenez hurren, 3,4 eta 3,5 puntu, 5etik) dira, batetik, sektore publikoan lana eta familia uztartzeko garatutako neurriak eta, bestetik, gurasotasun positiboko programak sustatzera bideratutako neurriak. Bestalde, puntuazio baxuena jasotzen duten neurriak dira: esparru pribatuan lana eta familia uztartzeari loturiko neurriak, uztartzearen garrantziak gizarte-aintzatespena jasotzea sustatzeko neurriak eta belaunaldi arteko harremanak sustatzeko loturikoak.

¹¹¹ Ildo horretan, erakunde gutxiak egiten dute lan espezifikoki familiaren arloan eta instituzioetako sail gutxi zentratzen dira soilik arlo honetan. Politika hauetan tartean dauden eragileek lotutako beste esparru batzuetan lan egiten dute, hala nola haurtzaroren arloan, hezkuntzan, genero-berdintasunean, gizarte-zerbitzuetan eta abarretan. Eta, pentsa litekeen arren gauza bera gertatzen dela zeharkako politika guztien kasuan (lehen eman dugun definizioa kontuan hartuta), egia esan, beste zeharkako politikak -adibidez, genero-berdintasunari dagokionak- askoz ere gizarte- edo instituzio-egitura sendagoan oinarritzen dira.

73. taula. Neurrien garapen-mailaren balorazioa

		Batez besteko puntuazioa	Ez-erantzuteen tasa
Lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea	Enplegu-neurriak: sektore pribatua	2,7	% 25
	Enplegu-neurriak: sektore publikoa	3,4	% 20
	Uztartzen laguntzen duten neurri esperimentalak	2,9	% 25
	Gizarte-sentsibilizazioarako neurriak	2,8	% 25
	Gizarte-aintzatespenerako neurriak	2,7	% 21
Gurasotasun positiboa	Gurasotasun positiboa garatzea sustatzen duten programa eta zerbitzuak eskaintzea.	3,5	% 5
	Gurasoentzako prestakuntza, belaunaldi arteko arrail digitala saihesteko.	3,2	% 16
Belaunaldi arteko elkartasuna	aitona-amonek orokorrean familiari, eta zehazki bilobei, egiten dieten ekarpena balioestea.	2,9	% 16
Laguntza ekonomikoak	Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak eta jaiotzengatik laguntzak finkatzea eta jasangarri egitea	3,1	% 16
	Hirugarren sektoreko erakundeei diruz lagundutako proiektuetan, familien ongizaterako garrantzitsuak diren esparruetan eginbide onak eta gizarte-berrikuntza identifikatzea.	3,0	% 21

Hurrengo puntuetan, arlo bakoitzaren inguruan izandako aipamen eta eztabaidak laburbiltzen dira. Eztabaida-taldeen dinamika bera dela eta, jasotzen diren aipamenak Planaren balorazioari eta neurrien garapenari buruzkoak dira, baita, ikuspegi orokorrago batetik, familia-politikak eta neurriak gure ingurunean definitzeko moduari buruzkoak.

4.3.3.2. Gurasotasun positiboa

Planean jasotzen diren jarduera-ildoak kualitatiboki baloratzeko orduan, bereziki nabarmentzen da gurasotasun positiboko programak sustatzea. Aurreko orrietan egindako analisiarekin bat, jotzen da azken hori izan dela, diferentzia handiarekin, gehien garatu den arloa. Hala, Planaren ekarpen nagusiak zein izan diren galdetutakoan, honako hau adierazten da:

«Gurasotasun positiboaren lan-ildoak garatzea. Ez hainbeste garapen handia izan duelako, baizik eta familia-politiken agendan ez zegoen gaia izanagatik ere, ekintza irmoak garatu direlako ildo horretan dagokigun aldian. Gainera, ez dira soilik ekintzak egin; izan ere, gaia diskurtsoetan ere txertatu da.»

«Gurasotasun positiboaren kontzeptua zabaldu eta hasierako praktika batzuk ezarri izan da plan honen ekarpen nagusietarikoak.»

«Gurasotasun positiboaren arloan egindakoa, nahiz eta oraindik gutxi dela iruditu, jardunbide ona izan da arlo honetan, eta zabaldu egin beharko litzateke.»

Gainera, jotzen da gurasotasun positiboaren esparruko ekintzek potentzial handia dutela familien artean arrisku- eta babesgabetasun-egoerak prebenitzeko eta goiz hautemateko. Dena den, pertsona gehienek uste dute ekintza horiek ikuspegi unibertsalista izan beharko luketela, eta ez soilik arrisku-egoeran edo gizarte-desabantailan dauden familietan zentratu. Ildo horretan, nabarmentzen da gurasotasun positiboaren esparruan seme-alaben hazkuntzari eta hezkuntzari loturiko arazo ugari landu daitezkeela prebentzioaren ikuspegitik; eta horrexegatik rol garrantzitsua duela jotzen da, gizarte-inbertsioaren paradigma familia-politiketan aplikatzeko modu gisa.

«Nik faltan botatzen ditut osasun-sistemaren eta familia-politiken artean sor litezkeen sinergiak gurasotasun positiboari eta prebentzio-politikei dagokienean. Zati hori oso garrantzitsua iruditzen zait.»

«Nik uste dut hezkuntzaren mundutik eta aita-amen gurasotasunetik egoerak goiz hautematea ahalbidetzen duten arloak jorratu behar ditugula, eta hortik abiatuta familiekin landu.»

«Oro har, familientzako laguntza ekonomiko eta instrumentalak osatu egin behar dira, biztanleria espezifikoko (zenbait familia mota) eta biztanleria orokorrari zuzendutako guraso-gaikuntzako neurrien bidez.»

Gauzatutako ekintza motei dagokienez, zenbait pertsonak adierazi dute lan zuzen gehiago egin beharko litzatekeela familiekin. Dena den, Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak giza baliabideetan eta bideratu ditzakeen baliabide ekonomikoetan dituen mugak kontuan hartuta, jotzen da egokia dela familiekin lan egiten duten profesionalen artean sustapen-ekintzak eta prestakuntza inplementatzeko apustua. Bereziki baloratzen da, gainera, ikastaroak osasun-langileek irakastea. Izan ere, osasun-sisteman gurasotasun positiboko programak inplementatzeko potentzial handia hautematen da eta, aldi berean, ikusi da sektore horretako profesionalak ezagutza-falta handia dutela ikuspegi honek beren arloan izan ditzakeen aplikazioen inguruan.

«Ekintzak gehiago zentratu dira familiekin lan egiten duten profesionalak gaitzean, familiekin jarduera zuzenak inplementatzean baino. Sail eta ekintzen artean egon ohi den elkarrekiko ezagutza-falta horrekin ere, nabarmenduko nuke gurasotasun positiboko prestakuntzak oso harrera ona izan duela pediatren artean; izan ere, balorazio positiboa egin dute, nahiz eta sektore horrek hasiera batean zalantzak agertu. Hala, hori aurrerapena izan da, funtsezko familia-gaietan (hala nola, osasunean) inplikaturik dauden pertsonak koordinatzeari dagokienean.»

Nolanahi ere, pertsona askok jotzen dute, etorkizunean, aplikatu beharreko estrategia gurasotasun positiboko programak familiei zuzentzea izan beharko litzatekeela edota, gutxienez, ikuspegi hori familiei, haurrei eta nerabeei arreta ematen dieten zerbitzu eta sistema guztietan txertatzea. Gai honen inguruan, alderdi eztabaidagarriena programa hauek zer instituzioek aplikatu behar dituzten izan da. Zenbait pertsonak jotzen dute osasun- eta hezkuntza-sistemen inguruan egituratu behar direla, ia sarbide unibertsalekoak direlako eta familia guztiengana iristea ahalbidetzen dutelako. Beste pertsona batzuk, berriz, jotzen dute ikuspegiak zeharkakoagoa izan behar duela, eta ez hain sistematikoa. Hala, jotzen dute diskurtso teoriko sendoagoa sortu behar dela gurasotasun positiboaren inguruan, eta material eta baliabide pedagogikoak garatu behar direla, familiei arreta ematen dieten eta beren jarduera-esparruan ikuspegi hau txertatu nahi duten eragile eta instituzioei laguntzeko. Azkenik, zenbait pertsonak adierazi dute, nolanahi ere, mapatu eta sistematizatu egin behar direla foru aldundiak eta udalak esparru honetan garatzen ari diren jarduerak, ekintzak gainjartzea eragozteko eta baliabide publikoak modu eraginkorragoan erabiltzeko.

«Gure ustez, gurasotasun positiboa zuzenean familiekin lantzea falta da. Baina horretarako, funtsezko baldintza logistikoak izan behar ditugu alde aurretik, alegia, jakin behar dugu udalak eta foru aldundiak zer egiten ari diren familiekin lan egiten dutenean. Beraz, egiten ari diren lanaren ezagutza sakon eta kualitatiboa behar dugu, hain zuzen ere, lantzen ari ez diren arloak eta egiazki landu behar diren gaiak jorratzeko. Ez baita garai ona, baliabideak xahutzen ibiltzeko.»

«[Ekintzak garatu behar dira,] guraso-gaikuntzako / gurasotasun positiboko programen inguruko sentsibilizazio eta sustapenerako.»

«Nik uste dut esparru honetan eragile askok esku har dezaketela. Hala, diskurtsoak eta material pedagogikoak sortu behar dira, jarduketan garapena eskuragarria dela bermatu behar da eta begirada anizkoitzean zentratutako planteamendua egin behar da, eskumenen esparruan hainbeste sartu gabe beharbada.»

«Uste dut gurasotasun positiboko programak eta politikoak toki-mailan kokatzen baditugu, programa eta ekintzak berriro ere arrisku-egoeran dauden familiei soilik zuzentzeko arriskua dago, eta, hain zuzen ere, badago familia guztiak elkartzen dituen toki bat: osasun- eta hezkuntza-sistema. Eta badago aita eta ama guztiak dauden toki bat ere, enpresena, alegia.»

Laburbilduz, gurasotasun positiboak familiei laguntzeko etorkizuneko planean jasotako jardueresparruetako bat izan behar duela adostasun handia dago, eta zenbait eragilek adierazten dute jadanik abian jarritako ekintzei bultzada berria eman behar zaiela, uste baitute Planaren indarraldiaren amaiera aldera nolabaiteko atzerapena izan dutela. Bestalde, nabarmentzen da garrantzitsua dela ikuspegi hori esparru honetan jardun dezaketen gizarte-eragile eta instituzio guztien artean ezagutaraztea. Izan ere, zenbait pertsonak adierazten dute ikuspegi hori, momentuz, EAEn familia-politikekin lotura handia izan duten pertsonak eta prestakuntza jaso duten profesionalak bakarrik ezagutzen dutela.

«Gurasotasun positiboaren kontzeptua indarrez hasi zen, baina itzali egin da pixkanaka.»

«Hemen zenbait sail ihes egiten ari dira. Osakidetza, hezkuntza... gu gurasotasun positiboari buruz hitz egiten ari gara, agendetan dago, baina hemendik kanpo ez dakit inork ezagutzen duen. Nik uste dut arlo honetan asko geratzen dela egiteko.»

«Gurasotasun positiboa [txertatzea baloratzen dugu], baina uste dugu esparru horretan oraindik asko geratzen dela lantzeko.»

4.3.3.3. Prestazio ekonomikoak

Diru-laguntzen gaia eztabaidetan zehar askotariko ikuspegietatik planteatzen da. Kasu batzuetan, jotzen da diru-laguntzak hobetzea edo, gutxienez, mantentzea (ingurune ekonomiko eta aurrekontu-egoera zail batean) izan dela Plan honen ekarpen nagusietako bat:

«[Planaren] lorpen bat errentaren araberako laguntzak arautzea izan liteke, horiek mantendu ahal izan baitira, epe ertainean behintzat; laguntza horiek 13/2008 Legeari jarraikiz luzatzen badira, egiazko kudeaketa-arazoa sortuko da, errentaren araberako laguntzek dakarten konplexutasun handia dela eta.»

«[Planaren ekarpenen artean, nabarmentzekoa da] familiei zuzendutako diru-laguntzen zenbatekoa igotzea.»

«[Planaren ekarpenen artean, nabarmentzekoa da] seme-alaben jaiotzengatiko diru-laguntzen zenbatekoa mantentzea.»

«[Planaren ekarpenen artean, nabarmentzekoa da] laguntzen zenbatekoak esleitzeko familia-errenta estandarizatua inplementatzea, oso urrats garrantzitsu gisa.»

Ohar horiekin batera, EAEn ezarritako familia-prestazioen sistemaren zenbait muga ere adierazten dira, bai zenbatekoen ikuspegitik eta bai prestazio horien inguruan egon diren aurrekontu- eta kudeaketa-arazoen ikuspegitik, batez ere familia-unitateen errentari loturiko irizpideak txertatzen direnean. Gainera, zenbait pertsonak zalantzak jartzen dute administrazio-izapideak ebazten dituzten langileen kalifikazioa, jotzen baitute gehiegizkoa dela gauzatzen dituzten funtzio errealetarako. Ildo horretan, adierazten da ez dela langile osagarririk gaitu, edota funtzio horietara egokitutako kalifikazioa duten langilerik gaitu; izan ere, funtzio horiek administrazio-langileek gauzatu ditzaketan arren, teknikariek dihardute horietan lanean.

«Diru-laguntzak ez dira nahikoa izan zeuden beharrak estaltzeko».

«Jotzen dugu laguntza ekonomikoak ez direla nahikoa, ez familiei zuzentzen zaizkienak eta ez hirugarren sektoreko erakundeei zuzentzen zaizkienak».

«Izan ere, zuzendaritzak duen langile kopurua mugatua izaki eta, gainera, errenta-sistema estandarizatua erabilita, familia-politikako zuzendaritzako langileek egundoko baliabideak erabili behar ditu 2015etik datozen espediente horiek guztiak eta 2016an dekretu berrian babesa aurkitu duten espediente zaharrak kudeatzeko».

«Eta planteatu behar da laguntzak kudeatzen dituzten pertsonak goi-mailako tituludunak izan behar al duten. Beharbada Zuzendaritza hori berregituratu egin beharko litzateke...».

Gai horiekin batera, zenbait pertsonak adierazten dute familia-politikak ez direla prestazio ekonomikoetara mugatu behar, eta prestazio ekonomikoez haratago doan familiei laguntzeko sistema bat diseinatu behar dela, batez ere jaiotza-tasa sustatzearen ikuspegitik.

«Laguntzak oso ondo daude, familien arazo ekonomiko bat konpontzen laguntzen dutelako une jakin batean. Baina nik ehun euro baditut banatzeko, pentsatu beharko dut berehalako arazoak konpontzeko erabiliko al ditudan, edo diru hori egiazki lortu nahi dudan jaiotza-tasara eramango nauen zerbaitetan inbertituko al dudan. Hau da, diru hori ematea ez dago gaizki, baina kontua zera da: diru hori ematen badut, egin nahi dudan bidea ari al naiz egiten? Europako herrialde askok esan digute jadanik banakako laguntza ekonomikoek ez dituztela familien arazoak konpontzen eta pertsonen arreta bermatzen duten baliabideak eta hezkuntza-sistema ezarri behar direla. Hori da, hain zuzen ere, munduan zehar seme-alabak izatera animatzen zaituena. Nik badakit, politikoki, oso zaila dela hau kenduko duzula beste hura sustatzeko, lehendik dagoena kentzea beti delako zaila.»

«Jaiotza-tasen arazoa lehendik dugu, agerikoa da ikusi behar dugu nola konponduko dugun. Baina ez da gizarte-laguntzekin bakarrik konponduko, beste zerbait ere beharko da.»

«Familiei zuzendutako laguntza motak ekonomizistak eta epe laburrekoak dira. Familiek, berriz, mantenduko badira eta familia berriak sortuko badira, gizarte-ingurune egokiagoa behar dute (eskolaz kanpoko jarduerak, uztartzea, etxebizitza, gazteei zuzendutako laguntza eta abar). Ez dirua bakarrik, beste zerbait ere behar da.»

«Nik uste dut laguntza ekonomikoak funtzio bat betetzen ari direla, alegia, gurasotasunari, uztartzeari eta familiei zenbait modutan laguntzen dietela. Baina, era berean, uste dut ez direla hipotekatu behar familia-politiken esparruko gainerako ekintza guztiak.»

Azkenik, zenbait galdetegitan eta eztabaida taldetan laguntzen unibertsaltasunari eta baldintzei buruzko eztabaida planteatzen da, orobat familia jakin batzuei, errentaren arabera, laguntza ekonomikoak fokalizatzekeo beharrari buruzkoa.

«Guk argi dugu: familia-laguntza unibertsalak defendatzen ditugu, seme-alaba eta urteko 1.200 eurokoak, pertsona guztiei zuzenduta haien errenta edozein izanik ere, seme-alabek 18 urte bete arte».

«Esparru honetan, baloratu behar da zein heinetaraino izango garen pragmatikoak. Batetik, argi dugu, modu idealean, familia guztiei eman beharko litzaiekeela arreta. Baina, ekitatearen ikuspegitik, haurren pobrezia eta haurren arteko desparekotasuna murriztuko baditugu, beharbada errenta baxuagoko familietan fokalizatzea izan liteke interesgarria.»

«Ados nago, teorian, laguntzek familia guztiei zuzenduta egon behar dutela. Baina, aldi berean, zer egoera ekonomiko dugun ere ikusi behar dugu eta, beharbada, lehentasunak ezarri beharko ditugu. Modu idealean, seme-alabak dituzten familia guztien egoera konpentsatu beharko genuke, desgaitasuna duten pertsona guztien egoera konpentsatzen dugun bezalaxe, haien errenta edozein izanik ere. Baina dirua ez bada denerako iristen, norbaitek esan beharko du honaino posible da eta honaino ez. Eta eskubideen ikuspegitik planteatzen badugu, beharbada haur askoren eskubideak jadanik estalita daude gizarte honetan, jadanik errekonozitzen ditugun osasunerako, hezkuntzarako, etxebizitzarako eta abarrerako eskubideen bidez.»

[«Planaren mugen artean nabarmentzekoa da] laguntza ekonomikoak familia-errenten irizpidearen arabera murriztea, Arartekoak txosten bat atera zuen arren, halako laguntzak unibertsalak izan zitezten gomendatuz. Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan egiten den bezala, alegia.»

[«Planaren mugen artean nabarmentzekoa da] unibertsaltasunik ez egotea familiei zuzendutako laguntza ekonomikoetan eta pobrezia-egoera frogatu behar izatea, familiei laguntzeko diru-laguntzak eskatzeko orduan».

«Oro har, familientzako laguntza ekonomiko eta instrumentalak osatu egin behar dira, biztanleria espezifikoko (zenbait familia mota) eta biztanleria orokorrari zuzendutako guraso-gaikuntzako neurrien bidez»

Familia-prestazioak jasotzeko aipatu baldintzak dira eztabaiden zati bateko gai nagusia, eta nahiko desberdinak diren bi jarrera daude: batetik, planteatzen da laguntza ekonomikoek kontrapartida bati lotuta egon behar dutela, hezkuntza- edo prebentzio-jardueretan parte hartu bidez; hala, laguntzak jasotzea gurasotasun positiboko programetan parte hartzera baldintzatzen da, edota hezkuntza-izaerako bestelako jardueretan parte hartzera (eta, nolahi ere, edozein derrigortasunetik ihes egiten). Baina beste pertsona batzuk uste dute prestazio ekonomiko baldintzatuek oso arazo kontzeptual eta kudeaketa-arazo garrantzitsuak planteatzen dituztela, eta familia-laguntzak seme-alabak dituzten familia guztiei zuzendu behar zaizkiela (edozein ere, errentaren arabera modulatuta), hazkuntzak dakarren gastu itzela konpentsatzeko.

«Iruditzen zait kontraesana dela familia-politiken esparruan baldintza-irizpideak ezartzea, beste esparru batzuetan (hala nola diru-sarrerak bermatzeko prestazioetan) gero eta baldintza gutxiago ezartzera eta kontrapartidaren ideian hain oinarrituta ez dauden erduetara aurrera egiten saiatzen ari garenean».

«Familia-prestazioen unibertsaltasuna eta baldintzak aipatzen ditugunean, gogoan izan behar dugu, praktikan, ditugun laguntza garrantzitsuenak PFEZeko familia-kenkariak direla. Horiek baldintzarik gabe esleitzen dira eta hautakorrak dira, errenta baxuagoko familiek ez dituztelako eskuratzen. Gastu itzela dira eta familia asko ez dira jabe jasotzen dituztela ere.»

4.3.3.4. Lan- eta familia-bizitza bateragarri egitea.

Oro har, lan- eta familia-bizitza uztartzea sustatzeko neurriak dagokienez, eztabaidan parte hartu duten pertsonak egindako aurrerapenak onartzen dituzte, baina administrazio publikoetara mugatzen dira batez ere. Alegia, nabarmentzekoa da enpresa pribatuen esparruan uztartzeari arreta txikiagoa eskaini zaiola:

«[Planaren ekarpenen artean nabarmentzekoa da] Eusko Jaurlaritzaren administrazioan uztartzeko neurriak inplementatzea.»

«[Komeni da] enpresa pribatuaren esparruan uztartzeko neurriak hobetzea, inpaktu handiagoa izan dezaten.»

«[Planaren muga nagusien artean nabarmenduko nuke] ez dagoela gizarte-elkarrizketarik familia-bizitza eta bizitza pertsonala uztartzen esku hartzen duten eragileekin.»

Horri dagokionez, eztabaida-taldeetan planteatu da enpresek rol garrantzitsua dutela lana eta familia uztartzen. Ildo horretan, adierazten da enpresaren mundua askoz irmoago barne hartu behar dela esparru honetan, eta administrazioetatik askoz asmo handiagoko sustapen- eta akonpainamendu-formulak ezarri behar direla:

«Herrialde honetako enpresek oso rol garrantzitsua izan dute euskara edota emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen. Batzuetan, gai horiek berezkoz hartu dituzte, zati batean, diruz lagundu diegulako planak presta zituzten, teknikariak jarri ditugulako haien eskura, gai horietan inplikatzeko ziren enpresak lehenesten genituelako... Nik uste dut uztartzearen eta ordutegiak arrazionalizatzeko esparruan ere antzeko zerbait egin beharko genukeela.»

«Beharrezkoa da gizarte-etzabaidaren mahaian sindikatuak eta enpresariak elkartzea, uztartzeari buruz hitz egiteko. Bi elementu horiek ez dauden bitartean, uztartzeari buruz hartzen dugun edozein erabaki sektore publikoan gauzatuko da, eta hori ez da nahikoa.»

«Erantzukidetasuna ere garrantzitsua da. Eta ez naiz ari bikotearen barruko erantzukidetasunari buruz, baizik eta gizarte-erantzukidetasunari buruz. Hau da, enpresek ere galdetu behar dute ea posible den beste era batean lan egitea eta beste formula batzuk bilatzea.»

Enpresaren munduak uztartze-neurriak bultzatzen parte hartu behar duela planteatzeaz haratago, eztabaida-taldeetan parte hartu duten zenbait pertsonak enpresek berek funtzio horretan gauzatzeko dituzten arazoak planteatu dituzte.

«Kontuan hartu behar da EAEko enpresak oso txikiak direla. EAEn, enpresen ia %95ek hogeitaz langile baino gutxiago ditu. Beraz, enpresa txikien mailan, uztartzeko politika eta neurriak ulertzea ez da horren erraza. Hori dela eta, dibulgazio- eta sentsibilizazio-neurriak behar ditugu enpresa txiki eta ertainei zuzenduta, enpresa handiak aurreratuago baitaude eta ari baitira uztartzeko neurriak aplikatzen.»

«Lana eta familia uztartzea gizarte-gaia ere bada, hau da, ez da soilik enpresen esku dagoen zerbait. Enpresek ardura garrantzitsua dute, baina ezagutza eta aintzatespena behar dituzte egozten zaizkien funtzio horiek onartu ahal izateko. (...) Enpresek lankidetzaren eta laguntza behar dituzte, askotan enpresek zenbait neurri aplikatu edo inplementatu nahi baitituzte, baina ezagutza-falta handia dute. Izan ere, sarritan, legeak arautzen dira eta enpresak ezagutza-falta horretatik abiatuta hasi behar dute arautegi berriak ezartzen. Kasu horretan, ikusten dugu beharrezkoa dela administrazioak laguntzea, jardunbide egokiak sortuz, esperientziak ezagutaraziz eta pilotu-esperientziak eta metodologiak sortuko dituzten ikerketa-proiektuak finantzatuz, horietan guztietan oinarrituta enpresa gehiagotara helduko diren neurriak sustatu eta inplementatu ahal izateko.»

Nolanahi ere, kontsultatutako zenbait pertsonaren ustez, familia eta lana uztartzeak ez du jaso behar zuen arreta edo bultzada politikoa, Planaren indarraldiak iraun duen lau urteetan. Horrek arazoak sortu ditu eta estimulurik gabe utzi ditu uztartzea sustatzen duten orotariko neurriak:

[«Planaren muga nagusien artean nabarmenduko nituzke] atzerapenak eta aurrekontu-falta uztartzeko laguntzei dagokionez, horrek familia askok atzera egitea eragin baitu, neurriak eskatzeko orduan.»

[«Planaren muga nagusien artean nabarmenduko nuke] ez dela egin ekintza estrategikorik uztartzearen arloan. Ez da ekintza berririk garatu. Baina ez hori bakarrik, alegia, orain arte gauzatzen ziren zenbait neurri bertan behera utzi dira.»

«Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko ildoak, eta belaunaldi arteko elkartasunari buruzko ildoak, nabarmen urriak dira eta horietan aurrera egiteko aukera galdu da.»

Uztartzeari dagokionez, argien adierazten den gaietako bat da inpaktu eskasa (edo, batzuetan, inpaktu kaltegarria) izan dutela laguntza horiek genero-berdintasunaren ikuspegitik. Halaber, laguntzek joera sozioekonomikoa agertzen dute, batez ere errenta ertain edo altuak dituzten pertsonen erabiltzen dituztelako. Gainera, planteatzen da uztartzeko politikak prestazio ekonomikoez haratago joan behar dutela, eta beste alderdi batzuk jorratu behar dituztela, hala nola denboraren antolamendu soziala, lanaldiak eta abar.

«Uztartzeko politikak emakumeetan oinarrituta egoten jarraitzen dute. Horrek argi geratu behar du.»

«Uztartzeko politikak definitzeko orduan, funtsezkoa iruditzen zait baimenak transferiezinak izatea, eta aitek aitatasun-baimena erabiltzea nahitaezkoa izatea.»

«Uztartzeari dagokionez, iruditzen zait eszedentzia eta lanaldi-murrizketarako laguntza ekonomikoetan geratu garela; baina, jakina, zeinek hartzen ditu eszedentziak eta lanaldi-murrizketak? Zoritxarrez, hori egiteko aukera duten pertsonen; izan ere, pertsona askok ezin dute. Orduan, jakina, oso erredukzionista da pentsatzea uztartzearen alde zerbait egiten ari garela. Nik uste dut hori dela hurrengo legealdirako ardatz nagusietako bat.»

«Nik uste dut laneko baimenen gaia oso garrantzitsua dela. Eta Estatuko legedia izan arren, beharbada, ahalegin bat egin beharko litzateke Jaurlaritzak diruz lagundutako baimenen programa pilotuak martxan jartzeko.»

Uztartzeari dagokionez, eskola-ordutegiak eta 0 eta 3 urte bitarteko haurren arreta berriro planteatzeko beharra ere aipatzen dira, bai zerbitzu horiek familiei eragiten dieten kostuaren ikuspegitik eta bai halakoen eskuragarritasunaren eta irisgarritasunaren ikuspegitik. Halaber, horren harira, planteatzen da halako zerbitzuek gurasoen uztartze beharrei bakarrik erantzun diezaieten arriskua dagoela, haurren behar fisikoak, hezkuntza-beharrak edo behar afektiboak alde batera utzita.

[«Beharrezkoa iruditzen zait] lehen hezkuntzan lanaldi jarraituaren aukera lehenestea. Ulertezina da dekretu batek berariaz debekatzea. Neurri horrek gure ingurunean izan dituen balorazio positiboek pentsarazten dute beharbada aukera bat eman beharko litzaiokeela.»

«Halaber, o eta 3 urte bitarteko hezkuntzaren kostua murriztu behar da. Hau da, familiei lagundu egin behar zaie hezkuntza-maila horrek hain kostu handia izan ez dezan.»

«Nik uste dut uztartzea ez zaiela haurrei astuna egin behar. Adibidez, haurrak goizeko 7etan nolabaiteko aisia-jardueretan sar daitezten eskaerak daude, eskola-ordutegia hasi arte.»

4.3.3.5. Belaunaldi arteko elkartasuna

Belaunaldi arteko elkartasuna izan da Planean lehenetsitako beste gai bat, eta debate eta eztabaida-taldeetan planteatu da, nahiz eta eztabaida-taldeetan garrantzi txikiagoa izan duen. Ildo horretan, gai honen inguruko debateek zerikusi gehiago dute planen eta familia-politiken sorkuntzarekin berarekin, eta beste politika batzuekiko mugak zehazteko behararekin. Hartara, zailtasun gisa planteatzen da zaila dela adinduei orientatutako politikak (adindunak zaintzen emaileak eta hartzaileak izaki) familia-politikaren barruan kokatzea.

«Adindunekin zerikusia duen guztia gizarte-zerbitzuen esparruan kokatzen da, adindunek, aitona-amonek, familia-sistemen esparruan egiten duten ekarpena eta rola kontuan hartu gabe.»

«Plana haurrei zuzenduta dago. Izan ere, familiak dira mendeko pertsonak zaindu behar dituztenak ere eta hemen mendetasuna ez da aipatu ere egin. Familiaren kontzeptua belaunaldi arteko beheranzko transmisio gisa ari gara ulertzen.»

«Planeko neurririk ez da garatu esparru honetan, esaten zelako gizarte-zerbitzuen sistemaren barruan egon behar dutela; baina nik, egia esan, uste dut ez dela ondo ulertu. Izan ere, egia esan, gure asmoa aitona-amonek balio-transmisioan eta biloben zaintzan duten garrantzia azpimarratzea da.»

4.3.4. Familia-politiken eta Familia Planaren lidergoa, egitura, koordinazioa eta segimendua

Planean jasotako neurrien garapen espezifikoa buruzko hausnarketaz haratago, jasotako aipamen eta argudio ugari familia-politiken inguruko baldintza politiko eta instituzionaletan zentratzen dira, horiek Planaren bideragarritasunean eta garapenean berean eragiten duten heinean. Testuinguru horretan, hiru gai dira aipatzekoak: Planaren lidergo eta sustapen politikoa; maila instituzional desberdinek izan beharreko rola; eta, azkenik, plana ikuskatzeko, segimendua egiteko eta ebaluatzeke lana.

4.3.4.1. Lidergoa eta bultzada politikoa

Kontsultatutako zenbait pertsonarentzako, Planaren muga nagusietako bat eta, hain zuzen ere, neurri ugari garapen eskasa izateko arrazoietakoa bat da lidergo eta sustapen politiko txikia egon direla. Halaber, kasu honetan, zenbait pertsonak uste dute Planaren garapenari instituzio arteko edo dimentsio anitzeko izaera falta zaizkiola. Hala, familia-politiken gobernantza (gizarte-politiken beste esparru batzuetan gertatzen den moduan, hala nola gizarte-zerbitzuetan) zailtasuntzat jotzen da politika hauek behar bezala garatzeko orduan:

[«Planaren muga nagusien artean nabarmenduko nuke] instituzio arteko eta sail arteko ikuspegia falta dela, lidergoa falta delako familia-politiken esparruan.»

«Iruditzen zaigu familien beharrei erantzuteko ekintza integratuen garapena ez dela nahikoa izan.»

[«Planaren garapen-muga nagusien artean nabarmenduko nuke] ez dela aurrerapenik egon instituzio arteko koordinazioan, familiei laguntzeko politiken esparruan.»

[«Planaren garapen-muga nagusien artean nabarmenduko nuke] homogeneousun-falta dagoela, lurraldean inplementatzen diren familiei laguntzeko politika eta neurrietan. Familia-politika adostu egin behar da EAEko foru-aldundi eta udal guztien artean, biztanleria guztiak instituzioen babes eta laguntza bera jaso dezan.»

[«Planaren garapen-muga nagusien artean nabarmenduko nuke] gobernantzaren eta instituzio arteko koordinazioaren arazoa, familiei laguntzeko politiken esparruan. Kontuan hartu behar da honelako planetan instituzio arteko eta instituzio barneko koordinazioa oso garrantzitsua dela. Planen ahaleginak alferrikakoak dira, sail eta instituzioak ez badira lankidetzan aritzen, familiarena bezain zeharkakoa den gai batean. Hezkuntza, Osasun, Gizarte Ekintza... Sailen eta Foru Aldundien (Ogasunak, Gizarte Ekintza) laguntza eta koordinazioa gabe, ezinezkoa izango da plan berria garatzea. Hori dela eta, sail arteko eta instituzio arteko batzorde batek egon behar du, plana Eusko Jaurlaritzaren Familia Zuzendaritzatik bakarrik ez dadin zuzendu, baizik eta kide anitzeko organo baten bidez, beste sail eta instituzio batzuekin batera.»

«Nire ustez, plan honek bi arazo nagusi ditu: batetik, gauza gehiegi barne hartzea eta, bestetik, gobernantza. Plana kudeatzeari dagokion diseinu-arloa. Orduan, hortik abiatuta, planari erritmoa, bultzada eta sinesgarritasuna falta zaizkio, baita planeko zati garenon aldetik ere.»

Halaber, eztabaida honetan planteatu da Familia Legeak aurreikusten dituen ordezkartza-organismoek oso protagonismo txikia izan dutela, eta ematen duela azken urteetan ez dutela bete Legeak egozten dien rola, edo ez behintzat, behar bezala:

«Familiaren Euskal Kontseilua ez egotea baino ez zen falta. Hau da, eratu eta lau urte geroago Familiaren Euskal Kontseilurik ez badago... Dekretu batek esaten du kontseilu horrek urtean bi aldiz bildu behar duela eta ez du hori ere egin: lau urtetan ez dira sortu ez Familiaren Sail arteko Batzordea, ez Familiaren Instituzio arteko Batzordea. Eta bi batzorde horiek sortzea aurreikusita zegoen dekretuan (53/2012 Dekretua). Orduan, dekretu hori ez badugu betetzen, nola egingo dugu aurrera beste esparru batzuetan...»

«Familia Kontseiluak sortzeak lana ematen du, jakina; baina egiten zen lehen, eta urtean bi bilera egiten ziren Batzordea zegoenean. Orain Kontseilu hori arautzen duen dekretu bat dugu, eta urtean bi bilera egitetik bat egitera pasa da. Zer ari da gertatzen?»

«Niri iruditzen zait Familia Kontseilua edukiz erabat hustu dela.»

«Familiaren Euskal Kontseiluak informazio-espazio soil gisa jardun du, baina ez da egon kontsulta eta partaidetzarik Kontseilua osatzen duten gizarte-eragileen aldetik.»

«Egin diren ekintzen artean, faltan botatzen dut familia- eta komunitate-politikako Zuzendaritzatik marketin gehiago egitea. Uste dut gizartearekiko komunikazioa ez dela aski izan, gauzatu diren neurriak ez direlako ikusgai egin. Eta Familiaren Euskal Kontseiluari berari begira ere bai, egin den guztia jakinarazi behar baitzitzaion.»

4.3.4.2. Arkitektura instituzionala eta administrazio desberdinen funtzioak

Eztabaidetan, Eusko Jaurlaritzak berak edo administrazio beste sail batzuk familia-politikak, zeharkako politikak izaki, beren gain hartzeko ahalmen erreala ere aipatu da. Ildo horretan, arlo honek eta kudeatzeaz arduratzen den Zuzendaritzak baliabide gutxi eta pisu espezifiko txikia dituztela kontuan hartuta, zeharkakotasunaren ideiak indar guztia galtzen du euskal instituzioen mapan:

«Familia-politika zeharkako gaia da erabat eta, jakina, Sail eta Zuzendaritza baten mende egote hutsak ahaleginak are gehiago lermatzen ditu; izan ere, gainerako sailek kasu egin diezazuten lidergorik ez duzu (...). Bestela esanda, zalantzan jartzen dut zeharkakotasun hori lortuko dugunik, eta zer esanik ez instituzio arteko izaera.»

«Hau zeharkako planetan asko gertatzen da. Eskatzeko eta proposatzeko gaitasuna duzunean, baina exijitzeko ahalmenik ez duzunean, eskumenik ez duzun ekintzen arduradun bihurtzen zara eta proposatu eta limurtu baino ezin duzu egin, eta ihes egiten dizun plan batez arduratu, ezta? Neurriak sustatzeko eginkizunetik ihes egiten dizu. Orduan, ulergarria da, batzuetan, esan nahi izatea: begira, nire hamabi jarduketak egingo ditut eta gainerakoek egin dezatela nahi dutena.»

Halaber, familia-politiken gobernantzaren harira, Familia Politikako Zuzendaritzak dituen baliabideak aski al diren planteatzen da, orobat planteatzen da zer efektu izan duten familia-politiken gainean Zuzendaritzari zenbait arlo eta eginkizun gehigarri esleitzeak, Zuzendaritzaren giza baliabideak ia areagotu gabe.

«Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzari bultzada emango zitzaiola iragarri zen. Eta bultzada hori Aniztasuneko Zuzendaritza Familia Politikako Zuzendaritzarekin integratzea izan zen (...). Horrekin, teoriarik pentsa liteke Zuzendaritzaren aurrekontu-saila handitu egin dela baina, egia esan, lehen ez zituen eta funtzioak hartu ditu bere gain, eta orain horiei erantzun behar die.»

Hausnarketa horren oinarrian, familia-politikak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaz bestelako erkidego-administrazioeko esparru batean kokatzea planteatzen da (genero-berdintasunaren edo giza eskubideen kasuan bezala), zehazki, Lehendakariaren esparruan, halako politiken rol zentral eta zeharkakoa bistartzeko eta sustatzeko. Ildo horretan, Familiaren Euskal Institutua sortzea planteatzen da (beste institutu batzuen, hala nola Emakunderen, antzeko funtzio eta dimentsioekin). Horrek familia-politikei gaur egun ez dituzten baliabide pertsonalak eta ikusgaitasun instituzionala emango lizkieke.

Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzaren baliabideez eta sustapen politikoko gaitasunaz haratago, eztabaidetan, beste instituzio batzuk familia-politiken esparruan izan beharko luketen rola ere aipatzen da. Horren harira, batetik, planteatzen da Hezkuntza Sailak askoz rol proaktiboagoa izan behar duela (eta sentikortasun handiagoa agertu behar duela) zenbait gaitan, hala nola ordutegi edo hezkuntza-ekitate erreala bermatzeko zailtasunei dagokienean.

«Uste dut hezkuntzan ere asko egin daitekeela. Izan ere, Familiei Laguntzeko Legean garatu ez diren zerbitzuak aipatzen dira (...) Eta uste dut Hezkuntzak nahitaez hartu behar duela konpromisoa eta hor dagoen lege hori garatu behar duela.»

«Zenbat Haurreskola daude landa-ingurunean hutsik? Beharbada, landa-ingurunean, hobeto funtziona dezake Familia Habien moduko eredu batek. (...) Familia Habiak ez ziren desagerrarazi funtzionatzen ez zutelako, baizik eta hezkuntza-mundutik aurkaritza itzela agertu zelako, eta hezkuntzak irabazi zuelako. Izan ere, Familia Habiek funtzionatzen zuten. Eta esperientzia berritzaile hura desagertu egin da.»

Udalek eta Foru Aldundiek familia-politiken esparruan duten rolari buruzko interes-eztabaida ere sortu da. Azken horiei dagokienez, batetik, adierazten da familia-politika zabal, garesti eta, aldi berean, ezezagunenez arduratzen direla adierazten da (PFEZeko ondorengoengatikoko kenkariak); halaber, adierazten da horiek nabarmen hobetu litezkeela, eta zuzenean Eusko Jaurlaritzatik kudeatzen diren familia-prestazioetan integratu.

«Foru Aldundiak tartean hartuz laguntza ekonomikoen kudeaketan erabateko aldaketa egiteko aukera alferrik galdu da.»

Halaber, Foru Aldundien harira, adierazten da haiek direla kultura-, haurtzaro- eta gazteria-politikak garatzearen arduradunak, eta politika horiek familia-politiken zati garrantzitsutzat hartu beharko lirakeela.

Udalei dagokienez, posizioak aurkakoagoak direla ematen du. Batetik, zenbait pertsonak diote Udaletatik familia-politikak garatu behar direla, animazio soziokulturaleko eta, batez ere, hezkuntza- eta gizarte-izaerako erkidego-programak indartuz. Pertsona horiek planteatzen dute udalak direla herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak eta haiek garatu behar dituztela familia guztiei (haien errenta edozein izanik ere) zenbait ondasun kultural eta erlazional eskuratzea ahalbidetuko dieten programak, baliabideak eta ekipamenduak garatzea. Horri dagokionez, helburu horiekin, haurtzaroari eta familiari zuzendutako zerbitzu-katalogo zabala garatzearen aldeko apustua egin duten EAEko zenbait udalen esperientzia positiboa aipatu da. Ildo berean, Gizarte Zerbitzuen Zorro Dekretuan jasotzen den gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeko zerbitzuak izan dezakeen rola nabarmentzen da, batez ere ez bada irizpide murriztaileekin planteatzen (soilik gizarte-bazterkeria eta / edo babesgabetasun-arriskuan dauden pertsona eta familiei zuzenduz), eta dinamizazio soziokulturalari eta hezkuntza- eta gizarte-espazioak indartzeari irekiz gero.

Aitzitik, beste pertsona batzuk ohartarazten dute udalek baliabide gutxi dituztela eta nahasmendua eragin dezakeela tokiko gizarte-zerbitzuen helburu eta programak familia-politikekin nahasteak.

«Udalak orain gizarte-zerbitzuen euskal sistema eraikitzen eta arlo horretan ditugun ardurak gauzatzen ari gara. Ez dugu ia baliabide ekonomikorik ardura horiei erantzuna emateko eta ez zait egokia iruditzen guri ardura gehigarriak esleitu nahi izatea.»

Ikuspegi horretatik, planteatzen da osasun- eta hezkuntza-sistemak protagonismo handiagoa izan beharko luketela (adibidez, gurasotasun positiboko politiken kasuan), enpresaren munduarekin batera.

«Uste dut gurasotasun positiboko programak eta politikoak toki-mailan kokatzen baditugu, programa eta ekintzak berriro ere arrisku-egoeran dauden familiei soilik zuzentzeko arriskua dago, eta, hain zuzen ere, badago familia guztiak elkartzen dituen toki bat: osasun- eta hezkuntza-sistema. Eta badago aita eta ama guztiak dauden toki bat ere, enpresena, alegia.»

4.3.4.3. III. Planaren ebaluazioa, segimendua eta ikuskaritza

Azkenik, kontsultatutako zenbait pertsonak planteatu dute azken urteetan egindako segimendu- eta ikuskaritza-lanean mugak egon direla.

«Urte anitzeko plan estrategiko bat egiten duzunean, urteko kudeaketa-plana duzu, urteko segimendua egiten duzu, indizeak berrikusten dituzu eta abar. Hau da, ezin dugu laugarren plana amaitu zain egon jakiteko ea ona edo txarra izan den. Informazio batzuk gainerako gizarte-eragileei helaraztera behartu behar duzu zure burua. Ezin duzu zain egon eta esan penagarria izan dela eta ez dugula ezer egin.»

«Planaren ebaluazio- eta segimendu-sistematik ez dagoenez, inork ez du ardurarik hartzen segimendurik ez egitearen inguruan, eta ez zaizkio inori kontuak eskatzen.»

Halaber, aipatzen da garrantzitsua dela adierazle-sistema egoki eta zehatza izatea, helburu zehatzetan eta urteko izaerako plan operatiboetan zentratuta. Ikuspegi horretatik, Planaren hasieran ikerketak egitearen, adierazle sortak sortzearen, Familiaren Behatokia martxan jartzearen eta abarren apustua egin zen arren, kontsultatutako pertsona askok uste dute ikerketa-, analisi- eta ebaluazio-lan horrek guztiak behera egin zuela 2013an Plana berriro formulatu ostean, gurasotasun positiboaren arloaren kasuan izan ezik.

«Familiei laguntzeko instituzio arteko plan guztietan planen erdibideko ebaluazioa bereziki azpimarratzen zen arren, eta nahiz eta III. Planean ere ebaluazio espezifikoak barne hartzen ziren zenbait programari buruz eta adierazleak prestatu ziren haien segimendua egiteko, ez da ezertxo ere praktikan jarri.»

4.3.5. Planaren lorpen nagusiak eta Familiaren IV. Planerako oinarritzko orientazioak

Ebaluazio-fase hau amaitzeko, kontsultatutako eragileei galdetu zitzaizen ea, oro har, uste zuten Plana bete dela eta zein izan diren lorpen nagusiak eta muga argienak. Ikuspegi kuantitatibo batetik, ondorengo Taulan ikusten den moduan, iritzia adierazi duten 20 pertsona inguru ia zati berdinetan banatzen dira: 4 pertsonak uste dute Plana ez dela behar adina garatu; 5 pertsonak uste dute ez dela ez nahikoa eta ez eskasa; eta 6 pertsonak uste dute nahikoa dela. Beste lau pertsonak ez diote galdera horri erantzun.

74. taula. Planaren betetze-mailaren balorazioa

Planaren betetze-maila	N	%
Ez da inola ere nahikoa	0	0,0
Eskasa	4	21,1
Ez da nahikoa, ezta eskasa ere	5	26,3
Nahikoa da	6	31,6
Erabat nahikoa	0	0,0
Ez du erantzuten	4	21,1
Guztira	19	100

Planaren aurrerapen eta muga gehienak jadanik adierazi dira aurreko orrietan. Nolanahi ere, jarraian, ebaluatutako Planaren ekarpen eta muga nagusiei buruz galdetegian jaso diren erantzunetako batzuk adierazten dira.

Argi dirudi, galdetu zaien pertsona batzuentzako, Planaren lorpen nagusia laguntza-sistema mantentzea izan dela, aurrekontuetan murrizketak egin diren une batean, hau da, oinarrizko zorua mantendu dela, ekonomiaren eta aurrekontuen aldetik aurkakoa zen une batean.

[«Planaren lorpen nagusietako bat izan da] lehendik zeuden neurriak mantendu egin direla, krisi-egoera jasan dugun arren.»

Halaber, aurrerapen garrantzitsutzat jotzen dira sentsibilizazio sozialaren inguruan egindako hobekuntzak eta familia-politikak instituzioen agendan txertatzea, orobat familia mota eta errealitate berriak errekonozitzen aurrera egitea.

[«Planaren lorpen nagusietako bat] agenda sozial eta politikoan familia-politiken presentzia handitzea izan da.»

[«Planaren lorpen nagusietako bat] familiek gauzatzen duten funtzio sozial eta ekonomikoa balioestea izan da.»

[«Planaren lorpen nagusietako bat] familia moten aniztasuna hobeto onartzea izan da, eta familia horiek funtzio sozialak betetzen duten baliozkotasuna onartzea.»

[«Planaren lorpen nagusietako bat] familiek dituzten orotariko zaintza-beharrei erantzuten laguntzea izan da, Planaren aurreikusitako laguntza ekonomikoak kudeatzeari esker.»

[«Planaren lorpen nagusietako bat] tartean dauden instituzio eta estamentu guztiek familiei laguntzearen esparruan garatu behar dituzten funtzioak eta onartu behar dituzten ardurak beren gain hartzea izan da.»

Azkenik, lehen ere aipatu dugun bezala, EAEko familia-politiken agendan gurasotasun positiboa txertatzea ere Plan honen lorpen nagusietako bat izan dela jo da.

Alderdi negatiboak identifikatzeko orduan, eta orain arte adierazitakoarekin bat, kritika nagusia da asmo txikia eta lidergo falta egon direla helmen handiagoko familia-politika egituratuagoak sustatzeko orduan. Ildo horretan, kritikatzeko bertan behera utzi direla Europarekin bat egiteko helburua eta, praktikan, gizarte-inbertsioaren paradigmatari eskaini zaion arreta eskasa, kontuan hartuta, lehen esan dugun moduan, paradigma horrek familia-politikei garrantzi berritua ematen diela eta haien garrantzia nabarmentzea ahalbidetzen duela. Azken batez, oso helmen laburreko begiradak irauten duela kritikatzeko da, eta horrek EAEn egiazko familia-politika egitea eragozten duela.

«Nik uste dut, Europa mailan, Euskal Autonomia Erkidegoa nahiko parametro onargarrien barruan dagoela gizarte-politiken esparruan, oro har. Baina jaiotzak sustatzeko politiken edo haurtzaro eta familietan inbertitzeko politiken esparruan, berriz, beste herrialde batzuetatik oso oso urruti gaude. Ez dakit zergatik hemen aurrerapen handiak egiteko gai izan garen, Estatuko beste toki batzuekin konparatuta, eta maila eta estandar europarrak lortu ahal izan ditugun beste arlo batzuetan, baina ez arlo honetan.»

«Oso gutxi egin da aurrera familien gizarte-balioa sustatzen eta ezagutarazten, eta ez da familiak ahalduztea bultzatu.»

«[Plana garatzeko muga nagusien artean aipatuko nuke] ez dela ezarri bere dimentsio guztietan koherentea eta eraginkorra den familia-politikatik ezarri, osorik eta epe luzean.»

«[Plana garatzeko muga nagusien artean aipatuko nuke], familia-politika errealik ez dagoenez, neurri eta ekintzek izaera zatikatua dutela eta, batez ere, gizarte-babesera bideratuta daudela, familiei laguntzera baino. Gizarte-laguntzak daude, baina ez familiei laguntzeko neurriak.»

«[Plana garatzeko muga nagusien artean aipatuko nuke] epe laburreko eta zehaztasun estrategikorik gabeko neurriak ezartzea. Azkenik, planteamendu zabal eta irekiagoak egon arren, ekintza erreduktionistak ezartzen dira.»

«Ez da gizarte-inbertsioaren ikuspegiaren alde egin, nahiz eta, EAEn, jaiotza-tasen egoera egiazko arazoa den. Familientzako laguntzak familiari erlazionatutako kostuak konpentsatzeko ikuspegia baino ez dira.»

«Gizarte-inbertsioaren paradigma eta zeharkakotasuna galtzea, familia-politiken esparruan. Uste dut Familia Politiken Zuzendaritzak familia-politiken inbertsio-izaera eta zeharkakotasuna galdu dituela, hautatutako ekintzek berek agerian uzten duten bezala. Izan ere, hautaketa egiteko irizpideetako bat zuzendaritzaren edo sailaren gainerako zuzendaritzen eskumenekoak izatea izan zen. Eta, hala eta guztiz ere, ez dira 32 ekintza horiek ere gauzatu.»

«Pena handia ematen dit legealdi honetan familia-politikak oso gutxi garatu izanak. Lehendakariak familia arlorako estrategia bat aurkeztu zuen arren, ez dut ikusten legealdi honetan islatu denik.»

Nahiz eta mugetako batzuk ulertzekoak diren legealdi honetan egon diren baliabide-urritasuna eta aurrekontu-zailtasunak direla eta, zenbait pertsonak adierazten dute egindako ekintzetako askok ez zutela gastu ekonomiko handia eskatzen, borondate eta lidergo politikoa baizik, aurrera eramateko.

«Uste dut plana eskasia ekonomikoaren eta baliabide-faltaren ondorioz ezin izan dela garatu.»

«Ez da bakarrik diru kontua. Filosofia handiko kontua ere bada, batez ere uztartzearen arloan, ordutegiei dagokienez... borondate handia behar da, diru asko jarriagatik ere.»

«Jakina, gauza askotarako dirua behar da eta aurrekontu-saila eskatzen dute. Baina beste gauza batzuk koordinazio eta borondate politiko kontua dira.»

Azkenik, Plan berria taxutzeari begira, familia-politiken kontzeptua eta edukia behar bezala definitzeko beharraz gainera (adibidez, haurtzaro-politikei zein heinetan lotuta egon behar duten argituz), planteatzen den oinarritzko gaietako bat da aurreko familia-planetan gutxi edo azaletik bakarrik jorratzen ziren zenbait alderdi barne hartzea komeni dela. Besteak beste, jaiotza-tasa, gazteen emantzipazioa (familia berriak sortzea eta, zeharka, jaiotza-tasa sustatzea positiboa dela jotzen den heinean) eta haur-pobrezia nabarmentzen dira, azken gai horren kasuan, haurren pobrezia buruz ari garenean, seme-alabak dituzten familien pobrezia buruz ere ari baikara. Halaber, modu orokorragoan, asmo handiagoko familia-politikak taxutzearen alde egiten da, lidergo politiko irmoagoan oinarrituta.

Zehazkiago, Plan berria prestatzearen harira, honako ideia edo helburu nagusi hauek planteatzen dira:

«Asmo handiagoko familia-politika eraginkorrako ezartzea, ausardiaz aurre egiteko lana eta familia uztartzearen erronkari, politika horietara bideratutako aurrekontu publikoa handituz eta lan-kultura eta -ohiturak iraultzea eta malgutzea sustatuz.»

«EAEko gizarte-babeserako gastuak eta, bereziki, familiei laguntzeko modu desberdinetan inbertitzen den dirua, Europar Batasuneko gainerako herrialdeetako gastuarekin bat etor dadin lortu behar da.»

«Herrialde mailako hitzarmena behar da gizarte-eragile guztien artean (gobernuak, alderdiak, sindikatuak eta enpresak), egiazko Familia Politika oso eta instituzio artekoa gauzatzeko, irmoa eta denboran egonkorra izango dena, eta Europar Batasunean arlo horretan dauden eredu aurreratuenekin bat etorriko dena.»

«Lehen planoan jarri behar da herrialde honetan dugun arazo demografiko larria. Seme-alabak izan nahi dituzten bikoteei izan ditzaten aukera eman behar zaie.»

«Aitatasun-baimena luzatu egin behar da. Gaur egun ditugun laguntzen iraupen eta zenbatekoarekin, uztartzea ezinezkoa da. Eusko Jaurlaritzaren barruan, aurrerapenen bat egin da uztartzearen arloan, baina esparru pribatuan ama eta aita askok zailtasun handiak dituzte uztartzeko (aitona-amonak esplotatzea, adin txikikoek eskola-egun amaigabeak izatea, seme-alaben zaintza estali ahal izateko eskolaz kanpoko jarduerak neurritz gaindi erabiltzea...).»

«Gazteei loturiko jarduerak, batez ere emantzipazioari eta enpleguari buruzkoak.»

«Haurtzaroan buruko osasunari arreta emateko programa sistematiko eta doakoak, Haurren Hortzak Zaintzeko Programaren (PADI) antzekoak.»

«Emakumeen posizio sozial eta ekonomikoan aurrerapenak.»

«Jaiotza-tasek gora egitea.»

«Uztartzea.»

«Familiak eta familia-osaketa babestea. Egiazko familia-politika izatea.»

«Premiazko neurriak aplikatzea zerga-sistemaren arloan, familiek beren gain hartzen dituzten kostu ekonomikoak behar bezala baloratzeko.»

5. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Azken atal honetan txostenean zehar jaso diren elementu nagusietako batzuk biltzen dira, bai euskal familien behar eta arazoak definitzen dituzten testuinguruari dagokionez eta bai EAEn familiei laguntzeko zerbitzu eta prestazioetan egin den gastuari buruzko informazioari dagokionez, III. Planean jasotako neurrien egikaritzari dagokionez eta politika hauetan parte hartzen duten eragile nagusien balorazioari dagokionez. Egindako ebaluazioaren emaitza nagusiak laburbiltzeaz gainera, azken kapitulu honetan hausnarketa txiki bat egiten da, EAEn familia-politikak egituratzeko orduan eta, hala badagokio, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko instituzio arteko plan berri bat prestatzeko orduan kontuan hartu beharreko zenbait elementuri buruz.

Egindako ebaluazioko datu nagusiak laburbildu aurretik, edozelan ere, gogoeta egin behar da gai bati buruz: zaila da hasiera batean onartu eta hilabete gutxira berriro diseinatu zen Plan baten ebaluazioa egitea, bertan jasotako neurriak nabarmen mugatu zirenean. Ildo horretan, azpimarratzekoa da, batetik, ez dagoela tarteko ebaluaziorik eta ez dagoela neurrien egikaritzaren mailaren segimendu-sistematik. Hain zuzen ere, ebaluazio-prozesuaren zati handi bat egiazki gauzatu diren neurriei buruzko informazioa biltzean zentratu da¹¹². Ikuspegi horretatik, egindako ebaluazioak prozesuaren ebaluazio izaera du funtsean, izan ere, lanaren zati handiena zer neurri gauzatu diren eta nola egikaritu diren zehaztea izan da.

Bestalde, kontuan hartu behar da, ebaluazioa egiteko, Planean 2013ko birdefinizio-prozesuaren ondoren mantendu ziren neurriak bakarrik hartu zirela kontuan, eta ez direla ebaluazioan jaso jadanik Planean ez daudenak. Horrek ez du esan nahi neurri horien arduradunek zati batean behintzat ez dituztenik gauzatu Plana indarrean egon den aldian. Halaber, ez du esan nahi kontuan hartu diren neurriak izan direnik EAEko familiengan eragina izan duten neurri bakarrak, edo EAEko familiei laguntzeko neurritzat har litezkeen bakarrak.

Azkenik, nabarmentzekoa da (Plana berriro diseinatzeko prozesua bera dela eta), txostenean jasotzen diren datu eta hausnarketak III. Plan honetan jasotako neurrien egikaritzan zentratzeko ahalegina egin den arren, kasu askotan, analisiaren xedea Eusko Jaurlaritzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak egin duen kudeaketa izan dela.

¹¹² Lehen adierazi dugun moduan, eskuragarri dagoen informazioari esker, III. Planean jasotako neurrien nahiko deskribapen sistematiko eta objektiboa egin ahal izan den arren, praktikan ebaluazio hau egitea mugatzen duten elementuetako bat da Planak, indarrean jarri den aldian, ez duela segimendua egiteko adierazle erabilgarri eta kalitatezkoak izan. Hala, III. Planaren jatorrizko diseinuan adierazle banatuen sistema bat egitea jasotzen zen, familiei laguntzeko politiken inpaktua eta egokitasuna neurtzeko, orobat kalitatea eta hartzaileen satisfazio-maila neurtzeko. Baina neurri hori ez zen garatu eta, hori dela eta, ebaluazioa hau egiteko eskura dugun informazioa ez da osoa edota, kasu batzuetan, ez dugu inongo informaziorik.

5.1. Ondorio nagusiak

Ebaluazio-prozesuan honako elementu nagusi hauek nabarmendu dira:

a) Agertoki demografiko jakin bat, ugalkortasunak behera egin duelako, familia motak dibertsifikatu direlako eta gazteek emantzipatzeko zailtasunak dituztelako.

Logikoki, zentzu hertsian, Plan honen ebaluazioan ingurune soziodemografikoaren analisia egin behar ez den arren, funtsezkoa da euskal familien errealitatea zehazten duen ingurune sozial eta demografikoari buruz jaso diren datu garrantzitsuenetako batzuk aditzera ematea. Ildo horretan, jaiotzek eta haurtzaroaren pisuak euskal egitura demografikoan izan duten beherakadarekin batera, aipatzekoa da familia-sorkuntza eta lehen jaiotzako adina atzeratu egin direla eta emakumeko batez besteko seme-alaba kopurua murriztu dela. Nolanahi ere, ezin dira familia-sorkuntzako atzerapena edota euskal agertoki demografikoa aipatu, azaldu gabe gaur egun zailtasun handiak daudela gazteak emantzipatzeko eta gazteek bizitza autonomoko proiektuak eraikitzeko. Horri lotuta, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 2011n egindako txostenak ohartarazi zuen euskal biztanleak emantzipatzeko adina atzeratu egin zela. 1970ko hamarkadan euskal gazteek, batez bestez, 23 urte bete baino lehen uzten zuten familia-etxea. 2011n, berriz, batez besteko adina 29,9 urtekoa zen, eta 18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 43 baino ez zen bizi jatorrizko familia-etxetik kanpo. Txostenaren emaitzekin bat, Argi dago emantzipatzeko zailtasun horien funtsezko zati batek zerikusia duela bizitza independente bat izan dezakeen biztanleriaren zati bat eraginpean hartzen duten pobrezia eta prekaritateko arazoekin.

Gai horiekin batera, aipatzekoa da balore eta lehentasun sozialak aldatu egin direla familia sortzeari eta amatasun / aitasunari buruz, eta gero eta pertsona gehiagok borondatez erabakitzen dute ez dutela seme-alabarik izan nahi. Ildo horretan, iturri ugari iradokitzen duten arren azkenik edukitzen diren seme-alaben kopurua txikiagoa dela eduki nahi zen seme-alaba kopurua baino, egia da seme-alabak ez izateko aukerak gero eta gizarte-aintzatespen handiagoa duela.

Azkenik, familien osaketari dagokionez, aipatzekoa da familia-formen dibertsifikazioa ere, nahiz eta, edozein kasutan, ahaidetasun-erlazioak diren oraindik ere familia-unitateak sortzeko oinarria. Gainera, beren kargura mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien kopurua eta pisua hazi egin da (ikusi dugun moduan, familia horiek beste familiek baino hein handiagoan agertzen dituzte orotariko arazoak) eta, oraindik gutxiengoak diren arren, % 85ean egin dute gora 2001 eta 2015 bitartean.

b) Europar gero eta garrantzi handiagoa dute familia-politikek eta EAEko gizarte-politikek urritasunak dituzte, Europar Batasunekoekin alderatuz gero.

Bigarrenik, Europako familia-politiken inguruan egindako analisi laburrak bi ondorio interesgarri ateratzea ahalbidetzen du. Batetik, gure ingurune herrialde gehienetan familiei laguntzeko politikek hartu duten garrantzia aipatu behar da. (Err)eboluzio isiltzat hartu den horretan, familia-politikak zentraltasun berria lortzen ari dira gizarte-babeseko politiken esparruan. Aldaketa hori askotariko arazoientzat gertatu da, baina nabarmentzekoak dira honako hauek:

- Emakumeak lan-merkatuan sartzea eta Ongizate Estatua errealitate berri horretara moldatzeko beharra, genero-desberdintasunen inpaktua egiaztatetik abiatuta eta ikusita lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko zailtasunek familien ongizatean eta seme-alabak (edo seme-alaba gehiago) izateko prestutasunean duten inpaktua.

- Jaiotza-tasak erortzeak eta Europako gizartearen zahartze-prozesuak eragindako kezka.
- *Funtsezko urteen* paradigmak gero eta onarpen handiagoa izatea eta haurtzaroan goiz esku hartzearen aldeko apustua, gaur egun desberdintasun nagusiak giza kapitala pilatzearekin erlazionatzen direla eta, hein handi batean, desberdintasun horiek bizitzako lehen urteetako agertzen eta finkatzen direla kontuan hartuta.
- Haur-pobreziak gora egitea eta belaunaldi artean pobrezia eta desberdintasuna errepikatzeagatik gero eta kezka handiagoa, familiek beren seme-alabetan egin dezaketen inbertsioak (familiek beren ondorengoei oinordetzen dizkieten hezkuntza-kapitala, kapital kulturala, erlazonala eta ekonomikoa) iraganean baino garrantzi gehiago duen ingurune batean.

Elementu horien ondorioz, gizarte-politiken esparruan ikuspegi edo paradigma berria onartu da (nahiz eta kritikak ere jaso dituen): gizarte-inbertsioa. Hori paradigma hegemoniko bihurtu da, teoriarik behintzat, Europako instituzioetan gizarte-politiken esparruan. Paradigma berri horrek dakar, besteak beste, haurrei lotutako esku-hartze publikoa ulertzeko modu berri bat, haurren ongizatea eta garapen kognitibo eta emozional ahalik eta hobereana funtsezko faktoretzat hartzen dituen, epe luzera kohesioa lortze aldera. Ikuspegi horretatik, haurtzaroan inbertitzea, familiei laguntzeko politiken garapena, haurrentzako kalitatezko zainketa, eta, hedaduraz, haur-pobreziaren aurkako borroka dira gizarte-inbertsio deritzen ereduaren ardatz nagusiak.

Bestalde, familiei laguntzeko politiketara bideratutako gastu publikoari buruzko datuek agerian uzten dute (nahiz eta duela hamarkada bat baino gehiago gastu hori handitzen hasi zen) EAEn defizitak egoten jarraitzen duela Europako herrialde aurreratuenekin alderatuz gero, EAEko gastu publikoa batez bestez EB15ean egiten den gastuaren heren inguru baino ez baita. EAEn familia-arloan egiten den gastu publikoari buruzko datu esanguratsuenak honako hauek dira:

- Horren haritik, SEEPROS metodologiaren bidez jaso den moduan, familiengana eta seme-alabengana bideratzen duen gastua barne-produktu gordinaren % 0,22 zen 1995ean eta % 0,71, berriz, 2015ean; halaber, gizarte-babeserako gastua % 1,15 zen aldiaren hasieran, eta % 2,94 bukaeran. Guztira, administrazio publiko guztien artean 488,7 milioi euro gastatu ziren guztira EAEn 2015ean, familiei eta haurtzaroari zuzendutako zerbitzu eta prestazio ekonomikoetan.
- Nahiz eta aztertu den bi hamarkadako aldiaren balantze globala eginez gero, ikusten den familiei laguntzeko zerbitzuetan egin den gastua nabarmen handitu dela, azpimarratu behar da eboluzioa aldakorra izan dela aldi horretan zehar. Ildo horretan, hasiera batean zabalkuntza-etapa egon zen, 1997 eta 2009 bitartean, urte arteko gorakada handiekin aztertutako urte gehienetan. Ondorengo etapan, berriz, 2010 eta 2015 bitartean, hazkunde-erritmoak nabarmen egin zuen behera, eta beherakada jarraituak ere egon ziren 2012 eta 2013 urteetan.
- EAEko Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planaren indarraldian jartzen badugu arreta (2011-2015), ikus daiteke 2013 urteaz geroztik gastua murriztu egin zela familia / seme-alabako. Baina ez hori bakarrik, izan ere, gastu horrek EAEko BPGdarekiko zuen pisu erlatiboak ere behera egin zuen, alegia, administrazio publikoek arlo honetan egiten zuten ahalegina murriztu egin zen.
- Gainera, nabarmentzekoa da EAEn eta Europaren artean oraindik desberdintasun handiak egoten jarraitzen dutela. 2014an, EB-28k barne-produktu gordinaren % 2,4 bideratu zuen prestazio horietarako, Espainiako estatuak % 1,3 eta EAEk % 0,72. Egia da EAEn, 2000tik orain arte 2,7 bider handitu dela laguntza horietara bideratzen den barne-produktu gordinaren proportzioa, eta Europar Batasunean ia ez dutela aldaketarik egin. Beraz, barne-produktu gordinaren arabera gastuen arteko diferentzia murriztu egin dela, baina, hala eta guztiz, Europako Herrialdeekiko aldea oso handia da oraindik ere, ikuspegi horretatik. Ildo horretan, EB28ko batez bestekora iristeko, 2014ko gastua hirukoiztu baino gehiago egin beharko litzateke, eta ekitaldi horretan esleitutako 483 milioi euroren ordez 1.600 milioi euroko gastua egin beharko litzateke, eta, egungo egoera ekonomikoan, erronka hori ezinezkotzat jo daiteke. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da ahalegin hori ez dagokiela soilik EAEko toki-administrazioei eta erkidego-administrazioei, baizik eta baita administrazio zentralari ere, hori baita familiei laguntzeko politika askoren eskuduna.

c) Euskal familien beharrak eta arazoak, eta familiei laguntzeko neurrien balorazioa eta erabilera

Euskal familien arazo eta behar nagusiei dagokienez, txostenean jasotzen diren datuek (nahiz eta ezin diren hartu III. Plan honek euskal familien errealtatean izandako inpaktuaren adierazletzat) agerian uzten dute zein eboluzio izan duten familia-politikatik jorratutako (edo jorra litezkeen) gaietako batzuk. Ikuspegi horretatik, honako hauek dira datu esanguratsuenak:

- 2010az geroztik, arinki egin du gora lana eta adin txikiko seme-alabak zaintzea bateragarri egitea oso zaila dela adierazten duen biztanleria okupatuaren ehunekoa, nahiz eta nahiko egonkor mantendu den Plana abian jarri zen uneaz geroztik adin txikiko seme-alabak zaintzen emandako denborarekiko satisfazio-maila baxua dutela dioten biztanleria okupatuaren ehunekoa.
- 2010az geroztik, gora egin du laneguna edo -egutegia zaintza-beharretara egokitzeko zailtasunak dituztela adierazten dutenen ehunekoak, nahiz eta egia den gorakada 2010 eta 2011 bitartean gertatu zela, eta harrezkero ehunekoa nahiko antzeko mantendu dela. Halaber, 2012az geroztik, gora egin du amatasunak emakumeek lan-ibilbidea asko edo dezente oztopatzen duela uste dutenen ehunekoa.
- Seme-alabak izan dituzten eta lan egiten duten (edo lan egin duten) pertsonen (biztanleriaren % 55) % 40ak satisfazio-maila baxua edo oso baxua du kontziliazio-aukera pertsonalekin; ehuneko berak jotzen du amatasunak edo aitatasunak asko edo pixka bat murriztu zituela igoera profesionalerako aukerak; eta % 30ak uste du lana aurkitzeko aukerak murriztu zituela.
- Azken hiru urteetan, 30.000 pertsona inguruk eten dute beren lan-jarduera mendeko pertsonak zaintzari loturiko arazoengatik. Horietatik, ia 24.000 (hau da, % 83) emakumeak dira. Ehuneko hori biztanleriaren % 1,9ri bakarrik dagokion arren, mendeko seme-alabak dituzten guraso-familia nuklearretako emakumeen kasuan, % 6,9ra heltzen da (% 0,8 da familia mota bereko gizonen kasuan).
- Langabezia eta enplegu ezegonkorra dira, diferentzia handiarekin, euskal familien arazo nagusia, familien osaketa edozein izanik ere. Ondoren, osasunari loturiko gaiak aipatzen dira. Mendeko seme-alabak dituzten familia nuklearren kasuan, seme-alaben etorkizuna da bigarren arazoa eta, ondoren, langabezia aipatzen da. Guraso bakarreko familien kasuan, arazo ekonomikoak aipatzen dira bigarren postuan eta seme-alaben enplegua, hirugarren postuan. Pertsonen zaintza aipatzen da arazo nagusizat familien % 3,4tan. Ehuneko horrek % 4,2ra egiten du gora mendeko seme-alabak dituzten guraso-familia nuklearren kasuan.
- Euskal biztanleriaren % 30 seme-alabekin arazoren bat duten etxeetan bizi dira, eta % 21, arlo horretan arazo larriak dituzten etxeetan. Seme-alabekin erlazionatutako arazoen inpaktu handiena, jakina, seme-alabak dauden etxeetan hautematen da: mendeko seme-alabak dituzten guraso-familia nuklearren % 31k adierazten du seme-alabei loturiko arazo larriak dituztela, baita guraso bakarreko familien % 35ek ere. Seme-alabak nahi izan, eta baliabide ekonomikoak ez izateagatik eduki ez izatea arazo garrantzitsutzat jotzen duen biztanleriaren ehunekoa oso txikia da (% 0,8), eta guraso aurreko familien kasuan bakarrik eragiten dio ehuneko handiago bati (% 1,9). Beste datu-iturri batzuek adierazten dutenaren aurka, badirudi beste arazo batzuek, hala nola uztartzeari edo seme-alaben zaintzari loturikoek, ere ez dutela garrantzi handirik. EAEko Familiei eta Familia-etxeei buruzko Inkestako datuekin bat, seme-alabei buruzko arazo nagusia haien etorkizunaren ziurgabetasuna da, mendeko seme-alabak dituzten familien ia % 40ri eragiten baitio. Halaber, seme-alabek emantzipatzeko dituzten zailtasunak aipatzen dira.
- Krisia hasi denetik, pobrezia errearen tasek hein handiagoan egin dute gora seme-alabak dituzten familien kasuan (2008an % 3,3ko pobrezia errearen tasa izatetik, 2014an % 5,5ekoa izatera pasa dira), biztanleria orokorrearekin alderatuta. Bestalde, seme-alabarik ez duten bikoteen artean, pobrezia ez du ia gora egin eta askoz tasa baxuagoetan mantendu da (% 2,1). Gainera,

nabarmentzekoa da, pobrezia-egoerak gora egiteaz gainera, krisi-urteetan haurren arteko desberdintasunek ere gora egin dutela. Eusko Jaurlaritzaren Pobrezia eta Gizarte Ezberdintasunei buruzko Inkestako (PGEI) datuekin bat, 18 urtetik beherako biztanleen Gini indizea 25,6 izatetik 27,9 izatera pasa da 2008 eta 2014 bitartean. Nabarmengarriena, edonola ere, zera da, nahiz eta goi-mailako klaseko haurren distantzia handitu bada ere (10 pertzentila errentaren banaketan) eta erdi-mailako klasekoen artean (50 pertzentila), gehien-gehien handitu dena erdi- eta behe-mailako klaseko haurrak bereizten dituen izan da (10 pertzentila). Haur pobreen eta erdi-mailako klasekoen arteko tartea, krisiaren aurretik, handiagoa zen haur aberatsen eta erdi-mailako klasekoen artekoa baino, eta, gainera, krisian zehar neurri handiagoan handitu da. Azterketa asko agerian utzi duten moduan, *pobrezia pobretzeko* prozesua da, eta EAEko haurren artean ere gertatu da.

- Hiru urtetik beherako haurren % 45 haurrei arreta emateko zentroetara joaten da EAEn. Ehuneko hori % 22koa da urtebete ez duten haurren artean eta % 64koa, bi urte baino gehiago dituzten haurren kasuan. EAEko Familiei eta Familia-etxeei buruzko Inkestako datuek, bestalde, adierazten dute haurrei arreta emateko zentroetan plazarik ez egotea arazo dela EAEko 1.100 familia ingururantz, eta hori mendeko seme-alabak dituzten guraso-familien % 0,5 inguru dira. Nolanahi ere, joera sozioekonomiko argia mantentzen da, halako ikastegietan sartzeari dagokionez.
- Euskal biztanleek familia-politikei buruz duten pertzepzioari dagokionez, euskal biztanleen % 60k jotzen dute instituzioek jaiotza-tasa sustatzeko ardura dutela, eta ehuneko hori % 64ra igotzen da adin txikiko seme-alabak dituzten pertsonen kasuan. Biztanleriaren % 38k (gazteen % 42k) jotzen du gurasotasun-baimenaren zati bat behintzat aitak eta amak hartzea nahitaezkoa izan beharko lukeela. Azkenik, biztanleriaren % 83k (seme-alabak izateko adinean dauden pertsonen % 88k) uste du instituzioek gehiago egin beharko luketela lana eta familia uztartzen laguntzeko.
- Ezin da esan familientzako laguntzak asko ezagutzen direnik: seme-alabak dituzten familientzako laguntzak, adibidez, guraso izan aurreko bikote-unitateen % 40k, mendeko seme-alabak dituzten guraso-familien % 55ek eta mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien % 46k ezagutzen dituzte. Lan-eszedentziei buruzko laguntzak zertxobait gehiago ezagutzen dira (mendeko seme-alabak dituzten guraso-familien % 62k ezagutzen ditu). 12 urtetik beherako adin txikikoak zaintzeko lanaldia murriztea konpentsatzeko laguntzak ere gehiago ezagutzen dira, mendeko seme-alabak dituzten guraso-familien ia bi herenek ezagutzen baititu. Edozelan ere, laguntza horiek ezagutzen dituztenen artean, onarpen-maila altua da: inkesta egin zaien pertsonen % 95 eta % 100ek, neurriaren eta familia-profilaren arabera, uste dute beharrezkoak direla.
- Neurri horien erabilera-mailari dagokionez, mendeko seme-alabak dituzten familia nuklearren % 25ek dio erabili dituela, eta guraso bakarreko familien % 16ek. Laneko eszedentzien laguntzei dagokionez, % 8,9ek bakarrik erabili ditu (% 4,1ek, guraso bakarreko familien kasuan). Lanaldia murrizteko laguntzak mendeko seme-alabak dituzten guraso-familia nuklearren % 15ek erabili ditu, eta guraso bakarreko familien % 7,8k baino ez. Azkenik, erabiltzaileek laguntza hauei buruz egiten duten balorazioari dagokionez, bi egoera desberdinu behar dira: kontsultatutako pertsonen % 70ak baino gehiagok uste dute seme-alabako laguntzak ez direla nahikoa edo mugatuak direla. Baina, eszedentziak, lanaldi murrizketak eta zaintzaileak kontratatzea estaltzeko laguntzak mugatuak direla edo aski ez direla jotzen dutenen ehuneko % 30 ingurukoa da, eta zaintzaileak kontratatzeko laguntzen kasu zehatzean, % 12koa.
- Azkenik, hiru ohar aipatu behar dira gizarte-babeseko euskal sistemak seme-alabak dituzten familien pobrezia murrizteko orduan duen eraginkortasunari dagokionez: adindunen pobrezia-tasa % 93an edota mendeko adin txikikorik gabeko etxeetako pobrezia % 86 jaitsi arren, 16 urtetik beherako kasuan, pobrezia % 26 bakarrik murrizten da, eta mendeko adin txikikoak dituzten etxeen kasuan, berriz, % 34. Europarekin alderatuta, EAEn asko murriztu da biztanleria osoari dagokion pobrezia, baina oso gutxi haur eta nerabeena. Edozelan ere, nabarmentzekoa da diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemak rol garrantzitsua duela EAEn haurren pobrezia murrizten: DSBE, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria gabe, haurren pobrezia % 7tik % 15era igaroko zatekeen 2008 eta 2014 bitartean. Baina haurren pobrezia

bestelako eboluzioa izan du (% 4,1etik % 8,8ra igaro da), eta aztertutako urteetan, haurren pobrezia larriko tasak % 40 inguru murriztu dira.

d) Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Plana egikaritzea

Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planean jasotako neurriak egikaritzeari dagokionez (eta, zehazkiago, 2013an egin zen birformulazioko neurriei dagokionez), jarraian Plana azken batean egituratu zuten gai-arloetan jasotako neurrien egikaritze-maila laburbiltzen da.

Familia, lana eta bitzita pertsonala uztartzeari dagokionez:

- Lana eta familia uztartzeari loturik sektore pribatuan hartu diren zortzi neurrietatik, bost egikaritu dira (bat, partzialki), eta hiru ez dira gauzatu. Gauzatutako neurrien artean, nabarmentzekoa da 150.000 bisita inguru jaso dituen Concilia+ ataria sortzea eta mantentzea. Halaber, zenbait aurrerapen egin dira, formalak behintzat, enpresa pribatuetan ordutegiak malgutzea sustatzearen harira, enpresa eta sindikatuen arteko hitzartzeen bidez eta lan-esparruan ordutegiak malgutzeko ekimen pilotuak martxan jarritz. Edozein kasutan, pentsa litekeen arren programa horien bidez hobeto ezagutuko zatekeela enpresetan ordutegi malguagoak ezartzeko metodologia, ez dugu behar adina informaziorik esateko jarduketak hauek inpakturik izan al duten Planaren indarraldian erregistratutako hitzarmen kolektiboetan.
- Lana eta familia uztartzeari loturik sektore pribatuan hartu diren sei neurrietatik, bi egikaritu dira (bat, partzialki), eta lau ez dira gauzatu. Gauzatutako neurria administrazio publikoan telelan-ekimenak sustatzeari buruzkoa da. 0 eta 3 urte bitarteko ikasgelak sustatzeari dagokionez, plaza-eskaintza zertxobait handitu zen 2010 eta 2012 bitartean, eta ondoren egonkor mantendu da Haurreskolak Partzuergoak sustatutako plazen kopurua.
- Uztartzen laguntzeko diseinatutako hiru ekintza esperimentaletatik, aurrera egin da familia-arloko zaintzaileei zuzendutako profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko prozesuak ezagutarazten eta, zati batean, haurrak zaintzeko komunitate-sareak sustatzen (nahiz eta arlo horretan aurreikusitako proiektu nagusiak, Familia Habia zeritzenez, Jaurilaritzan barne eztabaida handia eragin zuten onartu zirenean, eta eten egin ziren 2013an).
- Lana eta familia uztartzeko ekintzak ezagutarazteari dagokionez, aurreikusitako lau ekintzak garatu dira.

Gurasotasun positiboa sustatzeari dagokionez, aurreikusitako hiru neurriak garatu dira. Hain zuzen ere, zenbait azterketa, jardunaldi profesional, prestakuntza-ikastaro, proiektu pilotu eta webgune garatu dira. Bestalde, ez da aurreikusitako ekintzetako bat bera ere gauzatu belaunaldi arteko elkartasunaren esparruan.

Laguntza ekonomikoen esparruan jasotako hiru neurrietako bi gauzatu dira: batetik, seme-alabak jaiotzeagatik eta mantentzeko laguntza ekonomikoak finkatzeko eta jasangarri egiteko neurriak; eta, bestetik, uztartzeko laguntzak. Baina ez zen gauzatu jardunbide egokiak aztertzeko neurria, Hirugarren Sektoreko erakundeak diruz lagunduta egindako proiektuen bidez.

Azkenik, ez da gauzatu, berariaz behintzat, Plana garatzeko eta koordinatzeko aurreikusitako zeharkako ekintzarik.

e) Neurriak egikaritzeari buruzko zenbait alderdi interesgarri

Aurreikusitako neurriak gauzatu diren ala ez alde batera utzita (izan ere, ikusi dugun moduan, horrek ez du beti eskaintzen neurri horien inpaktu errealarari buruzko informaziorik), nabarmentzekoak dira neurri horien diseinuari eta / edo egikaritzari buruzko ohar kualitatiboak.

Lehenik eta behin, uztartzeari loturiko neurriei dagokienean, honako gai hauek dira azpimarratzekoak:

- Batetik, nabarmentzekoa da Planean (bai hasierako bertsioan, bai bertsio «laburbilduan» eta bai azkenik gauzatu diren jardueretan) administrazio nagusiari eta, zehazkiago, Gizarte-segurantzari dagozkion jarduketak jasotzen direla, nahiz eta garrantzi handia duten amatasun- eta aitatasun-baimenei dagokienez. Plana sustatzen duten erakundeek ezin duten arren Gizarte Segurantzaren politiketan eragin, beharbada egokia izan zitekeen Estatuko politikak aldatzera edo horietan eragitera orientatutako neurriak jasotzea (edo ildo horretan aurreikusitako neurriak garatzea).
- Bestalde, lan-denborak antolatzeko irizpideen gainean esku-hartze eskasa egon da, batez ere enpresa pribatuaren esparruan.
- Planaren beste arlo batzuetan gertatzen den moduan (nahiz eta arlo honetan are agerikoagoa den), esan daiteke nolabaiteko desoreka dagoela denboraren ikuspegitik, neurri asko IX. legegaldian gauzatutako neurriei baitagozkie, hain zuzen ere. Izan ere, arlo honetan gauzatutako 11 neurrietatik gutxienez 8 legealdi hartan hasi ziren eta, horietatik, askok ez zuten aurrera jarraitu hurrengo legegaldian, edo jarraipen eskasa izan zuten. Denbora-desoreka hori gertatzeko arrazoia X. legegaldian izandako aurrekontu-egoera izan daiteke, aurreko legealdikoa baino murriztaileagoa izan baitzen, edota –eztabaida-taldeetan adierazitakoaren harira–, beharbada, ondorengo legegaldian familia-politiketan konpromiso politiko edo lidergo-gaitasun txikiagoa egon zelako.
- Praktikan, oso pisu txikia izan dute 0 eta 3 urte bitarteko haur-arretarekin erlazionatutako neurri guztiek eta, oro har, hezkuntza-sistemearekin erlazionatutako gaiak.
- Bestalde, agerikoa da ez dagoela neurri espezifikorik haurren zaintzako genero-berdintasunari eta gizon-emakumeen erantzukidetasunari buruz; halaber, arreta gutxi jasotzen du aitatasun- / amatasun-baimena transferitu ezin izateak.

Laburbilduz, esan daiteke (uztartzeko laguntza ekonomikoez haratago) Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakundearteko III. Planak aurrerapen gutxi ekarri dituela lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egitearen arloan. Horretarako bi arrazoi daude: lehenik, 2013an lehenetsi ziren neurriak asmo gutxikoak eta helmen txikikoak ziren, eta eztabaidagarria da lortu nahi zen helburua lortzeko balio zutenik. Bigarrenik, aurreikusitako neurri gehienak ez ziren gauzatu; ondorioz, jadanik asmo txikikoa zen planteamendua edukiz hustu zen, alderdi honi dagokionean behintzat. Hori guztia argi geratzen da, 2.3.2. atalean ikusi den moduan, EAEko familietan bizitza profesionala eta familia-bizitza uztartzeko aukeretan ez delako ia aurrerapenik egin.

Gurasotasun positiboko neurrien garapena nabarmen positiboagoa da. Planean jasotzen diren gurasotasun positiboko programei dagokienez, nabarmendu beharreko lehen elementua Eusko Jaurlaritzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzak bere gain hartu duen rol proaktibo eta lidergoa da. Ildo horretan, Zuzendaritzak esparru horretan dituen eskumenekin bat, halako programak garatzen laguntzearen eta sustatzearen aldeko apustua egin da, mota honetako programa eta orientazioak gauzatzeko beharrezkoa den ezagutza-oinarria sortzea ahalbidetu duten prestakuntza, ikerketa, sentsibilizazio eta jardunbide onen identifikazioaren bidez.

Arlo honetan egindako lanean azpimarratu beharreko beste alderdi positibo bat da, lehen ere adierazi dugun moduan, gurasotasun positiboko programak bat datozela lehen aipatu dugun gizarte-inbertsioaren paradigmarekin. Neurriek denboran duten antolamenduari dagokionez, lana eta familia uztartzea sustatzeko neurrien harira adierazi denaren aurka, gurasotasun positiboa sustatzeko neurriak Plana indarrean egon den urte guztietan garatu dira. Adierazitako alderdiez gainera, aipatzekoak dira Unibertsitateak eta EAEn haurtzaroaren eta familiaren esparruan lanean diharduten zenbait elkarteek Planaren barruan garatu dituzten gurasotasun positiboko proiektuak. Ikuspegi horretatik, onartutako neurrien zeharkakotasuna da Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzaren ikuspegiaren abantailetakoa bat, gurasotasun positiboa sustatzeko jarduerak garatzeari dagokionean. Baina urritasuntzat jo daiteke Planak Eusko Jaurlaritzaren bi saili bakarrik (batetik, Enplegu eta Gizarte Politiken Saila eta, bestetik, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila) egozteko neurri horiek egikaritzeko ardura. Ildo horretan, eta

plan berria diseinatzeko, interesgarria litzateke gurasotasun positiboko neurriak eta programak sustatzearen ardura Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuei ere egozte (zehazki Hezkuntza eta Osasun Sailei), baita Udalei eta Foru Aldundiei ere, haurtzaro, gazteria eta gizarte-zerbitzuak garatzeko eskumena baitute.

Diru-laguntzen ildo estrategikoari dagokionez, honako hau nabarmentzen da:

- Atentzioa ematen duen elementuetako bat da (bai hasierako Planean eta bai 2013an berriro formulatutako Planean) ez dela ia aipatzen Foru Aldundiek Pertsona Fisikoen Gaineko Zergaren esparruan ezartzen dituzten kenkariak. Horiek dira, lehen esan dugun moduan, EAEko hiru lurraldeetan seme-alabak izateak dakarren gastu itzela konpentsatzeko dagoen oinarritzko mekanismoetako bat.
- EAEn seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak planifikatzeko orduan, ez-aipatze garrantzitsutzat hartu behar da, Plana berriro formulatzean, ez zela helbururik ez ezarri haurren ongizatean eta, batez ere, zaugarritasun ekonomiko handiagoko egoera dauden haurren ongizatean inpaktu garrantzitsua duten hiru tresnaren inguruan. Hiru tresna horiek honako hauek dira: Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (lehen aipatu den moduan, erabakigarria da seme-alabak dituzten familien pobrezia murrizteko); elikagai-pentsioak aurreratzeko funtsa (gakoa da banantze-eta dibortzio-kasuetan, seme-alabek baliabide ekonomiko murriztak dituztenean, zaintza edozein gurasori esleituta ere); eta mendeko seme-alaben Gizarte Segurantzako estaldura, baliabide gutxiago duten familiak estaltzera bideratzen dena.
- Laguntza-programa bera egikaritzeari dagokionez, nabarmentzekoak dira Planaren indarraldian egon diren aurrekontu-zailtasunak. Izan ere, batetik, kalte handiak eragin zaizkie laguntza horiek eskuratu litzaketen pertsonen eta, bestetik, oztopoa izan dira EAEn familia-politikak herritar guztientzako eskubide efektibotzat finkatzeko orduan. Bestalde, Planaren bi bertsioetan ez da ezarri (eta ez da neurri espezifikorik onartu) uztartzeko laguntzek duten genero-joera edota laguntza jasotzen duten pertsonen egoera sozioekonomikoko joera saihesteko edo arintzeko neurriak.
- Laguntzen diseinuari dagokionez, bi muga nagusi aipatu behar dira: uztartzeko laguntzen kasuan, zenbatekoak txikiak direla; eta jaiotza edo adopzioengatiko laguntzetan, EAEn ezarritako sistemak izaera puntuala duela, Europako gainerako herrialde gehienetan laguntza horiek izaera iraunkor (oro har, adin-nagusitasunera arte) eta unibertsala izan arren. Gainera, bi laguntza horien estalduran hauteman diren zenbait urritasun aipatzea komeni da:
- Azkenik, egikaritutako bi neurriei dagokienez, aipatzekoa da distantzia handia dagoela hasiera batean, Plana onartu zenean, ezarri ziren aurrekontu-aurreikuspenen eta azkenik egin den gastuaren artean. Hain zuzen ere, hasierako Planean aurreikusten zen 2011-2015 aldian 307,5 milioi bideratuko zirela, guztira, seme-alaben jaiotza eta mantentzeagatiko laguntzetara. Baina bost urte hauetan egindako gastua 130 milioikoa izan da (hasiera batean aurreikusitakoa baino % 50etik behera). Familia- eta lan-bizitza uztartzeko laguntzei dagokienez, aldi osorako 205,8 milioi euroko gastua aurreikusten zen eta, guztira, 136 milioiko gastua egin da. Planak irauten zuen urteetan aurkako agertoki ekonomikoa eta aurrekontu-zailtasunak izan direnez, pentsa daiteke aurreikuspenak egokitu egin behar zirela aurrekontu-aukera errealek moldatzeko, baina, hori hala izanda ere, egiazki azpimarragarria da aurreikusitako gastuaren eta azkenik egindako gastuaren artean izan den murrizketa handia.
- Ohar horien aurrean, EAEn seme-alabak dituzten familiei zuzendutako laguntza-sistemak dituen elementu positiboak ere nabarmendu behar dira: batetik, laguntzek izaera unibertsala dutela, familia guztiei orientatuta, haien errenta edozein izanik ere. Gainera, unibertsaltasun zuzendua da, prestazioak familia guztiei bermatuta ere, behar handienak dituzten unitateei zuzendutako laguntzen zenbatekoa indartzen baitu. Bestalde, laguntzek zuzenbide subjektiboko izaera dute, eta onuradun izan litezkeen familien eskubide gisa planteatzen dira, nahiz eta atzerapen eta zailtasunak egon diren aurrekontu-murrizketen ondorioz. Familiei laguntzeko euskal sistemaren elementu positibotzat aipatu behar da, halaber, erresistentzia-gaitasun handia duela, agertoki

politikoa eta aurrekontu-egoera aurkakoa izanik ere, Estatuko autonomia-erkidego gehienetan gertatu denaren aurka, haietan desagertu edo nabarmen murriztu baitira laguntzak.

f) Familia-politikan parte hartzen duten gizarte-eragileen eta eragile instituzionalen ikuspegia

Gizarte- eta instituzio-eragileek Plan honen diseinu eta egikaritzari buruz duten pertzepzioari dagokionez, honako ondorio hauek nabarmen daitezke:

- Planaren hasierako diseinuari dagokionez, kontsultatutako pertsonak elementu positibotzat jo dute prestaketa-prozesuaren zeharkako eta partaidetzazko izaera, eragile ugariaren ikuspegia barne hartzea ahalbidetu duelako. Era berean, positibotzat jo da Planak erakunde arteko izaera argia izatea. Ildo horretan, diseinatutako planak zeharkako izaera izateak (nahiz eta beharbada jo zitekeen asmo handiegikoa zela, neurri asko aurreikusteagatik) esan nahi du begirada oso eta dimentsio anitzekoa egon dela, eta hori aurrerapen gisa baloratzen da, planteamendu sektorial edo mugatuagoen aurrean. Baina beste pertsona batzuk, Planak hasiera batean zuzen zeharkako izaera alde batera utzita, adierazi dute, beren iritziz, dokumentuak zehaztasun eta sakontasun handiegia zituela, oso garrantzi-maila desberdineko 160 neurritik gora jasotzen baitzituen. Neurri horietako batzuk EAEn familia-politikak egituratzeko gaketat har zitezkeen arren, beste batzuk helmen murriztagoa edo sektoriala zuten, eta ikuspegi horretatik, Planari konplexutasuna eta dispersioa ekartzen zizkioten. Ildo horretan, planteatzen da neurri gehiegi jasotzea ez dela egokia, eta arlo bati loturiko arazo guztiei aldi berean erantzuten saiatzeak ez diola laguntzen neurriak betetzeari edo Planaren eraginkortasunari, baizik eta, alderantziz, dispersio kontzeptual eta operatiboa eragiten duela.
- Ohar horiek kontuan hartuta, zenbait pertsonak adierazi dute plan fokalizatuagoak egitea komeni dela, neurri espezifiko batzuetara orientatuta, egiazki adostutako premiak lehenetsiz eta familia-politikak zer izan behar duen, eta zer izan behar ez duen, definizio komuna erabiliz. Ildo horretan, planteatzen da familia-politikek, osotasunean jorratzea eskatzen duen zeharkako politikak izaki, adostasun zabala eskatzen dutela, eta direla Plan batera edo Lege batera mugatu behar. Hain zuzen ere, akordio sozial eta politiko zabal, erreal eta irmoetan oinarritu behar dute (batez ere esparru politikoan, baina baita gizarte-eragileen artean eta, batez ere, lanaren eta enpresaren munduko eragileen artean ere).
- 2013an Plana berriro formulatzeko gauzatu zen prozesuari dagokionez, zenbait pertsonak jotzen dute hobekuntza nabarmena ekarri zuela, ahaleginak eta jarduera-ardatzak zehaztea ahalbidetu zuelako. Gainera, urte haietan aurrekontuetan egon ziren murrizketek eragin zuten lehenesteko beharra. Beste zenbait pertsonaren ustez, ordez, leheneste-jarduera horrek Plana edukiz hustu zuten eta desnaturalizatu egin zuten, lehenesten ziren neurriak hein handiagoan garatzea lortu gabe.
- Azkenik, galdetegietan eta eztabaida-taldeetan ere zenbait gai planteatu dira, horrelako Plan batek jorratu beharreko esparru espezifiko zehaztearen zailtasunari buruz. Ildo horretan, zenbait pertsonak jotzen dute halako planak (eta familia-politikak) seme-alabak dituzten familiei eta, hortaz, haurrei orientatu behar zaizkiela. Beste pertsona batzuk, berriz, familia-politiken ideia zabalagoa dute, nahitaez ugaltzeari edo hazkuntzari loturik ez dauden familia-beharrak ere jorratu ahal izateko, eta (13/2008 Legeak berak egiten duen moduan) pertsona adindunak edo mendekoak zaintzeari, familia barneko osaketa eta harreman-ereduei eta abarri loturiko beharretara ere zabaltzeko.
- Planean jasotzen diren jarduera-ildoak kualitatiboki baloratzeko orduan, bereziki nabarmentzen da gurasotasun positiboko programak sustatzea. Aurreko orrietan egindako analisiarekin bat, jotzen da azken hori izan dela, diferentzia handiarekin, gehien garatu den arloa. Gainera, jotzen da gurasotasun positiboaren esparruko ekintzek potentzial handia dutela familien artean arrisku- eta babesgabetasun-egoerak prebenitzeko eta goiz hautemateko. Dena den, pertsona gehienek uste dute ekintza horiek ikuspegi unibertsalista izan beharko luketela, eta ez soilik arrisku-egoeran edo gizarte-desabantailan dauden familietan zentratu. Laburbilduz, gurasotasun positiboak familiei

laguntzeko etorkizuneko planean jasotako jarduera-esparruetako bat izan behar duela adostasun handia dago, eta zenbait eragilek adierazten dute jadanik abian jarritako ekintzei bultzada berria eman behar zaiela, uste baitute Planaren indarraldiaren amaiera aldera nolabaiteko atzerapena izan dutela.

- Diru-laguntzei dagokienean, kasu batzuetan, jotzen da diru-laguntzak hobetzea edo, gutxienez, mantentzea (ingurune ekonomiko eta aurrekontu-egoera zail batean) izan dela Plan honen ekarpen nagusietako bat: Iritzi horiekin batera, EAEn ezarritako familia-prestazioen sistemaren zenbait muga ere adierazten dira, bai zenbatekoen ikuspegitik eta bai prestazio horien inguruan egon diren aurrekontu- eta kudeaketa-arazoan ikuspegitik, batez ere familia-unitateen errentari loturiko irizpideak txertatzen direnean.
- Oro har, lan- eta familia-bizitza uztartzea sustatzeko neurriei dagokienez, eztabaidan parte hartu duten pertsonak egindako aurrerapenak onartzen dituzte, baina administrazio publikoetara mugatzen dira batez ere. Alegia, nabarmentzekoa da enpresa pribatuen esparruan uztartzeari arreta txikiagoa eskaini zaiola: Nolanahi ere, kontsultatutako zenbait pertsonaren ustez, familia eta lana uztartzeak ez du jaso behar zuen arreta edo bultzada politikoa, Planaren indarraldiak iraun duen lau urteetan. Horrek arazoak sortu ditu eta estimulurik gabe utzi ditu uztartzea sustatzen duten neurriak:
- Familia-politikei loturiko arkitektura instituzionalari, gobernantzari eta lidergoari buruz ere asko hitz egin da eztabaida-taldeetan. Gai horren harira, kontsultatutako zenbait pertsonarentzako, Planaren muga nagusietako bat eta, hain zuzen ere, neurri ugari garapen eskasa izateko arrazoietakoa bat da lidergo eta sustapen politiko txikia egon direla. Halaber, eztabaida honetan planteatu da Familia Legeak aurreikusten dituen ordezkartza-organismoek oso protagonismo txikia izan dutela, eta ematen duela azken urteetan ez dutela bete Legeak egozten dien rola, edo ez behintzat, behar bezala:
- Eztabaidetan, Eusko Jaurlaritzak berak edo administrazioiko beste sail batzuk familia-politikak, zeharkako politikak izaki, beren gain hartzeko ahalmen erreala ere aipatu da. Ildo horretan, zenbait pertsonak uste dute, arlo honek eta kudeatzeaz arduratzen den Zuzendaritzak baliabide gutxi eta pisu espezifiko txikia dituztela kontuan hartuta, zeharkakotasunaren ideiak indar guztia galtzen dutela euskal instituzioen mapan: Hausnarketa horren oinarrian, familia-politikak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaz bestelako erkidego-administrazioiko esparru batean kokatzea planteatzen da (genero-berdintasunaren edo giza eskubideen kasuan bezala), zehazki, Lehendakaritzaren esparruan, halako politiken rol zentral eta zeharkakoa bistartzeko eta sustatzeko. Ildo horretan, Familiaren Euskal Institutua sortzea planteatzen da (beste institutu batzuen, hala nola Emakunderen, antzeko funtzio eta dimentsioekin). Horrek familia-politikei gaur egun ez dituzten baliabide pertsonalak eta ikusgaitasun instituzionala emango lizkieke.
- Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzaren baliabideez eta sustapen politikoko gaitasunaz haratago, eztabaidetan, beste instituzio batzuk familia-politiken esparruan izan beharko luketen rola ere aipatzen da. Horren harira, batetik, planteatzen da Hezkuntza Sailak askoz rol proaktiboagoa izan behar duela (eta sentikortasun handiagoa agertu behar duela) zenbait gaitan, hala nola ordutegiei edo hezkuntza-ekitate erreala bermatzeko zailtasunei dagokienean. Halaber, adierazi da Foru Aldundiek eta Udalek familia-politiken esparruan izan behar duten rolari buruz hausnartu behar dela.

Laburbilduz, argi dirudi, galdetu zaien pertsona batzuentzako, Planaren lorpen nagusia laguntza-sistema mantentzea izan dela, aurrekontuetan murrizketak egin diren une batean, hau da, oinarriko zorua mantendu dela, ekonomiaren eta aurrekontuen aldetik aurkakoa zen une batean. Halaber, aurrerapen garrantzitsutzat jotzen dira sentibilizazio sozialaren inguruan egindako hobekuntzak eta familia-politikak instituzioen agendan txertatzea, orobat familia mota eta errealitate berriak errekonozitzen aurrera egitea. Alderdi negatiboak identifikatzeko orduan, eta orain arte adierazitakoarekin bat, kritika nagusia da asmo txikia eta lidergo falta egon direla helmen handiagoko familia-politika egituratuagoak sustatzeko orduan. Ildo horretan, kritikatzan da bertan behera utzi direla Europarekin bat egiteko helburua eta, praktikan, gizarte-inbertsioaren paradigmari eskaini zaion arreta eskasa, kontuan hartuta, lehen esan dugun moduan,

paradigma horrek familia-politikei garrantzi berritua ematen diela eta haien garrantzia nabarmentzea ahalbidetzen duela. Azken batez, oso helmen laburreko begiradak irauten duela kritikatzan da, eta horrek EAEn egiazko familia-politika gitea eragozten duela.

Nahiz eta mugetako batzuk ulertzekoak diren legealdi honetan egon diren baliabide-urritasuna eta aurrekontu-zailtasunak direla eta, zenbait pertsonak adierazten dute egindako ekintzetako askok ez zutelako gastu ekonomiko handia eskatzen, borondate eta lidergo politikoa baizik, aurrera eramateko.

Azkenik, Plan berria taxutzeari begira, familia-politiken kontzeptua eta edukia behar bezala definitzeko beharraz gainera (adibidez, haurtzaro-politikei zein heinetan lotuta egon behar duten argituz), planteatzen den oinarritzko gaietako bat da aurreko familia-planetan gutxi edo azaletik bakarrik jorratzen ziren zenbait alderdi barne hartzea komeni dela. Besteak beste, jaiotza-tasa, gazteen emantzipazioa (familia berriak sortzea eta, zeharka, jaiotza-tasa sustatzea positibo dela jotzen den heinean) eta haur-pobrezia nabarmentzen dira, azken gai horren kasuan, haurren pobrezia buruz ari garenean, seme-alabak dituzten familien pobrezia buruz ere ari baikara.

5.2. Zenbait hausnarketa, EAEn familia-politikak berriro antolatzeari buruz

Ebaluazio honetan jaso diren datu eta iritziei esker, zenbait gai interesgarri azpimarra daitezke EAeko familia-politikak gauzatzeari eta, zehazkiago, Familiei Laguntzeko EAeko Plan berria diseinatzeari dagokionez. Jarraian planteatzen diren oharra ez dagozkie hainbeste Planaren eduki edo neurriei, baizik eta Planaren diseinu eta definizioari buruzko zenbait alderdiri.

- Horren harira, berrikusi beharreko gai bat familia-politiken definizioari berari dagokio, definizio horren mugak ez baitaude beti argi. Hain zuzen ere, hausnartu behar da gai jakin batzuk plan honetako zati izan behar duten ala ez eta, batez ere, zein heinetaraino egon behar duten familia-politikak haurtzaroarekin zuzenean lotuta, gizarte-inbertsioaren paradigmaren ildoan. Ildo horretan bertan, hausnartu behar da mendeko pertsonen arreta emateari eta belaunaldi arteko harremanak hobetzeari loturiko gaiek familia-plan bateko zati izan behar duten ala ez.
- Honelako plan bat formalizatzeko funtsezkoa den beste gaietako bat izan behar duen fokalizazio-maila eta sakontasuna da. Hala, plana ez lausotzeko, Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Plan honen esperientzia lagungarria izan daiteke; horrela, lehenetsitako eta behar bezala adostutako neurri gutxi dituen plana jotzen da egokiagotzat, plan oso zabal eta sakonak egin ordez, esanguratsuak edo adostuak ez diren neurri pila batekin. Izan ere, azken kasu horretan, kudeaketa are konplexuagoa da, Plan honen instituzio arteko eta dimentsio anitzeko izaera dela eta.
- Edozein kasutan, fokalizazioak ez du zalantzan jartzen (familia-politiken esparruan behintzat) zeharkako eta instituzio arteko izaera duten planak egiteko beharra, Eusko Jaurkitzearen Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza eta gainerako sailak barne hartuz, Osasun, Hezkuntza, Kultura eta Gizarte Zerbitzuen Sailak bereziki kontuan hartuta. Gainera, ezinbestekoa da Foru Aldundi eta Udalek familia-politikan duten rola berrikustea, batez ere Foru Aldundien kasuan, mendeko seme-alabengatiko prestazio ekonomikoak hornitzeari dagokionean eta, Udalen kasuan, ekipamendu eta zerbitzu soziokultural eta hezkuntza-ekipamenduen eskaintza zabala finkatzeari dagokionean.
- Honelako plan baten oinarrian egon behar duten eduki eta arloei buruz ere hausnartu behar da: III. Plan hau gai-arlo zehatz batzuetan zentratzea erabaki ordez, euskal familien behar eta arazoan analisia egin ostean, posible da euskal familien etorkizunerako biziki garrantzitsuak diren beste gai batzuk ere ikustea, hala nola gazteen emantzipazioa, hezkuntza-desberdintasunak, genero-berdintasuna, pobreziaaren belaunaldi arteko transmisioa edo gizarte-mugikortasunerako arazoak. Familien barne-funtzionamendu egokiari loturiko beste gai batzuk ere kontuan hartzekoak dira, hala nola rola esleitzea, atazak banatzea, krisi-kasuetan bitartekaritza eskaintzea edota gurasotasun positiboko programak sustatzea.

- Azkenik, honelako plan bat diseinatzeko, arreta lidergo politikoan ere jarri behar da, ezinbestekoa baita neurriak egikaritzeko (funtsezkoa, zeharkako izaera duten gizarte-politiketan), arlo horietako ezagutzak kudeatzeko eta neurrien egikaritzaren eta inpaktuaren segimendua egiteko sistema irmoa sortzeko eta mantentzeko.

-